

Euskara batuaren bigarren jaiotza-ri jarraipena emanez, bidezko eta beharrezko iruditu zait bertsio zentratuago bat ematea, gai txikiago eta eztabaidagarriago guztiak ezabatu eta arazo nagusietara bakarrik mugatuz. Azken batez, gai horietantxe baitakust euskararen norabidearen gako erabakiorra. Arazo nagusiok "ebidentzia" moduan aurkezten ditut, halakoxeak direla uste dudalako: ebidentziak. Ebidentzien aurrean, jarrera bakarra dago: onarpena ala ezezpena. Har ala utz. Bitarteko eztabaidak ez du onura handirik.

Ebidentzia ez da azaltzen, hain gutxi esplikatzen. Proposamen ebidenteak aurkeztu bakarrik egin daitezke. Era zorrotzago edo ez-zorrotzagoan, argiago edo ez-argiagoan, begi bistan jarri bakarrik. Batzuek burua biratuko dute, muzinka edo biraoka. Beste batzuek arreta jarriko dute, esanez: "Egia izan daiteke". Zernahi kuestionatzeko jenioa duenak galde lezake: "Zertan oinarritzen duk «ebidentzia» dioan hori?". Erantzuna simplea da: "Ebidentzia ez da oinarritzen. Bera da ondorioen oinarri". Ebidentzia guztiak ez dira, noski, berezkoak edo immediatoak. Euren arrazoi eta bila-kaerak behar izan dituzte, ebidentzia mailara iristeko. Saiakera honetan aurkezten diren zazpi ebidentziak maila horretara iritsizat jo daitezke.

entzia birjaiotzarako - Xabier Amuriza

EUSKARA

Zazpi ebidentzia birjaiotzarako



tel. 943 260 755
www.lanku.com



Xabier Amuriza




Xabier Amuriza

Xabier Amuriza 1941-5-3an jaio zen Bizkaiko Etxanon, gaur, Amorebieta-Etxano edo Zornotza berau. 1965ean abade eginik, Gizaburuagan eta Amoroton jardun zuen. Hiru espe-
txealditan, zazpi urte preso egina da. 1979ko udal hauteskundeetan, Herri Batasunako zer-
rendaburu izan zen Zornotzan, eta Gasteizko parlamentari eta Bizkaiko Batzar Nagusietako
juntakide. Militantzia politikoaz gainera, idazle,
kazetari, irakasle eta bertsolari bezala daroa
bizimodua. Egin eta Gara egunkarietako
zutabegile izan zen 22 urtean (*Semaforo
gorria*, *Arrano Beltza*). Azken lan-urteak Du-
rangaldeko Anboto astekarian egin zituen,
2006an jubilatuta arte. 1980an eta 1982an,
Euskal Herriko bertsolarien txapelkun izan
zen. Hainbat liburu idatzi du bertsolaritzaz: *Hiz-
tegi errimatua*, *Hitzaren kirol nazionala*, *Zu ere
bertsolari*, *Bizkaieraz bertsotan*, *Bizkaiko bertsogintza*
bildumako lau liburukiak, eta abar. Arlo literarioan,
itzulpenez gainera (Lukrezio, Tazito, Huxley...),
honakoak ditu, saiakera, bertso eta prosa: *Euskara
batuaren bigarren jaiotza*, *Laurehun herri*, *mila bertso
berri*, *Agur sagar beltzeran*, *Menditik mundura*,
Enaz banaz, *Herri eta irri*, *Hil ala bizi*, *Emea*,
Oromenderrieta, eta Joan ziren zikloko lehen hiru-
rak: *Dinosaurioak horizontean*, *Orain ezin naiz
hil* eta *Olatu bat kuartelen gainetik*. Diskoak:
Menditik mundura, *Herriko plazan*, *Anje Du-
halde Amurizaren kantari*, *Bizkaiko koplazaha-
rrak*, *Betibizi*, *Xalbador bat-bateko mirakulua*,
Lazkao Txiki bat-bateko sorgina. Aspaldiko ur-
teetan, Berrizko Andikoa auzoan bizi da, bere
emazte Arantza eta alaba Mirenegaz.

NA 782951

CP 860641

BIAA



Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarea
Red de Lectura Pública de Euskadi

Itzul ezazu liburu hau, jarritako azken data baino lehenago.
Devuelva este libro antes de la última fecha anotada.

9 a. dic. 2012

860641

EUSKARA



Bidebarrieta

Vida cotidiana

Euskal Herria euskalduntzea ez dago euskaldunon esku bakarrik.

Bai dago gure esku –eta geure bakarrik– hizkuntza lehiakor bat garatzea.

Horrek asko lagun dezake Euskal Herria euskalduntzen.

Berrikusle eta aholkulari:

Karlos Cid Abasolo

AURKIBIDEA

HITZAURREA	11
1. EBIDENTZIA. ESALDIEN LUZE-LABURRA	15
Adibideak	17
Laburrak	17
Ertainak	20
Luzeak	22
Azken adibidea.....	28
Irakurgaiak	33
2. EBIDENTZIA. PERPAUSAREN ORDENA	49
Adibideak.....	55
Irakurgaiak	58
3. EBIDENTZIA / 1.- ERLATIBOA	73
1) EZ-MURRIZGARRIA	74
2) MURRIZGARRIA:.....	75
1) Erlatibo ez-murrizgarria: zein, zeintzuk, zeinaren.....	77
2) Erlatibo ez-murrizgarria: zer, zera, zeraren...	82
3) Erlatibo ez-murrizgarria: non, nondik...	83
4) Erlatibo murrizgarri pertsonala edo gauzazkoa.....	85
5) Erlatibo murrizgarri tokizkoa	92
<i>Han, bertan, han berean</i>	93
6) Erlatibo murrizgarriaren adierazle gabeko kasuak.....	94
7) Aposiziozko erlatiboan sortzen diren konkordantzia bitxiak	99
Irakurgaiak	104
3. EBIDENTZIA / 2.- SINTAXI OSOA	115
1) Ezen: izen baten menpeko perpausak	116
Beste batzuk	125

I) Korrelatiboak	126
<i>Nola</i>	126
<i>Zenbat, hainbat, -ago...</i>	131
II) Graduatzailleak.....	132
Berdinezkoak	132
Goranzkoak.....	132
Bainoago	134
Beheranzkoak	136
III) Kontsekutiboak.....	137
IV) Kausalak	140
V) Atzizki ezohiko bat	143
VI) Lotsaz etzekuen	143
VII) Bailuen, bailiren	145
VIII) Atributua artikulua gabe	146
IX) -An + go	147
X) <i>Noiz eta</i>	147
XI) <i>Ahoan-da</i>	149
XII) <i>Gurasoei bisita, etxera bidea</i>	150
XIII) Neutroa: <i>zer...</i>	152
Bihurkaria	153
Irakurgaiak	154
4. EBIDENTZIA. ADITZA ERRAZTU ETA LABURTU	171
4. Ebidentzia / 1.- Aditza erraztea eta sinpletzea komeni da.....	171
1) <i>Ezan - ein</i>	173
2) Datiboa aditzetik kanpora	176
3) Objektu plurala aditzetik kanpora	181
4) <i>Dezon, dezoke</i>	182
Irakurgaiak	185
4. Ebidentzia / 2.- Aditza laburtzea komeni da, eta aditz	
trinkoak galbidetik garapenerantz bideratu behar dira.....	198
<i>No time for love</i>	200
1) Elipsia	203
2) Aditz trinkoa	203
Adibideak.....	206

Aditzaren beste laburbide batzuk	218
2) Aditz atzizkiak	218
Tu-ztu-ztatu	219
Tu-katu	220
Tu-ratu	221
Izatu	221
Fikatu	222
Irakurgaiak	223
5. EBIDENTZIA. ONDARE KOMUNA - LEXIKOA.....	235
Hiztegien jokabidea	235
Argia eta bereizia.....	246
Hitz komuna gehi euskal ordaina	247
Ondare komuneko zerrenda zabal bat	251
Adibideak	281
Irakurgaiak	284
6. EBIDENTZIA. ESAPIDEAK ETA ESAERAK	297
I) Esapide informatiboak	298
II) Esapide espresiboak	303
III) Esaerak	308
Irakurgaiak	311
7. EBIDENTZIA. ARGOTA	321
Hiztegiak	323
Interbentzioa eta metodoa.....	328
Argotaren iturriak	329
1) Erabilera	329
2) Ondare jaso	329
3) Sinonimoak eta lokalismoak.....	330
4) Asmarena	332
Irakurgaiak	335
BIBLIOGRAFIA.....	349

HITZAURREA

HITZAURREA

Pentsalari onak ebidentziara iritsi nahi du. Pentsalari arina ebidentzia gaitzen saiatzen da. Nire adiskide on eta zientzialari jakintsu batek bi aipu opatu dizkit, liburu honen izaerari alazo datozkionak. Berak eman bezala transkribatzen ditut biak, jatorrizko hizkuntzan.

Change is not made
without inconveniences
even from worse to better
(*Samuel Johnson*)

Never express yourself more clearly
than you are able to think
(*Niels Bohr*)

Euskara batuaren bigarren jaiotza izeneko saiakeran, gai nagusi batzuen inguruan, garrantzi ezberdineko puntu ugari tartetzen zen. Zenbait aldiz, beti ere ustezko oinarri batetik, "fantasiara" ere menturatu nintzen. Atal garrantzitsu bezain korapilatsu bat zerbaitegatik izenburutu nuen: *Aditzaren fantasia heroikoa*. Fantasia aitortuez gainera, banekien puntu eztabaidagarriak ere bazirela. Lanaren helburuetako bat eztabaida piztea zen, hain zuzen.

Saiakera hark izango zuen harrera kontrajarriaz ere ohartun nintzen. Badirudi, nire belarrietara heldu denetik behintzat, begi onez hartzaileak ez direla gutxiago izan begi txarrezkoak baino. Ondo hartzeak ez du esan nahi denean bat etortzea (ezta, beharbada, gehiengan ere), baina bai ondo irizten zaiola arazo garrantzitsu batzuk planteatzeari. Neurri bateraino, adostasun maila bat ere badela esango nuke gai hauen inguruan.

Euskara batuaren bigarren jaiotza-ri jarraipena emanez, bidezko eta beharrezko iruditu zait bertsio zentratuago bat ematea, gai txikiago eta eztabaidagarriago guztiak ezabatu eta arazo nagusietara bakarrik mugatuz. Azken batez, gai horietantxe baitakust euskararen norabidearen gako erabakiorra. Arazo nagusiok "ebidentzia" moduan aurkezten ditut, halakoxeak direla uste dudalako: ebidentziak. Ebidentzien aurrean, jarrera bakarra dago: onarpena ala ezezpena. Har ala utz. Bitarteko eztabaidak ez du onura handirik.

Ebidentzia ez da azaltzen, hain gutxi esplikatzen. Proposamen ebidenteak aurkeztu bakarrik egin daitezke. Era zorrotzago edo ez-zorrotzagoan, argiago edo ez-argiagoan, begi bistan jarri bakarrik. Batzuek burua biratuko dute, muzinka edo biraoka. Beste batzuek arreta jarriko dute, esanez: "Egia izan daiteke". Zernahi kuestionatzeko jenioa duenak galde lezake: "Zertan oinarritzen duk «ebidentzia» dioan hori?". Erantzuna sinplea da: "Ebidentzia ez da oinarritzen. Bera da ondorioen oinarri".

Ebidentzia guztiak ez dira, noski, berezkoak edo immediatoak. Euren arrazoi eta bilakaerak behar izan dituzte, ebidentzia mailara iristeko. Saiakera honetan aurkezten diren zazpi ebidentziak maila horretara iritsitatz jo daitezke. Euskara batua mende Erdiko ibilera osatzear denean, gaindituak

izan diren hainbat jarrera eta zailtasun objektiboren erdian, badira iceberg puntak bezalako gai zentral batzuk, oraindik hortxe dirautenak, baina, zorionez, identifikatuak izateko moduko argitasuna edo ebidentzia maila lortu dutenak.

Nire duda bakarra zen ebidentziak nola aurkeztu. Hasieran pentsatua nuen metodorik onena eta zintzoena izango zela zenbait testu ezberdin aztertzea (batez ere, itzulpenak), autore bakoitzak nolako soluzioak ematen zituen erakutsiz. Gero iruditu zitzaidan era hori nahaste handiegi eta delikatuiegia izango zela. Zenbat testu eta norenak hartu, nola tratatu... Liskarbide bat. Hainbeste alboratu behar, gero aipatuak ere muzintzeko edo, agian, sumintzeko. "Ebidentziak aurkeztea besterik ez bada, zergatik ez dagik dena eurentik, inorekin katigatzera arriskatu barik?". Azkenean, horixe erabaki nuen, eta bai lasaitu ederra hartu ere. Batzuetan, bide endredosoen saihestek markatzen dizu metodoa. Oro har, beraz, planteamendu hauei arreta jarriko dietela suposatzen dudanentzat idazten dut. Gogaideentzat, nolabait, lagunentzat esatea gehiegi mugatzea bailitzateke. Adin batera iritsia naiz, non denbora ezkutua hasia zaidan eskatzen ez nekatzeko inorekin teman, are gutxiago momiekin, zeintzuek baduten biziekiko aski abantaila iraupenean.

Dena neurentik egiteak ez ninduen libratzen testu batzuekin jokatu beharretik, gai bakoitza adibide ugariz hornitzea beharrezko bainekusen. Horretan, *Joan ziren* zikloko laugarren liburukia amaitua nuenez gero, huraxe erabiltzea pentsatu nuen aipu iturritzat. Eleberriaren izenburua honakoa izango da: *4 x 4 operazioa*. Azken batez, saiakera honetako ebidentzien arabera idatzia denez gero, bistan zen bertan izango nituela eskuren, behar ziren adibide guztiak. Eleberria oraindik argitara gabe egonik, badu abantaila erantsi bat ere ezen irakurleentzat denak testu berriak izango direla.

Adibideak, ugarien izanik ere, beti dira aipu labur eta kontestu gabeak. Orduan iruditu zitzaidan egoki zatekeela pasarte luzeagoak eranstea, irakurgai moduan, non hizkuntz erak eta ustezko berritasunak euren zelai nasai eta naturalean agertuko ziren. Aipu laburrak, beti ere, une hartan jorratzen ari garen gaiari zuzenki lotuak dira. Atal bakoitzean ageri

diren irakurgaiak, ostera, ezin dira izan gai jakin bati loturiko pasarte espezifikokoak. Pasarte literarioak dira, ezeren adibide izateko asmotik at sortuak, non saiakera honetako ebidentzien aplikazioak era orokor eta nahasian agertuko diren. Bai adibide ugariak, bai irakurgaiak, denak ere pasarte literarioak direnez gero, esan daiteke lanaren formatua saiakera gehi literatura dela. "Saiateratura", nolabait. Garbi esanda, lan bat norbere gogara egiteko era bat.

Atal bakoitzaren egitura honela osatzen da. Lehenik, ebidentziaren aurkezpena garatzen da. Gero, aurkezpenean zehar eta ondoren, adibide zerrenda ugariak datoz, bai arrazoen argigarritzat asmatuak, bai eleberritik harako aipuak. Azkenik, irakurgaien orrialdeak datoz, eurok ere aipatu eleberrikoak. Adibideak irakurtzea komeni da, gai bakoitzari zuzenki dagozkionak baitira. Kontesturik ezak zenbait adibide ulertzea zailduko du, noski. Batzuei ohar argigarri bat erantsi zaie, baina beste batzuetan baliteke esanahia ilun gelditzea, zertara datozen zehazten den zatia janda egonik. Irakurgaiena bego irakurleen aukeran, nahi bada, har, nahi bada, utz. Eder litzateke pasarte literarioak ere irakurleen gogoko eta saiakeraren gozagarri gertatzea, baina hainbesterik ezin da eskatu, desiatzea zilegi bada ere. Idealen badakit zer litzatekeen: nor saiakeragatik, nor literaturagatik, irakurle erakarriak gehiago izatea, egikera horregatik galduko direnak baino. Itxaropena beti dago, eta behin edo behin baliteke betetzea ere.

Azkenik, *Euskara batuaren bigarren jaiotza*-n ere aitortzen nuenez, ni ez naiz aditua gramatikazko eta hizkuntzazko auzi eta formulazio teknikoetan. Gauzak ahal dudan moduan azaltzen ditut. Horregatik, neure mugen jakile, berriusle seguru baten esku jarri dut lana. Karlos Cid Abasolo hizkuntzalaria da bera, madrildarra eta Universidad Complutenseko irakasle titularra. Berak zehaztuak eta, sarritan, zuzenduak izan dira saiakera honetako pasarte asko.

1. EBIDENTZIA. ESALDIEN LUZE-LABURRA

EUSKARAK, TRESNA BEZALA, GAITASUN OSOA ETA NORMALA BEHAR DU, ESALDI MOTA GUZTIAK, LABUR ZEIN LUZE, ERRAZ ZEIN KONPLEXU, NAHIAREN ARABERA JOSTEKO, BERE INGURUKO HIZKUNTZA GARATUEN ANTZERA

Era sinpleagoan formulaturik, euskarak edozein esaldi eratzeko gai izan behar du, era erraz eta ulergarrian. Ebidentziaren osagaiak banaka hartuz, "tresna bezala" ari gara. Batek euskara "erraza" bindika dezake, maiz entzun ohi den moduan, ohartu gabe "erraz" horrek, sarritan, "infantila" esan nahi duela. Eta bereizi gabe gauza bat dela hitzun-irakurleen gaitasuna, eta beste bat hizkuntzaren beraren gaitasuna. Beste batek euskara "lehiakorra" eska dezake. Beste batek euskara "garbia", "freskoa", "herrikoia", "modernoa", "jasoa"... Nahi diren epiteto guztiak. Hemen ez gara ari subjektuen mailaz, gustuez, komenentzietz, mezuez, edukiez, estiloiez. Tresnaz ari gara. Hura nola eta zertarako erabili, hitzunak edo idazleak erabakiko du, egokiago edo desegokiago. Dioguna da euskarak luze-laburren eta erraz-konplexuen gama guztia adierazteko gaitasun "osoa" izan behar duela. Todoterrenoa izan, nolabait.

Gaitasun osoak "normala" izan behar du. Esaldi luze bat osatzea edo ulertzea ezin da balentria bat edo ekintza heroiko bat izan, hizkuntza

menperatzen duela edo menperatu behar duela suposatzen den subjektu batentzat. Haurren buruan, hizkuntzak garapen mugatua du. Adimen helduez ari gara, zeintzuengan hizkuntzari ere heldutasun osoa suposatu behar zaion. Eta gaiak eta diziplinak bereizita, noski. Hizkuntzaren garapen osoak ez du esan nahi jakintza-arlo guztiak "normal" ulertu behar diren. Gauza bat da hizkuntza menderatzea, eta beste bat kontzeptuen eta gaien ezagutza, ikasketa luzeak behar dituen.

Luzerak ez du beti zailtasuna esan nahi. Esaldi bat aditz juntagailuetan bermatzen bada (emendiozkoak –eta– edo adbertsatiboak –baina–), diskurtsoa infinituraino luza daiteke inolako traba gabe, nekeaz edo loguraz beste. "Abiatu nintzen eta hondartzara iritsi nintzen, baina ez zegoen tokirik, eta buelta egin behar izan nuen, baina karabanak harrapatu ninduen, eta hantxe aurkitu nintzen... eta... baina... eta... baina... eta". Haur baten sintaxia gutxi gorabehera, sarritan helduentzat bindikatzen dena, ohartzeke horrela, inplizituki, hizkuntza baten (edo hizkuntzadunen) ahalmen murrizta erakusten dela. Zailtasuna markatzen duena "konplexutasuna" da, zeinaren elementuak beste batzuk diren, ondorengo ebidentzietan azalduko direnak. Hiru lerroko esaldi bat hogeikoa baino zailago izan daiteke, sintaxi edo beste zenbait baliabide konplexuren gainean eraiki bada.

Ebidentziaren aurkezpena honela amaitzen da: "bere inguruko hizkuntza garatuen antzera". Izan ere, gaitasunaren "osoa" eta "normala" neurtzekotan, zeren erreferentzian neurtu behar dira, ez bada inguruko hizkuntza garatuen? Ingurutasun hori lan honetan, ebidentzia gehienetan agertuko denez, espainol-frantses-ingelesera mugatzen da, euskara geografikoki eta kulturalki non dagoen kokaturik kontuan hartuta. Hizkuntza horiekin elkarbizi eta lehiatu behar duenez gero, euskararen gaitasunak euren mailara hurbildu behar du, biziraungo badu. Parean ezin deno, "antzera" behintzat. Umetan edo gaztetan, etxetik norabait urruntzen ginenean, aholku nagusietako bat izaten zen: "Besteen antzera ibili". Horixe da euskararen ere helburu zailtako bat, eta horretan dihardugu.

Izatez, lehen ebidentzia hau ebidentzia orokor bat besterik ez da, *Euskara batuaren bigarren jaiotza* liburuan euskara "osoa, lehiakorra, nazionala" bezala izenburutu nuena, baina era askotara kalifika daitekeena.

Bi-adjektibotara biltzekotan, "osoa eta bizia" esango nuke. Lan honetarako, nahikoa da "osoa", zeren "bizia" izatea pertsonen gorabeheran baitago. Euskara inoiz gal baledi, Euskal Herriak galtzen utzi zuelako izango da. Edo euskara hizkuntza lehiakor bihurtzeko talenturik izan ez zuelako. Baina horiek beste kontu batzuk dira. Hemen hizkuntz tresnaz ari gara.

Karlos Cid Abasolok, iritzi horrekin erabat ados dagoela esanez, Axularren aipu bat dakar hizpidera: "*Baldin eguin baliz euscaraz hambat liburu, nola eguin baita latinez, franceses, edo berce erdaraz eta hitzcunçaz, heç beçain aberats eta complitu içanen cen euscara ere, eta baldin hala ezpada, euscaldunec berèc dute falta eta ez euscarac*".

ADIBIDEAK

Adibideak hiru sailetan banatu ditut: laburrak, ertainak, luzeak. Esan beharrik ez dago luzera ezberdinok, jatorrizko testuan zehar, ez direla horrela banatzen irizpide linguistikoz, literarioz baizik. Narrazio luze batean (eleberririk laburrena ere bada aski luze, salbu Monterrosoren "*Cuando despertó, el dinosaurio todavía estaba allí*"), erritmo eta tonu ezberdinen konbinazioa kalitatezko elementutzat jo behar da. Adibide iturritzat hartu dudan eleberrian, paragrafo laburrak eta ertainak askoz gehiago dira luzeak baino. Elkarrizketak ere ugari dira, gehienak oso esaldi laburrekoak, nahiz eta ez beti esanguraz sinpleak. Baina horiek kontu literarioak dira. Hemen tresnaz dihardugu, eta pasarte hautatuek adibidetzat balioko digute.

LABURRAK

Luzetasunak zailtasuna ez bezala, laburtasunak ere ez du beti erraztasuna esan nahi. Esaterako, datorren lehen pasarteko lehen paragrafoan ("*harrotuko nintzateke mundua neure kontzientziarekin hasi zelakoaz, penatuko ez banindu berarekin amaituko delakoak*"), "zelakoaz... delakoak" egitura ulertzen ez bada, alferrik dira laburtasunak. Gaztelaniaz honako zerbait litzateke: "*Me enorgullecería suponer que el mundo comenzó*

con mi conciencia, si no me apenase la sospecha de que acabará con ella". Beste aldetik, arrazoia bera ere gerta daiteke kolpera ez izatea argia. Izan ere, badakit mundua ez zela hasi, ez amaituko, nire kontzientziagaz, baina... Azalpen guztiak ematea ez al da iraingarri izango? Bigarren paragrafoan ("ekiloreak, eguzki betean, niri baderrait, zer pentsatu behar dut?"), "baderrait" aditzean "jarraitzen badit" ulertzen ez bada, berriro galdu gara. Gero, hizkuntz elementuetatik aparte, kontzientziak zer zerikusi dauka ondorengo ekiloreagaz, honek kamalehoiagaz, hirurok ondorengo izarragaz, eta denek hurrengo realityekin? Esaten ari naizena da laburra ere, gramatikalki edo kontzeptualki, konplexua izan daitekeela, ezen ez "iluna". Konplexutasunari luzetasuna gehitzen bazaio, argi dago zailtasuna, bikoiztu ez ezik, aniztu ere egingo dela. Literarioki, esaldi laburren helburua ez da hainbeste erraztasuna, espresioa baizik. Laburtasuna baliabide espresibo bat da. Goazen, ba, adibideetara.

Harrotuko nintzateke mundua neure kontzientziarekin hasi zelakoaz, penatuko ez banindu berarekin amaituko delakoak. Ekiloreak, eguzki betean, niri baderrait, zer pentsatu behar dut? Zein da kamalehoiaren kolore naturala? Izar bat aski dut bakarrik ez sentitzeko, baina izarra bera ni baino bakarrago dago. Telebisioan bi programa mota maite nituen: animalien dokumentalak eta realityak. Haiengan adimena gozaten nuen, hauengan ergelmena; beharrezko berau, hura estimatzeko. *Bai alukeria programa pornoena! Ezin lasai ikusi, korritu gabe – Tentela hi! Nik hori iragarkietan egiten joat.* Bizitzaren zentzua amaitzen da heriotzaren ziurtasuna alibio bihurtzen denean. Ziurtasuna desio bihurtzean, zentzua itzultzen da. Adimenaren lehen funtsa hilkortasunaren kontzientzia dela emanik, lehen kontradikzioa bakardadea izan daiteke: handik eskapatuz batera, bertara itzuli nahi; eta itzuliz batera, eskapatu nahi. Kezka horietatik libre naiz, behingoz, derrigorriari esker. Loaldi horietan bezala, non problema handi bat konpondu duzun, eta itzartzean ez zaren soluzioaz gogoratzen. Bo, soluzioaz bai, baina problemaz ez. *Hemen ez dago Simonik, andratxo. Txarto markatuko zenduen – Nik txarto markatu? Zeuk hartuko zenduen txarto!* Errakuntza da konparazioen iturburu. Lasai diogu "zeruan bezala" edo "Jainkoa bezala", noizbait han izanak edo hau ezagun bagenu

legez. Badantzugu "lurrean bezala", eta asko kostatzen zaigu ulertzea zer esan nahi zuen. Azkenean, gizateriak lortu zuen prezisio exaktoan orekatzea, non mila milioi goseak hiltzen ziren, beste mila milioik obesitate arazoak izan zitzaizen.

Neure zorabio morbidoan nindoala, emakume bat hauteman nuen, neuganantz zuzen. Ihes-senak, batetik, eta klase hartako emakume egiazko baten lilurak, bestetik, zoruan taket atxiki ninduten, kontrako sokeak tiraturiko moxal-burua bezala.

– To, mutiko txit guapo! Nahi duk neugaz etorri? –heldu zidan besotik, eta nik tentelki galdetu:

– Nora?

– Imaginatzerik ere ez duan zeru batera.

– Nik ez dot oraindino zerurik nahi. –Horizonte mugagabeetan hazitako batentzat kale berez ere estu eta altua zena, bat-batean, irteera gabe iruditu zitzaidan.

– Nora hoa?

– Atxuriko autobus geltokira (Nhr! Ez neutsan esan behar!).

– Mutiltxo txit gozo! Egidak mesede. Emaidak zorte on.

– Nik ez dakit horretan.

– Ez duk ezer egin beharrik. Neuk ipiniko haut Jainkoaren altzoan.

– Ez daukat dirurik.

– Nork aipatu dik diru zikinik?

– Ez daukat astirik. Autobusak ordu lauren barru urten behar dau.

– Lagunduko haut. Hik ez duk inguruotan maiz ibiliaren antzik.

– Egia esan, bidea erratuta nator hemendik. Nondik joaten da San Antongo zubira?

– Ikusten? Neuk haroaket zuzen-zuzen.

Egin duen irribarre konplexutik atera dut bide erratuarena ez duela sinetsi, baina gustatu zaiola. Elkarren ondoan goaz, ama-semeak bezala, eta nik, derrigorra denez gero, bera mintzo denean, gizalegea baliatzen

dut, aurpegira begiratzeko eta bere edertasun enigmatikoaz zirraratzeko, Dione, Sedna, Euridize...

ERTAINAK

Pasarte hauetan, laburrak eta luzeagoak nahastean datoz, segun zer diradokien sen eta asmo literarioak. Esaldi laburrei buruz esanak ertainetarako berdintsu balio du, luzeenak ere ez baitu hainbesteko zailtasunik, sintaxiaz eta bestez. Zailtasunik izatekotan, esamoldeetan, kontzeptuetan edo esaldien intentzioetan izango da.

Dobal zen Dorian Gray txiki haietako bat, nire obserbazio bekaizkorrak hauteman zuen desiatuena, bai lagunen, bai goikoen aldetik. Nik ezin nuen hura pretenditu. Batetik, neure burua ez nekusen halako saiakerarako bezain prestigios, eta bestetik, bera baino gazteago nintzen, eta suposatzen zen, edo ohi zen, pretendenteak zaharrago izan behar zuela. Adin haietan, urte bat edo biko aldea gizaldi bat zen. Hala ere, ikaskide izanik, maiz gertatzen zen (gerta zedin saiutzen nintzen) elkarren ondoan aurkitzea elizan edo aretoan, edo toki izendatueta beharturik ez geunden ekitaldietan. Orduan, elkar ukitzea nahitaezko zen, ukondoa ukondoaren edo izterra izterraren kontra. Dobalen gortegileek haren ondoan sentitzen zutela suposatzen zen zer berezi hura, zer zen garbi ez nekiena, neuk ere esperimentatu nahi nuen, guztiz barneki beti ere, kanporantz itxurarik inpasibleena agertuz. Egia izango da ahalegin mentalak emaitza fisikoak azkar dakartzala, nire gogo ekinkorra laster hasi baitzen dardara bat sentitzen. Hasieran, dardara material soila, definizio gabea, ez on ez txar, ez gozo ez gazi. Nire gogoak dardara hura laster bihurtu zuen zirrara "atsegin". Bihurtu behar zuen, jotzen bainekuan objektu desiatua; eta desioa absurdoa izango ez bazen, bere betetzearen zirrarak nahitaez dohatsu izan behar zuen. Bestela, izterra ukitzen neukan izaki biziduna momia soil bihurtzen zen, eta irain hori ezin nion egin Dobali, neure mito isilari. Ez zen, ez, ukitze "haragizkoa", azpian hainbestena arropako sotanatik sotanarako baizik. Hala ere, dardara biszeral bat, zirrara eutsi baina muinerainoko bat nabari nuen, kontaktua ez zela errefusatua ikusiz, haragia hantxe

zela irudikatuz. Hamabost urtegaz, gela-logela indibidualetan banatu gintuztenean, zerbaitegatik (apunteak, liburu bat...), Dobal nire gelara etortzea gertatzen zen, behin edo behin. Maizago neu berera, beti aitzakia bila bainenbilen, zerbait eramateko, eskatzeko, galdetzeko. Baina gela barruan bi lagun ezin ziren egon, atea itxita. Hori zeharo debekaturik eta gogorki zigorturik zegoen, batez ere, gaueko orduetan. (...)

Kontua da Dobalek, nire gelara etortzean, atea ixten bazuen (ni ez nintzen hori eskatzera inoiz ausartuko), intimitate-nahi baten seinaleztat hartzen nuela. Horrek urduri jartzearaino zirraratzen baninduen, zer ez zen izango, ni bere gelara joatean, atea ixteko agintzen bazidan. Eskaerak, hain arauz kontrako eta arriskutsu izanik, pentsarazten zidan, ez bakarrik ez ninduela arbuatzen, baizik kutuntzat nahi ninduela. Ez nekien zein norabidetan, berak nire sentimendua onartzu ala bere niganako sentimendua deklaratu, baina berdintsu zen. Kontua zen atea ixteko eskatu zidala, bere gelan, logelan, biok bakarrik. Nik, jakina, burdina gorria paparrean ipinita ere ez nuen horrelako sentimendurik agertuko, neure pentsa-mundu guztia fiasco bat zela ez aurkitzearen. Aitzitik, ordea, neure baitan, nire pentsamen neure erara moldagarrian, zantzu guztiek animatzen ninduten nire pentsakizunak errealistak zirelako ondorio dohatsura.

Dobalen kasuan, bilakaera bitxia nekusen bere izenean, lehenengotan muzin eragin zidana, objektu faltsutu bat ote zen errezeloz. Izan ere, berez, *Baldomero Sartanbaso* zen. Berak ez zuen errurik izango, baina izen-abizen horiekin ez zegoen pretenditzerik "dorian gray" bat izaterik. Batez ere izena, zeren, komunitateko ikasle guztien deitura arauzko eta obligatua abizena izan arren, "kutunak" izenez deitzen ziren, batez ere goikoen aldetik. Hain zuzen, izenez deitze horixe zen kutuntasunaren seinale hutsezinetako bat. Nola izan halakoa, ordea, *Baldomero* zeritzon bat? Izena laburturik, *Baldo* gelditu zen. Zerbait txukunago, baina baldar oraindik, euskaldunen belarrirako, behintzat. Kontsonanteak alderantziz, *Dobal*. Beraz: *Baldomero-Baldo-Dobal*. Hau bai! Kafkaren gogoko metamorfosia izango ez bazen ere, "adiskidantza partikular" baterako zein izen limurkorrago, Dobal baino? Nik horixe ezagutu nuen hasieratik, eta izen gozatsu eta jasoa iruditu zitzaidan beti, harik eta jakin nuen arte, bere nota-orri bat erakusten deskuidatu zen batez, Dobal zoragarri hura,

benetan, Baldomero zela. Kostatu zitzaidan dezepzioari buelta ematea, baina kasu hartan, nire nahimena mutikoaren benetakoa politasunak menperatzen baitzuen, zilizioari heltzea baino errazago izan zen lehengo ameskizunera itzultzea.

LUZEAK

Ez dakit euskal hiztunak, irakurleak, esatariak, idazleak... esaldi luzerik behar duen, nahi duen, maite duen, gorroto duen, baina euskal hizkuntzak behar du luzerako eta konplexurako ere gaitasun berdina eta normala. Ondoren datozen esaldiei zailegi deritzenak sartzea dauka erdaren itzulpenean, eta hoberik aurkituko du.

Eta hara, azkenean, miraria gertatua zela hamahiru urte geroago, hitz horiek nire hamabost urteko belarriek entzun zituztenean, kinada erantsiagaz ezen beteak izateko posibilitatea, guztiz erreal eta eskuragarri ez ezik, saihestezin baitzen orain, nerabegaroko alderantziz, non, hitzak errealak izanik ere, betetzeko aukera ia metafisikoki ezinezko zen.

– “*Kinada erantsiagaz ezen...*”. Hemen, ezen lokailuak izen gobernatzailearen (*kinada*) eta perpaus osagarri izenlagunaren arteko lotura funtzioa dauka. Gaztelaniaz, “con el estímulo añadido de que...”.

Berbaldi suabe eta kilikagarri baten ondoren, begirada ferozki ederreko Talita honengan ere, San Antóngo zubiaz hemendik, beste emakume bat baizik ez ikusten hasia naiz. Geltoki plazara begiratzean, berriz, geroz ezagun gehiago ageri zait, edo denak ezagun iruditzen zaizkit. Zerbait erabaki behar eta ahalik umilen eta erregukorren diotsat ezen, honelako itxaronaldiak eliza baten ondoan egokituz gero, agindu zorrotza dugula arrosario bat errezatzera sar gaitezen, hala Ama Birginaren debozioz, nola disipazio luzeegia saihesteko, hau ez diot hitzez hitz horrela esan baina.

– “*Ahalik umilen eta erregukorren diotsat ezen...*”. Hemen, ezen lokailuak aditz gobernatzailearen (*diotsat*) eta perpaus osagarriaren arteko

lotura funtzioa dauka. Gaztelaniara itzulirik, “le digo que...”.

Kontua da, ordea, ezen, koldar-kontzientzia edo ezduin-kezka bateraezin direnez gero norbere buruarekiko harmonia basikoagaz (batek pentsa dezake inutil hutsa dela, baina ez bere buruaren traidore), apurka-apurka, haren diskurtsoa lerratuz joan zela, negatiboki esanda, iritzi tenporalen saihesterantz, eta positiboki, balio espiritualen aldarrirantz.

– “*Kontua da, ordea, ezen...*”. Predikatu konplexu gobernatzailearen (*kontua da*) eta perpaus osagarriaren arteko lotura funtzioa dauka hemen ezen lokailuak. Gaztelaniaz esanda, “sin embargo, la cuestión es que...”.

Unerik solemneetan maliziarik bihurrienak ekartzeko grinatik oraindik libratzeke darraien nire gogoak ezin izan du pentsatzea ekidin ezen, hain emakume guria eta itxuraz hain bitala izanik bera (beloek zehar-ikusten uzten dutenari irudimena erraz gehitzen zaio), hainbesteko argiztapena ez dela izango, agian, pentsakizun ilunei aurrea hartzeko klaritatea bakarrik, baizik apaiz gazte lerden baten ofiziozko atentzioa gozamenezko adei bihurtzeko era subtil bat. Lerden kontua izan daiteke neure irudipen erratu bat, baina ez dago dudarik banaizela apaiz eta banaizela gazte. Neure buruarekiko berrespen horiek aurrean dudan emakumea ere balioetsi didate, puntu hartaraino bakarrik, noski, non ama priorea delako kontzientziak atzerantz eragin didan, neu ere ez bainago, gabiltzan zirkunstantzia zaratatsuen erdian, abentura labainetan lerratzeko moduan, hain gutxi Durangaldeko komenturik handienez, zeinean, nondik sartu zaren ondo begiratu ez baduzu, arriskua baituzu laguntza gabe ezin irteteko, bertan galtzeko premeditazioz etorri zarela pentsarazteko moduan.

– “*Nire gogoak ezin izan du pentsatzea ekidin ezen...*”. “Mi mente no ha podido evitar pensar que...”.

– “*Puntu hartaraino bakarrik, noski, non...*”. “Solamente, claro está, hasta el punto en que...”.

Kontua da besteek nola ikusten gaituzten pentsakizunak, subjektuen elkartruke magikoan bezala, grinak eta sentsazioak ere abiarazi dizkidala, eta ezin dut gorputz osoaren zirrara ekidin, sentitzean neskatala bat dakardala, lehen aldiz!, neure gorputzari itsatsia, dena delako zorigaitz eta guzti ere, bere lore-lorea jotzearen eme bat izateari utzi ezin diona, zeinagako sentsualtasuna agian tragediaren mehatxuak berretzen duen, berak ezin ditu, gajoak, nire pentsakizunok susmatu baina.

– *"Bere lore-lorea jotzearen eme bat izateari utzi ezin diona, zeinagako sentsualtasuna..."*. Hiru erlatibo jarraian. Lehenengoa (*"jotzearen duen"*) erlatibo murrizgarria da. Bigarrena ere, nahiz eta ordena aldaturik, murrizgarria da: *"eme bat izateari utzi ezin dion eme bat"* bezala. *"Una chiquita que no puede dejar de ser una hembra a punto de tocar su plena flor"*. Hirugarrena (*"zeinaganako"*) erlatibo ez-murrizgarria da, eta, egia esan, ez dakit gaztelaniara nola itzul daitekeen, ez baita *"cuya sensualidad"* (zeinaren sentsualtasuna), baizik besteak harengana (*"hacia la que"*) sentitzen duen sentsualtasuna. Berdin esan daiteke beste kasu batzuez ere, adibidez: *zeinagandiko babesa eskertzen dudana, zeinagatikoz kezkak urtzen nauena, zeinagango konfiantzak salbatu ninduen, zeinarentzako borondaterik ezin dudana sentitu...*

Karlos Cid Abasolo:

Nire ustez, arazoa da "norbaitek norbaitenganako sentsualtasuna sentitzea" semantikoki okerra dela. A-k ezin du "B-renganako sentsualtasunik" sentitu. Esan daitekeen bakarra da B-k sentsualtasuna daukala, hots, sentsuala dela. Eta horregatik ez zait onargarri iruditzen (ikuspuntu gramatikaletik, noski) "zeinaganako sentsualtasun" hori.

Nire erantzuna:

Hemen ere argibide ona eman didazu. Banuen susmoa "zeinaganako sentsualtasun" horretan bazela inkongruentziaren bat. Testuak neskatoa jarrerara pasiboan, inkontzientean utzi nahi zuen. Sentimenduen mugida

edo parte aktiboa beste pertsonaiagan kokatu nahi zen. "Honi tragediaren mehatxuak neskaganantz sortzen zion..." Hortxe hautatu nuen hitz okerra. Ezin du "sentsualtasuna" izan. Baina bai izan daiteke "irritsa". Eta beste hitz hoberik aurkitu ezik, horixe geldituko da. Kontua da, ordea, hitza aldatu arren (eta oker semantikoa konpondu arren), egitura gramatikala berdin gelditzen dela:

Kontua da besteek nola ikusten gaituzten pentsakizunak, subjektuen elkartruke magikoan bezala, grinak eta sentsazioak ere abiarazi dizkidala, eta ezin dut gorputz osoaren zirrara ekidin, sentitzean neskatala bat dakardala, lehen aldiz!, neure gorputzari itsatsia, dena delako zorigaitz eta guzti ere, bere lore-lorea jotzearen eme bat izateari utzi ezin diona, zeinagako irritsa agian tragediaren mehatxuak berretzen duen, berak ezin ditu, gajoak, nire pentsakizunok susmatu baina.

Orain, galdera hau da berriro. Nola itzuli gaztelaniara bi erlatibo jarraiko horiek? Honela?

"...al sentir que traigo a una chiquita, ipor vez primera!, pegada a mi cuerpo, quien, sea cual sea su desdicha, no puede dejar de ser una hembra a punto de tocar su plena flor, hacia la que tal vez la amenaza de la tragedia aumenta el deseo."

Itzulpen hau zuzena bada, ez da euskarazkoaren ordain literala. Neuk, behintzat, ezin dut aurkitu ordain literal bat emateko modurik.

Karlos Cid Abasolo:

Kontua da itzulpen hori ere (*"hacia la que X aumenta el deseo"*) ez dela gramatikala gaztelaniaz. Gaztelaniaz ezin da hitzez hitz esan euskaraz aise (edo erdi aise) esan daitekeena. Ze pozgarria! Gaztelania zuzena izan dadin, itzulpena bainoago bertsioa egingo nuke. Nire proposamena: "a punto de tocar su plena flor, por la cual siento un deseo aumentado por la amenaza de la tragedia".

Horretan utziko dugu, zerbaitetan abantailak ere baditugun pozean.

Adinaren berezko eklosio mentalari seminarioaren konpresio alderantziz proportzionala gehitzen zitzaion nerabezaro haren eztanda bakarrik gaindi zezakeen, gerora, denboraren bi une hain urrun eta kontrakoren fusioak (batean ezer ezin, bestean dena ahal), halako eran, non Dobalen proposamena, itxialdi borrokari bateko zirkunstantzietan guztiz natural eta aseptikotzat hartzekoa, nire gogo nahi gabe inarrosiak "proposamen osotzat" hartu baitzuen.

– "Halako eran, non ... hartu baitzuen". "De tal manera que... la tomó".

Aurrerantzean, testuak soil utziko ditut, bakoitzak (nahi duenak) bere kabuz esplikatu ditzan.

Emozio berrien indarra emozio zaharrekiko erlazioan datza. Sarritan, indar zuzenki proportzionalan. Frogarik totalena neure egoera hauxe da. Munduan bakarrik gelditu naizenean, espezie guztia denbora joanaren orbantxo bat besterik ez denean, unibertso adimen bakarra ez naizela frogatzeko modurik ez dagoenean, berdin sentitzen darrait.

Komunikabideek euren ezten bero eta boluptuosoan dihardute, aldarrituz ezen apaiz batzuek, euren gotzaina hiltzear ikusirik ere, errebeldiazko ekintza bat eteteko bihotzik ez badute, ez dutela merezi gizakitzak hartuak izaterik, hain gutxi kristautzat, auskalo piztiatzat.

Nago, hala ere, nire buru-makurtzea ez ote den izan erreflexu bat Doraren gogo ez oztopatzeko, zeinaren begirada askea, ustez nigana entregatua, nire gainean nola dibertitzen den irudikatuz, gehiago hunki nintekeen, nahiz eta seguruago den izatea heziketa separatzaile baten

ondoriozko nire insegurantzak libratu nahi ninduela kezkatik ezen, biok bekoz beko, haren begiradari ez niola atzematen ahalko neuk desio adinako intentsitaterik.

Bi esku gainak, zuri-beltzaran, leun-leunak, tabernako busti-lana doi-doi igartzen zaien hatz luze eta atzazal ondo baina nabarmenkeria gabe konponduekin (eta hatz-koskor txairoki zimurtu horiek, diotela: *et, et! geldi! ez pasa hurrengora aurrekoa ondo ikusi barik*), nire esku urdurietatik zortzi zentimetrora eta begien diagonal hain laburrean gelditu direnean, ezin dut esan bizitzako zauskadarik handiena nabaritu dudanetz, hainbeste hartua bainaiz, baina bai, ziurki, errealtatez beteena, hainbestean ezen ez bainaiz esplikatzeko gauza (ez dut nahi ere esplikaziorik) nola bi esku xumek, mahaian aurreratu direnek algak aparrean bezala, norbere emozio-ahalmena ere gainditzeko beste potentzial ekar dezaketen.

Irrati klandestino hura, baliabideetan rudimentarioa (onenean moztuko zen, gau osoan ez berritzeko), baina tonuan exaltatua (batzuetan, bere sinesgarritasunaz dudatzeraino), oso entzuna zen, bai oraindik gerra galduari erresistentzia, bai jada etorkizuna amesten zuen gizarte leherkorren aldetik.

Berehala pentsatu dut, neungango analogia retroaktiboz, senak ezkutarazi diela informazioa, toki hauen ezagutzak iradoki litzakeen ibilera susmagarriak gordetzearren, ohartzeko, euren malizia oraindik titulugabeen, gu geu gaudela, inor salatze kasuan, ez bakarrik eurak baino infrakzio-egoera flagranteagoan, baizik eurei buruzko salaketen hartzaile posibleekin zuzenki enfrentatuak.

Herriko tontotxoenetik goren diktadoreraino, maila guztietan

zeresana sortuko denez (seguruenik, erantzuna eskatzen jakon Erroma bakarrik isilduko da, Jainkoa imitatuz), eta zeuek be konpromisoan aurkitzea probableena izango denez, beti izaten den maltzurren batek edo kokolo inoportunoek zirikatuta bada be, eskatuko geunke, ez, jakina, defenda gaizuezen, baizik zeuen etorri gozagarri eta edonon ospetsu hori ez daizuen gure kontra sutsuegi hustu, gero be danok hementxe, alkarren inguruan bizi behar dogu eta.

Teologiatik harago aurkitu dugu bera, susmatzen genuen moduan, elizaren eta sarrera nagusiaren arteko hall eskergan atzera-aurrera, mistikan ere zaila den mirari mentaleko ariketan, nola den sar-irtenen zaintza zorrotza gehi breviararioaren errezu adia, sen inkontziente batek suposarazi baitio ezen, bera erdian ibiltzeak seminarioko albate guztiak abiarazten baditu ere, beti izan daitekeela norbait xaloagoa, edo derrigorrak handik pasaraz lezakeena.

AZKEN ADIBIDEA

1) Testu bat honakoa izan daiteke, esaldi laburretan:

Lautada biluz bat, soila edo zur-industriak soildua. Ezustean, zuhaitz bat agertu zait. Hurreratzean, ez daurkit hostozko elipse tente bat besterik. Beronen funts bakarra zurtoinak eta adarrak enkubritzea da. Hauek enborrera konektaturik daude. Sustrai lanpetuen izerdia esplotatu nahi dute. Osotasun guztiaren zentzu nagusia, ordea, txorien habiagune edo tximinoen jolasleku izatea da. Zuhaitz bakartiak lortu du, behingoz, helburu bikoitza: lehen kasuan, izate sortzailea (habia), bigarreanean, funtzio soziala (jolasa). Ahaztu gabe, nola ez, bere azpira bildua izan zitekeen lehoi talde errenditua. Biago eulitsua jasatera. Astebeteko amorrua ematua zuten, zebra ipur-borobil baten txikizioz. Euron sendikide bat ere rifleen menpean akaba berri zen. Baina bizia ez da elikatzen hilen oroimenetik. Rifleak ehiztari aristokratiko batzuenak ziren. Gizakiak hiltzetik atsedentzera etorriak, hain zuzen.

2) Testu bera, esaldi ertainetan:

Lautada biluz bat, soila edo zur-industriak soildua. Ezustean, zuhaitz bat agertu zait. Hurreratzean, ez daurkit hostozko elipse tente bat besterik, zeinaren funts bakarra zurtoinak eta adarrak enkubritzea den, hauek, euren enborrera koneksioaren bitartez, sustrai lanpetuen izerdia esplota dezaten. Ez dakite, nonbait, osotasunaren zentzu nagusia txorien habiagune edo tximinoen jolasleku izatea dela. Horrela lortzen da, behingoz, zuhaitz bakartiak ostentatzea, lehen kasuan, izate sortzailea (habia), eta bigarreanean, funtzio soziala (jolasa). Ahaztu gabe, nola ez, bere azpian biago eulitsua jasatera bildua izan zitekeen lehoi-talde errenditua, astebeteko amorrua zebra ipur-borobil baten txikizioz ematu ondoren. Eta hori egin dute euren sendikide bat gizakiak hiltzetik atsedentzera etorritako ehiztari aristokratikoen rifleetan akabatzen berehala, hain zuzen, bizia ez baita hilen oroimenetik elikatzen.

3) Testu bera, esaldi luzean:

Lautada biluz bat, soila edo zur-industriak soildua. Ezustean, zuhaitz bat agertu zait. Hurreratzean, ez daurkit hostozko elipse tente bat besterik, zeinaren funts bakarra zurtoinak eta adarrak enkubritzea den, hauek, euren enborrera koneksioaren bitartez, sustrai lanpetuen izerdia esplota dezaten, osotasunaren zentzu nagusia ez balitz bezala txorien habiagune edo tximinoen jolasleku izatea, zeragaz lortzen baita, behingoz, zuhaitz bakartiak ostentatzea, lehen kasuan, izate sortzailea (habia), eta bigarreanean, funtzio soziala (jolasa), ahaztu gabe, nola ez, bere azpian biago eulitsua jasatera bildua izan zitekeen lehoi-talde errenditua, astebeteko amorrua zebra ipur-borobil baten txikizioz ematu ondoren, euron sendikide bat gizakiak hiltzetik atsedentzera etorritako ehiztari aristokratikoen rifleetan akabatzen berehala, hain zuzen, bizia ez baita hilen oroimenetik elikatzen.

Hiru erak (labur, ertain, luze) berdin zilegi izanik, argi dago euren espresioak oso diferenteak direla. Ez hobeak, ez txarragoak joskeraz, baina bai oso diferenteak estilistikoki. Segun zein kontestu, hirurak izan daitezke, estilistikoki, egokiak ala desegokiak. Edo, gutxienez, hirurak izan daitezke oportunoak ala inoportunoak.

Espresiotik aparte, edukian eta zatien loturan edo konbinazioan ere, emaitza ezberdina gerta daiteke. Esaterako, esaldi laburrekin, ez dago modurik pasarte osoa amaitzeko *"bizia ez baita hilen oroimenetik elikatzen"* arrazoiagaz, esaldi luzean apropos uzten zen bezala azkenerako, erremate indartsu gisan. Horrez gainera, esaldi laburretan (baita ertainetan ere), baiezpen asko egin behar dira, esaldi luzean apropos saihesten edo "menpetzen" direnak, araberako esaldien bitartez.

4) Esaldi luzea, gaztelaniara itzulita:

Una llanura desnuda, yerma o pelada por la industria maderera. Inesperadamente, se me aparece un árbol. Al acercarme, no encuentro más que una elipse de hojas erguida, cuya única razón es encubrir los tallos y las ramas, para que éstos, mediante su conexión al tronco, exploten el sudor de las laboriosas raíces, como si el sentido principal del conjunto no fuera el ser el lugar de anidamiento de los pájaros o el campo de juego de los monos, con lo que se logra, por fin, que el árbol solitario ostente, en el primer caso, una esencia creadora (nido), y en el segundo, una función social (juego), sin olvidar, cómo no, la rendida manada de leones que hubiera podido recogerse bajo él para soportar una siesta apestada de moscas, tras haber calmado su rabia con el despedazamiento de una cebra de culo redondo, justamente después de que, bajo los rifles de unos cazadores aristocráticos, venidos a descansar de una matanza de hombres, hubiera sido abatido un miembro de su familia, porque la vida no se alimenta de la memoria de los muertos.

Nekez izango da euskaldun irakurlerik Hegoaldean, gaztelaniazko itzulpen hori ondo eta "erraz" ulertuko ez duenik. Arreta zerbaitez, noski.

Karlos Cid Abasolo:

Ni ez nago guztiz conforme. Badira hainbat eta hainbat erdal irakurle (EHko hegoaldean zein Andaluzian) halako esaldi luzeak ozta-ozta ulertuko dituztenak. Mendeko perpausen pilaketak zaildu egiten du ulermena hizkuntza guztietan (baina agian euskaran gehiago).

"Arreta zerbaitez" esana uler bedi, nahi bada, arreta handiz, arte

guztiak jaso behar diren bezala. Ez da haurrentzako testu bat. Arkitektura literario batez ari gara. Beste kontu bat da estiloa "gogoko" izatea. Hemen ez gara gustuez ari. ("Gustuez ez dela ezer idatzia", baina zenbat gustatzen zaigun gustuez idaztea!). Euskararen gaitasunaz ari gara. Baita, zeharka, irakurlearen gaitasunaz ere.

Euskal testuaren bertsio luzea "normal" ulertzeko, zailtasun batzuk ageri dira, erdaraz zailtasuntzat ere ez daudenak. Sintaktikoki, zenbait irakurlek pentsatu behar du ("jakin" behar du) *"zeinaren funts bakarra..."* perpaus erlatibo bat dela, erdaraz hain normala den "cuyo"-ren berdina.

Karlos Cid Abasolo:

Erdaraz *cuyo* ez da hain normala. Izan ere, ahozko erdaratik erabat desagerturik dago. Eta idatzizkotik ere bai, hein handi batean.

Pentsatu behar du *"euren enborrera koneksioaren bitartez"* erdaraz hain normala den "mediante su conexión al tronco" dela. *"Zeragaz lortzen baita"* berriz ere erlatibo soil bat dela, erdarazko "con lo que se logra" bezalakoa. *"Bildua izan zitekeen"* aditz-denbora gehi erlatiboa erdarazko "que hubiera podido recogerse" besterik ez dela. Kontu "ebidentea" da, lan honen espiritura mugatuz, egitura horiek eta aipatuko diren guztiak ez lirakeela erdaratik deduzitu behar, baizik euskaran egon behar dutela, eta euskaratik ezagutu behar direla. Horixe da, hain zuzen, kontu zaila, baldin euskal irakurleari, bere hizkuntz prestakuntzan zehar, beharrezko hainbat egitura eta baliabide ezkutatu edo ezetsi bazaizkio.

Egituren auzia ulertutzat utzita, pasartearen zailtasuna, bai euskaraz, bai erdaraz, areago letorke kontzeptuen eta euron kateaduren aldetik. Horrelako zailtasunak, hizkuntza garatuetan ere, ästiroago eta adiago irakurritz konpontzen dira, testuaren tonua eta intentzioak atzematen saiatuz, edozein pasarte literariotan bezala. Testu baten kalitate komunikatiboa "lehenengo irakurraldian ulertzekoa izatea" maila batzuetan egokia izan daiteke, esaterako, esku-orri, herri aldizkari, egunkari eta abar. Eta beti ere, segun zer gai den, gaian ere zerbait aditua

izan behar baita. Testu literarioek, ostera, hizkuntz gaitasunaz eta arretaz gainera (biak nahitaezko baldintzak), zerbait gehiago eskatzen dute, sarritan. Gabiltzan kasuan, jakin beharrekoak dira, adibidez: *zur-industria* ("industria maderera"); *euron sendikide bat* ("un miembro de su familia"); *amorrúa... txikizoz ematu* ("calmar su rabia con el despedamiento..."); *biago eulitsua jasatera* ("para soportar una siesta apestada de moscas"); *hauek... sustrai lanpetuen izerdia esplota dezaten* ("para que éstos... exploten el sudor de las laboriosas raíces"); *bizia ez baita hilen oroimenetik elikatzen* ("porque la vida no se alimenta de la memoria de los muertos"). Bizi-hilen erlazio hori, gehienetan, alderantziz kantatzen eta exaltatzen ohituta gaude, "hilek biziengan iraun" eta abar. Zurtoinek eta adarrek "sustrai lanpetuen izerdia esplotatzea" ere ez da izango irakurleak maiz entzun duen arrazoa. Eta horrela beste hainbat intentzio.

Itzulpenean, zaila da (niretzat, behintzat) paragrafoaren azken lerroetako zatiak originalaren progresioan ematea. Alde batetik, "*euron sendikide bat gizakiak hiltzetik atsedentzera etorritako ehiztari aristokratikoen rifleetan akabatzetik berehala, hain zuzen*" zatia esaldi ligatuagoa da, erlatiboagatik eta beste ezaugarri batzuegatik, gaztelaniazkoa baino: "*justo despues de que, bajo los rifles de unos cazadores aristocráticos, venidos a descansar de una matanza de hombres, hubiera sido abatido un miembro de su familia*". Egongo da, noski, moduren bat gaztelaniaz ere hobeto ligatzeko, baina ez originalean hain garrantzitsua den elementuen ordena aldatu gabe, hizkuntza bien sintaxi ezberdina bide. Eta, batez ere, euskaraz bi ideia ("*akabatzetik berehala*" eta "*bizia ez baita hilen oroimenetik elikatzen*") lotzen eta kontrajartzen dituen "*hain zuzen*" ustez inozente hori, gaztelaniaz ("*justamente*") oso urrun gelditu da. Horrelako esaldietan nabari da hizkuntzen arteko trukatzeko literalak ezinezko direla, eta espresioan ere, batetik bestera, diferentzia gaindiezinak sortzen direla.

Literaturaz bezala, edozein azalpen-testuz ere berdin esan daiteke. Gai bakoitzaren ezagutza minimo bat behar da (terminologia, gutxienez), irakurketa ulergarri gerta dadin. Ezagutza hori suposatuz gero, erdara garatuaren irakurlea nekez kexatuko da esaldia, gramatikaz edo estiloz, zerbait konplexutu zaiolako. Erdara hutsera beharturik aurkitu ginen euskaldunok ere horrelaxe ikasi genituen asignaturarik ezberdinenak,

zailtasunak, beti ere, gaien ezagutzan gehiago aurkituz gramatikan edo esaldien konplexutasunean baino. Arrazoa argia da: hizkuntza bera konplexutasun normal hartantxe ikasi behar izan genuen. Beste era batera esanda, ez zegoen pentsatzerik hizkuntza bat ikastea, konplexutasun bat normalena izanik ez bazen.

Ebidentziara itzuliz amaitzeko, euskarak esaldi mota guztietarako gaitasun osoa eta normala behar du, baina hori alferreko eskakizuna izango da, baldin irakurleari, gorago aipatu bezala, beharrezko egiturak eta baliabideak moztu edo murriztu bazaizkio. Horretara datoz, hain zuzen, hurrengo ebidentziak, batez ere: perpausaren ordena bariatua; erlatibo osoa eta sintaxi osoa; aditz errazago eta laburragoa; eta, agian, garrantzitsuena, ondare komuneko lexikoa. Esapideak eta argota ere funtsezkoak dira hizkuntza lehiakor batentzat, baina ez diete hain zuzenki eragiten hizkuntza baten gaitasunari eta beraganako ulermenari.

IRAKURGAIAK

Azaroaren 4a, arratsaldeko 4rak, 4 puntu kardinal, 4 pelotoi. Eguna ezin zen huts egin. Orduak exaktoa behar zuen. 4 puntu kardinalena ez zen kapritxo astrologiko bat. Operazioa burutzeko era kartesiar bat zen. Tokiaren ezaugarriek banaketa laukoitzera deitzen zuten, errepedeen ebakidura perpendikularrak exaktoki laurdentzen baitzuen lau norabide oinarrizkoen planoan. Laurotan berdin banaturiko partaideen iritsiera azare ezinezkoa zatekeen, operazioaren antolatzaileek halaxe orekatzea erabaki ez balute, mugimendu osoa errazago libra zedin susmagarri bihurtzetik. 4-4-4-4 konbinazioaren lehen biak (azaroaren 4a, arratsaldeko 4rak) exaktasunez beteez gero, zaila zen ezusterik gertatzea. Hala ere, garaiko beldur-giroak ezartzen zuen lehen jardun-arauan ("*ez fida hurkoaren maitaleaz ere*"), ezinezko zen zirritu oro, hipotetikoak barne, estaltzen ez saiatzea, arriskuaren tamaina txikitzeko baino areago, prekaizio guztiak agorturik ere, beti jo beharreko erortze kasuan, ondorengo amesgaitzetik libratzearen ezen zorigaitza norbere arinkeriagatik gertatu zela. Urkagarri zatekeen hainbeste kostata diseinatu eta ez gutxiago saiatuta adosturiko operazio bat, xehetasun ergel bategatik, poliziaren antelazio fatal batek zapuztea, ez hainbeste euron argitasun profesionalerik, baizik, non egon

zehazki ez jakitean, edonon ager zitezkeelako.

Horiek eta beste ezuste oro saihesteko, lau norabideetako bina kilometro lehenago, plana zen garaiz elkartzea lau tabernatan, helmugatit distantzikide. Kafe konpleto bana edo aldarteak onartzen zuen bizigarria harturik, lau pelotoiek gertu egon behar zuten ziurki abiatzeko, erabakitako une doian: laurak zortzi minutu eta erdi gutxiagotan. Han ziren denak, elkarri animoa eman ez eta zortea opatuz, bakoitzak beretzat ezer behar ez balu bezala. Tarteka, urduri puntuak zemaian hitz-jarioan, atariko parrapera irteten ziren, lau tabernak elkarren bistan baitzeuden, aurretiaz halaxe hautatuak, aranak eskaintzen zituen abantailak baliatzeko. Prigmatiko gabe begizta zitezkeen bateko eta besteko mugimenduak, zaila ere ez zenez, mugimendu adostuak izanik. Telefonoa halako bazterretara iritsia izan balitz ere, konferentzia eskatu beharrak bitartekotza arriskutsuak ekarriko zituzkeen, eta walki-talki indartsu baina diskreto baten bidez jarraitzen zen lau multzoen osakuntza eta prestasuna.

Laurak hamar gutxiagotan, azken koneksio monosilaboa. *Prest? Bai!* Minutu eta erdi doi barru, zortzi eta erdi gutxiagotan, denak batera abiatuko dira, adostutako kontsignaren arabera. Lau aldeetatik elkar dakustenez gero, operazioaren abiatze simultaneo ez da teknikoki zaila. *Goazen!* agindua entzun denean, ostera, lehen urratsa bihozkada bortitza bat bezala durundatu da bakoitzaren barrunbe gordean. Batzuek, seinale temerariotzat baztertuak izan diren izara- edo larru-astintzeen nostalgiaz edo berrespenez, ezin diote eutsi musuzapi zuriak, soineko beltzaren kontra nabarmenago, xumeki airatzeari, itzulera gabeko tren baten leihotik bezala. Laurak zortzi eta erdi gutxiagotan, ipar-hego-eki-mendebaldetik, sinkronizazio ia neurotikoa, abian da armada bateko elitearen azken asalto dirudiena gotorleku baten aurka, nahiz berez ez den, presentzia fisikoaz beste arma gabe, gordeleku batean gotortzea lortzeko kolpe intzertu bat besterik. Handik urteetara ez bezala, errepideetako distantzia-denboren erlazioa zehaztasun hutsezinez aurreikusteko zorian bizi dira oraindik, ez semaforo, ez pilaketa, ez obra berri, ez istripu anizkun, ez bestelako ezuste biraogarri. Bakarrik ager daiteke apartatzen dakien animaliaren bat, edo bidearen erdian itxarotea gustatzen zaion trikornio-

aldra bat, baina hauena aurreikuspen arrazionaletik kanpokotzat jotzen da. Alegia, kontatu beharreko elementu bat. Kontua da, pentsatutako lau-lauretan, helburuaren ate-atean egongo direla.

Zuhaitz milenario baten aurrean belaunikatzen naizeneko emozio mitikoa ez da hainbeste bere iragan kasik hasiera gabeagatik (Orreagako bataila, adibidez, goitik ikusi zuen), baizik dardartzen naizelako pentsatuz antzinaki bizidun horrek nire izateari nasaiki biziraungo diola. Nire denbora alde bietarantz mugatua, haste kasualak baino gehiago zirraratzen nau amai seguruak, zeina zuhaitz zahar, ia ustel horrek batere pena gabe dakuskeen. Gaztainondo bategatik entzutean: *noizbait zahartu behar horrek ere!*, pentsatu ohi nuen: *hartuko neukezak horri falta jakozen urteak*. Eta orain, munduan bakarrik nagoenetik hiru urte osatzear direnean, geroz maizago jelosten naiz zuhaitz adintsuekin, lasai ikusiko baitute nire joatea ere, bost axola izanik munduan ez gelditzea eurak miresteko gai izango den inor. Bi zuhaitz izan ziren nire apaiz-urteen animatzaile: bata Gizaburuagako abadetxea jagoten zuen palmondoa, bestea Amorotoko elizosteari eusten zion arteondoa. Ez nintzen ausartu haiek beste urte eskatzera, herritarrekiko nire abantailak are handiagotzeko lotsaz. Orain, munduan neu bakarrik, ez dago beldurrik sakrilegioen, ez paganismoen, ez fitomorfismoen, ez ezeren, ez inoren. Beldur bakarra da zuhaitzek eurek tratua arbuiatzea, nire izatea ridikulu unibertsalera hedatuz, edozein zuhaixkak aurpegiatzeko moduan: *Hi al haiz zuhaitz zahar batzuekin berdindu nahi zuena?*

Azkenean ausartu naiz, pentsaturik zuhaitzek ezin dutela izan gizakiak bezain txotxolo. Artea oso zaharturik ezagutu nuen, baina mende erdi badaroa berdintsu, behin betiko izatera iritsi bailitzan. Desioak bentzutu nau eta proposamena formulatu diot, oso zehar eran: *Sinatuko neuke bizitzea, zu bizi zareno*. Berehala ulertu du, eta erantzun: *Eginda!* Horixe bezain sinplea izan da. Haur jolas haietako bat bezalakoa. *Egingo al dogu txiza maisuaren pipontzira? – Eginda!* Palmondo luzearen azpian gora begira jarri naiz (mende erdian asko luzatu da), eta honi ere diotsat, distrakzio bat gehiago bezala: *Sinatuko neuke bizitzea, zu bizi zareno*. Eta berak: *Eginda!* Berehala ohartu naiz bi zuhaitzekin tratu berdina egitearen

zentzugabeaz, nire bizia bakarra izanik. Isilean pasatzea ere bururatu zait, gero neuri komeni zaidanera makurtzeko, baina zuhaitzekiko infidelitasun immorala iruditu zait. Eta batez ere, destinoaren tentatze lar temerarioa. Infidelitasunagatik bakarrik, beharbada aurrera egingo nukeen, zuhaitzekin konfiantza handia baitut txikitatik, non hegatu ezina ordezten nuen euren erpinera igotzez, han zabutzeko edo birundatzeko. Zuhaitzak nirekin nobleago izan dira ni eurekin baino. Destinoagaz, ostera, ez naiz ausartzen. Munduan gizaki bakar geratu nintzenean, psikosi sozialetik elikatzen zen ente mamuki horrek ere ezabatua behar zuela suposatu behar zen, eta halaxe tratatu izan dut, hurko inexistente bezala. Beldurrak hortxe jarraitzen, ordea, eta zerbaitena izan behar zuela pentsatu nuen. Horregatik, badaezpada, palmondoari aitortu diot tranpa txiki bat egin diodala; aurretik, arte zahar bategaz tratu berdina egitetik netorrela. Bazekiela erantzun dit. Harriturik neu, zergatik onartu duen galdetu diot, eta berak erantzun, neuk jakingo dudala zertan nabilen. Zuhaitz biekin baterako tratua onartuko zukeen galdeturik, ez ei zuen ulertzen nola. Tratuaren formula fusionatua eman diot: *Sinatuko neuke bizitzea, zuek biotako bat bizi deno*. Berehala ihardetsi dit hori abantaila handiegia zela nire alde. Nire erantzuna ez zen zaila, benetan sentitzen bainuen: *Ez da abantaila, maitasuna baino. Biok maite zaituet, ez dakit zein gehiago, eta ezin dot bata hobetsi bestearen gainetik*. Palmondoak amore eman du, esanez: *Maitasun kontua bada, aurrera*.

Orain alderantziz aurkitzen naiz. Erromako komunitate bat. Sor Misielloz beste, ez dakit zenbat laguneko etxean nagoen. Eurek ere ez dakite nor naizen. Ezta banaizen ere. Goizaldea. Berdin izan ninteke ni, zu, hura, bera, maliar bat, espartar bat, inor ere ez. Apopiloen eta sor Misielloren ate banaz beste bat ere bada hor. Hainbeste atedun egonguak aztoratzen nau. Ate beretiko sar-irtena behar dut. Kartzelatik irteera ate ezberdinetik paratu zidatenean, planto egin nuen: *Sartu nintzen atetik irten nahi dut*. Bortxaz atera ninduten. Erromako hirugarren ate hori zehartuko banu, inor aurkitzea zail da, baina litekeena. Ea zer gertatzen den. Iluna. Jantokiko argia itzali dut, eta balearen urdailean gelditu naiz, zurezko zoruaren ontzi-soto usainean. *Balea hau ustelduta jagok*. Haztamuka, giltza bati eman diot. Tunel antzeko pasillo luze-luze bat ireki da. Meatze galeria

bat. Ate batek komuna izan behar du. Ez zirudien, baina bada. Sartu naiz eta, argi guztiak itzalita, ukitzez neurtzen ditut dimentsioak. Obsesioa daukat entzerraturik nagoen edozein gelatako dimentsioekin. Zenbat hatz, oin, oinkada, zenbat arra, besada. Horiek gero metroetara, zentimetroetara ekarri, edo alderantziz. Pentsa liteke kartzelak sortutako jenioa izan behar duela, baina ez. Sena aurretik nekarren, oso garatua. Kartzelan gertatzen zena zen neurriak inoiz ez zirela berdinak egunetik egunera, gehienetan esturantz baizik. Horrek batzuetan adoretzen, beste batzuetan abailtzen ninduen, baina egunak bereizteko moduetako bat zen.

Miraririk handiena neure Otoio hoteleko terrazan gertatu da, eguerdian. Gauza harrigarria berau, mirariak ilusentian ikusten ohiturik baikeunden, ez argi, ez ilun. Edo gehienik egusentian, baina azkar, argiaren gehitzeak dena ezaba ez zezan. Nirea eguerdi-eguerdian izan da. Lerro soil bat agertu zait, eguzkiaren islaren arabera bakarrik ikusgai. Posizioak uzten du hurbiltzen eta urruntzen, islaren lerrotik ez irtetekotan, baina pitin bat alboraturik, dena itzultzen da terrazaren gris ilunera. Lorratz bat dirudi, agian ubera bat. Distantzia batera eta makurturik, kate distiratsua da, gurpila galdutako quad baten kate arrastatua iduri. Zutik hurbiltzean, junturak tarte handiagoeekin banatzen direla eta tarteak hutsune totalak direla ageri da, halako eran, non aleak guztiz bereiz dauden, lerro posizioaz beste batasun gabe. Horrela ikusiz, eta katea ezin izanik, junturak baino petalo txikiak dirudite; angelu leunduzko karratutxoak. Ez baitakit horrelako petalorik baden, diodan korola laukoitz ñimiñoak direla, hain lerroan eta hain exaktasun uniformean banaturik, non dirudien pintzel matematikoki xaltari bat igaro dela, lerro xuabeki kurboan silueta bat trazatuz. Korola ñimiñoen zilar-koloretik, txanpon ilara bat ere pentsa liteke (gerriko numismatiko bat), euren biribiltasun osorik ezak irudipena deuseztuko ez balu. Lerroari jarraituz, harritu naiz bihotz handi baten silueta osatu denean, Machu-Pichuko zelaian zeruaren marrazki alegoriko bat bezala. Berehala ohartu naiz miraria bikoizten dela, ikustean marrazkiaren behe-erpina ez dela gerri mehe bat besterik (bi lerroren gurutzatze bat), non aldaka-joko ezin sentsualago bat zabaltzen den, arrain-isatsera errenditzen dena. Haragi marduleko sirena

bat ikusten ari naiz, zeinaren bihotz-sorbaldak iruditu zaizkidanak bular oparo eta zorazleen marko bihurtu diren. (Bitxi da zertatik eman zaion itxura cupidotar hori bere imitaziorik fidelena ukabila den organo bati). Bularrek ez dute aparteko markarik ez titibururik, baina nabaria da euren presentzia, berdin besoena, oinarritzko siluetak ezin baitu beste zentzurik izan. Sirena biluz baten aurrean nago, aratinik etzana bera. Niri emakume jantziak gustatzen zaizkit, baina biluzik ere begiratzen diet. Norena da nire terrazan jostatu den pintzel enigmatikoa? Neure lagun Beorlegiz oroitu naiz, bere ferozitate surrealistikoki biguntasun baikorragora jaisten zenean, baina ez. Haren baikortasuna ez da iristen gizakiari arrainaren errematea esleitzeraino. Jon Gorriti bururatu zait gero, nire lagun hain txorizalea, ezen "txoriburu" deitzea ez lukeen iraintzat hartuko, baina ezta. Hura ez litzateke gai arrain bat marrazteko, hegatsak hego bihurtu gabe. Fauvismoaren koloreak eta kubismoaren geometriak hornigarri exzitanteak lirateke, zirriborro minimal honen xarma (prehistorikoa, neure terraza dela ez baneki) adulteratuko ez balute, kontuan izanik terrazako figurak aipatu horiena baino kurbotasun beteagoa, karnalagoa ageri duela, eta bere edertasuna lerro baten jarraipenik sinpleena izatean datzala. Vitrubioaren Gizasemera joko nuke, terrazakoa gizalaba ez balitz; detaile konpongarria berau, Leonardoren marrazkia lar zientifikoa ez balitz. Rubens sensualari lar haragitsu deritzot. Goyaren marrazkiek badute zantzu kezkarri bat, eta orain ez nago alararako. Botticelliren mardultasuna lar nakaratu iruditzen zait. Tizianoren zirriborrotzat pasa liteke, baina Giorgioneren Venus Lokartua hautatu dut, zeinaren gozotasun kitzikagarria egilearen bizitzaren misterioan galtzen den. Horixe baita marrazki elemental, prehumano honen izate inponentea: misterioaren miraria.

Putian gorian dorian! Misterioa eta miraria ez-tandan dispartu dira, susmatu dudanean, mortalki txunditurik onartu behar izan dudanean, fenomenoaren eduki guztia ez dela besterik bare soil baten iragaitza baino. Lerro bakarrean, lepotik hasi eta gorputzaren goi-erdiaren alde batean zehar, gerritik behe-erdiaren beste aldera jarraituz, arrain-isats perfektua osatu du, eta bueltan dator beste alde biak lotzera. Berriro gerrian gurutzaturik, lepoko abiapuntuagaz bat egin du. Deskribatzen bainoago kalkulatu ari naiz, jakinik nahitaez geldituko direla inkongruentzia handiak, misterio edo mirari guztietan bezala. Artek miragarritasun guztia osatzeko (ala

gainditzeko?), ikaratu naiz ikustean fenomeno tragedia bikoitz baten ezustean hiltzen dela. Bare gaxoa bere lorratzaren azken petaloak doidoi markatuz iritsi da lepoaren gurutzera, eta lirdinga guztia ahiturik, hortxe gelditu da siku, burua marrazteko aurrera ezin eginez. Miha batek erreparatu dio, eta moko puntan darama, gosaritzat, miraria terrazan utzirik, nondik ateratzen den mirari bat izan daitekeela egia, nahiz edukia falta, izan daitekeen bezala argia ere, bere iturburua aspaldi itzalirik. Nola liteke molusku ezdeus baten, labain eginda jausteko beldurratik ez balitz, lasai zapalduko nukeen muki-jario itsu baten noraezak eta eguzki hiltzailearen azpiko bere angustiak hain figura sublimea eta sensuala marraztea, lorratzaren huts-beteak zehaztasun exaktuan kateatuz?

Gauzak eratu behar dira zoritxarra saihesteko moduan, baina behin zoritxarra abiatuz gero, azkeneraino eroan beharra dago, bareak egin ez duen moduan. Kontuz! Maitasunean dena eskatzea bezalakorik ez dago, ezer gabe gelditzeko. Munduan neu bakarrik gelditzea zoritxartzat hartu behar al dut? Maitasunean zer da, orain, dena eta ezer ez? Erantzuten saiatzen naiz, baina soluziorik ez zait interesatzen. Pentsaketa bakarrik behar dut. Zerbait, edozer, pentsatzen ez ahazteko. Horretarako, ahalik hitz gehien eta zehatzenak behar ditut, eta ikaraturik nabil alderantzizko aldasbeheran ez ote noan, hitzak joaten ari baitzaizkit, haize-orbelak iduri. Behinola errimajokoak bezala, orain hitz- eta ideia-jokoak burutzen ari naiz. Esaterako: *bikain*. Eta darrait: *on, eder, bitxi, galant, majo, polit, ganorazko, dotore, dezente, zoragarri, jauka, mortal, itzel, sublime, ikusgarri, esplendido, lorios, eszelente, itxurazko, mundial, xarman, egundoko, dibino, bapo, apart, puntako, genial, izugarri, balios, fenomenal, bana-banako, magnifiko, txitezko, sekulako, ideal, berdingabe, primerako, hauta, berebiziko, bitore, eskisito, paregabe, terrible, ahzuloko, markako, ikaragarri, ezin-hobe, alimaleko, zerutar, ohidalango, super, harrigarri, alazoko, berealdiko...* Jo gabe hitz beren apaindurak, nola: *itzelezko, ikusgarritzko, berdingabeko, zorragarritzko, izugarritzko, paregabeko, terriblezko, markatik gorako, fenomenalezko, harrigarritzko...* Eta apropos ahaztuta, esan ezik, inor konturatzea zaila den 'kristorena'. Edo: *berezi*. Eta darrait: *bereiz, singular, bakar, original, ohigabe, partikular, bakan, espezial, ezohiko, espezifiko, bana-banako, eskusibo, propio, norbereki, pertsonal, pekuliar, berdingabe, kurioso, bestelako, diferente, nabarmen, tipiko, seinalatu, atipiko, arraro,*

exotiko, eszentriko, ezberdin, estrabagante, berariazko, estrainio, aukerako, eszepzional, karakteristiko, aparteko, dibertso... Beldurturik nenbilen kontua ez ote zen mugatuko, astiro baino bizkorrago, gama guztia *bikain* edo *berezi* izatera. Orain nire izua beste bat da: hitz biziraule hauek ere (*bikain, berezi*), dena eurekin adieraztera biziatu nintzenok, gandu bihurtuko dira, zentzuez totalean. Baliteke materialki ez ezabatzea, baina bai soinutasun soilean irautea. Milioika hots ezberdinezko oihan unibertetsala hizkuntza partikular bat ezin osatuz gelditzea bezala. Hustu zaizkit edukiak. Galdu ditut ideien loturak. Joan zait pentsamena. Ezabatu da nire nia. Gehien itxaron dezakedana animalien erreinura jaustea da (beherago ez, mesedez!), nahiz natura jeloskorra errimea den beherantzkoa, behin abiatuz gero, azkeneraino eroaten. Ez nago ziur horrela izango den, eta ez dut probatu ere gura. Alderantzizko norantzan bakarrik saiatuko naiz. Eta ahaleginak, eusteko ez ezik, kontzientzia biziagotzeko balio deidan, euren izenik ez dakidan gauza guztiei (gehien-gehien-gehieni) izen bana ezartzen dihardut, hura imitatuz, zeina sorkariak izendatzean ohartu baitzen zer egin zuen. Horrela, neure bizi arteko zeregin atsegina segurtuz gainera, eurekin harreman zuzen eta banakoan bizi naizen gauza guztiek beste hainbestean behartuko naute neure kontzientziaz ohartuki gozatzerako. Azkenean, badirudi zoriona posible izango dela.

- Dokumentu hauek ondo daudela dirudi. Utziko al didazu nortasun agiria, mesedez? Zuk ere bai, ardura ez badizu –diost niri.
- Bai pozik ere! Ohituta dago eskuz esku.
- Faltserian?
- Eskaera ezberdinetan esan nahi nuen. Faltsu kontua iradoki bada, neure inkontzientearen asoziazioa izango zen.
- Ez al dakizu "asoziazioa" delitu dela?
- Toki alazoan gaude horretantxe hasteko!
- Hauek ere zuzen dirudite. Tori!
- Azkarregi ez al dituzue onartu? –galdetzen dut, nortasun agiriak hartzen ditugula–. Kartoitxo hauek ateratzea ez zitzaigun gutxi kostatu!
- Hemen ez daukagu analisi sakonagorako modurik, baina ilegal-kezka

bazenute, badugu nora bidali.

- Ez, mesedez. Ez da behar, seguru ibiltzea ondasun handia da baina.
- Nondik zatozte?
- Gentozen aldetik ez dago Lekeitio besterik.
- Lekeitio zer duzue zuek elkarrekin?
- Gaur tailer bat, nire motor aberiatua utzi eta Don Kersenen autoan abiatzeko.
- Norvegiarra ala finlandiarra zara? –galdetzen dio Kerseni.
- Elkarrengandik bereizten direla susmatzea ere ez da gutxi –darantzu Kersenek.
- Izen polarra baitirudi.
- Ez, ba. Bertoko petoa da. Kresentzio→Kresen→Kersen. Batzuentzat, Kertsen.
- Izenak kamuffatzeko bizio handiegia ez al dabil inguruotan?
- Bizio ageria izango da, denek deitzen bainaute Kersen, hizketan hasi berriek barne.
- Nora zoazte?
- Gernikara –darantzut azkar, Kerseni ahalik isilen egoteko mezua transmititu nahian.
- Jakin al daiteke zertara?
- Artzapezagana.
- Gernikako artzapezaren lagunak zarete?
- Menpekoak areago, baina Gandara deiturako gernikar abade eta idazle antzinako baten datu bila nabil, eta artzapezaren baimena behar dut, eliz liburu zaharrak ikusteko.
- Liburu zaharretan arduraturik zabilatzatela, beraz –dio "zaharretan" markatuz, "eliz" entzun ez bailuen.
- Zaharrak izan dira berri, eta berriak izango zahar.
- Arrazoï biribila horixe, liburu zaharrak estalgarrizat erabiliko ez balira.
- Ez dut ulertzen zer esan nahi duzun, jauna.
- Neuk ere ez garbi-garbi. Ikustea komeni da. Zabalduko al diguzue autoaren maletegia, mesedez?
- Oraintxe bertan?
- Bai, arazo larriren bat ez bada.

- Autoa kanpoan baitago.
- Ez zaizue ekartzeko agindu. Goazen!

Oraintxe bai ez daukagula eskapurik.

- Jaurtik giltz hori! -diotsat bidean Kerseni, ukondokada disimulatuan.
- Hemen ezin da hizkuntza hori egin! -mehatxatu naute.
- Latina zen. Artis clitoris. (Ulertuko ahal du behar denak clitoris horrek "giltza" esan nahi duela!)
- Ez latinik ez rusorik! Hemen hizkuntza bakarra dago, ondo dakizuezen.
- Barka. Batzuetan, gogo atzeregi joaten zaigu, latinaren gaineraino.
- Ibil hitzik gabe!

Azken hitzok zakarrak izan dira, "bizi zaitezte hilik!" agindu bailuen.

- Esan dut ezin zaretela sartu! -purrustatzen da patruila-burua, ilargi laurdenean inguratu garenean.
- Zergatik?
- Agindua da.
- Aginduen arrazoirik ez al zaizue ematen?
- Ez da behar.
- Hau enkante bat da. Entzuera publiko bat.
- Hau aginduak dioena da, besterik ezer ere ez.
- Orduan, guk nola eskain dezakegu?
- Ingurutik alde eginda, guri barrabilak handitu aurretik.
- Prezio ona eskaintzeko asmoa genuen, ba, isunaren zenbatekotik gora.
- Eskaintza kolektiborik ez da zilegi.
- Txarto informatuta zaudela uste dugu. Gauza bat da eskaintza eta beste bat ordaina, denon artean egiterik debekatu ezin zaiguna.
- Zertarako behar duzue motor madarikatu hori?
- Milesker, nahi genuen galdera egiten deskuidatu zarelako.
- Erretiratzen dut galdera!

- Guk ez, ordea, erantzuna.
- Izan bedi motz eta zentzubakar.
- Motz, baina zentzubikoitz: zigortuari auto bat erosiko zaio, eta motorra kanpandorrean esekiko da, ignominiaren sinbolotzat.
- Ez al zaizue bururatu zeuek esekiak izaterik?
- Zaila da ez bururatzea ofizioa dutenekin, baina ez dugu uste motiborik ematen ari garenik.
- Barreia zaitezte berehala, kalea eta epaitegia inbaditzeari utzita.
- Epaitegiko presidenteagaz hitz egin nahi dugu.
- Epaitegiko presidenteak ez du zuekin hitzik nahi.
- Ez dakusgu zergatik. Guri, Jainkoaren ordezkari garen arren, ez zaigu degradapena iruditzen epaitegi bateko presidenteagaz hitz egitea.
- Bost minutu dituzue barreiatzeko edo ondorioei aurre egiteko.
- Ordezkaritza bat ezin dugu epaigelara bidali?
- Ez ordezkorik ez urdaiazpirik!
- Zigortuari itxaroterik ez al dago, hemen geundela adierazteko?
- Lau minutu!
- Emango al diguzu zeure identitatea, mesedez, presidenteaganako helera norik moztu zuen jakin dadin?
- Hiru minutu!
- Ez dukezu erraz behar direnak apartatzen, suposatzen baita zure zuzentasun profesionalen ez dela sartuko sotanadunak jipoitzeko irreberentziarik.
- Eurak gusturen, besteen ondoren. Bi minutu!
- Ohartzen al zara erregimen katoliko eta konfesional baten zerbitzari zarena?
- Minutu bat!
- Minutu batean ez dago konfesatzeko denborarik.
- Izango da penitentziarako, ez bada damurako. Eraso prest! ¡Viva el Caudillo en su puto clero!
- Et, et, et, et!! -dagigu oiuhu denok batera.
- Zer birao zen hori, madarikatuena? -Kanta baten laburdura ulertu bide dute: "Eta tiro eta tiro, eta tiro baltzari..."-. Bakez ez bada, bortxaz!
- Bakea guretzat, bortxa zuentzat. Zaudete jaunaren mahaipean!

- Esan dut ezin zaretela sartu! -purrustatzen da patruila-burua, ilargi laurdenean inguratu garenean.
- Zergatik?
- Agindua da.
- Aginduen arrazoirik ez al zaizue eman?
- Ez da behar.
- Hau enkante bat da. Entzuera publiko bat.
- Hau aginduak dioena da, besterik ezer ere ez.
- Orduan, guk nola eskain dezakegu?
- Bistatik alde eginda, guri barrabilak handitu aurretik.
- Prezio ona eskaintzeko asmoa genuen, ba, isunaren zenbatekotik gora.
- Eskaintza kolektiborik ez da zilegi.
- Txarto informatuta zaudela uste dugu. Gauza bat da eskaintza eta beste bat ordaina, denon artean egiterik debekatu ezin zaiguna.
- Zertarako behar duzue motor madarikatu hori?
- Milesker, nahi genuen galdera egiten deskuidatu zarelako.
- Erretiratzen dut galdera!
- Guk ez, ordea, erantzuna.
- Izan bedi motz eta zentzubakar.
- Motz, baina zentzubikoitz: zigortuari auto bat erosiko zaio, eta motorra kanpandorrean esekiko da, ignominiaren sinbolotzat.
- Ez al zaizue bururatu zeuen buruak esekiak izaterik?
- Zaila da ez bururatzea horretarako ofizioa dutenekin, baina ez dugu uste motiborik ematen ari garenik.
- Barreia zaitezte berehala, kalea eta epaitegia inbaditzeari utzita.
- Epaitegiko presidenteagaz hitz egin nahi dugu.
- Epaitegiko presidenteak ez du zuekin hitzik nahi.
- Ez dakusgu zergatik. Guri, Jainkoaren ordezkoko garen arren, ez zaigu degradapena iruditzen epaitegi bateko presidenteagaz hitz egitea.
- Bost minutu dituzue barreiatzeko edo ondorioei aurre egiteko.
- Ordezkaritza bat ezin dugu epaigelara bidali?
- Ez ordezkari ez urdaiazpi!

- Zigortuari itxaroterik ez al dago, hemen geundela adierazteko?
- Lau minutu!
- Emango al diguzu zeure identitatea, mesedez, presidenteaganako helera nork moztu zigun jakin dadin?
- Hiru minutu!
- Ez dukezu erraz behar direnak apartatzen, suposatzen baita zure zuzentasun profesionalean ez dela sartuko sotanadunak jipoitzeko irreberentziarik.
- Eurak gusturen, besteen ondoren. Bi minutu!
- Ahaztu al zaizu erregimen katoliko eta konfesional baten zerbitzari zarela?
- Minutu bat!
- Minutu batean ez dago konfesatzeko denborarik.
- Izango da penitentziarako, ez bada damurako. Eraso prest! ¡Viva el Caudillo en su puto clero!
- Et, et, et, et!! -dagigu oihu denok batera.
- Zer birao zen hori, madarikatuena? -Kanta baten laburdura ulertu bide dute: "Eta tiro eta tiro, eta tiro baltzari..."-. Bakez ez bada, bortxaz!
- Bakea guretzat, bortxa zuentzat. Zaudete jaunaren maahipean!

Neuk ere, esateko asmorik izan gabe, azkenean agertu nion apaiz ohia nintzela -*iOh, padresito!*-, eta bazirudien berri horrek entusiasmoa handitu ziola. *Banekien non eskatzen nuen zorte ona!* Zorte kontuak berriz ere inarrosi ninduen, baina ezin nion gakorik aurkitu. Denak ninderaman hain emana naizen amets hondarretara, zeintzuetatik, errealitatean euren inolako egiantzik ez aurkitzean, sentipen indartsu baten esplikazioa atera nahi izaten dudana, lausotasun etsigarrian beti. Argitasun bat atzeman uste dudanekeo, ametsa ezabatu da.

- Oraindik batzuek Don Xabier dioste. Ez dakit badakizun, baina Xabier nafarra zen, eta Nafarroako zaindari da. Zeure zaindari.
- Bai linoa! Benetan zorte ona eman behar didazu.
- Ez fida, preso ere egona bainaiz urteetan.

- Preso zu bezalako ogi-zopa bat?
- Ez zaitut azalpenetan nahasi nahi, beldur bainaiz arrazoiak zure ezagutzatik urrunegi gerta daitezzen, baina jakingo duzu hemen ez dela amaitu zahar diktadura luze bat.
- "Kakanarruaren diktadura", gure amamak zioenez?
- Zeozer badakizu orduan, eta gaurko, nahikoa da hortik. Seguruenik, gehiago ez dugu elkar ikusiko, baina elkartzeko bitxi honetaz gogoratzean, hala izango baita bizidun naizeno, zer izenez gogoratu behar zaitut?
- Talita. Talita Márquez.
- Talita??? -irten zait ia oihuan.
- Bai. Zer du izen horrek?
- Egoeraren arteko singulartasun guztiek txiki gelditu behar dutela uste dut oraintxe.
- Zer gertatzen zaizu? -galdetzen dit ikaraz, esku artean gorde dudana burua igurtziz.
- Inoiz ez nuen pentsatuko ez zitekeena bazitekeenik! -darantzut atzerapen handiz, areago neure golkoari. Burua jaso eta bekoz beko begiratzen diot, berari baino gehiago, beragan zehar ageri zaidan atze-ikuspen luzeari.
- Zer da ez zitekeena?
- Badela susmatzen dudana. Zure amak Talita du izena?
- Talita Márquez, neuk bezala.
- Eta amama ere Talita?
- Talita Márquez hura ere.
- Aitarik ez al dago bitartean, eskailera guztia Márquez izateko?
- Gurean aitarik ez da konda.
- Bakarrik falta da neu izatea bera.
- Bera zu... zer?
- Historia luzeegia da labor kontatzeko. Zuk orain zeure lana dukezu. Bihar natorke buru hornituagoz. Etxetik irten zaitetzeko?
- Egunero irteten naiz.
- Orduan, Belatera joango gara biok, solas lasaian. Denbora guztia ordainduko dizut, gainsari eta guzti.
- Aurrerapen bat ezin dut jaso?
- Bai, bai, nire sakelak une honetan zimel samar dagozke baina.

- Zertan ari zara?
- Ez al didazu eskatu...
- Kontakizuna! Nola deritzadazu diruzko aurrerapena eskatzeko bezain emagaldur?
- Barka, Talita, barka! Niretzat aurrerapena... Barka, bai! Bihar natorke.
- Aurrerapen zuzena airean gelditu da.
- Barka hori ere, baina kontaktzen hasi aurretik, neure baitan asimilatu behar dut.

2. EBIDENTZIA. PERPAUSAREN ORDENA

EUSKARAK ESALDIKO ELEMENTUAK ORDENATZEKO ERA
EZBERDIN ASKO DITU, ETA DENAK DIRA BALIAGARRI ETA
BALIOS, ARGITASUN, ZEHAZTASUN ETA ESPRESIOAREN BAITAN

Seminarioko urte ilun eta menperatu haietan, euskara lantzen hasi ginenean, Bizkaiko eta Gipuzkoako liburu garaikideak edo ez hain antzinakoak generabiltzan gehienbat. Seber Altuberen *Erderismos* saiakera ere eskurik esku zebilen. Nik, neure aldetik, bertsoak ere milaka irakurtzen eta ikasten nituen. Esan nezake sintaxiaren eta, zehazki, perpausaren ordenaren ideia global nahiko sendo eta unitarioa nuela. Axularren *Gero* eskuratu nuen arte. Hemen eskema guztiak hautsi zitzaizkidan, edo behintzat, lokatu. Hala ere, mundu berri liluragarria iruditu zitzaidan, bai Axular bera, bai Iparraldeko tradizio guztia. Bazirudien euskararen eremu osoaren ezagutzailer nintzela, eta hara non eskuratzen zaidan Mogelen *Peru Abarka*. Beste shock bat! Axularrena baino handiagoa, ze hau etxe ondokoa nuen, neure euskalkiaren barru-barrukoa. Perpausaren ordenari buruzko nire "ideia global nahiko sendo eta unitarioa" berriro inarrosi zen. (Karloš Cid Abasolo: "Nik antzeko esperientzia izan nuen. Altuberen legeak maiz ez zetozen (datoz) bat euskara "errealarekin").

Geroztiko urte luze, praktika ugari eta gogoeta ez gutxiren ondoren, bigarren ebidentzia honetaraxe heldu naiz. Eta ez da ebidentzia bat desiagarri mailan bakarrik, ebidentzia erreala moduan baizik. Egia baita euskarak, esaldiaren ordenan, era "asko eta ezberdinak" dituela. Are gehiago. Hirugarren ebidentzian aipatuko diren korapiloak askatuz gero, eta sarritan konkordantzian sortzen diren koskak gaindituz gero, esango nuke inguruko hizkuntza garatuek baino posibilitate handiagoak eskaintzen dituela. Beste ebidentzia batzuetan (aditza, lexikoa, argota...), oraindik desabantaila handian bagaude ere, esaldiaren ordenan ez dago zer bekaizturik, daukaguna praktikatu baizik. Eta gidari, hiru kontzeptuok izan behar dute beti: argitasuna, zehaztasuna, espresioa.

Era ezberdin eta ugariak baliatzeak ez du esan nahi nonahi eta nolana egoki denik. Ez da berdin herri aldizkari bat, edo egunkari nazional bat. Egunkarian ere, ez da berdin zutabe bat, informazio bat, iritzi artikulua bat, edo gai jakin bati buruzko artikulua magistral bat. Kontu asko dira ezberdinak, eta denetan egin daiteke oso ondo, ez hain ondo, eta txarto. Maila eta medio ezberdinak aparte utzita, gure ebidentzia zein parametrotan aurkezteko neurria esaldiaren luze-laburra izan daiteke. Dena delako maila edo medioa izanik ere, esaldi bat laburra, ertaina edo luzea izan daiteke. Ertaina eta luzea ez dugu hartzen luzera materialean bakarrik, baizik, batez ere, konplexutasun sintaktikoan.

Horretan, esaldi laburrak nahita ere zail du konplexua izaten. Laburrean zein luzean, euskarak badu, noski, edo izan behar du, sen eta joskera orokor eta nolabait zuzen bat, azal daitekeena, eta zeinaren arabera okerrak ere zuzen daitezkeena. Luzean zailago da zuzentasuna definitzen, baina laburrean errazago ikusten da. Horretan, *Euskara batuaren bigarren jaiotza*-n esaten zen (49. or.):

"Beste mania bat esaldi osoaren ordena ia sistematikoki aldatzea da: *Jai handia egingo dute aurten ere euren zaindariaren egunean auzokoek; gura baduzu izan film eder batez gozatzeko aukera...; ez dutela aurrekonturik prestatu oraindik adierazi zuen alkateak*. Adibideak ehundaka aurkituko dituzue egunkari zein aldizkarietan, esaldiak horrela josteko estiloa, intentzio espresiboetatik aparte, sistematiko bihurtzen ari baita.

Ez da idazkera jasoaren kontua, nondik eta nola sartuz doan ez dakigun bizioa baizik. Txarto al dago? Ez. Hemen txarto ez dago ezer, norberak nahi duen moduan idaztea eskubide bat bada, baina esaldi horiek, oraintxe ere, beste honetara naturalago dira: *Auzokoek aurten ere jai handia egingo dute euren zaindariaren egunean; film eder batez gozatzeko aukerarik izan gura baduzu; alkateak adierazi zuen oraindik ez dutela aurrekonturik prestatu*".

Beste kontu bat da esaldi luzeago eta konplexuagoak datozenean, non konkordantzi arazoek, esaldiaren progresioak eta, oro har, espresioak beste ordena batzuk eska ditzaketen. Beti ere, argitasun eta zehaztasun baten barruan. Elementu hauek ezin dute huts egin ezin maila, medio ez erregistrotan. Argitasunak ez du "erraztasuna" esan nahi. Izan daiteke testu zaila kontzeptuengatik, baina sintaxi argikoa. Alderantziz esanda, iluntasuna izan daiteke irakurlearen gaitasun mailaren kontua. Horren errua ez da hizkuntzarena. Bi oinarri horiek (argitasuna eta zehaztasuna) nahitaezko zat emanik, hortik aurrerakoan espresioak agintzen du. Euskarak horretan ere badu, eta izan behar du, espresio zuzen orokor bat, zeinean jaregintasun edo malgutasun handi bat ere funtsezko zat jo behar den, ahalik espresio on eta sendoenaren alde. Hortxe da dioguna euskarak esaldia ordenatzeko "era ezberdin asko" dituela. Esaldi laburren kontua arestiko aipuan utzirik, egin ditzagun proba batzuk esaldi luzeagoan. Esaterako, *1. ebidentzia*-n jaso dugun bat:

"Unerik solemneenetan maliziarik bihurrienak ekartzeko grinatik oraindik libratzeke darraien nire gogoak ezin izan du pentsatzea ekidin ezen, hain emakume guria eta itxuraz hain bitala izanik bera (beloek zehar-ikusten uzten dutenari irudimena erraz gehitzen zaio), hainbesteko argiztapena ez dela izango, agian, pentsakizun ilunei aurrea hartzeko klaritatea bakarrik, baizik apaiz gazte lerden baten ofiziozko atentzioa gozameneko adei bihurtzeko era subtil bat".

Proba, noski, esaldiaren osotasuna hautsi gabe egin behar da. Zatitzen hasiz gero, nahi diren birrin guztiak atera litezke, baina hori beste kontu bat litzateke. Eta beste estilo bat. Esaldia kontestuan ulertzeko, apaiz bat, misio sekretu baterako, Erromako komentu batean ostatatu da. Moja batez beste inorekin ez dauka traturik komentuan. Behin, mojak ohi

baino argi gehiago pizten du egongelan. Horrek apaizari pentsakizunak abiarazten dizkio. Esaldia hautsi gabe, hauxe izan daiteke beste era bat:

“Nire gogoak, oraindik libratzeke darraienak maliziarik bihurrienak unerik solemneetan ekartzeko grinatik, ezin izan du ekidin pentsatzea ezen hainbesteko argiztapena, izanik bera hain emakume guria eta itxuraz hain bitala (erraz gehitzen zaio irudimena beloek zehar-ikusten uzten dutenari), agian ez dela klaritate bat bakarrik izango pentsakizun ilunei aurrea hartzeko, era subtil bat baizik, gozamenezko adeian samurtzeko era subtil bat baizik, gozamenezko adeian samurtzeko era subtil bat baizik, gozamenezko adeian samurtzeko era subtil bat”.

Baldin testu originala, bere konplexuan, argitasun eta zehaztasunean zuzena bazen, bigarrena ez da gutxiago, baina espresioa diferentea da. Esaldiaren elementuak atzera-aurrera desplazatzen dira, eta elementuen garrantzi korrelatiboa aldatzen da. Lehenik, hasierako erlatiboaren izaera aldatzen da. Amaierako bi ideien garrantzia ere aldatzen da. Azkena eta, beraz, garrantzia ematen zitzaion zatia aurrera pasaturik (“gozamenezko adeian samurtzeko”), beste ideia nagusitzen da: “apaiz gazte lerden baten atentitze ofiziozkoa”. Esaldiaren erdian ere antzeko aldakuntzak egiten dira. Bertsio honek, korrektua izan arren, ez ditu originalaren asmo espresiboak betetzen. Baina bai da beste era bat, zuzena eta baliosa, gauzak bertan adierazita dauden bezala sentitu izan balitu idazleak.

Esaldi amaitu baten aldaerak ezin dira asko izan, egituraren osotasuna errespetatu behar bada. Era asko eta ezberdinen abantailaren unea ez da, ordea, amaitu ondokoa, esaldiari forma ematen hasi aurrekoa baizik, oraindik luzea ala laburra izango den ere erabakitzeke dagoenean. Erabakiak, sarritan, martxan izaten dira. Esaldi laburragoak egitea ere era ezberdinetako bat da, eta orduan argiago ikusten da euskarak ematen duen aukera, esaldiko elementuak nahikara ordenatzeko. Azken batez, esaldi luzea ez da esaldi txikiagoen (nagusi eta menpekoen) kateatze bat baino. Kateatze horretantxe letzake konplexutasuna. Dagigun, ba, testu originalaren beste aldaera bat, katebegiak bananduz.

“Nire gogoak unerik solemneetan maliziarik bihurrienak

ekartzeko grinatik libratzeke darrai oraindik. Hain emakume guria eta itxuraz bitala da bera! Beloek zehar-ikusten uzten dutenari irudimena erraz gehitzen zaio. Ezin izan dut pentsatzea ekidin: hainbesteko argiztapena zergatik ote da? Agian ez da izango pentsakizun ilunei aurrea hartzeko klaritatea bakarrik. Agian bestea da: apaiz gazte lerden baten atentitze ofiziozkoa gozamenezko adeian samurtzeko era subtil bat”.

Bertsioak oraginalaren estiloa guztiz aldatu du, baina berau ere estilo bat da, guztiz baliozkoa. Hona orain lehen esaldi bien ordena posible ezberdin batzuk:

- Nire gogoak unerik solemneetan maliziarik bihurrienak ekartzeko grinatik libratzeke darrai oraindik.
- Nire gogoak oraindik libratzeke darrai maliziarik bihurrienak unerik solemneetan ekartzeko grinatik.
- Oraindik grinatik libratzeke darrai nire gogoak, maliziarik bihurrienak ekartzeko unerik solemneetan.
- Unerik solemneetan, nire gogoak maliziarik bihurrienak ekartzeko grinatik oraindik libratzeke darrai.

Jarrai genezake, baina goazen hurrengora:

- Hain da bera emakume guria eta itxuraz bitala!
- Emakume hau hain guria eta itxuraz bitala da!
- Hain emakume guria eta itxuraz bitala da bera!
- Hain guria eta itxuraz bitala da emakume hau!
- Bera hain emakume guria da eta itxuraz bitala!

Eta horrelaxe beste guztiekin.

Esaldi baten zailtasuna edo “iluntasuna” irakurlearen gaitasun kontua ere izan daitekeela esan dugu. Proba dezagun esaldi originala gaztelaniara itzultzea.

“Mi mente que continúa aún sin librarse de la propensión a acoger las malicias más retorcidas en los momentos más solemnes, no puede evitar

pensar que, siendo ella una mujer tan lozana y aparentemente tan vital (es fácil añadir imaginación a lo que dejan translucir los velos), tanta iluminación tal vez no sea solo una claridad para prevenir pensamientos oscuros, sino la forma sutil de convertir la atención por oficio a un sacerdote joven y esbelto en una amabilidad placentera”.

Ez da izango gaztelaniaz dakien euskal irakurlerik, esaldi hau berehala eta argi ulertuko ez duenik. (Karlos Cid Abasolo: “Aurrekoan bezala, ez zait hala iruditzen”). Baliteke estiloa ez gustatzea, baina ulermenean ez dago arazorik. Euskarazko originala berdintsu ulertzen kostatzea ez da hainbeste, beraz, hizkuntzaren edo sintaxiaren kontua, nola irakurlearen mailarena.

Orain, abiatutako esperimntua amaitzeko, proba genezake ea erdal testu itzuliak eta itzul daitezkeen bere testu zatiek euskarazkoek adina era ematen duen, esaldia nahi den ordenan antolatzeko. Esperimntua irakurlearen esku uzten dut, baina, gaztelaniazkoaren kasuan, kostako zaiola uste dut hainbeste aukera ezberdin aurkitzen. Hala ere, ez harrotu gehiegi euskararen alde. Azterketa konparatibo luzea beharko litzateke, bataren eta bestearen abantailen neurketa osoa burutzeko, eta nik ez dut horrelakorik egin. Ebidentzia honek dioen bakarra da euskarak uste baino era askoz gehiago eta “zuzenak” dauzkala, esaldien ordenarako. Gaztelaniagaz egin dudana konparatiboak alde horixe nabarmentzea zuen helburu bakar. Bestela, badakit hizkuntza garatuak, oro har, arlorik gehienetan, abantailan daudela garabidean direnekiko. Bide horretatik, puntu bat bakarrik aipatzeko, preposiziodun hizkuntzek jaregintasun handia dute bi izenen deklinabidezko loturan ere ia zernahi tartekatzeko. Gaztelaniaz, esaterako:

- *La compañía de, reviviendo tiempos inocentes, caperucitas y peluches.*
- *La confianza en, dicho así brutalmente, un dios inexistente.*
- *El descenso, por el lado más vertical y peligroso, de un pico por fin conquistado.*

Euskarak ez du onartzen horrelako jokorik. *Txanogorritxuen eta peluxeen konpainia. Jainko inexistente batengango konfiantza. Tontor*

batetiko jaitsiera. Zugatiko ardurak zoratu behar nau. Hauen tartean (oraingoz, behintzat) ez da intrusiorik onartzen, beste izenlagun bat ez bada: *Txanogorritxuen eta peluxeen lo aurreko konpainia. Tontor batetiko ezinbesteko jaitsiera.* Edo aposizio bat: *Txanogorritxuen eta peluxeen, oraindik ere armairu berean daudenen konpainia.* Baina hau kasu beraren errepika baino ez da. Horietatik eta izan litekeen besteren batetik aparte, ‘ere’ lokailua da normal sartzera ausartzen naizen bakarra, oso praktikoa bera. Esaterako: *halaxe galdu zuen aitaren eta amaren ere babes.* Baldin badiogu: *halaxe galdu zuen aitaren eta amaren babes ere,* lokailu honek bie eragiten die, aitari eta amari, baina amarena da nabarmendu nahi zena, gaztelaniaz litzatekeena: “Así perdió el cariño del padre y también de la madre”. Euskaraz, bereizkuntza hori ondo egiteko, beharko luke: *halaxe galdu zuen aitaren babes, baita amarena ere (eta amarena ere bai).* Hau txarto dagoenik esan gabe, zergatik ez zuzenean eta esaldia erdibitu gabe: *aitaren eta amaren ere babes?*

Auziaren adar eta zehazpen posibleak horretan utzirik, goazen adibideetara, non ebidentziaren eduki zentrala berretsi gura den, hots: “Euskarak esaldiko elementuak ordenatzeko era ezberdin asko ditu, eta denak dira baliagarri eta baliak, argitasun, zehaztasun eta espresioaren baitan”. Ebidentzia hain argi eta biribil ageri zait, non ez baitu merezi gehiago ekiterik.

ADIBIDEAK

- Baina txorien isiltzeari ez nago masokismoaren kinada aplikatzeko trenpuan, ezin baitut susmo kezkarria uxatu ezen euren isiltzea presagio gaizto bat besterik ez dela nire isiltze hurbilarena.
- Unamunogan ere maiteen dudana da bere antz handia mosaiko kopto bateko irudi batena.
- Urteak joan arren, gauza batzuek lehenean diraute, ez baitago arorik ez daukanik sekreturen bat, geroari gordetza merezi duena.
- Adi-adi ere gelditu ohi ginen disimuluan, gordeta zegoena piztia bailitzan,

zaratxoren bategaz bere burua nahitaez salatu behar zuena. Pentsaketa hainbat zen horzkariago zenbat eta gehiago hauteman etxearen dimentsioak, kale-zoko soil bat baitzen, ezker-eskuineko zortzietako bat.

“Gordeta zegoen piztia” kopiagailu klandestino bat zen.

– Ilbete belarridun bat zirudien “Kuatrero”-ren aurpegia azal-multzo bilakatu zen, halako purrustadekin nola muturra hirineztu dioten altzearenak.

– Bildur hazela esango neukek – Apur bat bai. Heu ez? – Bildurra ur guztien hondar dok, hainbatago, sarritan, zenbat ura garbiago.

– Ez dut nahi gerta dadin funtsean betikoa nahi dugula beti. Honen elkartzet singularrak gehiago merezi du, amai topikoa baino – Zergatik izan behar du betikoa, are gutxiago, topikoa? Ofizioak zergatik eragotzi behar dit neuk ere gozatzea maitasun doako eta nahitakoa?

– Erromako aldirian, Natorni aireportuan lurreratu ginenean, denei jazarletzat begiratzen hasi ginen, baina gutaz inor ez baitzen arretatzen, laster lasaitu gintuen susmoak ezen italiar zaratatsuak ez zitezkeela gai izan gure misioa hain disimulu adostuan zelatatzeko.

– Horixe da bidezkoen, baina nire gogoak ezin du sedukzio “brutalarena” saihestu, ukondoak barran solastun pausatu dituenetik, hainbesteraino ezen ez bainaiz ausartzen ia bular osoetara sakondu zaion eskotera begiratzen, beldurrez nire begien beroa nabari dezan, edo igar dezan zer pentsatu dudana: *Buah! A zer surfaldia hortxe!* Desioa uzkornotik gorgoileraino igo zait, barne zirrara batek berretsi didanean inork ez dakiela Erromara zertara etorri naizen, are gutxiago apaiza naizenik, hurrengo dardarak alertatu nauen arte: *Baina heuk badakik!*

– Korupetik azken begirada orokorra jaurti bitartean elizari, zeinaren detaile bakartzat bandera espainola pulpitan ez gelditzea kostako zitzaigun, pentsakizun horiek eta beste marmartzen geniharduen (*ikusita*

be sinistea zaila dok gero hau!), hots bat entzun zen arte (*to! begira hau!*), beti zoko-usnan ibil zale zen batena.

– Izan zitekeen geure gaztetasunaren temeritate exhibizionista bat ere (*hi! lehengoan itzela pasatu jakuan Artetan!*, eta abar), bai baikenuen jakiteko lain eskarmentu garai hark txantxen ordaina larrutik kobratzen zuela.

– Bide batez, lasai pentsa dezaket berak ere horrexegatik duela nahiago ezer zuzen ez adieraztea (*orain ez dot telebisinorik nahi*, eta horrelakoak), badakielako bere sentimenduak hitzekin azalezin direla, eta hobe dela bere sentiera nire ulermen pasionalaren esku uztea.

– Harago ezin zuen menturatu, susmo txarragoak ez sortzearen ezkutatu nahi zuena bera baino, nahiz berak ere argi ez jakin zer ezkututzen ari zen.

– Alegia, mutil batekiko sentitzea neska batekiko sentituko hukeena. *Neska batekiko zer sentitu behar da, ba?* galdetu zuen nire lagunak, agian ez hain xaloki, eta zuzendari espirituala Zurbaranen Sortzez Garbiaren aingeru-buruzko oinen artean aurkitu zen, bera ere bat gehiago, norantz jausi ez zekiela gorantz begiratzeko beldurretik.

– Fidatuz, ordea, mundualdi zirtzil honetan, bere arabera jokatzeko zuzurratzen dudana arau batean, hots, iluntasun eterno batek baino argitasun iheskor batek gehiago merezi duela, gertaeren bilakaeran ez interbenitzea erabaki dut, nahi duena izan dadin utziz.

– Porrotaren amorruan, uharri koxkor hura itsasoa baino lehenagokoa ez ote zen pentsatzeraino iritsi nintzen, geroago iritsi nintzen bezala onartzera berdin izan behar zuela beldurraren kasuan, nire aurretiko esentzia bat berau, nire izatea taxutu zuena.

– Eta gu hemen, klausurako usainak hartzen eta egunaren banatze-txirrin etengabeak entzuten. Ez genuke iritsi nahi kontaktzen hasteko desesperazioraino. Badirudi komentu honetan ez dagoela nahimena ezertarantz aktibatzerik, txirrinen bat aurretik ez bada.

– Poltsa alua da kezkatzen nauena, eta ez hainbeste, berreskuratzeko atzerapenak ezuste larria ekar dezakeelako, baizik beldur naizelako, luzatzen utzirik, oroimenean itsatsita geldituko ote zaidan, biziki eta betiko, labezomorro zapaldu baten amesgaitzean, zeina baita era tiraniko bat, iraganak etorkizuna okupatzeko.

“Poltsa alu” hori kuartel aurrean jaregin behar izan den poltsa konprometitu bat da.

– Garbi dago bi kanpai direla, eta orain harritzen gara nolako antza duten txikitatik geu jotzen ohituta geundenena, elizkizun baten hasiera iragartzeko, nahiz eta hotsean hauek zerbait ärosoago iruditu.

IRAKURGIAIK

Segundo batzuk leihoan, segundo batzuk atean, logelaren alderik alde nabil, erdian bere paretik pasatzean, keinuak bizitzen, bihurritzen ere ahaleginduz. Erdi-puntu hartan nago, non, fisikoki, lurretik, infernutik, zerutik, agian linbotik ekidistatzen naizen, espazio ingrabido batean, eta mentalki, negarretik, irritik, urrumatik, marrumatik, dena emozio ozeaniko baten ingurapenean.

– Bildur hazela esango neukek.

– Apur bat banon, bai. Heu ez?

– Apur bat bakarrik. Bildurra ur guztien hondar dok, hainbatago, sarritan, zenbat ura garbiago.

Biok isildu gara, lau esku elkarlotuei begira, gugandik bereziak, independenteak bailiran. Eta dira. Ez dira ausartzen mugitzera, aritzera. Ukitua sentitu bakarrik. Sentitu bakarrik ez. Transzenditu. Eta nik –ez dakit berak– une inposible bat ahalik kontzienteen bizi. Nago hauxe dela kasu bat neure konbikzioa gauzatzeko ezen zorion inkontzientea denboragaltze bat dela. Existitzen da, bada une hau, egia da, ohartzten naiz, neu naiz. Unea badoa, joango da, joana izango da, baina existitu da. Eta nire oroimenean betirako existentzia erreal bihurtuko da.

Sentsazioa materiala, karnala da, eta begirada ideala, kasik alienatua, eta bien nonbaiteko bilgunean, nortasun bat urtzen edo deliratzten ari da. Horrelako pasarte bat pentsatze hutsak tarteka deragidan dardara korporala kontrolatzeko, leihoari heltzen diot, nondik gaua, ez hainbeste ikusten, baizik oihañez lehertzeaz sumatzen den, azienden arran-hots distante baina trinkoz, zeinak bareki bezain solemneki berresten duen benetan bakarrik nagoela. Bakar-bakarrik ere ez, Derioko seminarioko soto zoru-gogorrean berrogeita hemeretzi lagunek inguratzen binaute, baina hauek lo egon behar dute, edo iluntasunean inexistenteak dira. Inork ez daki ni Leitzako Basakabi hoteleko leiho bati helduta nagoenik.

– Utziko deustan bularrak ikutzen?

Erantzunak oinetaraino aztoratu nau, hitzik jaulki gabe (nik ez dut entzun, behintzat), kamisoia alde bietara ireki denean, biluztasun guztia bistan. *Ecce mulier!*, esklamatu dut neurekiko, kostatako erreakziotik bueltan. Barka, Gresbante, Douffet, Massys, Corinth, Caravaggio, Mantegna, Morales, Tintoretto, Luini... eta *Ecce homo*-a emetasunez biguntzen ahalegindu zareten artista sentikor guztiok, baina zer egin behar dut agerpen honen aurrean? Belaunikatu? Pintzel bat eskatu? Eskuak zerurantz bildu, esker onez? Ama Birgina horrelaxe irudikatzen nuela deklaratu? Ba, bai!

Gorputz horiek, neure gorputzak eskatzen badit (eta higuntzen ez banaute), batere eskrupulu gabe josten ditut bertan, larrutzen ditut alutik, uzkitik, ahotik, edonondik, dauden tokian daudela, platoan zein hilerrian. *Hori da zuen bizigarria? Zuen bizibidea? Hor daukazue, ba!* Pelbis lehertuan gora edo eztarri ito-hurrenean behera (hartzailearen aukeran), zopilote burua duen zakil ekologiko bat diafragma deboratzera doa, ñu baten martxango umontzia bezala. Hau guztia eurei esaterik ez da komeni, entusiasmazten baitira.

Pasarte hura orain era karnalagoan amaitzea erabakiko bagenu, niretzat orduko berbera litzateke, bitarteko denbora guztiaren despit; ordukoxe adin, itxura eta gordintasunez, agian indar fisikoa ere barne, horixe ez dakit. Ez baita orain dakusdana, nekusena baizik: bere azal xuribeltzarana, irribarre polibalentea, barre kontrolatua, karkara intermitentea; ezer nabarmentzen saiatu gabe, islatzen zuen elegantzia orokorra; alde egin beharra zuenean, aurrea baino gozoago neritzon atzea, bazihoalako penaz, beharbada. Bere debate-grina adoleszentea. Bera.

Ñabardurekin ñabardura multzo bat besterik ez da sortzen. Hostoak beharrezko dira, gozo eta kilikor dira, baina hostoek ez dagite zuhaitza, ezta adartxo bat ere. Oiz mendiko zaldi gorri hark bazekien hainbeste, bere pikatxoak bezalako barrabilekin. Autora lasai-lasai hurbiltzen zen, eta norbera autotik irtenez gero, puzka urruntzen zen. Leihoa jaitsi nuen, eta Mozarten requiema entzun zuenean, burua barruraino sartu zuen beste aldeko leihotik. *Zer? Gustatzen jak?* Pendereckirena ipini nion, eta berdin. Sorozabalen *Hileta martxa*, eta berdin. Berlioz, Gonzalez Acilu, Puccini, Verdi, Brahms, Stravinsky, Dvorák, Britten... Dena ondo. *Ea beste hau!* Trikitia ipini nion, eta tximistan aldendu zen, Arraterantz.

Komunikabideek euren ezten bero eta boluptuosan dihardute, aldarrituz ezen apaiz batzuek, euren gotzaina hiltzear ikusirik ere, errebeldiarazko ekintza bat eteteko bihotzik ez badute, ez dutela merezi gizakitzak hartuak izaterik, hain gutxi kristautzat, auskalo piztiatzat. "Antzeko krudelkeria kasurik ezin da aurkitu zoologian ere" —irakurri dugu editorial batean. Azken horretan arrazoi duke, krudelkeria gizaki aurreratuen inbentzioa baita. Fribolitate handiegia ez balitz (krudelkeria ere uki lezakeena), esango genuke, batzuk ahapetzen eta gehienok pentsatzen ari garenez, gotzainak ezin zigula ziri gaiztoagorik sartu. Mehatxu eta

zigor, disuasio bide guztietan huts eginik, gure jokabidea difamatzeko ezin zen asmatu bera martiri bihurtzea baino era efikazagorik, kausa direktoa geu izanaren planta guztian. Era hori probidentzial ere dei liteke, baldin irenstezin egingo ez balitzaigu probidentziak gu honenbestean izorratu nahi izatea. Eskerrak (oraingoan, benetako krudelkeria), martiri oso izateko, hila izan behar den. Itxaron dezagun probidentzia ez dela ausartuko alukeria hain urrun eroatera.

Barruak ez dauka formarik, forma bat eman zaionean baizik. Espresioa eskulturaz zait harrigarrien, aurpegiaren, batez ere. Une hura, adibidez, non plazera zu zaren, ni naizen, biok garen plazer bera. (G puntuak ez nau batere berotzen, Gräfenberg batena zela jakin nuenetik). Biok plazer bera. Gure amamak larri begiratzen zuen bere iloba neskak, odolekoak edo etorriak, ezkontza egunean, triparik ote zeukan. Hil batzuetara, berdin larritzen zen, ez ote zeukan. Biok plazer bera. Gero, astiro-astiro, joango gara berriro banakotuz. Ez, noski, hain era bestialean nola behizale hura, zeinak, jezgailuaren lana amaitzen zeneko, xurgagailu bat konektatzen zuen bere zakilera. Dena zuzen esne-zisternara. (...) Niri ez zaizkit on-onak interesatzen, genioak baizik. Oiz-Everest. Bata humanoa, bestea suprahumanoa. Ni humanoa naiz. (...) Berari kalterik ez egitearren, sekretu bat ezkutatu diozun laguna maitagarriago zaizu. Zeuri kalterik ez etortzearren, sekretu bat ezkutatu diozuna ikaragarri bihurtzen zaizu. Bai, bai! Kirkirak eta tximeletak maitagarri dira, baina oiha bat zirrargarri egiten dutenak lehoiak eta kobrak dira.

Estalki jasotzea aitzakia muturluze bat besterik ez zen, eragin nahi zuen efektua indar zedin, hots, etxekoandreak (edo zegokionak) era sarkorragoan senti zezan bere lanaren aitortza, zurikeriatzat ere har zitekeena, Badok inoren borondateaz baliatzearen kontrako sutsua izan ez balitz. Esan gabe doa Badoken jokaera ohartun baino instintiboago zela. Edo bigunki eta egiazago esanda, berezko giza dohain bat.

Hitz gutxitan jorrazteko baino gai sakonago eta pisuago hura konfesio azkar eta desfilante batean erabakitzen hastea atrebentzia irresponsablea litzatekeela-eta, kordialki proposatu zion jo zezala, nahi zuenean, apaizetxeko atea –*gauetz ahal balitz, hobe baino ez*–, non nahi adina astiz eta patxadaz hitz egingo zuten “huntaz eta hartaz”, esan nahi baita, Aristotelesek aipatu gabe utzi zituen gai guztiez. Poliziak edo guardia zibilak, elizako eta bereziki konfesaleku inguruko iluntasunean eroso gordetzen zenak, araberrako adeitasunez bisita agindu zuen, ezetza susmagarri izango zen beldurrez, baina ez zen apaizetxe bateko atea bakarrean jotzera hurbiltzeko bezain inkonpetentea izango, horrela abiapuntuko susmagarritasuna berretsita geldituko bazen ere. (...) Ez dakigu poliziak bere saiakera huts eginaren zer bertsio eman zuen kuartelean, isiltzea hobetsi ez bazuen, baina Badokek pikareskara hurbiltzen zen amarru polizialeatik egoera politikoaren erretratu osoagoa ateratzen zuen, gertakari esplosibo batetik baino.

Zindoki asko kostatzen zitzaion diskurtsoan jarraitzea. Bere buruagan hainbesteko konfiantza zeukan zirkunstantziei banan-banan aurre egiteko, non ez baitzuen sentitzen errealtateari osoan begiratzeko premiarik. Hark zeukana printzipio batzuk ziren, gutxi, argi eta gotorrak. Printzipio horiekin ez zen beldur edozein egoeratan zer egin jakiteko. Hain seguru, ezen bazirudien pentsamenez baino senez jokatzeko zuela.

Une hori ez zen, noski, proposamena fisikoki entzun nuena, baizik beste hura, non, Dobalen eta bion nerabezaroan, hitz horiek – *hator neuré gelara!*– hain karga suzko eta asalduzkoa izango zuketean, entzunak izateko miraria gertatu balitz. Eta hara, azkenean, miraria gertatua zela hamahiru urte geroago. Hitz horiek nire hamabost urteko belarriek entzun zituzten, kinada erantsiagaz ezen beteak izateko posibilitatea, guztiz erreal eta

eskuragarri ez ezik, saihestezin zela orain, nerabezaroko alderantziz, non, hitzak errealak izanik, betetzeko aukera ia metafisikoki ezina zen.

Nik ulertzen nuen zerbait “neska batekiko sentimendua” zer zen. Lehenengoz nentzuen zen, ordea, “mutil batekiko sentitzea neska batekiko sentituko hukeena”. (...) Dobal zen Dorian Gray txiki haietako bat, nire obserbazio bekaizkorrak hauteman zuen desiatuena, bai lagunena, bai goikoen aldetik. Nik ezin nuen hura pretenditu. Batetik, neure burua ez nekusen halako saiakerarako bezain prestigios, eta bestetik, bera baino gazteago nintzen, eta suposatzen zen, edo ohi zen, pretendenteak zaharrago izan behar zuela.

Ohe gainean luze gaude, galtza motzetan, bera horma aldetik. Ohea estua baita (ohe monakala, hildakoan ere, neurrira gelditzeko modukoa), elkar ukitzea derrigorra da, elkargaindu nahi ez bada. Biolento nago benetan, atrocitate baten muinean entzerratu banintz bezala. Zirkunstantzia guztiek hamabost urtera itzuli nauten arren, ezin dut saihestu neure nitasun aktuala, zeinari gizon-ukituak atzerakada damaion, eta bilo sarriak, hozkia.

Palmondo txit maite! Zuk eta biok dakigunak lehen ikustean eragin zidan zirraraz geroztik, bere transformazio etengabe ederkorra sekuentzia liluragarria izan zen niretzat, bai baitzirudien hobetze bakoitza neuri eskaini nahi zidala, edozein aitzakiaz etorri eta bizkarra zugana bermaturik jartzen zenean, hanka bata enborraren kontra tolesturik, belaun irtenaren grazia kulunkarian. Ni ate alboko harrizko jarlekuan esertzen nintzenean, bera zure kontra esertzen zen bertan, hanka biak belar finean luze eta pitin bat zabalik, gehiago zabaltzeko baimena eskatuz bezala, pentsatzen zuen nire irudimen kontrolaezinak. Bereziki xarmatzen ninduten haren begi xuabeki txinatarrek eta ezpain-lerro xuabeki irekiek, baina, egia aitor, aurpegi osoa

zen irresistiblea, fisika lege guztiak zehartzen zituen irribarre errenazentista haregaz. Haren ahots-tinbre limurtzaileak esaniko edozerk hunkitzen baninduen, ez zen gutxiago berak nire edozer entzuteko jartzen zuen irrika xaloa, ia desirosa, pentsatuko zuen berriz ere nire irudimen geldiezinak. Denbora laburrera, belaunak tolestu eta albokera jarriko zituen, pintore laszibo batentzat (pintore on orok lasziboa izan behar du) posatzen ariz bezala. Batzuetan, belaunak tentetzen zituen eta, nahiz eta eskuekin gonak izterren azpira batu, beti gelditzen zen hutsune faszinante bat (ez Oteizaren hutsune angustiosa), zeinaren xehetasunik ezin nuen jaso, burua makurtzen bainuen, lotsaz baino gehiago, susmatzeko motiborik ez ematearren grina gordin soilagatik maite nuela. Edo maiteko nukeela, orduan nire buruan ez baitzen imaginatzen maite-harreman osorako egoerarik. Burumakur hitz egitea, ordea, ez baitzen gizalege duin, ezin nuen ebitatu denbora batera zuzen begiratzerik, eta orduan berak bi belaunak berriro albokera kokatzen zituen, hain diskrezio delikatuan, non ez zuen mugimendua berehala egiten, bere intimitatea ezkutatu nahi zidala ez aditzera ematearren, eta hain luzera ere ez, nire begirada gehiegi bortxatua izan ez zedin. Fintasun horiek, guztiz naturalki eginak, nire edertasun-grina kartsuari ontasunezko osagai baregarria erantsi zioten, geroztik nire ideal artistiko bihurtzeraino edertasun-ontasunen elkartze orekatua. Oreak ez du, noski, erdiz erdiko esan nahi, baizik ehuneko ehun eder gehi ehuneko ehun on. Barne deabruak ziosten konbinazio hori ezinezko zela, baina nik niotsen idealaz ari nintzela, eta behin, behintzat, eta izaki batengan, ideal hori guztiz betea izan zen, zure kontra eta zure orpoan, Palmira txit laztan, bermatzen eta esertzen zen mirari-neska harengan. Gero joaten zen (geroago betiko joango zen), baina nik, gauerdian, harrizko jarleku hartatik, abadetxe, eliza, taberna eta zu zeu argitzen zintuzten farola nekatuaren argipean, mirari berbera ikusten nerraien zugan, horixe izan baitzen eder-onen elkartze goren haren transformazio azkena eta handiena, ideala bera ere gaingitu zuena. Gaingitza hura zeu zara, ene Palmira txit laztan. Hura ideala, bisuala izan bazen, zu materiala, ukigarria zara, eta halaxe besarkatzen zaitut estuki, zu apurtzeko beldur gabe. Eta igoko natzaizu, bidean zure torso guztiaren erosa marruskatuz, hamar metrora dituzun bularretara, erortzeko beldur gabe, eta segurantzagaz ezen, hala gertaturik, zure tentetasunak bizia garantizatzen didala; eta jasan nezakeen kolperik latzena ere mereziko duela berriro zure bularretara igotzeak. Zugaz bion hil-bizia elkarri

lotzeko tratua egin banuen, ez zen izan topiko poetikoagatik ezen, zu hilez gero, ez niola bizitzen jarraitzeari zentzurik aurkituko, baizik suposatzen nuelako, zu bizirik zinen, ni bizirik nahiko ninduzula. Eta asmatu nuen, zorionez, tratua itsuan onartu baitzenuen. Neu arduratuko naiz zeuk ere asmatu zenuela proba dezazun. Iruzur-garaietan esan ohi zenez, benetako maitasunak ez baitu etenik (iritsi zait iruzurra iraultzeko unea), egunero etorriko natzaizu. Egunean bi aldiz ere bai. Beharbada, denboraldi osoetarako. Seguruenik, bizi guztirako, eror zaitezenean, azpian harrapa nazazun. Hitzak haizeak baitaroaz, zure goiera koroatutik sobera frogatua izango duzunez, horman idatzita uzten dizut aitormena. Zinez eta minez, Palmira txit laztan. Maite zaitut! Maite-maite zaitut!!

Artur txit maite! (Neure arteondo ezin maiteago hori!) Destino hau ez nuen itxaroten, eta zeuk ere ez zenuen susmatu gure solasaldi kutun haietan, baina begira zertara iritsi garen, biok bakarrik munduan. Zure adakera orduan osoagoak eta hosto gaur ere freskoek (hipopotamoaren belarritxoak) nostalgiara baino helduleku batera narakarte, oraintxe baitzaitut beharrezkoen. Zure aldetik ere berdin suposatu nahi nuke, ez seguruenik premiagatik, baizik beti opatu didazun txeragatik, orain nahitaez eksklusiboa berau, neure betiko pentsalagun eta pentsaleku nahitaezko hori. Mintza gaitzen pentsatzeaz objektiboki, pentsatzeak ezertarako balio ez duen honetan. Beno, bai, txarto esan dut. Lehen, pentsaketa jolas gisan maite genuen, baita auzien konponbide gisan ere, esan nahi baita pentsatu gabe ere bizi ohi ginela. Orain beharrezko dut, nahitaezko dut, ez ezer argitzeko edo konpontzeko, kontzientziaren iraupen soilerako baizik. Gogoan dukezu nola mintzo ohi ginen nitasunaz, hots, "ni" esatean, sentitzen eta atzematen genuen izate medular, banaezin, transferiezin horretaz, non aurkitzen genuen, "ni" deritzon printzipio honen izatea kontziente egitean, kanporanzko sentipenak bakarrik atzematen genituela. Barrurantz, hutsa edo ezereza zen. Zerbait izatekotan, trinkotasun inerte bat, aitzuloko letargia eternoa animalia batena, zeinaren existentzia areago dakigun suposizioz, berari buruzko inolako pertzepzioz baino. Nia trikua bezalakoa zen, alde guztietatik kanporanzko sensorez josia, baina

barrurantz guztiz itxia. Eta halaxe darrait. Saiatzen naiz, "ni" esatean, zerbait sorburua, abiapuntu esentziala sentitzen eta bereizten, baina ez dut aurkitzen kanpoarekiko erlazioak besterik. Introbertsio metodo erreal eta imaginario guztiak probatu ditut, baina emaitza, beti, zentrifugoa da. Saiatzen naiz zentzumen guztiak eta adimen osoa erdirantz zuzentzen, baina ez dut jasotzen ezeren seinalerik, erdigunea erlazio matematiko soil bat baizik ez bailitzan.

Nahiko nuke unea bertan bihur ledin betiraun, baina isilune luzeak menperatu nau. Ez daukat betirauna hitzez apurtzea beste erremediarik, eta oraingoan uste dut gogo adina konfiantzaz egingo dudala, nire esku-estutzeei berak areagotuz erantzuten diela igartzen baitut.

- Dora! Honelakoxe zerbait esan gura najonan, bainugela eta abar atzeratzeko eskatu deunadanean.
- Gauza politikak pentsatu dozak isilunean.
- Irakurri egin dozan ala?
- Grafariak ulergarriena analogia dok. Eskuak ez jabilzak burutik hain bereiz.
- Esateko politenak falta zirelakoan nengonan.
- Entzun gura neukezak, konplikatuégiak ez badira.
- Izatez, ez dozan konplikatuak, esaten konplikatuko ez bagina. Larregi estutzen bahaut, esan, mesedez!
- Bajakiat bereizten mina eta sentimena.
- Esangaietara itzulita...
- Zer?
- Aizan, Dora! Une hau, eta, oro har, egoera osoa, hainbestean eta hainbeste bider idealizaturik neukanan ze, ahalegin suprahumanoa egin behar jonat sentitzeko errealtatea ez dela idealizazioaren luzapen bat. Horrexegaitik aurkitzen non hire eskuak estutu beharrean.
- Oraindino ez deustak minik egin.
- Errealtate hau idealizazio bat gehiagotzat sentitzearen arrazoia izan daiteken nire arteko bizialdi guztia garatu dela egoera hau esentzialki

deskartatua izateko moduan.

- Suposaik, metodo soilez, oraingoan idealizazioa eta errealtatea bat bera direla.
- Ezin jonat suposatu, halantxe baitira.
- Eta emoitza zelakoa dok?
- Errealtateak idealizazio oro gairitu jon.
- Mirari platonikoa gairiditza esan gura jok horrek?
- Esan daiela gura dauena, baina egia horixe don. Ba al dakin zergaitik gairiditzen den oraingoan idealizazioa? -Begiak eta aurpegi osoa zabal-zabal egin zaizkio, erantzunaren aztarnarik ere ez balu bezalako keinuan galdetuz:
- Zergaitik?
- Errealtatea heu hazelako.
- Oh! Oraintxe ez jagok Platoni deitu beharrik.
- Zergaitik ez, gairiditzeko denean?
- Gustatuko litxakidak idealizazio hori zelan zehazten edo azaltzen doan entzutea, ze suposatzen dok, zenbat buru hainbat ideia direnez, zenbat ideia hainbat idealizazio izango direla.
- Beste atsegin ideal bat egokitzen deustan, azalpenen eskea eskuen eskaintzagaz bateratzean. Laztandu neikezan sendotxoago?
- Hori neuk egingo joat. Hik ekin azalpenari.
- Ai, Dora, Dora! Hik badakin honelako abenturak nire burutik oso at zegozela. Garbi esanda, guztiz bazterturik, definizinoz eta printzipioz. Parka. Txarto azaltzen ari non. Bazterturik bizitzatik, ez, noski, burutik. Hain zuzen, antzina jabetu nintzonan, pentsamen mailan, gura neban guztia gura neban moduan antolatzeaskatasunaren dohain intimo fabulosoaz. Bizitza esterno, oster, askoz mugatuago don, eta nirea, ez pena barik, baina bai kontzientzia osoz, uko batzuk datxekozen bizimoldean osatzen don, helburu eder batzuen alde jokatzeko era bikain bat delako konbikzinoan. Bizimolde horrek gauza perbertso eta, pentsamen mailan, absurdo asko jaukazan -beste bizimolde guztiek lege, bestalde, bizitza izorrante honetan-, baina koherentzia esterno batera errenditu beharra jaukanat, aitatutako helburuen garapenean sinesgarri izango banaz. Kontu honeek eta beste asko ondotoxo dakizan heuk be, zuen jatetxean izan doguzen eta izatea itxaroten dodan hizketaldi ugari eta atsegingarrietatik.

– Baina nik ez joat badakidanik entzun gura. Pentsamen maila ezkutu horretakoak dozak interesatzen jatazenak.

– Ba, bai. Pentsamen maila ezkutuan, bere izaera "ezkutua" oraintxe galtzear den horretan, amodiozko abenturak, neuk irudikatuak zein berez etorriak, lasai eta pozik ibili dozan nire buruan. Areago oraindino, neuk gura neban moduetan eta modukoekin. Pentsatzea libre eta inpunea nebanez gero, ez nintzonan txikikerietan ibiliko. Muga bakarra pentsatzeko gaitasunaren topea zonan. Hori guztia buruan bakarrik eta erarik gorenean gertatzea idealizazioa izan zeitekenan, ezen ez irrealismoa, nire buruan benetan gertatzen baitzen. Eta egia bada izate arrazionalak bereizten eta izaki goren egiten gaituela, gure gertaerarik garrantzitsuenak buruan gauzatzen direnak dozan. Beraz, gehiago ez aitatzeke asmoa agertu donan Platon hori ez zebilenan hain oker. Eta oraintxe jatorren, eskuak, uzten badeustan, bereziki estutuz, "desezkutatu" beharrekoa: idealizazio horren guztiaren erpina... heu hintzen! Hori esanda, aldi batez, isildu egin behar jonat.

- Agur Maria, txit garbia.
- Pekatu barik sortua.
- Neuk be ez daukat pekatu handirik.
- Hi Felix ez haz?
- Felix Bertendona Guriezo. Ez nau berorrek ezagutzen?
- Berezko argitasun urri honetan, aurre guztia betetzen badeustak, zelan bereizi behar joat zer aurpegi datorren?
- Neu naz, ba, toki apur bat uzten badeust.
- Hartza nok ala?
- Balitz be, nork igarri hemen?
- Ez naik haginka egitera behartu.
- Papertxo bat dakart zirriborroan, berorrek forma egokia emon deion, hizkuntza bietan.
- Apaltxoago ezin dok berba egin?
- Iluntasun honek isolatzaile baitirudi.
- Emoidak emon beharrekoa.

– Atera berorrek. Kolkoan dago.

– Heuk ezin dok atera?

– Ez nago bape eroso. Ukondoak mogitzen hasten banaz, buruz behera jausi naiteke, barrura.

– Hemen ez dok bat baino gehiago kabitzen.

– Arkondara botoiak zabalik ekarri dodaz.

– Hau be badok, ba, hamahiru urteko karrera egin eta gero! Zertan gabilzen sumatuko balebe, inork ez leukek pentsatuko halakoxeak ez garenik. –Gayak esan nahi zuen.

– Apur bat ez gara ala?

– Hemen jagok paper mokordo hau.

– Bi dira.

– Gero ikusiko joazat. Zer gura dok? Argia biztea?

– Berorrek ez dauka ezer?

– Nirea hik ezin dok atera. Non jagok bera?

– Lagunduko deusat?

– Heure kolkorik ezin dok hustu, eta nire sotanapean sartu nahi dok?

– Zarraparra hau entzuten dabenek ez dakit zertan gabilzela pentsatu behar dabent!

– Konfesalekutik kanpora ez dok entzuten. Oraintxe ez dok esan iluntasuna isolatzaile dela?

– Topa bei topa beharrekoa.

– Honeek zarpa zaharrok! Hemen jagok.

– Sartu neure kolkoan, besteak atera dituen lekuan.

– Berbertan izan behar jok?

– Haratxo honatxo, barruan behintzat.

– Sinistu egin behar joat apur bat baino gehiago ez ete garen bestelakotik.

– Zenbateko tirada bota behar da?

– Atera eizuez ehun bat, eta utzi betiko lekuan.

– Berorrek daroana noizko egongo da gertu?

– Gaur zapatua ez dok?

– Hatakotzat etorri naz.

– Bialdu beste bat bihar, hamabietako mezara.

– Berorren herrian ez dauka mezarik?

- Nire herrira ez agertu inor!
- Berori hona etortzeko esan nahi neban. Han meza badauka, hemen ezin dau egon.
- Ni hamaiketarako libre najagok. Zergaitik egiten deustak berorika?
- Ez al da berorrek beti esana gauzak ganoraz egin behar direla?
- Errezaizak orduan hiru Agur Maria penitentziatzat, eta hoa, lartxo luzatzen ari gozak eta. Ilara buruak artegatzen hasita ikusten joazat.
- Eta zelan egingo dogu...
- Bialdu neska bat. Jeneroak aurretik, planak albotik.
- Ondo dago. Agertuko naz hilabete barru.
- Et, et, et! Nora hoa?
- Zer dago?
- Hik ez dakik Jesukristo gure Jauna belauniko errezzatuz amaitzen dela konfesinoa?
- Parkatu!
- Badok, bai, nahiko pekatu! Ego te absolvo, in nomine patris... Amen! Et, et, et!
- Barriro?
- Hik ez dakik, joatean, konfesorearen eskuari mun emon behar jakola?
- Oh! Bagara orduan zeozer bestelakotik be.

- Zer gertatu da, Xune?
- Harrigarria! -darantzu aurpegikera estralurtarrez.
- Ez dirudizu izutuegi.
- Ez dakit zer sentimendu jagodan.
- Ez da esatekoa?
- Esan beharrekoa.
- Ba, esan lehenbailehen, neu zartatu aurretik.
- Karpo hil da!
- Ohhh... -hertu naiz plost, palmondoa gainera jausita. Hauxe ez nuen itxaroten.
- Hil egin da! -errepikatzen du, ni baino bera konbentzitu nahian bezala.

- Hil... -diot neuk ere, hitzaren esanahia osatu ezinik-. Ez dakizu zer sentimendu?
- Ez naz ausartzen ezer sentitzera.
- Ni zure lekuan ausartuko nintzateke. Poztu zaitez lasai, Xune! Ez eiozu biderik itxi moraltasun ororen aurrekoa den sentimendu bati. Sukalde honetan, behintzat. Nik, ofizioz, ezin dot inoren heriotzaren pozik agertu, baina Jainkoak, batzuetan, gauzak ondo egiten ditu.
- Bere gogoa izango zen hau?
- Kontrakoa ez, behintzat. Jesarri gaitezen-. Horixe dagit, izterrak dar-dar. Berak zutik darrai.
- Orduan, amaitu da dana?
- Heriotza nik ulertzen dodana bada, bai.
- Ai, ama!

3. EBIDENTZIA / 1.- ERLATIBOA

EUSKARAK ERE ERLATIBO OSOA ETA ZEHATZA BEHAR DU, BERE
INGURUKO HIZKUNTZA GARATUEN ANTZERA

Euskara batuaren bigarren jaiotza izeneko saiakeran (26. or.),
erlatiboari buruzko atala honela hasten zen:

“Hizkuntzaren (gure inguruko hizkuntza guztien) egitura nagusietako bat erlatiboa da. Sorkuntza literarioan, berriz, funtsezkoena dela esaten ausartuko nintzateke. Xehetasun guztiekin heltzekotan, berak bakarrik osa lezake liburu gizen bat. Euskaraz oraindik erlatiboaren zati handi bat airean daukagu, itzulinguru arbitrarioz eta, sarritan, okertzailez baliatzen garela.

Erlatiboa egitura funtzional bat da. Ez da dotore edo literarioki erabiltzekoa, zuzen edo oker baizik. Horretarako, zehatza, finkoa eta erraza izan behar du. Dela partikula bat, dela atzizki bat, dela nahi dena, mekanikoki aplikatzeko egitura izan behar du”.

Aipatu saiakeran, ez dut uste esplizituki defendatzen zenik

printzipio orokor bat, orain honela enuntzia daitekeena: *Izenordain edo adberbio galdekari guztiak bihur daitezke izenordain edo adberbio erlatibo.* Laburturik: *Galdekari guztiak bihur daitezke erlatibo.* Kontratik esanda, galdekari batzuk erlatibotzat onartzen badira (*zein, zeinaren, zeintzuk, non, nondik..*), zergatik ez beste guztiak: *zer, zera, zertan, zergatik, nor, noren, noiz, noiztik...* Egia da, adibidez, ohiko dela *zein* erlatiboak *nor* gama guztia hartzea. Premiak bibidertzea ez da egoki, baina hizkuntzak zoko amaigabeak baititu, edo izan baititzake, utz ditzagun aukerak zabalik, beti ere sen on baten esku.

Izatez, erlatiboari sintaxiaren atal bat izatea dagokio, baina hain atal garrantzitsua da, non berak bete baitezake ebidentzia oso bat, eta horixe egingo dugu. Hemen ez naiz errepikatzen hasiko, aipatu saiakerako atal luzean, banaka eta xeheki azaltzen ziren kasu guztiak. Hala ere, komeni dela uste dut adibide ugarien laburpen bat ematea, euskarazko erlatiboak konponduta dauzkan kasu ezberdina.

Bide batez, ez nuke aipatu eta gomendatu gabe utzi nahi erlatiboari buruzko lan luze, zehatz eta garrantzitsu bat, saiakera honen berriksle Karlos Cid Abasolorena, honako estekan: <http://www.ehu.es/seg/morf/5/20/4>

1) EZ-MURRIZGARRIA

Perpaus erlatiboa aposatua denean (hots, bere izen ardatzaren eskuinean koma artean jarrita eta izen ardatzaren kasu bera agerturik), ez dago problemarik:

- *Animaliak, ondo janda dagoenak, ez dizu eraso.*
- *Animaliengana, ondo janda daudenengana, lasai hurbil zaitezke.*
- *Hor daude gizonak, tente egoteko kemena doi-doi daukatenak.*
- *Unibertsoaren, etengabe mugitzen ari denaren, printzipio nagusia da...*
- *Itsasoarekin, noiz haserretuko den abisatzen ez duenarekin, hobe duzu gehiegi ez maitemintzea.*

2) MURRIZGARRIA

Aise erlatibatzen diren funtzio eta kasuak honako hauek dira:

a) NOR eta NORK kasuak:

- *Ni maite nauen lagunak osorik maite beharko nau.*
- *Hainbeste gustatzen zaigun diruak zerbait ona ere izango du.*
- *Aterpean egiten den lanak gorputza gutxiago hondatzen du.*
- *Egunero jaten dugun ogiak errespetua merezi du.*
- *Maiteen dudak urtaroa negua da.*
- *Esan duzun gezurra zeuk ere ez duzu sinesten.*

b) Zehar-objektua (hots, NORI kasua):

- *Dena ematen zaion haurrak gehiago eskatzen du.*
- *Gaur omenaldia egiten diogun gizon honek...*

c) NON kasua, leku- zein denbora-esanahia duela:

kasu-parallelismorik ez dagoenean, hots, sintagma erlatibatuak (isilekoak) eta izen ardatzak kasu-marka bera ez dutenean:

- *Zu jaio zinen egunetik aurrera. Zu jaio zinen egunerako. Zu jaio zinen eguna. Zu jaio zinen eguneko.*
- *Bizi garen mundu honetatik. Bizi garen mundu honetako.*
- *Errespeturik ez dagoen etxeko. Errespeturik ez dagoen etxetik. Errespeturik ez dagoen etxera.*
- *Zezenak adarra sartu zion lekutik odola borbor zerion.*

Gainerako kasuak ere erlatibagarri izan daitezke baldin:

* aditz erlatiboaren argumentu badira (hots, aditzari esanahiz lotu-loturik dagoen osagarri badira): NONDIK-ETORRI, NORA-JOAN, ZERTAZ HITZ EGIN etab.

- Zoazen herria oso urruti dago. Zein da gaurko Faktorian mintzatu behar dugun gai?

* kasu-parallelismorik badago (hots, isildutako sintagma erlatibatuak eta izen ardatzak kasu-marka bera badute). Ikus. tp://www.ehu.es/seg/morf/5/20/4/2):

- Zu jaio zinen egunean. Bizi garen mundu honetan. Zigorra nagusi dabilen eskoletan. Gaur hitz egin dugun gaiak asko daki Arantzak. Zatozen herritik zer dakarzu, ba? Irakasle onak dauden eskolatik alde egin bazenuen, txarrak daudenetik zer egin behar zenuen? Itsua alkate den herriari begibakarrak argi egiten dio. Hegazkina erori zen zuloraino jaitsi ginen. Zabiltzan lagunekin ibilita, ez zara asko hobetuko. Zabiltzanekin ibilita, ez zara asko hobetuko.

Bestalde, NOREN kasua ere (hots, genitiboa) erlatibagarri izan daiteke, euskal erlatiboaren teoria gramatikaletan argi agertu ez arren:

- Izenik ere ez genekien hainbat herri pasatu genuen. Izenik ere ez nekien batekin maitemindu nintzen.

Horiek eta gehiago konpondurik dituen erlatiboari ez diogu gehiago ekingo. Arlo handia gelditzen da, ordea, konpontzeke edo ezbaian, eta lan honetan horretara goaz, ebidentziatzat onarturik euskal erlatiboak ere eremu osoa hornitu behar duela. Eta ahal duela. Dena adibideen bitartez egingo dugu, tartekako iruzkin batzuek beste diskurtso gabe.

Adibideak sailkatzeko, 7 sail irekiko ditut, erlatiboaren bi sail handiak (murrizgarri eta ez-murrizgarri) euren azpisailetan banatuz, honela:

- 1) Erlatibo ez-murrizgarria: zein, zeintzuk, zeinaren, zeintzuen...
- 2) Erlatibo ez-murrizgarria: non, nondik, nora...
- 3) Erlatibo ez-murrizgarria: zer, zera, zeraren...
- 4) Erresuntiboen bidez osatutako perpaus erlatiboak.
- 5) Erlatibo murrizgarri tokizkoa.
- 6) Erlatibo murrizgarriaren adierazle gabeko kasuak.
- 7) Aposiziozko erlatiboan sortzen diren konkordantzia bitxiak.

Badirudi, ordenaz, ez-murrizgarrien hirukoak ondoren joan behar lukeela, terminoa murrizgarriaren ukotik eratorria izanik. Sintaktikoki, ostera, zailtasun handiagoak murrizgarrian direnez, hobe izango da beronen sailak uztea bigarrentzat.

Goazen, beste gabe, ondorengo adibide ugarietara, eurek ikusaraziko baitute ondoen erlatiboaren unibertsoa, hizkuntza garatu batean ezinbestekoa, euskara bizi den eta bizi nahi duen eremu geografiko eta kulturean, behintzat.

1) ERLATIBO EZ-MURRIZGARRIA:

ZEIN, ZEINTZUK, ZEINAREN, ZEINTZUEN...

Zein izenordain jatorriz galderazkoa (kasu honetan, izenordain erlatiboa) izen bat bezala deklina daiteke, singular-pluralak izen arrunt bati bezala aplikatuz. Mendebaldeko tradizio batek plurala TZU atzizkiz osatzen du: zeintzuk, zeintzuek, zeintzuei, zeintzuekin... Nik neuk nahiago dut horrela, baina beste era inondik ere arbuia gabe.

- Madrilen bertan genkusen zelula mardul bat, bere osatzaileak irudikatzen genituen, diktaduraren harroin ustelak apurturik, koheteak bezala oldartzen Euskal Herrirantz, su batez, zeinak, lurra kiskali orde, berdetasun joriak hedatuko zituen, ostertza beteko olatuan.

Esaldi honetan bi erlatibo daude: bere osatzaileak irudikatzen genituen eta zeinak (...) hedatuko zituen. Bata aposizioan, bestea izenordain erlatibo eran, biak erlatibo, baina oso egitura ezberdinak, eta bariazioa ematen dutenak.

- Ez, noski, hain era bestialean nola behizale hura, zeinak, jezgailuaren lana amaitu deneko, xurgagailu bat konektatu duen bere zakilera.

Esaldi honetaz eragotz liteke zergatik ez zen honela josi: "Ez, noski, jezgailuaren lana amaitu deneko, xurgagailu bat bere zakilera konektatu duen behizale hark bezain era bestialean".

Bati baino gehiagori, agian, joskera hori "euskaldunago" irudituko zaio, baina ez zuen balio, guztiz beste espresio bat hartzen baitu, ilunago eta elementuen progresioa alderantziz. Nire gogoan honela behar zen progresioa: bestialean → behizale → jezgailuaren lana → xurgagailua → konektatu → zakilera. Azken hiru elementuok azkenerako eta ordena horretan behar zuten. Ez da, noski, izan daitekeen espresio bakarra, baina, kasu honetan, horrelaxe nahi zen. Berriz ere eragotz daiteke: *Elementuak horrela ordenatu nahi izanez gero, zergatik ez esaldia honela eraiki? "Ez, noski, hain era bestialean, behizale hark bezala. Honek, jezgailuaren lana amaitu deneko, xurgagailu bat konektatu du bere zakilera"*. Esaldia arbitrarioki puskatuz gainera, espresioa guztiz desorekatu da. Konparaziozko terminoari zegokion menpeko esaldia afirmazio bihurtu da, indikatiboan, batere funts gabe.

– Mintza gaitezen filosofiaz, zeina ariketa bikaina zen pentsaketa garatzeko. Mintza gaitezen azken arrazoiez, bizitzaren zentzuaz, heriotzaz, haragoaz. Hitz batez, galdera handiez, zeintzuek garantizatzen diguten "betiko galderak" izatea, hainbat argiezinago direlako, zenbat eurei eraginago.

Aise ulertzen den erlatibotik aparte, azken korrelatiboak nola ordenatu ezbaian egon nintzen: *hainbat... zenbat* ala, maizago ohi denez, *zenbat... hainbat*. Espresioan badute aldea. Azkenean, lehenengoa hautatu dut. Hizkeran *zenbat eta... hainbat eta* ohikoago izan arren, ez dakust 'eta' partikularen beharrik.

– Ez daukazu ukondoaren lerratze disimulatua antolatu beharrik, bere beso biluzia itsasten baitzaizu, zeinaren karnaltasunak aise zehartzen dituen zure jake beltz higatua eta alkandora zuri mehea.

Erlatiboak ez dauka, euskaraz, bere izenari ondo-ondoan lotu beharrik, honela: *"itsasten baitzaizu bere beso biluzia, zeinaren karnaltasunak..."*. Ez legoke gaizki, baina ez da derrigorra aditza erditik kentzea, suposatzen baita erlatiboaren izenik hurbilenari dagokiola. Beste izen bat edo batzuk tartean izanez gero, orduan erlatiboaren izena jarraian joateko moduan ordenatu beharko litzateke esaldia, ez dagokionari lot ez

dakion. Aditzak ez du jarraitasunik apurtzen, ezta adberbio edo adjektiboak ere. Erlatiboaren beti izen bati dagokio.

– Diktadurari aitortu behar zaio dohaina menpekoen alde norgarri eta sendogarri hori sustatzeko, zeinak, batzuetan, haren akabera eragingo duen, nahiz eta, ia beti, epe desesperagarrietan.

Esaldia honela ordenatzeko tentazioa izan zitekeen: *"Diktadurari aitortu behar zaio menpekoen alde norgarri eta sendogarri hori sustatzeko dohaina, zeinak..."*. Orduan "dohaina" litzateke erlatiboaren jabea, hurbilena baita. Ba, ez. Erlatiboaren dagokion, esaldiaren intentzioan, "alde norgarri eta sendogarri hori" da. Okerrago litzateke "diktadura" azkenera pasatzea: *"Menpekoen alde norgarri eta sendogarri hori sustatzeko dohaina aitortu behar zaio diktadurari, zeinak..."*. Orduan "diktadura" bera litzateke erlatiboaren jabe eta, beraz, bere buruaren akabera eragingo lukeena. Beste kontestu batean esanahi zentzuzko eta deigarria izan liteke, baina esaldiaren asmoa bestea zen.

– Bere jardunean, hogeita hamar zentimetroko harri-idulkitik, eroso eta artoso maneiatzen zuen astotxoa, zeinarentzat uzkiaren nabari zuen mugida bezain gozagarri zen esku luzatuek bizkarrean zegoen azkura, hauxe baitzen parametroa, nondik abereak atsegin oro neurtzen zuen.

Esaldia ulertzeko, "jardunaren" kontestua bestialismoa dela jakin behar da. Aurreranzko adibideen iruzkinak irakurlearen esku gelditzen dira.

– Adin batera iritsia naiz, non denbora ezutuak gomendatzen duen ez nekatzeko inorekin teman, hain gutxi momiekin, zeintzuek baduten biziekiko aski abantaila iraupenean.

– Aitita Makurra izeneko haitz hominidoan eserita, olatu marmarti, ikustezinak kentzen saiatu naiz ilunari, zeinaren kontra aparren zuriak ere ez zuen balio.

– *Zer koño gertatzen dok hemen?* hots egin diet, mehatxu tonuan, une batez

biek batera begiratzen zidaten txakurrei, zeintzuek, itxaroten zuten agindu bat hartu bailuten, parkeko zuhaitz artera zaunka bizian oldartu eta txori aldra bariatu bat altxatu duten, norabide guztietaranzko zipriztinak irudi.

– Elizgizon bat era normalean gotzaintzeko, hiruko bat aurkeztu behar zitzaion diktadoreari, zeinak eskubidea zeukan haietako bat hautatzeko, edo hirurak betatzeko.

– Bakan batzuek atal bikoitzeko gorpuzdun himenopteroak dirudite, gerrikoari esker, seguruenik, zeinaren faltak gehienei labezomorro tēnteen itxura damaien.

– Dohatsua ohitura, zeinari esker beti dakigun zer egin.

– Buruak ez zuen nora jasorik aurkitzen, erarik inexorableenean, gainera, haren nahimena ez baitzen gai bere baitarantz baizik tiratzeko. Zulo beltza benetan, zeinaren masa infinitua nahigabe soila den.

– Azken hitzon bedeinkapen keinutik, inertzia formalak aitaren egitera arrastatu zituen agenteak ere, zeintzuek ez zituzten gero hortzak gozo karraskatuko, apaiz izorranteak zer mezu utzi zuen jakitean, latina baino hizkuntza ilunago hartan.

– *Ezta leihora bururik hurbiltzen ere!*, apuntatu zion metraileta batek halako gizon bati, zeinak galdetu zuen inozenteki (egia ote zen eguna benetan aurreratu zela?): *Agindua zein den jakiteko be ez?*

– Nik suge izan nahi nuen, oihan zorua narraste soilez, gainalde guztia inarrosteko: bere pareko piztiak asaldatzen ditu, zeintzuek goragokoak alarmatzen dituzten, denen artean oihan guztia mobilizatuz, goren hostoko tximeletaraino.

– Badut grina gaindiezin bat, denboragaz dohainera lerratu eta azkenean bizio bihurtu zaidana, zeinaren aginduz munduko edozein hiritan ibiltzeko obsesio nagusia bertan neure Bilbo sentitzea den.

– Tizianoren zirriborrotzat pasa liteke, baina Giorgioneren Venus Lokartua hautatu dut, zeinaren gozotasun kitzikagarria egilearen bizitzaren misterioan gaitzen den.

– Bigarren gauean beheraldi batek jo nau, zeinaren bidez, aldikada "txotxolo" bat gisan definitzeak ezer konpontzerik itxaron ez arren, neure burua erdi-engainatzea lortzen dudán, soluzio bat ematen ari naizela pentsarazten baitit. Une horietako bat, non beldur irrazional batek menperatzen zaituen.

– Nire denbora alde bietarantz mugatuan, hasiera kasualak baino gehiago inpresionatzen nau amaiera seguruak, zeina zuhaitz zahar, ia ustel horrek batere pena gabe ikusiko duen.

– Geiser horietan bezala, zeintzuen erupzioak sorburuan bertan jausten diren.

– Kaleko berri-zaskara guztiak biltzen zituen, zeintzuok, bere ahalmen narratibo delirianteari esker, berehala hartzen zuten epika baten itxura.

– Laino horiek bezala, zeintzuek haitza irentsi dutela sinetsi duzun, baina non haitzak berak ez duen ezer igarri.

– Eta horra orain non jakin duen fantasia arraro hura errealtate bat dela, zeinatik at aurkitzeak bertigoa damaion, errealtate ezkutu guztietan gertatzen zaion moduan.

– Zorionez, ahuntzak bazituen bi adar dotore, zeintzuetatik heldurik aise larrujoa izan zitekeen, haren indarra bestela ere ez baitzen izugarria.

– Bada absidearen gorenari inkrustaturiko bonbila bat ere, zeinak, argi egin baino gehiago, argitasuna handik gorantz bilatu behar dela esan guran dirudien.

– Zurtz gelditu ginen, bai elkarrri begira, bai, batez ere, Gastibeltzaren

betarteari, zeinean harritu ginen adostasun handiko keinua nabari zela, bere ideia bat gauzaturik ikustearen pozez bezala.

– Turbina fatidiko baten barruan nago, zeinak eraginago eta hortz gehiago duen, geroz estuago, geroz brutalago.

2) ERLATIBO EZ-MURRIZGARRIA:

ZER, ZERA, ZERAREN...

Galdekari guztiak erlatibo bihurtu ahal izateko printzipio orokorren barruan, ZER ere behar da, "relativas oracionales" direlakoetan, hau da, izen bat beharrean, perpaus oso bat buru duten perpaus erlatiboetan. Ez da maizegi gertatzen den kontua, baina izenordain neutroa ere (erdarazko 'lo que') komeni izaten da, batzuetan.

Karlos Cid Abasolok dio: "Euskal tradizio idatzizkoan ba al da horrelakorik? Hala balitz, komeniko litzateke adibide bat edo beste ematea. Hala ez balitz, argi utzi zeuk asmatutako egitura dela".

Ba, bai. Neuk bindikatzen dudan egitura da, printzipio orokor baten barruan, zeinaren arabera, ez agian "behar-beharrezko", baina bai "komenizko" iruditzen zaidan galdekari guztiak (ez batzuk bakarrik) erlatibo bihurtu ahal izatea.

– Esan nahi baitu enborraren gainalde guztiak pitzadura gabeko gihartasuna duela, zera baiesten baitu adaburuak ere, unadetan oso fresko dirudienak, bere eite nabarmenki irregularrez.

– Ez naiz hileta itzaltsu bat salapen mingarriekin biolentatzeko bezain astoa, nahiz eta beheragoko mailetan hotsari korritzen utzi (edo korriarazi), zera ez baita izaten ahokada publikoak baino gutxiago eraginkor, errekaosta ibai handia baino urrunago hel daitekeen moduan.

– Geroztik, Canela kapitainaren gogoan, Häendelen Aleluia (egilea eta pieza izenburuaren osagai) mugarrri sentimentaltzat gelditu zen, zera, noski,

espirituaren fintasuntzat laudatu beharko zitzaiokeen, beti diktadoreagaz (eta, seguruenik, diktaduragaz) asoziatu izan ez balu.

– Keinua beldurgarri bat egin zuen, zertan ez nuen koldarkeria baizik hauteman. Jarraian, keinu amoltsu bat irten zitzaion, zertatik ez nuen atera haren sentiera aldatu zenik.

3) ERLATIBO EZ-MURRIZGARRIA:

NON, NONDIK....

– Temeritateak exziturik, banao komentuko galerian aurrera, non ate bakoitzak moja bana inkomunikatzen duen, agian bina, launa, seina...

– Horregatik izango da iluntasun eutsiak ia beti haurtzarora itzultzen nauela, non oraingo buruagaz pentsatzen eta orduko gogoagaz sentitzen dudan.

– Alto ematekotan, halako garaian geunden, non, alkohola jazargarri ez izateaz gain, mozkor-plantak beste susmo batzuetatik libra zintzakeen.

– Halako zerbait nola kirol osasuntsu eta pasiotsu bat, non aurkitzen duzun, adibide bulgar bat jartzeko, asko eta ondo jokatu arren, futbola ez dela inoiz amaitzen.

– Zer izango eta udaletxetik dator hotsa, nondik udalbatza formazioan abiatu den elizarantz, bandera espainola aurrelari dela, oso goi eta flamante berau.

– Gehien perplexatzen nauena da azken bisitatik, non zuhaitza, neure pozerako, alai eta baikor iruditu zitzaidan, ez dudala gogoratzen haizeterik, aberia immoral hau eragiteko modukorik.

– Emakumeak alde egin du, irten beharra daukat esanez, non nik diskrezio bat baizik ez dudan ulertu, etxea libre uzteko bezala.

– Zure sentimendu oro menderatzen duen sekretu bat modelaturik agertzea

bezala laku baten azaleran, non zure izaki kutunek zeure uhintxoekin zurrustaka diharduten, itsaso eternoarenak direlakoan.

– Zelulen berritze instanteko horiek bezala, non ezin duzun birgintasunik galdu ekinda ere, hurrengo uneko organismoa %100 aldatu baitzaizu.

– Azkenean, gizateriak lortu zuen zehaztasun exaktoan orekatzea, non mila milioi goseak hiltzen ziren, beste mila milioik obesitate arazoak izan zitzen.

– Orduantxe ohartu ginen nolako izate-kontzientzia bizia emana zigun diktaturak, non izan zaitezkeen deuseztua, baina nekez existitzen zarenik ahantzia.

– Loaldi horietan bezala, non problema handi bat konpondu duzun, eta itzartzean ez zaren soluzioaz gogoratzen. Bo, soluzioaz bai, baina problemaz ez.

– Hemendik bistan zegoen, mendebalderantz, Deriotik Sondikara bitarteko Artetxe jatetxea, non hilerriko marmolistek eguna musean amaitzen zuten.

– Berehala ohartu naiz miraria bikoizten dela, ikustean marrazkiaren behe-erpina ez dela gerri mehe bat besterik (bi lerroren gurutzatze bat), non aldaka-joko ezin sentsualago bat zabaltzen den, arrain-isatsera errenditzen dena. Haragi marduleko sirena bat ikusten ari naiz, zeinaren bihotz-sorbaldak iruditu zaizkidanak bular oparo eta zorarazleen marko bihurtu diren.

– Une hura, adibidez, non plazera zu zaren, ni naizen, biok garen plazer bat bera.

4) IZENORDAIN EDO ADBERBIO ERRESUNTIBOEN BIDEZ OSATUTAKO PERPAUS ERLATIBOAK

Euskarari, erlatibo murrizgarria izan da bihurriena eta bertan hutsunerik handienak daudena. *Euskara batuaren bigarren jaiotza* saiakeran esaten zen (36. or.):

“Gure erlatibo murrizgarriak, N atzizki misterioso horrek, aditzaren barnean doazen hiru kasuak bakarrik adierazten ditu zuzenki. Baina erlatiboa aditzetik aparteko egitura bat da, hizkuntzaren mekanismorik funtsezkoenetakoa, aditzari baino areago deklinabideari lotua. Hitz batez, deklinabide guztia hartzen duen kontzeptu bat. (...) Euskal deklinabidea honela doa: Nor (subjektu intransitiboa eta objektu zuzena), nork (subjektu transitiboa, “agente” ere deitua), noren, nori, norekin, norentzat, norengan... eta beste deklinabide-atzizki guztiak. Zer egin N atzizki erlatiboak ondo adierazten dituen NOR, NORK eta NORI ez beste guztiak?”.

Lehenik, diogun hemen ere, aditzaren *nor-nori-nork* horietatik kanpora, badirela kasu ez gutxi, euskaraz oso normal esan direnak. Hona adibide sorta bat, aipatu liburuan datorrena (37, or.):

- *Hemen duzue bere begiekin maitemindu nintzen laguna.*
- *Hemen duzue orain beragaz bizi naizen laguna.*
- *Hemen duzue sekula beragatik txarrik esango ez nukeen laguna.*
- *Hemen duzue beragandik edozer itxaron dezakezun laguna.*
- *Hemen duzue beragan konfiantza osoa izan dezakezun laguna.*
- *Hemen duzue berataz edozertarako fida zaitezkeen laguna.*
- *Hemen duzue beretzat lan egiten dudan enpresa.*
- *Hemen duzue bertan buruko mina besterik aurkitu ez dudan lantokia.*
- *Horra hor bertara sekula joango ez nintzatekeen inguru bakarra.*

Ikusten denez, adibide horietan erdaraz *cuyo, con quien, por quien, de quien, en quien, sobre el que, para el que, donde, adonde* lireratekeenak daude. Bide horretatik, proposamen zehatza honakoa zen: “Aditzak berak zuzen adierazten ez dituen kasuetan, erlatibatutako kasu horiek

IZENORDAIN ERAKUSLE bategaz (edo ADBERBIO ERAKUSLE bategaz) iragarri, eta gero erlatibo normala aplikatu" (37. or.). Jo dezagun, beste gabe, adibide berrietara.

– Konfiantza osoz jo nezakeen, beraz, aurrekari horietan guztietan beragaz harreman ugaria eta maitekorra izana nuen prioreagana.

– Hamaiketako biziaren ondorio bat izan zen ni bere kopiloto nindoan gidariak aldasbeheretan frenoaren kontzientzia galtzen zuela, pagadien trinkotasun fermentatuaz aztoraturik edo.

– Herrira lehenengoz iritsi nintzenean, zeu izan zinen, Palmira txit laztan, hartaz ohartu nintzen lehenengoa; nire sentimendu irabiatu guztien oreka beragan presentitu nuena.

– Ezin diot gogoratzeari utzi, neskato honen adin inguruan (eta geroago!), nola mendiko bakar-ordu luze eta gogaikarriak atsegintzen nituen maitemin jokoetan, eurekin tratu zuzenik ukan ezin nuen herriko nesketarik lantzean bategaz.

– Cirardaren irekitasun "humanoagoa" ("atentzio humanoak" eta abar), bere asmo zintzoa osoki ukatu gabe, laster egiaztu zen taktika subtil bat zela, beti ondorio efektiborik ekarri ez ziona, adibidez, hurrengo atalean bere afera entzutetsua kontatzen den apaizaren kasuan, zeinari, hil batzuk lehenago, Gurpidek hileroko nomina (soldata) moztu zion.

Azken esaldi honetan, hiru erlatibo ezberdin daude: 1) Aposizioa: *beti ondorio efektiborik ekarri ez ziona*. 2) Izenordain erresuntiboa (*bere*) daukan erlatibo murrizgarria: *bere afera entzutetsua kontatzen den apaizaren kasuan*. 3) Ez-murrizgarria: *zeinari... moztu zion*. Beste alde batetik, esana dugu *zein*, *zeinari* bezalako erlatibo ez-murrizgarriak berari dagokion izena hurbil behar duela, nahiz bitartean sar daitekeen aditz, adberbio edo adjektiboren bat, hauek ezin baitira erlatiboaren jabe izan. Adibide honetan, ordea, "apaizaren kasuan, zeinari" dio. Arau zorrotzean, erlatiboaren aurre hurbilean "kasua" dator, izena berau ere eta, beraz,

erlatiboa har dezakeena. Argi dago kontestuak erlatiboa apaizari esleitzen diola. Bihurrikeria handiegia eta alferrekoa litzateke "apaizaren kasuan" bikoa atzekoz aurreratzen saiatzea. Zenbait kasutan, beraz, kontestua bera ere printzipio orokorreko arautzat sartu beharreko elementua da. Zehazpenak horretan utzita, argi dago erlatiboaren baliabide zabal horiek idazketari jareintasun eta adierazmen handia ematen diotela.

– Zuen zintzotasun eta borondate on guztiaren aitortza ezin dut eroan, neu bere ordezkari eta jagole oso naizen Elizari planteatu diozuen konfrontazio kasik belikoa onartzeraino.

– Don Fenixek ezin izan zuen hirugarren iganderako jarraipenik iragarri, bera haren ordezko egiten ari zen titularra, Don Arkadio, iluntze hartantxe itzultzeko baitzen kargura.

– Hartaz akusatua den bere sermoia entzun al zenuen?

– Orain, ostera, delako mutil "maitagarria" haren ordezpen bat baizik ez zen emakumea bera duzu ondoan.

– Hemen ditugu, ba, hain ikus- eta entzun-minez euren zain egon garen bi protagonistak, eta beste gabe eurei emango diet hitza.

– Baditut bizkar guri-guriko behorak, nire hankartean estutuak izateko irrikaz daudenak, bai baitakite euren sena deskubritzeko gai ez den nobedade xarmagarriak zabalduko zaizkiela nire bridetatik.

Azken esaldiko bigarren erlatiboak badu bere katramila konkordantzian. Badirudi, "ez den nobedade xarmagarriak" zatian, aditza singularrean eta izena pluralean ez datozela bat. Baina aditz horren subjektua ("sena") singularra da. *Euren sena ez da gai nobedade xarmagarriak deskubritzeko*. Beraz: *Euren sena gai ez den nobedade xarmagarriak deskubritzeko*. Baina nola, halaber, "nobedade xarmagarriak" beste aditz baten subjektua den ("zabalduko zaizkiela"), "deskubritzeko" aurrera ekarri behar da: *euren sena deskubritzeko gai ez den nobedade xarmagarriak*

zabalduko zaizkie. Eta nola aditz hau, halaber, konpletiboan doan, "*bai baitakite*"-ren mende, bere laburrean pasarte konplikatua atera da. Alegia, konplikaziorik bat ere ez, erlatiboaren gako txiki bat harrapatuz gero.

– Geure gogoeta kolektiboa hartaz eskaintzen dugun ekintza, egoera orokor biziki sakon eta konplikatua sintoma da.

– Orduan, lehen gutxiago xarmatu nautenak deigarriago bihurtzen zaizkit, edo euren begian islatu naizenentzat, orain, gorputzaren dimentsio eta mugiera osoetan, ez muzina ere, noski, baina errukia nagusitzen zait. Sentimendu honek ez du ospe onik, baina eurekin gezitu naizenekin ere, gero konturatzen naiz errukia dela maitasunaren garantiarik segurua, egoismoaz hurrengo, hau aitortzea inelegantea ez balitz. Edo, agian, dependentziaz hurrengo, honetaz ohartzeko, argitasun handitoxa behar ez balitz.

– Irudika dezakezu erratuta egon zintezkeela. Bere izatea ukatu zenuen izaki baten esku zaudela.

– Hemen, bizi-grina guztiek narabilte, debekatuak eta kontradiktorioak barne, nire bizitza hartaz guztiz bestera moldatua izan den zelai batean.
– Sinesten al dugu esan dudan guztia ez dela asmazio edo desio soil bat, ukitzen eta bere gainean aurrera goazen errealitate garbi bat baizik?

– Horixe da haurrek kontrolatzen ez dutena, pentsatzen baitute, behin ezkutatuz gero, aurrekari guztiak eurekin ezkutatu direla. Horixe da nerabeek ere guztiz kontrolatzen ez dutena, eurak hartaz osoki jabetzen ez diren astungarri batez, gainera, zeren, pare bat haur edonorantz ikustea, arriskurantz barne, hala jotzen da normaltzat, nola nerabe bikotea, urrats arautuetatik at, estigma baten eramailtzat, bizkarrean dortsal bat bailelramaten: *Susmagarri gara!*

– Gero beragaz ezkonduko nintzen neska honi lehen komunioa neuk emana nion, Xuneren kasua baino bi urte lehenago.

– Bai direla politik hitzak, hartarako esanak izan direnaz beste zerbaiz

adierazten dutenean!

– Gazte eta gazte-lagun, hitzun eta gogotsu, baina ez, nonbait, alaitsu bezain kementsu, berehala aurkitu zen harrapatu, bera hartatik askatzeko gai zen baino sare nahasiagoan.

– Ez zeunke lotsatu behar mundu guztiak hartaz harrotzen zarela badakien kolaborazio hain efektiboagaitik.

– Ez dakust zergaitik edo zertarantz mogitu behar dogun –dio bigarrenak–, hatarako batu garena honen biribil burutua izan eta gero.

Hatarako (bizkaieraz) edo *hartarako* bezala, ez legoke txarto *zertarako* bera ere, galdekaria erlatibo bihurturik. Alegia: "*zertarako batu garena honen biribil burutua izan eta gero*". Erdaraz: "Aquello para lo que nos hemos reunido". Izan ere, esaldia zatiturik, litzateke: "*Zertarako batu gara? Biribil burutu da*". Erlatiboak bi esaldiak lotu besterik ez du egiten: "*Zertarako batu garena biribil burutu da*". *Hartarako* bezala, berdin besteak ere: *hartaz, hartatik, hartarako...* eta euron korrelatiboak: *zertaz, zertatik, zertarako...*

– Ulertu dut, ene abokatu defentsore –akusatuak–. Ez nintzen sermoi berri bat egiten ari, hartaz akusatzen nauten sermoiaren sarrera literala aipatzen baizik.

– Jakin nahi dut iritsi ote den auzitegi gurgarri honetara Elizaren epairik, hartaz akusatua naizen sermoia kondenagarri dela sinatuz.

– Umetan hain setaz bekaiztua eta inoiz herri guztia asaldatzeko deabrukeria ere halakoxe bategaz egina zuen kanpai-soka sorgindua bere esku zeukan egun gutzirako.

– Ondorio lazgarria dator. Atzo bere posibilitatea ukatu eta hartaz erabat arnegatu nintzen indar ezkutu baten lana izan behar du. Mendekua.

– Beste kasu batzuetan ere gertatua zaidan moduan, aurpegira zuzen eta luze begiratzea gaizki pentsatzeko izan daitekeenekin (apaizon kasuan, emakumeak, batez ere gazte eta eder badira), karta-jokoa aitzakia naturala, eroso, oparoa da, elkarrengandik hain hurbil egon beharra duten begiei nahi duzun intentzio eta intentsitate guztia ezartzeko.

– Eta ahaleginak, eusteko ez ezik, kontzientzia biziagotzeko balio deidan, euren izenik ez dakidan gauza guztiei (gehien-gehien-gehienei) izen bana ezartzen dihardut, hura imitatuz, zeina sorkariak izendatzean ohartu baitzen zer egin zuen. Horrela, neure bizi arteko zeregin atsegina segurtuz gainera, eurekin harreman zuzen eta banakoa daramadan gauza guztiek beste hainbestean behartuko naute neure kontzientziaz gozatzerako.

Pasarte honetan, bi erlatibo murrizgarri daude, eta tartean ez-murrizgarri bat: *hura imitatuz, zeina sorkariak izendatzean ohartu baitzen zer egin zuen*. Iruzkina bat merezi du honek. Idatz zitekeen: *Zer egin zuen, sorkariak izendatzean ohartu zena imitatuz*. Edo: *Sorkariak izendatzean, zer egin zuen ohartu zena imitatuz*. Edo: *Imitatuz sorkariak izendatzean ohartu zena zer egin zuen*. Edo: *Imitatuz zer egin zuen ohartu zena sorkariak izendatzean*. Era ezberdinak gauza bertsuak esateko, baina ez, inola ere, espresio berdinean. Esaldi originalaren intentzioak batzuk dira. Alde batetik, "zer egin zuen" azkenerako utzi nahi da. Bestetik, nahiz galdegaiaren araua zorrotzegi hartzearen aldeko ez izan, kasu honetan, "sorkariak izendatzean" galdegai argi legez nabarmendu nahi da. Alegia, sorkariei izena emate horretantxe ohartu zen (Jainkoa) zer egin zuen. "Hura imitatuz" zatian ere, "hura" argi eman nahi da galdegai gisan. Ezaba zitekeen, noski ("imitatuz... ohartu zena..."), baina orduan alusioaren indarra ere lausotzen zen. Intentzioa argia zen, beraz. "Hura" presentzia indartsu bezala utzi nahi zen.

Ñabardura horiek guztiak lortzeko, *zeina* bidezko erlatiboa oso egokia da, egitura honek bere azpian daroan esaldia bereizi egiten baitu. Aditz agintzailea (kasu honetan *imitatuz*) trabatik kendurik, esaldi erlatiboaren osagaiak nahi den moduan ordenatzeko aukera dago. Baliabide hori saihesturik, espresio berdintura hurbiltzeko era bakarra honakoa izan zitekeen: *Hura imitatuz, sorkariak izendatzean ohartu zena zer egin zuen*.

Hau uler daiteke aposizio moduan, baita erlatibo murrizgarri moduan ere, honakoaren alderantzi: *Zer egin zuen sorkariak izendatzean ohartu zen hura imitatuz*.

Laburturik. Azalpen eta bereizkuntza hauek guztiak sobera daude, egitura zehatz, eroso eta guztiz emankor baten aurrean. Kasu honetan, honakoa bezain esaldi sinplea eta adierazkorra: *Hura imitatuz, zeina sorkariak izendatzean ohartu baitzen zer egin zuen*.

– Nola bat egin behar ditu nire gogoak beldar izugarri bat (astronauta anorexikoa bat) bihurtu den gizon bati dagokion errukia, eta hargatik natorren historiaren doilorrak ezartzen duen amorrua?

Esaldi honen ulertzaila ez letorke hainbeste joskeratik, nola kontestuaren ez-ezagutzatik. Gizon bat ohean datza, begiez eta sudurraz beste guztia bendaturik, su-hartze baten ondorioz. "Beldar izugarri bat". Egoeraren eragilea historia "doilor" bat izan da.

– Zergatik egin dut zentzuez hau guztia? Alegia, zergatik ez naiz gauza neuk neure lepoa beragaz katigatu dudana soka zentzugabea mozteko?

– Bere aurka zabilzenaren nominatik jaten, alper eskerbakook! – Ez dogu insolidarioak izan nahi kaudilloaren leialtasunetik bizi diren beste guztiekin.

Zabilze (bizkaierazko forma bat) = zabilzate.

– Nik uste dot efektua denporaren luzetik bilatu behar dogula, abadeok hatatik ondo horniturik gagozen ondasuna baliatuz.

Hatatik (bizkaieraz) = hartatik.

5) ERLATIBO MURRIZGARRI TOKIZKOA

– Gotzaina hilzorian zegoeneko arrazoi guztiek indarrean darraite, baina indartsuago orain, bai baita arrazoi berri bat, duda posible oro ezabatzen duena: heriotzaren beraren bueltarik eza.

– Kartetan zebiltzaneko barre gangar, ijui basa haiek, delizien jardineko eszenak iruditzen zitzaizkidan mahai-bira haiek, neure gogoan bakarrik egiazen ziren, neu ere tarteko nintzela.

Esaldi biok apropos dakartzat, bateko "zegoeneko" eta besteko "zebiltzaneko". Bi erlatiboetan, esanahia ez da tokizkoa, denborazkoa baizik. "Gozaina hilzorian zegoeneko = hilzorian zegoen garaiko". Erdaraz, "de cuando era". "Kartetan zebiltzaneko = kartetan zebiltzan uneko, denborako". Berdinak lirateke: *gazteak gineneko kontuak; gerra amaitu zeneko egoera; umea nintzeneko gomutak*. Hauetan denetan, "noiz" edo denbora da, ez "non" edo lekua. NEKO atzizki bikoitza beti denborazkoa da, zenbait materialetan, NON kasua argiago adierazi guran, zabaltzen ari den akatsaren kontra.

– "Kuatreroa". Bere izaera noble, onbera eta korpulentoaren guztiz kontrako ezizen hori bera hango parroko zen La Quadra izeneko auzotik atera genion.

– Herria itzartzen ari da, zorionez, Elizak hartan kolaboratu duen suntsipenaren gainetik.

– Eskailerak ahalik isilen jaisteko lan zaila amaitu genuenean, bertan sartzeko asmorik ez genuen jantokiko atean bi lagun topatu genituen, gaua hantxe gure zain pasatuaren itxura hartu genienak, geure urduritasunaren irudipena ere izan zitekeen baina.

– Gure ustea da ez dugula basakeriarik egin, geu ere bertan urteak eginak garen seminarioan itxita.

– Ez da bertan itxialdi sonatuak eginak diren Bilboko San Anton eliza ere, sabai hau plano, zikina, hurbila baita. Batzuek uda bertan igaroa dugun Zamorako kartzelako lotegia ere ez daiteke izan, zeren...

Han, bertan, han berean

Euskaldun askoren artean, ez da esaten ez idazten BERTAN delakoa (*bertako, bertatik, bertara...*), HAN BEREAN baizik (edo beste batzuk). Ez dago dudarik forma honek ere, bestearen sinonimo hertsia izanik, berdin bete dezakeela perpaus erlatiboan erresuntibo funtzioa. Beraz, badiot, adibidez:

– *Huraxe da haurtzaro guztia bertan igaro nuen gure baserri zaharra*
– *Horixe da toki bat, bertan hil arte gera zintezkeena*

berdin esan ahalko dut:

– *Huraxe da haurtzaro guztia han berean igaro nuen gure baserri zaharra*
– *Horixe da toki bat, han berean hil arte gera zintezkeena*

Ez du nahitaz BERTAN edo HAN BEREAN izan beharrik. Nahikoa litzateke HAN bera. Honen forma indartuetara joz gero, aniztasun endredosoa aurkitzen dugu: *hantxe, bertan, bertantxe, han berean...* HAN forma indartu gabea, ostera, euskaldun guztien komuna da, eta bera da forma indartuen oinarri. Horrela, aurreko esaldi biak lirateke:

– *Huraxe da haurtzaro guztia han igaro nuen gure baserri zaharra.*
– *Hantxe dago irla fantastikoa delakoa, han hil arte gera zintezkeena.*

Erlatibo ez-murrizgarrian tradizio luzea duen NON bera ere, bere deklinabide guztiagaz, ez legoke gaizki murrizgarriako. Hona aurreko adibideak eta beste bi, erlatibo ez-murrizgarrian:

– *Huraxe da gure baserri zaharra, non haurtzaro guztia igaro nuen.*
– *Hantxe dago irla fantastikoa, non hil arte geratuko nintzatekeen.*

– *Horixe da Ogoño mendia, nondik itsasoa oinetan ikusten den.*
 – *Nahi nuke segurtasun dorre bat, nondik mundua menderatu ahalko nukeen.*

Esaldiok erlatibo murrizgarri bihurturik, honela lirateke, txartzat jotzea zail izateko moduan:

– *Huraxe da non haurtzaro guztia igaro nuen gure baserri zaharra.*
 – *Hantxe dago non hil arte geratuko nintzatekeen irla fantastikoa.*
 – *Horixe da nondik itsasoa oinetan ikusten den Ogoño mendia.*
 – *Nahi nuke mundua nondik menderatu ahalko nukeen segurtasun dorre bat.*

Hurrengo atalean azaltzen denez, adibide hauetako lehen hirurak ondo ulertuko lirateke, kasuaren adierazlea ezabaturik, honela:

– *Huraxe da haurtzaro guztia igaro nuen gure baserri zaharra.*
 – *Hantxe dago hil arte geratuko nintzatekeen irla fantastikoa.*
 – *Horixe da itsaso guztia oinetan ikusten den Ogoño mendia.*

Lehen bietan argi dago "non" dela, eta hirugarrenean "nondik". Beraz, esan daiteke hobeto leudekeela adierazle gabe. Segurtasun dorrearen kasuan, adierazle gabe ez dago batere argi zer esan nahi den.

6) ERLATIBO MURRIZGARRIAREN ADIERAZLE GABEKO KASUAK

Erlatibo murrizgarri bizidun edo gauzazkoa izeneko 4) atalean, adibide batzuk eman dira, frogatzen zutenak "aditzaren *nor-nori-nork* horietatik kanpora, badirela kasu ez gutxi, euskaraz oso normal esan direnak". Orain, beste adibide zerranda batek frogatuko du, ohiko "normal" horien bidetik, baliabidea asko zabal daitekeela. Funtsean, printzipioa litzateke: adierazlerik (erresuntiborik, alegia) ez da behar, hain gabe ondo ulertzen denean, aurreko atalaren amaian aurreratu berri dugun moduan. Beharrezko diren kasuak gehiago dira, oro har, baina beharrik ez dutenak ere ez dira gutxi, jarraian ikusiko denez. Eman eta komenta ditzagun esaldi batzuk:

– Ez dakit horrek zer zerikusi izan daikeen orain gabilzen auziagaz.

Auzi batean gabilza. (Bizkaieraz, *gabilz*). Beraz, non kasua da. "Auzia", berriz, norekin kasuan dago. (*Gaz = kin*). Erlatiboa beste gabe lotzen zaio izenari, "non" kasuaren adierazle gabe. Eta ederto ulertzen da.

– Beldur nintzena gertatu da: hitzak haraindirantz ezabatu dira.

Adibide honetan ere, erlatiboa hutsik ageri da, kasuaren ezein adierazle gabe. Ez da behar, argi baitago "beldur izan" aditza "zeren beldur" dela.

– Denak ninderaman hain emana naizen amets hondarretara, zeintzuetatik, errealitatean euren inolako egiantzik ez aurkitzean, sentipen indartsu baten esplikazioa atera nahi izaten dudana, lausotasun etsigarrian beti.

Esaldi honetan, erlatibo murrizgarriak ez daroa aurreko adierazlerik, ulertzen baita "hauetara hain emana naizen amets hondarrak" direla. "Emana izan" esapideak joera adierazten du, zertara. Izan daiteke "zeri emana ere", edanari, parrandari..., baina testuan argi dago "zertara" dela. Bestalde, erlatibo murrizgarria daroan izen pluralari ("hondarretara") beste erlatibo batek darraio, oraingoan ez-murrizgarria. Erlatiboazko lotura gabe, honelatsu beharko luke: "*Oso emana naiz amets hondarretara. Denak ninderaman euretara. Hauetatik, errealitatean inolako egiantzik ez aurkitzean, sentipen indartsu baten esplikazioa atera nahi izaten dut*". Era hau ezin da esan txarto dagoenik. Baina erlatiboak lortzen duen ekonomia eta kohesioa berdintzerik ez dago. Estilo kontua ere izan daiteke, noski, baina jakin behar da batetik bestera alde handia dagoela espresioan.

– Edurne! Zelan egin deuskuzu hori? – Zer egin dot nik, zeuek hatara derrigortu ez nozuenik?

Erlatibo honek badu adierazlea, "hatara" (hartara), baina hori ezabatuta ere, ondo ulertuko litzateke: "*zer egin dot nik, zeuek derrigortu ez nozuenik?*". Dudan, jartzea dago, eta horixe egin du testuak, baina orain

sortzen zaidan duda da batere gabe ez ote legokeen hobeto.

– Badakigu konparazio partikularregia dela, baina gehiago sentitzen genuen hori, sar berri ginen seminarioan bertan inkulkatu ziguten konparazio unibertsal hura baino, zeinaren arabera infernuko atea, amodiorik ederrenaren forman irekitzen zekiena, gero atzean betiko itxiko zitzaigun, heriotzaren ere itxaropen gabe.

Esaldi ez hain luze honetan, lau erlatibo daude ia segidan, nondik berriz ere nabarmentzen den erlatiboazko egituraren ahalmen neurrigabea. Lehenengoan, "sar berri ginen seminarioan", adierazle gabe ulertzen da "non sar berri ginen" dela. Izena ere non kasuan egoteak ("seminarioan") ulertzea errazten du, baina berdin izan daiteke "sar berri ginen seminariotik", "sar berri ginen seminarioko nagusiek", etab.

– Horixe da modua parasito ikustezin horrek forma hartzen duena.

Erlatibo hau murrizgarritzat jo daiteke, baina alderantziz ordenatua. Ohikoa honela izan zitekeen: *Horixe da parasito ikustezin horrek forma hartzen duen modua*. Ordena inbertitzeak erlatiboazko esaldia bereizten eta indartzen du. Bestalde, esaldi horretan ez dago non kasua iragartzen duen adierazlerik. Darraigun adibideak ematen, ulermena eta iruzkin posibleak irakurlearen esku utziz.

– Ia inoiz ere ez, etorri ohi den bisita azkarretan, oso bakan okupatzen baitu gela.

– Zertara joan zaitezke inor egoteak logikarik ez duen zulo batera?

– Xune! Dudak duda, derrigorra da bata ala bestea hautatzea. Derrigor horri laguntzeko, beste segurantza bat nahi badozu, pensa eizu, txarreanean, moztetik etor lekikezun lotsaizuna baino askoz okerrago dela jarraitzeak zaroazen zuloa.

– Sor Luzia doan eta ni nindoan etxe eta inguruak hain antzekoak eta

oroituak badira, bideko sentimenduek ezin dute oso ezberdinak izan. Ez naiz hainbeste hanpatzen pertsona umil baten ongizate bat lortu dudalako, nola neure buruaren amets bat berbizitzen ari naizelako.

– Bazkaltzen dodan tabernan nire zain ez egoteko abisatuko deutset, eta etxean bazkalduko dot.

– Lirio hosto, arrosa eta krabelin sortak buelta guztian pausatu dizkiot, eta lehen aldia da sentitu dudana zer atsegin dibinoa den loreak askatzea kandela usainetik (heriotzaren tiraniatik).

– Abade putok eta euren putakeria graziosook! Goi tentsioko kabletan eseki behar lituzkete, orain mania sartu zaien ikurrin txotxoloen ondoan.

– Bide batez, kanpandorretik herri guztiaren eta haran gehienaren ikuspegi orokorra menperatzen zuen, baina ez zuen lortzen egoera xehatuaz jabetzerik, jendea baturik edo atxikirik aurki zitekeen puntuak ez baitzeuden ikusgai, teilatu, muino, bihurtune edo beste trabaren baten ondorioz.

– *Ireki begiak* agindu zidanean, nire belaun artean belauniko zegoen, ukondoak nire aldaken kontra eta aurpegia nire sabelaren gainean. Atxuriko elizakoaz geroztik, lehen aldia nuen antzeko egoeran aurkitzen nintzena.

– Une eta trantze horretantxe izan zen Xunek nigana jotzeaz beste irtenbiderik ikusi ez zuena

– Dozena bat lagun zeuden autobus batera sartu ondoren, dozena erdi hauteman zituen beste batera aldatu zen.

– Dozena erdi "garbilari" arduratuko dira bizimodua daramagun lokaletako ordenaz eta kuxidadeaz.

– Mendiko auzobideak zirkundatuz iritsi nintzen neure apaizgoa estreinatu nuen herrira.

– Ai ama! –pentsatu dut–. Hau neure osaba-izeko batzuk bisitatzera etorri ohi nintzen plazatxoak dok.

– Arnasak burdina ebanoratua dirudien honetatik ziur gaude, bizirik ez ezik, berbizirik irtengo garela, baina mutur epiko-dramatikoak elkar jotzen dauden zirkunstantzietan, hobe da ezer ez aurreikusi.

– Neu nengoen lekura ezin bainuen begiratu.

– Badira aldiak, zeure gomutekin ere nazkatzen zarenak, eta orduan zer egin behar duzu?

– Bazirudien koloso distiratsu bat agertu behar zitzaigula, gorputz osoko pantokrator bat bezalakoa, zer esango ote zigun irriks bezain beldur gina.

– Bitartean, arras beste mutur bateko auzi bat konpontzen saiatu behar dut, kanpotik bareago eta nobleago dirudien arren, funtsean doilorrage ez ote den kezka noana.

– Mungia aldetik, Artebakarra mendate suabearen goienean, izen bereko txakolindegia ageri zen, apaizgai iheslariak bisitatzera ausartzen zirena txakolin gorri zaharraren usnan, zeina ugazabak ez zien kobratuko, apaizgaiekiko debozioagatik, euron ustez, nahiz eta, berez, jaurti beharreko hondakina zelako izan.

– Une hori ez zen, noski, proposamena fisikoki entzun nuena, baizik beste hura, non, Dobalen eta bion nerabezaroan, hitz horiek – *hator neure gelara!*– hain karga suzko eta asalduzkoa izango zuten, entzunak izateko miraria gertatu balitz.

– Une eta trantze horretantxe izan zen Xunek nigana jotzeaz beste irtenbiderik ikusi ez zuena.

7) APOSIZIOZKO ERLATIBOAN SORTZEN DIREN KONKORDANTZIA BITXIAK

Erlatiboaren joskerarik ohikoenetako bat aposizioa da, hots, esaldi erlatiboa ondoren joatea, aurreko izen edo esaldi baten azalpen gehigarri bezala. Ortografikoki, bi esaldiak koma batez banatu ohi dira. Adibidez:

- *Hauxe da orain bizi naizen etxea, oraindik amaitzeko dagoena.*
- *Badator negua, berriz ere jantzi guztiak ateraraziko dizkiguna.*
- *Ez egin irainik Patakoni, Bizkaiko lapurrik ospetsuena izan zenari.*

Aposizioaren arau zorrotzetako bat da erlatiboa, hots, aposizioan doan azalpen gehigarriak, beroni dagokion elementuagaz (izen ardatzagaz, alegia) konkordatu behar duela. Konkordantzia hori deklinabideari eta numeroari (singular-pluralei) dagokie, batik bat. Euskaraz, ordea, erlatibozko N enigmatiko hori hartzen duen aditzak berak ere, halaber, beste objektu bat eraman dezake (esaldi konpletibo bat, adibidez), konkordatu behar duen izenaren ezberdina numeroan. Horrela, konkordantzia bitxiak sor daitezke, agramatikalak direla pentsarazteko modukoak. Horixe da ondorengo adibideetan aurkezten eta argudiatzen saiatuko garena.

– Gu gatozen orduan, goizeko hamarretan, plazatxoak huts-huts dago, probidentziaren batek apropos disponiturik edo. Alto ematen ari zaigun numero bikotea bakarrik. Eta ia euron buruetaraino luzatzen den bandera gorri-horia, eguzkiak diagonal goiztarrean jorik, gorriak minago eta horiak ahulago dirudiena.

“Bandera gorri-horia... ahulago dirudiena”. Honek guztiz ohiko eta natural ematen du, baina badu bere amarrua. Izan ere, “dirudiena” aditzaren agintzaile eta subjektua “bandera gorri-horia” da, baina, bitartean, beste izen bat ere infiltratu da, erlatibozko aditz horren subjektu: “gorriak... eta horiak”. Bikoiztasun hori ez zen sortuko honela: “bandera gorri-horia, gorrian minago eta horian ahulago dirudiena”. Orduan aditzaren subjektu bakarra legoke. Baina “gorri” eta “hori” subjektu agente bihurtu dira, horixe baitzen idazlearen intentzioa. Bitarteko subjektu hori plurala

ere izan zitekeen, aditzean "dirudite" eskatuz, honela: "bandera gorri-horia, kolore biek elkar babesten diruditena". Orduan, konkordantzia are bitxiagotzen da. Kezka gramatikalik ez izateko, idatz zitekeen: "bandera gorri-horia, non gorriak minago eta horiak ahulago dirudien". Edo: "bandera gorri-horia, non kolore biek elkar babesten diruditen". Hala ere, diot eta defendatzen dut testu originaleko formak baliabide zuzenak direla, eta aberasgarriak, ideia berdina espresio ezberdinetan ematen baitute.

– Madrilen bertan genkusen zelula mardul bat, bere osatzaileak irudikatzen genituen, diktaduraren harroin ustelak apurturik, koheteak bezala oldartzen Euskal Herrirantz, su batez, zeinak, lurra kiskali ordez, berdetasun joriak hedatuko zituen, ostertza beteko olatuan.

Bi erlatibo esanahiz antzeko, baina egituraz ezberdin daude hemen. Lehen erlatiboa, aposizioan doana, honela ere izan zitekeen: *zelula mardul bat, zeinaren osatzaileak irudikatzen genituen...* Izan zitekeen, eta beharbada, argiago geratuko zen, baina hurrengo lerroan ere beste antzeko erlatibó bat zetorrenez, bariazioak irabazi zuen. Ohiko joskera "zelula mardul bat, ... genuena" izango zen. Adibidez: "Madrilen bazen zelula mardul bat, denok pozik hartu genuena". Baina gabiltzan adibidean, "genuen" horrek, halaber, beste bere objektu bat du, plurala ("bere osatzaileak"), eta, beraz, "genituen" izan behar du. Hemen ere izan zitekeen: "Zelula mardul bat, zeinaren osatzaileak irudikatzen genituen...". Argi dago aposiziozko erlatiboa eta izenordain erlatibozkoa oso ezberdinak direla espresioan. Nahiz biak ez-murrizgarriak edo esplikatiboak izan, lehenengoa isilago, ezarian bezala doa. Bigarrenak, ostera, dioela dirudi: "Geldi! Hau aparte esan behar dut". Bariazioaz gainera, horixe da hurrengo erlatiboak eman nahi duen espresioa: "zeinak... berdetasun joriak hedatuko zituen".

– Alde negatiboak ere ez dira falta, ordea, ugariago izango direla suposatzen dugunak.

Konkordantzia bitxia, ia okerra dirudiena gertatzen da. "Suposatzen ditugunak" jartzeko tentazioa eman lezake, baina ez. Konkpletiboa "ugariago izango direla suposatzen dugu" da. Izan daiteke baita: "Ugariago izango dela

suposatzen dugu". Aditz konpletiboa "direla" ala "dela" izan, "suposatzen dugu" berdina da. Baina, aposiziozko erlatiboan, "dugunak" izan behar du, deklinabide pluralez, aurreragoko "alde negatiboak" agintzaileagaz konkordatu behar baita. Aldatu behar dena ez da aditzaren objektua (*duguditu*), baizik aditz erlatiboaren deklinabidea: *duguna-dugunak*. Izen agintzailea singularra balitz, normal-normal geldituko zen: *Alde negatiboa ere ez da falta, ordea, ugariago izango dela suposatzen duguna*. Baina "alde negatiboak" izanik, "dugun" aditz erlatibatua arabera deklinatu behar da.

– Baziren estatuak ere, *Historia de España*-ko liburu higuatuetan bakarrik zeudela uste genuenak.

Hemen ere konkordantzia bat dago, ezohiko iruditu arren, guztiz logikoa dena, goragoko adibideetan agertu bezala. Ez da "estatuak, ... uste genituenak", baizik: "Estatuak... zeudela uste genuen". Beraz, "estatuak, liburuetan bakarrik zeudela uste genuenak".

– Beno, bai, barrabilena ken daiteke, baina hori ez da eurok diotena, eurongatik esango dutela pentsatuz, kulatak berotzen zaizkiena baizik.

Esaldi honetako bigarren erlatiboaren barruko elementuak josita dauden moduan, zaila da logika gramatikal hertsirik aplikatzea. Ohikoa izateko, honelatsu beharko luke: *hori ez da eurok diotena, eurongatik esango dutela pentsatzeak kulatak berotzen dizkiena baizik*. Esaldiaren intentzioa, ordea, "esango dutela pentsatuz, kulatak berotzen zaizkie" zen, eta horrelaxe, zuzenean erlatibatu zen. Gelditu den moduan, ez dut uste erdarara literalki itzultzeko modurik dagoenik. Geuretzat ere abantaila soil bat behar genuen.

– Nire asmoa ez da inondik ere sintaxiko puntu guztiak jotzea, praktikan eurekin topo egin dudanak baizik.

Esaldi honek argi uzten du konkordantzia itxuraz okerraren logika zuzena. Aposizioan, erlatiboari dagokion izena eliditu ez balitz, honela geratuko zen: "Praktikan eurekin topo egin dudan puntuak baizik". "Topo



BILBAO
UDALA
AYUNTAMIENTO

Bidebarrietako Liburutegi Zentrala
Biblioteca Central de Bidebarrieta

egin dudan puntuak" da, ez "topo egin ditudan puntuak". Zer gertatzen da "puntuak" izena elidituz gero, esaldi berean aurreratxoago aipatua ez errepikatzen? Ba, izenaren deklinabidea aditz erlatiboari pasatzen zaiola. "Eurekin topo egin dudan (puntu)ak = eurekin topo egin dudanak". Eta ez "topo egin ditudanak". Inoiz ezin du izan "topo egin ditut, ditugu, dituzte", aditz honek ("topo egin") ez baitu onartzen objektu zuzen pluralik, "norekin-nortzuekin topo egin" baizik.

Karlos Cid Abasolok dio: "Nik kendu egingo nuke pasarte hau. Izan ere, adibide honek ez du zerikusirik aurrekoekin (hau ez da "Sintagma erlatibatua perpaus erlatiboaren barneko beste mendeko perpaus bati dagokionean" atal baterako adibidea)".

Onartzen ditut oharra eta zuzenketa, baina adibidea eta iruzkina bertan uztea pentsatu dut, tokiz kanpo bada ere, adibide interesgarria iruditzen baitzait.

Ondorengo adibideen iruzkina irakurlearen esku utziko dugu.

– Paisaiaren gainera sentimendu orokorrak jaurtitzen dituzuno, ez dago inorekin gatazkarik; zeure konkrezioak, haietarako elkartu zaretela suposatzen den gaiak, poetikoki estal ditzakezu, atzeratu bederen, gero esan dezaten poesia sentimendu intimoen forma-emate bat dela.

– Badakizu, emakume birekin bizitzeak aise sortzen ditu gatazka txikiak, handitu aurretik moztea komeni denak.

– Ongi duk. Botako diat, ba, neurea, itxaroten ez ezik, ziur naizena taldeko gehienena dela.

– Eta eskuinean etxadi antigualeko bat, bere balkoiteria beiradunak beti arretatu izan nauena, baina erreparatzeko astirik eman ez didana.

– Agiri bat publikatuko da, bertan ekintzaren arrazoiak eta eskakizunak azaltzen direna.

– Operazioaren sortze-batzarra, garrantzitsuena, bertan edukia, forma eta tokia taxutuko zirena, urriaren bigarren astelehenerako deitu zen.

– Herrira lehenengoz iritsi nintzenean, zeu izan zinen, Palmira txit laztan, hartaz ohartu nintzen lehenengoa; nire sentimendu irabiatu guztien oreka beragan presentitu nuena.

– Beharbada, kezkarri nagusia ez da hori, baizik zer dagidan neuk nire eliztarra ez den gizon bat bisitatzen, beragaz traturik apenas izan dudana eta bere familiagaz sekula mintzatu ez naizena, nahiz eta eurek ni...

– Margolariak lehorki erantzun zuen: *Txaparen zentzua lehen egunean zen. Orain berandu da.* Eranskin ganduzko horrek poliziak intrigatu zituen, euren ezjakinean zerbait gertatua ote zen, hartaz kontu hartu ahal zitzaiena.

– Nik esan dot, edo esan gura dot –ekin zion ama prioreak–, gure ordenak araudi bat daukala, bere sasoiaren gure fundatzaileak aurkeztua eta Erromak onartua, gero mendeetan zehar maiz berrikusia eta, halaber, Erromak baitetsia, non guretzat profesatzen direnek, euren gogoz eta etxekoen oneritzi osoz, uko mundutar batzuk promesten dabezen, zin eta guzti, boto eta guzti, publikoki eta miretsiki. Abade gazteek, estreinaldian, euren egokitu jaken ardurape txiki eta mugatuan kontzentratu gura izaten dabe karrera guztia, sutsuki eta zintzoki, eta kostatzen jake ulertzea gure ordena unibertsala izateko sortua dela, Eliza be funtsez unibertsala den moduan.

Karlos Cid Abasolok dio: "Adibideok ez al dira aurreko beste atal batekoak, erreasuntiboak hizpide zituen atalekoak, hain zuzen?".

Baliteke, eta Karlosek badio, ziur badela, baina orain ordena berrietan sartzeko alfer nago, eta kentzeak pena damait.

IRAKURGAIK

Azaroaren lauan, arratsaldeko hiru eta erdietan, Txorierriko lau puntu distantzikidetan, lau pelotoi gertu ginen, laurak hamar gutxiagotan abiatuak, lau-lauretan, seminarioko lau pabilioietako batean barnatzeko. Lau puntuak, ekidistantziaz gainera, elkarren bistan egoteko moduan hautatuak izan ziren. Hegoatik, Bilbo aldetik, Santo Domingo mendatearen erdian, Matsorpo txakolindegia zegoen, non, apaizgaitako Begoñara peleginazioetan, sar-irten ezkutuan saiatzen ginen, txanponen batzuk libre zeuzkan tontotxoren bat aurkitzen bagenuen. Hemendik bistan zegoen, mendebalderantz, Deriotik Sondikara bitarteko Artetxe jatetxea, non hilerriko marmolistek eguna musean amaitzen zuten, enkargu aberatsen bat iritsi bazitzairen, hilarri bat, adibidez, Gabriel Arestik beretzat sekula nahiko ez zukeena, pizkundearen mehatxupearan ere. Iparretik, Mungia aldetik, Artebakarra mendate suabearen goienean, izen bereko txakolindegia ageri zen, apaizgai iheslariak bisitatzen zirena txakolin gorri zaharraren usnan, zeina ugazabak ez zien kobratuko, apaizgaiekiko debozioagatik, euron ustez, nahiz eta, berez, jaurti beharreko hondakina zelako izan. Ekialdetik, azkenik, Zamudiotik Lezamara bitartean, Lagatzu txakolindegia islatzen zen errepide kontran, non ugazabak, mahats sasoiaren, lan etsigarria izaten zuen etxe-buelta guztiko parra lerden eta astundua zaintzen, "belakume beltzen izurria" (apaizgai paseatzaileen sotana-lerro amaigabea) hurbiltzen zenean. Barbaro ilun hark senetik ateratzen zuen txakurrak etxe aurrea bere katetik irmoki jagoten zuen arren, beste hiru hegaletan, gizonak hegal bat liberatzen zueneko (*kabenla seminarru! txakurra askatu behar ete joat?*), besteetan Grekoarenak bezalako esku-ilarak luzatzen ziren. Horiek denak gogoan, hirurogeita sei apaiz ordu exaktoaren zain geunden, lau puntu kardinalen ardatz egiten zuen seminarioan biltzera abiatzeko.

Deialdia zabala izan zen, baina zirkulu seguru baten barruan, gai sekretu batek eskatzen zuenez. Ez edukirik, ez antolapenik susmatzen ez zuen aginteak (politikoa zein erligioa berdintsu zen orduan) logia klero-

masoniko bat esango zukeen, horregaz, iraintzea ziur ez bazen, difamatzea lortuko zuelakoan. Esango zukeen, baina ez zeukan beharrik, bai baitzuen demonio larriago bat: separatismoa. Masoneria Jainkoaren aurkako izan zitekeen, baina separatismoa, Espainiaren. *Hori beste kontu bat dok, Santxo!* Nahiz diskretoenak izan, hainbeste partaideren artean ezinezko badirudi ere, guri, konfesio-sekretura ohiturik geundelako-edo, ez zitzaigun hain zail egin sekretasunari eustea, denbora ez luzeegian, behintzat. Egoeraren kontzientzia orokorrak ere laguntzen zuen horretan, joera areago baitzen entzuten ziren gauzak, kontagarri izanik ere, ezkutuan gordetzera, bai norbera zerbaiten zabaltzaile izan zela deskubritua izan zedin beldurrez, baita, bide batez, sekretu baten jabe izatearen sentsualismoz ere, maskota debekatu bati jaten ematea bezalatsu. Azken batez, pertsona baten bakantasuna ez du hainbeste taxutzen agertzen duenak, nola gordetzen duenak. Diktadurari aitortu behar zaio dohaina menpekoen alde norgarri eta sendogarri hori sustatzeko, zeinak, batzuetan, haren akabera eragingo duen, nahiz eta, ia beti, epe desesperagarrietan.

Atsedena, prekauzioz, komentu barruan egitea aurreikusia zen, fraileek eurek egindako sagar-muztio eta arrautza-opiltxoekin, hauek (arrautzak) euren oilategikoak, ospetsu egin zirenak, emakume batek janari-dendan galdetu zuenetik: *Fraileen arrautzarik badaukazue?* Eta dendari emakumeak erantzun: *Ez, ba! Fraileak, aspalditxoon, loka samar dabilz.* Kontua da opiltxoek eta muztioak banaka ezingo zuketan freskura zabaldu zutela gure buruetan. Batzarrari berrekin aurretik, itxialdi tokia erabakita zegoen: Derioko Seminarioa. Eraikin multzo honek antzinate faraonikotik sortutako gotorgunea zirudien, Derio eta Zamudioko elizen erdiguneko lautada zingirakoian. Atzeko bi pabilioi biki, erraldoi, fosilen aurrean, egitura berdineko beste bi pabilioi biki, erraldoi, berritu zeuden, gehi erdiko eliza eta dorre-eraikin deskomunala, zeinaren erremate planotik, faraoi lepamoztu bat bezalakotik, gurutze esperpentiko bat goratzen zen, ezarria baino areago kometa apurte batetik inkrustatua zirudiena. Izan zuten, zorionez, Kristorik ez eransteke sena, edo ezina, kometatik jausiari zegokionez. Gurrupide gotzain koxkorrek, ezkur bat giza tamainara handitua

bezalakoak, dorre berez altutik ia beste hainbesteko altueran finkatu zuen gurutzea, handik Txorierriko eskualde guztia menperatzeko-edo, Derioko hilerri bilbotarra eta Sondikako aireportua barne. Seminarioko agintaritzak bazuen astakeria arkitektoniko hartaz jabetzeko beste zentzu, baina atsegin ignaziotarrez amore eman zuen, agindu absurdoei men egiteak obediencia asko duintzen zuelako. Gainetik pasatzen ziren hegazkinak, ordea, eurak ere orduan kostata hegatzten zirenek, ezin zuten jasan euren potroak hain era kanonikoan marruska zitzaten, eta gurutze eskerga aire-espazioko arauen mailara jaitsi behar izan zen, zerutik jauskeran inkrustatua emateraino. Inori ez zitzaion gogoratu gurutze oinaren beherantzko soberakina mozterik.

Eta hemen gaude ekitaldi aretoan, laurak eta hiruan, oihaneko txoria bere habian bezain erraz sarturik, episodua epopeia baten urduritasunez, kasik larritasunez presentitua izan ondoren. Geure irribarre eta bekain-goratze erdi pailazoetan, ezin dugu disimulatu dezepzio puntu bat, hain neurri zorrotzak, ia zirtzilak hartu ondoren, honen asalto txepela gertatu delako. Edo babo-kontzientzia bat, hain prekauzio gorenak agortu ditugulako, honen balentria txatxurako. Ez daiteke izan hain kontagarri irudikatzen genituen estualdiak geure buruetan bakarrik gertatu izana. Ez al gaude diktaduraren gogorrean? Ez al gaude salbuespen-egoeran? Bat-batean, dezepzioa edo babo-kontzientzia ikararantz lerratu da, susmatuz honen hasiera erraza, errazegia, ez ote den izan zulo handiagorako engainu bat. Hegazkinetik zingira zabalera jaustean bezalatsu, non haitz ezkutuan puskatzeko izua lokatz mantso, xuabe, ia sentsualak zorionez saihestu duen, baina non berehala izukiago ohartu zaren haitzik eza hondoratzearen garantia dela, irteera gabeko paturantz. Edo baratze harresitu hura bezala, non fruiturik tentagarrienak zeuden. Bagindoazen zuhurtzia osoz eta ausardiaz bainoago tentazioz konbinaturiko asaltora, liluratu ginen hilobietan bezalako atetzar burdinazkoa zabalik aurkitzeaz, lerratu ginen inozenteki geure paradisu ustekoan, eta bat-batean, atea atzean itxi zitzaigun, konde zaharrak zakurra jaurti zeigun. Badakigu konparazio lar partikularra dela, baina gehiago sentitzen genuen hori, sar berri ginen seminarioan bertan inkulkatu ziguten konparazio unibertsal hura baino,

zeinaren arabera infernuko atea, amodiorik ederrenaren forman irekitzen zekiena, gero atzean betiko itxiko zitzaigun, heriotzaren ere itxaropen gabe. Zingiran ala infernuan izan, kontua da hemen gaudela eta operazioa abiatua dela; eta orain, gudan ez dauden zirkunstanzia on zein txar albora utziz, geure plana aurreratu behar dugula, arrakastara edo porrotera. Bitarterik ez dago.

Pentsatzea maite dut, baina besteen pentsamenduak ez zaizkit interesatzen. Konklusio horretara heldu nintzen, besteei nire pentsamendurik ez zitzaizela interesatzen ikusi nuenean. Ni desiatzen azaltzeko, baina *zelan bizi gara?* eta horrelako enigmak galdetzen zizkidaten. Inoiz, nire pentsamenduaz galdetzen bazidaten, euren entzutea zor nezan izaten zen. Pentsalari onak ebidentiaren ukoa oinarritzen daki. Pentsalari genialak ebidentiari ebidentzia jarkitzen daki. Pentsalari arina ebidentzia gaintitzen saiatzen da. Torturen existentzia ukatzen dutenak ez dira gaiztoak. Kolaboratzaileak dira. Euskal Herriaren miraria zen nola hainbeste mugidaz, hain gutxi aurreratzen zen. Hori entzuterik ez zitzaien gustatzen. Ez zuten ulertu nahi batuketa biderketa baino gehiago zela. $1 + 1 = 2$. Eta $1 \times 1 = 1$. Bat bider bat bider bat bider bat... berdin bat. Bat bider infinitua ez da infinitu bat. Bat gehi infinitua, berriz, infinitu bat. $Erdi + erdi = bat$. $Erdi \times erdi = laurden$. Zerotik beherantz gorantz adina zenbaki dagoela kontuan hartuz gero, eta bi + bi eta bi x bi berdinean utziz gero, batuketa xumea maizago da gehiago biderketa harroa baino. (...) Bizitzaren zentzua amaitzen da heriotzaren ziurtasuna alibio bihurtzen denean. Ziurtasuna desio bihurtzean, zentzua itzultzen da. Adimenaren lehen funtsa hilkortasunaren kontzientzia dela emanik, lehen kontradikzioa bakardadea izan daiteke: handik eskapatuz batera, bertara itzuli nahi; eta itzuliz batera, eskapatu nahi. Kezka horietatik libre naiz, behingoz, derrigorri esker. Loaldi horietan bezala, non problema handi bat konpondu duzun, eta itzartzean ez zaren soluzioaz gogoratzen. Bo, soluzioaz bai, baina problemaz ez. *Hemen ez dago Simonik, andratxo. Txarto markatuko zenduen – Nik txarto markatu? Zeuk hartuko zenduen txarto! Errakuntza da konparazioen iturburu. Lasai diogu "zeruan bezala" edo "Jainkoa bezala", noizbait han izanak edo hau ezagun bagenu legez. Badantzugu "Iurrean*

bezala", eta asko kostatzen zaigu ulertzea zer esan nahi zuen. Azkenean, gizateriak lortu zuen prezisio exaktoan orekatzea, non mila milioi goseak hiltzen ziren, beste mila milioik obesitate arazoak izan zitzaizten.

– Lagunok! Lankide suharrok! Bizkaiko eta Euskal Herriko langileriaren une honetako ikur gorenok! Beste egun bat gehiagok bosgarren hila, parka, seigarren hila gainditzera garoaz. Gaurko goiza barri kontrajarriz hasi da, azken aldion ohitura bihurtzen ari den moduan. Kontu ez hain pozkor, nahiz eta bai oso prebisibleagaz hasteko, Hinorsako zuzendaritzak greba-batzordeagaz ezer negoziatu gura ezta darrai. Badirudi ez daukiela lantegiaren hondamen bildurrik, eta nasaitzen gaitu, alde batetik, aurreikuspen baikor horrek. Ez izan bildurrik gure lantegiak greba honegaitik lur jo daien. Aginteak ondo babesturik, eskirolak edonondik ekartzen ari dira, langile grebalariai konpainiaren jabetzako etxeetatik bidaltzeko mehatxuekin. Lankideok! Udabarrian hasitako greba hau udagoienean aurrera doa, goikoen intransigentzia, behekoen erresistentzia. Biltzar honen azken puntuan tratatuko dogu, eta bozkatuko, ugazaben despotismoari zelan erantzun. Gure erresistentziarentzat, oso barri pozgarria da inoiz baino laguntasun gehiago eta mardulagoak jasotzen goazela, Bizkaiko eta Euskal Herriko alkartasun-kutxetatik, baita Espainiatik eta gainerako atzerrietatik be. Argi dago gero eta langileria zabalagoak gure garaipena bere garaipenagaz batzen dauela, eta gure porrotean bere porrota lekuskeela. Hinorsako zuzendaritzak jakin behar dau behar den denpora guztian eusteko moduan gagozela, eta eutsiko deusagula, geroz alkartasun zabalago eta eskuzabalago horri esker. Besteen artean, gaur primizia legez hartzeko ohorea daukagu alkartasun bat, bai diruzkoa eta bai morala, atzo Derioko seminarioan itxi zirela jakin genduen eta gaur irrati eta egunkari guztietan euren barri jaso dogun Bizkaiko Gogor taldeko abadeena. Primizia legez" ez dot guzurrez esan, euren ordezkaritza batek Hinorsako grebalariorik hautatu baikaitu, hain zuzen, itxien lehenengo urteeratzat. Hemen dagoz eurak, esker onez eta txaloz hartu daiguzen.

– Hinorsako langile zaïdu, burrukalarri zangar, grebalaria eredugarriok! –hasi

naiz, hitzei gai naizen baino indar handiagoa eman nahian. Predikatzen ohituta gauden eliza beteetan, entzuleriak menperaturik, konprimiturik, hormaturik dirudi. Infernua gainera jaurti arren, ezin zaizu eskapatu. Honelako lautada irekian, ostera, batez ere uniforme lurkara, brutalki berdin horretan, sentipena duzu ezen, hutsik txikienean, denak harrika hasi behar zaizkizula. Jarraitu beharra dago—. Gure ministerioak kontatzera behartzen gaituen mirari ugarien artean, gitxitan egokitu jaku honen handi eta zailik. Zuek klase zapaldu bat zarie. Gu klase dominante bat gara. Hona, ostera, gaur, eta pentsatu gura geunke, behin betiko, alkartasun beraren, kausa orokor bakar baten kide bihurtu garela. Zuek jasaten dozuen zapalkuntza da, hain zuzen, beste batzuen artean, arrazoi nagusietako bat, Gogor izeneko abade mogimenduko talde handi bat seminarioan mugagabeki ixtera eroan gaituena, Euskal Herriaren, Erromaren eta mundu guztiaren aurrean. Eta, zelan ez, erakusten ari zarien erresistentzia heroikoa eta markatzen ari zaien eredu aurrelaria da erabagarazko deuskuna gure lehenengo urteera zeuekana izatea. Gure ekimenaren zentzua da moralki, sozialki zein politikoki, zapaldurik, jazarrikerik, kartzelaturik sentitzen diren herritar guztien ahots bihurtzea. Salatzen dogu, geure eremuan, baina herritar guztientzat, gure Eliza Euskal Herriaren aurka dagoela: espainiar estatuari makurturik dagoelako; gure eliz erakundea kapitalista-klasista delako; gure herrikoa eta gure herriarentzat ez delako; gerraz geroztik, garaileen Eliza legez eraiki delako. Horren guztiaren aurrean aldarritzen dogu behar dela: Eliza pobrea, Eliza librea, Eliza dinamikoa, Eliza euskalduna. Denon artean lortu behar dogu justizia moralak, sozialak eta politikoak, osotasun orokor bakarrean, gaina hartu deion aginte militar, zibil eta erligiosoen batasun zapaltzaileari, eta...

Tanpez, lautadako masa guztia azazko badia bat bezala inarosten hasi da. Segundo gutxira, badia arkituz doa harantz, abalantxa bati aurre egiteko plantan. Geure altueratik dena hobeto begituko genuelakoan, oihuz tartekaturiko berbaro goriak, astindutako erlategi batena bezalakoak, gertaera zehazki bereiztea eragozten digu. Izan daiteke industrialde trinko honen gandu kobrezkoagatik, edo areago, oinetara gehiago begiratzen dugulako, jausteko beldurragatik, bat-batean tribunatzako bagoneta txikiegi begitandurik. Eurak dira! hots eginez, antolatzaileek tirakada batean saltarazi gaituzte bagonetatik, eta bagaramazte, jendetza gilan

irekiz, ez dakigu nora, suposatzen dugu mugidaren fokuz besterantz.

Azkenean, literaturan gorde nintzen, literalki, komunean bakarrik irakurtzen bainuen; klandestinoki, lotsa baino beldurrago bainintzen ez zirela gai izango eserialdien luzera kalkulatzeko. Inor ez molestatzeko modu bat da, kontrarako ere balio dezake baina. Hara! Ate joka dihardute. Polizia izatea bakarrik behar dut. *Zertan hago hor hainbeste denboran?* – *“Obra on bat” amaitu guran.* Ez nion esango *“Balzac guztia”*. Tximeletaren detailea arbuiatu gabe (euskal literaturari *“ñabardura”* gustatzen zitzaion), nik suge izan nahi nuen, oihan zorua narrastuz, gainalde guztia inarrosteko: bere pareko piztiak asaldatzen ditu, zeintzuek goragokoak alarmatzen dituzten, oihan guztia mobilizatuz, goren hostoko tximeletaraino. Ozelotea ere hortxe, felino itzurtia, larru bakoitza nabardura diferenteekin, ADN a baillitza. Babuinoak harpe ilunean lo egiten zuen, Platonen aitzuloko errebelazioa noiz hasiko. Bazirudien ez zegoela operazioa amaitzeko presarik, ez bataren ez bestearen aldetik, eta komunetik irten behar izan nuen. Genio izateari uko egin nion, ala etsia izan zen? *“Ulertu nahi dutenentzat bakarrik idazten dut”* esan nuen, eta lagun batzuk galdu nituen. Ez askorik, denak ere gutxi baitziren. Zerbait leundu guran, *“ulertzen dutenentzat”* zehaztu nuen, eta lagun guztiak galdu nituen. Bo, beti dira salbuespenak, korronteari kontra egiteko aukeraren zain daudenak, norabideari begiratzeke. (Lagun batzuk gelditu zitzaizkidan, noski, baina hauena parentesian bakarrik aipa dezaket). Nire mendeak neu bertan hiltzeko bakarrik balioko zidanenez, argi zegoen XXII. menderako idatzi behar nuela. Lagun galduek burlazartzen egin zioten *“pretensio postmoderno”* horri, nik klasikoa bakarrik izan nahi nuenean. Postmodernoa da modernora iritsi ezin dena. Klasikoa da modernoari bizirauten diona.

Erromako aldirian, Natorni aireportuan lurreratu ginenean, denek jazarletzat begiratzen hasi ginen, baina gutaz inor ez baitzen arretatzen, laster lasaitu gintuen susmoak ezen italiar zaratatsuak ez zitezkeela gait

izan gure misioa hain disimulu adostuan zelatzeko. Diktadura-lurretik kanporatzen ginen lehen aldia izanik, ezin genuen irudikatu jendeak ingura gintzan gure espeziekoak ez balira bezala. Saiatzen ginen suposatzen maletaz zamaturiko bidaiari haiek (orduan maletak ere handiak ziren) nahitaez gorde behar zutela Mussoliniren sindrome-hondarren bat, baina ikusiz inor ez zela aipatuzat ematen, geu ere inexistenziaren ozeano barean abandonatu ginen, ez geure diktadura-lurraren oroi-min bat gabe, orduantxe ohartu baikinena nolako izate-kontzientzia bizia emana zigun diktadurak, non izan zaitezkeen deuseztua, baina nekez existitzen zarenik ahantzia. Horiexek ez al ziren filosofoei (eta inguru-kutsapenez guri) gustatzen zitzaizkien gaiak?

Piazza Biribaldi osoki biraturik, kontrako erreiak komentu griskara bateko albatean utzi gaitu, non, *Ave Maria, Gratia Plena* hitzek osaturiko koro baten barruan dirakurgun: *Domus Carmelitana Beticelli*. Hiri zati handi bat erdi itsuan zeharturik, gutxien sinets dezakegu Erromako alde zaharrean gaudela, beharbada Neronek bere ama Agripina nola hil argibideak Senekagandik hartu zituen orubean. Albateak komentuaren ostatu aldean sarrarazi gaitu. Beste guztia klausura ei da, eta hala hobeto, geure zereginetik distrahitu ez gaitezten. Ostatuak badu komentu usaina, baina orain ez gaude estimulatuak izateko aldarlean. Moja ezagutezin batek (aurpegia belopean dakar) itxarongela handi batera sarrarazi gaitu, non utzi gaituen esanik atendituko gaituela *“zuen arduradunak”*. *“Zuen”* horrek apur bat aztoratu gaitu, ez baitakigu formula ohikoa den ala partikularki ulertu behar dugun. Bilbotik abiatuz geroztik, inoren kaixorik ez egun onik hartu gabe etorri ondoren, orain arduradun pribatua besterik ez genuke behar, Erromari buruzko aurreritzi guztiak konfirmatzeko, hots, hemen, norbere itzalaren aurretik, beste itzal bat joan ohi dela, bideak zabaltzen edo ixten. Jesuita ohi laguntzailea nora doanik azaldu gabe ezkutatu zaigu, eta itxarotea besterik ez dago, Errenazimentuko ipurdien moldean eginak diruditen kuxinen gainean. Bat-batean, harritu gara ia horma osoko koadro bat ikusteaz: Gaztelugatxeko San Joan, ermita exotiko baina egiazkoa, bilbotar akuarelista sutsu batek sinatua. Ramon Barreiro. Geure aieruak hariltzen hasi baiko, beste ezuste harrigarriago batek jo gaitu, atea ireki

eta aurpegi belogabe batek agurtu gaituenean, ez belo kontuagatik hain deigarri, nola esan digulako:

- Arratsalde on!
- Ene! Euskalduna zara?
- Zeanurikoa. Ez zengozeen jakitun?
- Ea artekoak garen -esan diot-, Zeanurin ahaide asko daukat eta.
- Nire abizenak: Olabeaga, Iturriotz, Arteta, Basondo. Gehiago be badaukadaz.
- Nire bategaz be ez datoz bat, halandaze ez gara odoleko izango.
- Zeanurin odola uragaz dator, halandaze, gorago edo beheerago, baleiteke nonon bat egitea.
- Nonon hori Erroma izatea bada zeozer. Adan eta Eba ez dira oraintxe urrun izango.
- Ondo ailegatu zarie?
- Artez-arte. Mortuaren erditik etorri bagina legez.
- Mortuaren erditik?
- Mortuan beti baitzagoz erdi-erdian. Antzinatik zagoz hemen?
- Hogeigarren urtea daroat. Erromes etorri, zorteak deitu, gustatu, gelditu.
- Orduan, izango dozu kontu bihur samar bat argitzeko beste esperientzia.
- Lizunkeriazkoa ez bada, bai.
- Ondo dago, mozteko bada be, posibilitate hori aipatzea, baina kontua harrigarriago da guretzat. Koadro hori benetakoa da?
- Bene-benetakoa. Senar-emazte batzuk hementxe ostatatu ziren lau umegaz, hamabost egunean, eta senarrak, Ramon Barreiro zeritzonak, denpora guztia pintatzen emon eban, Erromako zoko guztietan. Zorroan bazerabilen akuarela bat, "Gaztelugatxeko San Joan", eta gure Ama Prioreari (goian bego bera) hainbeste gustatu jakola ikusirik, handian pintaturik utzi euskun, lan haretan egingo eban denporaren ostatu truke. Familiak egonaldia ordaindu gura izan eban, baina zelan kobratuko geuntsen, ba, pintoreak horren koadro monumentala doan utzita?
- Pintorea ezagutzen dot, asko gainera. Familia osoa be bai.
- Bai kointzidentzia! Honelakoxe harrigarriak gertatzen dira Erroman.

- Bide guztia baitatoz bertora! Halan be, gure harridura ez da hainbeste koadroarena, baizik zelan daukazuen horren gauza tentagarria edozein harrapariren eskura, kopia bat ez bada.
- Ez, ez, ez! Autentikoa da, neu arestiko abizenen emoitza nazen moduan.
- Orduan, Erroma ez da entzutea genduen bezain arriskutsua.
- Aurrea hartzea da gakoa. Koadro hori -ederra da izan be gero, itsasotik ortziaren urdina harrapatzera salto egindako sirena dirudien haitz baten erpinean ermitatxoa!-, fijaszen bazarie, atetik ezin ateratzeko dimentsinoetan eginda dago.
- Guk uste genduen lapur mota hori, arteagaz kontaktuan, bera be lanean artistago bihurtu ohi zela.
- Ez litzateke hain erraza, desmuntatu beharko bailitzateke. Horrek arte-lapurrentzat luzeegia litzatekeen denpora beharko leuke.
- Markoarena ez da gatxa. Papera litzateke arazo, hain biribilki luzea.
- Ez hainbeste. Gehiago fijaszen bazarie, papera hiru tira horizontaletan itsatsita dago. Mirari artistiko bat gehiago da egileak zelan lortu eban koadroaren batasun materialki irreal hori. Hortxe dago lapurreta-saio posibleen prebentzinorako kakoa, ze pentsa eizue, markoa desmuntaturik -hori edonork egingo leuke-, koadroari heltzean, berak apurketa bat izan dela usteko leukeena gertatu dela. Hori ez leuke inork itxarongo, eta ezuste handiagoen bildurrez, ihesari emongo leuskio.
- Logika bueltabakoa dirudi, baina suposatzen da lapurra, asaltoa jo aurretik, informazio zehatza jasotzen ahalegindua litzatekeela, geu oraintxe gura barik legez, asmo horregaz etorri bagina.
- Oh! Hemen badakigu nori zelan berba egin.
- Sekretu garrantzitsuen kasuan, bereizmen subjektiboaren konfiantza hori ez dakigu kriterio lar segurua den. Zeanurin entzuna izango dozu berbak iheslariak baino urrunago heltzen direla.
- Bai, arrazoi nagusia falta ez balitz. Italian dabilen artelanen mafian, inori ez jako bururatzen koadro garrantzitsu baten originala honen harrapagai erraza izan leitekeenik.
- Zergaitik ez, guri lako azalpenak heltzen bajakoz?
- Orduan, egilearen borondatea bete besterik ez geunke egingo. Geuk be jarki geuntsazen objektino horreek guztiak, baina argudiatu eban: "Ostuko balute, hobe baino ez, beste bat pinta deizuedan. Jar zuek salaketan prezio

altu samar bat koadroari, eta indemnizatorik lortzen baduzue, huraxe gehiago zeuentzat. Niretzat, ba al dakizue nolako promozioa litzatekeen nire koadro bat Erroman ostua izan dela zabaltzea?" .

– Oraintxe uste dugu hasi garela Italiako arte-mafia zertxobait ulertzen. Iradokitzen ari zara geuk ostu daigula Gaztelugatxeko miraria.

– Ez zen nire asmoa, baina horrela ulertu badozu, abantaila handia izan leiteke esan dozuna ezen pintorea asko ezagutzen dozula.

– Abantaila baino areago, zorte probidentziala esango neuke, ze koadroa egileari entregatuko geunskio. Horrela, berak ez leuke barririk pintatu beharrik, ospe bardina lortuko leuke, eta zuek indemnizazio on bat kobratuko zeunkie.

– Artelan osoko operazio bat, funtsean.

– Gertatzen dena gu beste eginkizun handiago batek gakartzela Erromara, jakinean egongo zarenez.

– Nik ez dakit ezer, zeuek be ez zenkieen legez hemen Zeanuriko moja bat aurkituko zenukeenik.

Oraintxe, mafian sartzeko ere ardura ez digula geratu gara.

3. EBIDENTZIA / 2.- SINTAXI OSOA

EUSKAL SINTAXIAK, BERE BALIABIDE PROPIOEZ GAINERA,
INGURUKO HIZKUNTZA GARATUAK BEZAIN OSOA ETA ZEHATZA
IZATERA JO BEHAR DU

Baliabideen "osotasun" hori, ebidentzia honetan, sintaxira mugatzen da. Ez gara ari hiztegiak, argotaz, esapideez, maileguez, neologismoez... Horiek beste ebidentzia batzuetan agertuko dira. Kotxearen konparazioari jarraituz, sintaxia txasisa da, zelanbait. Horretan, euskarak ere pieza guztiak behar ditu, euren gainean kotxe osoa muntatzeko, dena delako marka eta luxu. Gaitasun sintaktiko "osoak" horixe esan nahi du: pieza guztiak. Pieza behinenetako bat, erlatiboa, aurreko kapituluan ikusi dugu. Izatez, erlatiboa sintaxiaren barruko elementu bat da, baina hain beharrezkoa eta euskaraz orain arte hain problematikoa izanik, aparte hartzea hobetsi dugu.

Lehenago ere adierazia dudan ideia bat berriz nabarmentzea txarto etorriko ez delakoan, osotasunak konplexutasuna esan nahi du, baina konplexutasunak ez du iluntasuna esan nahi. Konplexutasuna oso argia izan daiteke, eta izan behar du, edo izan dadin saiatu behar da. Baliabideak ezagutzen badira (kotxearen piezak), esaldi konplexu bat

ulerterraz izango da. Esaldi sintaktikoki sinple bat, ostera, oso iluna izan daiteke, kontzeptuen zehaztasun ezagatik, terminoen inkoherentziagatik, edo hamaika arrazoigatik. Gauza bat da, beraz, argia ala iluna, eta beste bat, sinplea ala konplexua. Hizkuntza garatu baten sintaxiak ezindu sinplea izan, konplexua baizik. Eta sarritan, bihurria ere bai.

1) EZEN: IZEN BATEN MENPEKO PERPAUSAK

Euskara batuaren bigarren jaiotza saiakeran, Izen baten menpeko perpausak izenburuko atalean (51. or.), esaten zen:

“Hitz baten menpean dauden perpausak etengabeak dira hizkuntzan. Bera da egiturarik garrantzitsuenetako bat, eta horixe da euskararen beste arazo handietako bat. Euskaraz, menpetasun laburretarako baditugu era batzuk, N, REN, LAKO, T(Z)EKO... atzizkiekin, segun zalantza, zehar-galdera, erlatiboa, konpletiboa, genitiboa... eskatzen duten. Erdaretan, gaztelaniaz behintzat, kasurik gehienak DE edo DE QUE partikulez konpontzen dira”.

Eman ditzagun bakoitzetik saiakera hartako adibide batzuk, auzia zentratzeko.

-N: *Ez daukat inor etorriko den itxaropenik. Ez dago atertuko duen antzik.* Perpausa hauek, menpekoa atzera pasaturik ere, oso naturalak dira: *Ez daukat itxaropenik inor etorriko denik. Ez dago antzik atertuko duenik.*

-LAKO: Zehar-galderazko eta menpetasunezko N hori nahikoa ez denean, LAKO atzizkiak zehazten du lotura. *Krisiak hondoa jo duelako baiezpen horrek ez dauka funtsik. Unibertsoak hasiera bat izan zuelako teoria zientifikoki frogatzea zaila izango da.*

Karlos Cid Abasosok dio: “Kontua ez da N hori nahikoa ez dela, baizik eta perpaus osagarri bat dela (horrexegatik diogu LA), izenlagun bihurtu dena (horrexegatik eransten zaio KO atzizki eratorlea)”.

-T(Z)EKO: Forma hau, batez ere, aditz nagusiaren eta menpekoaren subjektuak bat bera direnean aplikatzekoa da. *Ettxera joateko pozean nago. Ez daukat mugitzeko itxaropenik. Ez daukat arazo guztiak konpontzeko beldurrik.* Subjektuak aldatzen badira, adierazi egin behar da. *Ez daukat inor etortzeko itxaropenik. Ez daukagu haiek agertzeko usterik.* Hauetan, esan beharrik ez dago menpeko aditza joka daitekeela: *Ez daukat inor etorriko den itxaropenik. Ez daukagu haiek agertuko diren usterik.* Sarritan, gainera, argitasunak jokatzekeo eskatzen du.

-REN: Batzuetan, menpeko perpausa baino gehiago, genitibo garbia izaten da. *Ondo egitearen ordaina. Asko jatearen ondorioa. Sinesten ez dena predikatu behar izatearen kontradikzioa.*

Berriz ere *Euskara batuaren bigarren jaiotza* aipatuz (52. or.):

“Orain arteko kasuak ohikoen artean daude, eta solas normalerako nahikoa izan litezke. Euskarak horietan baditu soluzioak. Zer gertatzen da, ordea, gure “atzeko aurrerako sintaxi” zorioneko hori inbertitzen denean, behar delako, komeni delako, edo, soilki, halaxe egiteko kapritxo literarioa dugulako? (...) Ez dago zertan eztabaidatu. Sintaxiaren inbertsioak, jarduera literarioan batez ere, oso garrantzitsuak dira, eta euskaraz baliabide funtzionalak eta naturalak behar ditugu, sortzen diren premiak edo gurariak (edo kapritxoak, soilik) betetzeko. (...) Esaldi laburretan inbertsio premia zorrotzik ez legokeela onarturik ere, arazo nagusia esaldi luzeetan dator. (...) Esaldi luzea ez ezik, sarritan, bi esaldi edo gehiago datoz izen baten menpean, eta orduan auzia gehiago konplikatzen da. Bi menpeko, edo menpeko baten azpian beste menpeko bat. (...) Artazien metodo primarioa aukera bat izan liteke, baina primarioa da, eta hain gabeko beste aukera berdin erraz eta efektiboago bat eskura izanez gero, gutxi joko dute artazietara”.

Ez nuke esango erlatiboa bezain garrantzitsua, baina izen baten menpeko perpausen egitura hau neurtezina da bere maiztasun eta aplikazioan. Azalpen akademikoetan ez dakit zenbateraino, baina literaturan etengabe topo egiten da beragaz. Itzulpenetan ere, bera dateke, seguruenik, itzultzaileen buruhauste nagusietako bat. Soluzio oso zehatz,

erraz eta praktikotzat EZEN partikula proposatzen nuen, eta horretan darrarit. Izen baten menpeko funtziodun partikula honek ondoren etor daitekeen konplexutasun guztiaren jakitun jartzen zaitu. Badakizu zer eremu zapaltzen duzun eta nora zoazen, eta esaldia konplikatzen bada ere, ez zara noraezean gelditzen. Konplexutasuna errazteaz gainera, beste espresio modu bat eskaintzen du, esaldi laburrago eta errazagoetan ere, elementuen kateatze diferenteak posiblez.

– Hurrengo hitzak berrespen definitibo bezala izan ziren ezen ez zitziola arrazoirik falta izan, bere zorte ona nirekiko harreman batetik itxarotean. Nire gogoan, mirariaren kontzientzia irrefutable bazen, haren fedean ez zen txikiago konbikzioa ezen inspirazio zerutar batek bultzatu zuela nigana.

Esaldi biek "ezen" bana dararamate. Bigarrena ez da luzea ez konplexua, eta honela ere idatz zitekeen: "*haren fedean ez zen txikiago inspirazio zerutar batek nigana bultzatu zuelako konbikzioa*". Idatz zitekeen, baina oso espresio diferentea dauka. *Ez zen txikiago... konbikzioa*. Bi mutur horiek nagusitzen dira, erdikoaren garrantzia leunduz. Edo, gutxienez, muturrak indartzen dira. Testuaren intentzioan, ordea, "inspirazio zerutar batek bultzatu zuela" nabarmendu gura da, eta hori erditik aparte eta azken emanez lortzen da. Hertsian, esaldi originala "ezen" partikula gabe ere joan zitekeen: "*haren fedean ez zen txikiago konbikzioa inspirazio zerutar batek bultzatu zuela nigana*". Ondo legoke, baina partikulak gehiago markatzen du ondorengo zatiaren arreta, eta badirudi idazlearen intentzioa horixe zela.

– Margolariak ez zuen gure interpretazioa gaitzitu, baldintzagaz ezen "On Kixote buonarrotiar bat" ikus genezan.

Esaldi honetaz ere aurrekoaren iruzkin berdina egin liteke. Oraingoan, ordea, menpeko esaldia ez da konpletiboan osatzen ("bultzatu zuela"), subjuntiboan baizik: "ikus genezan". Partikulak bietarako balio du, baita beste era batzuetarako ere, zenbait adibidetan agertuko denez.

– Noizbait hil zenean, Artetako herrian, askapen sentsazioa baino txikiago

ez zen izan ondoeza ezen paisaiaren ezaugarri kasik berezkotzat bizi izandako espektroaren gabeziara egokitu beharra.

Esaldi honetan, "ezen" partikulari ez darraio konpletiborik, ez subjuntiborik, ez inolako aditzik, beste izen bat baizik ("beharra"), zeinaren azpian doan "egokitu" aditza eta beronen azpikarga guztia, "paisaiaren ezaugarri kasik berezkotzat bizi izandako espektroaren gabeziara".

– Hala ere, garaiko beldur-giroak ezartzen zuen lehen jardun-arauan ("ez haiz fidatuko heure hurkoaren maitaleaz ere"), ezinezko zen edozein zirritu oro, hipotetikoak barne, estaltzen ez saiatzea, ez hainbeste, arriskuaren tamaina orokorra txikitzen zelako, baizik, prekauzio guztiak agorturik ere, beti kontsideratu beharreko erortze kasuan, ondorengo amesgaitzetik libratzearren ezen zorigaitza norbere arinkeriagatik gertatu zela.

Esaldi hau, berez ere luze eta konplexu samarra izanik, askoz galkatuago geldituko zen, bigarren zatia honela eraiki balitz: "*baizik, prekauzio guztiak agorturik ere, beti kontsideratu beharreko erortze kasuan, zorigaitza norbere arinkeriagatik gertatu zelako ondorengo amesgaitzetik libratzearren*". Originalaren intentzioa, esaldia askatzeaz gainera, argiago eta indartuago uztea da "zorigaitza norbere arinkeriagatik gertatu zela".

– Denbora, denbora dirdaikorra, seminariotik etxerako bezpera eta gau delirante haietan bezalatsu nabari dugu, zoramen erantsiagaz ezen, oraingoan, geuk ez bestek ez dakiela, ez duela imaginatzen ere, bihar etxera goazenik.

Esaldi nahiko sinple hau "ezen" partikula gabe ere jos zitekeen, era galkatuagoan, honelatsu: "*Denbora, denbora dirdaikorra, seminariotik etxerako bezpera eta gau delirante haietan bezalatsu nabari dugu, oraingoan, bihar etxera goazenik geuk ez bestek ez dakielako, imaginatzen ere ez duelako zoramen erantsiagaz*". Soluzioa ez da txarra, baina intentzio batzuk aldatu dira. Bigarren honetan, "*bihar etxera goazenik*" zatia hor erdian, erdi oharkabean bezala gelditzen da. Lehenengoan, oster, berak hartzen du indarra, azkentzat gelditurik. Bigarrenean, "*zoramen erantsiagaz*" zatiak

hartzen du indarra, eta hori ez zen originalaren asmoa. Horrez gainera, lehenengo esaldiko "geuk ez bestek ez dakiela, ez duela imaginatzen ere" zatiaren kontudentzia bigundu egiten da "geuk bestek ez dakielako, imaginatzen ere ez duelako" loturan. Laburbildurik, soluzio bien artean alde handi samarrak daude espresioan, eta sintaxiak intentzio horiek guztiak ahalik osoen eta zehatzen adierazteko balio izan behar du.

– Baina batetik eta bestetik, ez nekusen era duinik, ezer gertatzea saihestekorik, eta ez dakit adimenak, grinak ala kamustasunak, laster moldatu zuen arrazoibidea ezen "derrigorriari" ahalik ondoen burutzen utzi behar zitzaiola.

Esaldi hau "ezen" gabe ere ondo ulertzekoa zen, menpeko perpausa sinplea eta laburra baita. Hala ere, aukeran, partikulak beti laguntzen dio argitasunari.

Karlos Cid Abasolok dio: "Nire ustez, ez horregatik bakarrik. Izen ardatza ("arrazoibidea") kasu absolutuan –NOR kasuan– egoteak ere badu horrekin zerikusirik. Aise esan daiteke (eta edozein gramatikak ontzat joko luke), esaterako, "zurumurrua dabil erregeak amorante pilo bat duela". Gainerako kasuekin (hala nola sozietiboarekin –"zoramen erantsiagaz"; etab.– ez dago horrelakorik egiterik".

– Horrek ez zuen kentzen Canela kapitainaren erremin nagusia, hain zuzen, susmo gorria izatea ezen apaizaren kanpandorreko agerpen izorranteak seinale adostu bat izan behar zuela kontsigna madarikaturen bat abiatzeko.

Ez dut pentsatu nahi esaldi nahiko sinple hau "ezen" partikula gabe jostetik nolako galkadura letorkeen. Proba dezagun. "Horrek ez zuen kentzen Canela kapitainaren erremin nagusia, hain zuzen, apaizaren kanpandorreko agerpen izorranteak kontsigna madarikaturen bat abiatzeko seinale adostu bat izan behar zuelako susmo gorria izatea". Sintaktikoki korrektua, eta kontesturen batean egokia ere bai, inpresio ito bat-edo emateko, baina, esaldi normal baterako, galkatuegia. "Izatea" gora pasatzeak ("erremin

nagusia, hain zuzen, izatea") asko arintzen eta argitzen du. Eta horrelaxe komeni, zeren, esaldiak bitartean elementu gehiago izanez gero, izan daitekeen bezala (itzulpenetan sarri), pentsa noraino joan gintezkeen.

– Bihozkada lanbrotsuak jo zuen ezen Ebangelioaren predikua baino lan zailagoetara arribatu zela.

Esaldia honela jos zitekeen: "Ebangelioaren predikua baino lan zailagoetara arribatu zelako bihozkada lanbrotsuak jo zuen". Ideia berdina da, baina espresioa, ezberdina.

– Karporen kasuan ere bidezko da esatea guztiz kasuala izan zela, baina kasualitateak ere, batzuetan, seguruenik matematikoki bakarrik esplikatzeko moduan, badu dohain bihurri bat ezen beragana isuriago daudenei gehiago laguntzen diela.

Hertsiki, ez legoke txarto (agian, hobeto?) partikula gabe: "badu dohain bihurri bat beragana isuriago daudenei gehiago laguntzen diela". Baita izan zitekeen: "badu dohain bihurri bat beragana isuriago daudenei gehiago laguntzeko". Norbaiti azken hau hobeto irudi dakiok, baina bi esaldiak ez dira berdinak, nahiz aldea ñabardura bat besterik ez izan.

– Beno, hori eurei esan baino hobe dugu geuk pentsatu, gerta ez dadin ezen, gomendioa mehatxuzat harturik (zerbait ezkutatu nahi duenari hitz oro iruditzen zaio ziri), Erromako gure zor guztiak eurek ordaintzea, ingurutik lehenbailehen urrun gaitezen.

Esaldi honetan, "ezen" partikulak perpausa nominal soil bat diragar. Normalean ez da hori izaten bere zeregina, baina ondo dator, argitasunerako.

Karlos Cid Abasolok dio: "Nik ez dut hor ezen horren beharrik ikusten. Gainera, menpeko aditza jokatu gabea denean, ezin omen da ezen erabili (beti –ela eskatzen bide du)".

Karlosen begi zoliari eta inspiratzen didan autoritateari jaramon eginik, auzia birpentsatu dut, eta, seguruenik, hobea dateke beste soluzio bat, ZERA bidez, beste elementu baten ordezko zehazgabea berau. Hain zuzen, baliabidearen zeregina da geroago aipatu nahi den (edo ahaztu den) hitz edo esaldi bat iragartzea. Sarritan, biak, termino iragarlea eta iragarria, jarraian eraikitzen dira. Esaterako: *Eta ondoren zera agindu zuen, lehenbaitlehen itzuliko zela atsegin-bidaia hartatik*. Edo honela: *Eta ondoren zera agindu zuen, alegia, lehenbaitlehen itzuliko zela atsegin-bidaia hartatik*. Edo are luzeago: *Eta ondoren zera agindu zuen, hain zuzen, alegia, lehenbaitlehen itzuliko zela atsegin-bidaia hartatik*. Esaldia hanpatzeko luzapide erretorikoak, zenbait kontestutan egokiak, testuari halako aire jaso bat, edo, soilik, aire huts-harro bat emateko. Nik neuk, tartean asmo literario garbirik ez badago, nahiago dut ahalik laburren: *Eta ondoren agindu zuen lehenbaitlehen itzuliko zela atsegin-bidaia hartatik*.

Ostera, gabiltzan adibidean bezala, bi terminoen artean beste osagai batzuk sartzen direnean, edo sartu nahi badira, orduan hartzen du baliabideak bere eginkizun argitzaile guztiz baliosa. Kasu honetan, adibidea honela geldituko litzateke:

– Beno, hori eurei esan baino hobe dugu geuk pentsatu, gerta ez dadin zera, gomendioa mehatxuzat harturik (zerbait ezkutatu nahi duenari hitz oró iruditzen zaio ziri), Erromako gure zor guztiak eurek ordaintzea, ingurutik lehenbaitlehen urrun gaitezen.

Horrela, izen bihurturiko ZER galdekariak jakinean uzten gaitu gero zerbait adieraziko dela, kasu honetan, "*Erromako gure zor guztiak eurek ordaintzea*". Bide batez, nahiz atal honetan ez tokatu, aukera baliatzen dut argitzeko ZERA dela ZER + A, artikulua mugatzailea. ZER = mugagabea, eta ZERA = mugatua. Tradizio batek ZERA termino bakartzat deklinatzen du: *zera esan zuen, zera esango dizut*, eta berdin: *zera bat igartzen zaio, zera bat sentitzen dut*. Beste tradizio batek mugagabea eta mugatua argi bereizten ditu: *zera esan zuen, zera esango dizut*, baina: *zer bat igartzen zaio, zer bat sentitzen dut*. Esan gabe doa, niretzat (eta suposatzen dut bereizkuntzen aldeko nornahirentzat), bigarren aukera hobea dela.

– Eta hara, azkenean, miraria gertatua zela hamahiru urte geroago, hitz horiek nire hamabost urteko belarriek entzun baitzituzten, kinada erantsiagaz ezen beteak izateko posibilitatea, guztiz erreal eta eskuragarri ez ezik, saihestezin zela orain, nerabegaroko alderantziz, non, hitzak errealak izanik, betetzeko aukera ia metafisikoki ezinezko izango zen.

Esaldi konplexua dirudien honek, sintaxi "adultu" batean, inolako zailtasunik ez dauka, baldin "*kinada erantsiagaz ezen...*" esapidea ulertzen bada. "Con el estímulo añadido de que...".

Ondorengo adibideen iruzkina irakurlearen esku utziko dugu.

– Batzuentzat mirariz, beste batzuentzat paradoxaz, izaera moraletik at bizi den arte senak (artista humanoki ankerrenak ere berdin hunki zaitzake) ilusio orokorra sentiarazi zuen ezen musikaren eragin zirrargarri hura diktadorearen emanazio bat zela.

– Aitzakia ondo zetorren, ez bainion aurpegira begiratu nahi kontakizuna hasi eta bere hitz batzuen seinalea jaso arte, ez zedin gerta ezen, haren betartean ondoeza edo muzina ulerturik, moztuta gera nendila, beste jardunean kondoia bete ezinik bezala.

– Nago hauxe dela kasu bat neure konbikzioa gauzatzeko ezen zorion inkontzientea denbora-galtze bat dela.

– Leiho haren bi orri eta sei laukien dohain aztoragarriena zen ezen, guztiz independenteak izanik, ezin zutela ordena aldaezinetik irten, mugimendua gaitzi zitzaion jainko batek hartaraxe kondenatu bailituen.

– Efektu on bat eta txar bat tamaina berdinekoak izan arren, txarraren abantaila da ezen beronen jasailea ona baino askoz gehiago dibulгатzen saiatuko dela.

– Arrisku alua bestea zen, infernuaren beldurragaz batera, zeruaren fedea galtzea, mendeak igaro ondoren kontsignaz ezen ez zela komeni zeruaren

poza gehiegi zabaltzerik, sinestunen euforia sumisioen gainera igo ez zedin.

– Zergaitik ez joat ebidentzia ikusi behar ezen, okerrrik gertatzekotan, dagoeneko gertatua behar zela?

– Esaiozu hotsak entzun dozuzela Baurregin ezen, gitxien ustean, izugarria gerta daitekeela. Jentea prest dagoela Bizkai guztitik etortzeko.

– Metodoak ez zidan, noski, errealtate egiazkoaren bekaitzik ematen, baina errealtate pentsatuak bazuen abantaila itzel bat ezen denborek ez zutela amairik (zorionen ezpata inexorablea), eta batez ere, ez zutela amai txarrik.

– Soil-soilik, nahimenetik deskonektatu naiz, gertatzekoa bere kabuz gerta zedin, eta poz enigmatiko bat sentituz ezen bulkada zehazgabe baina sakon baten atzetik netorrela.

– Sekretu handi eta delikatu bat gordetzean, ezin zara libratu beldurretik ezen norberagan edozertara saltatzeko gai dela sentitzen den pentsamenak besteengan ere ibilbide mugagabe berbera izan behar duela; edozein hitz edo aipu zehar-zantzutzat hartzen duzu zerbaitez ohartu direla.

– Ez dakit amorrua ala inpotentzia izan zen, baina ez nion ekin, alferreko iruditurik. Moja haren gogoan, borondateren batez abusatzen edo pribilegio merezigabe bat xahutzen ari ote zen beldurra baino areago izan zitekeen ideia aszetikoa ezen aski dela zerbaitez humanoki konpletoa gertatzea, moralki susmagarri edo errugarri sentitua izan dadin.

– Diferentzia handi bategaz, noski, ezen, ni urtean birritan etxeraten nintzen bitartean, Sor Luzia ez dela sekula itzuli, nahiz eta, nire kasuan, ez den ahanztekoa umetako urradurek sakonago zulatzen dutela gogoa, baina zer esaten ari naiz?

– Beste pentsakizunik ez zeraman ezen, eskola-lagunek *bai aurpegikera hingatua donala!* esan ondoren, nola amak ez zion igarri zenbat negar egina

zen. Poza bezalako sentipen llabur bat izan zuen, nola, urka-sokan zaudela, tximeleta bat begi aurretik pasatzea.

– Separazioa sakondu egingo da, ondoriozko arriskuz ezen eliz autoritatean defentsa-erreakzio estremo bat eragingo duela, botere zibilean babestuz.

– Eta gu ere ez gara esertzera ausartzen, teoria konprobagaitzari jarraituz ezen norberagan zerbaitez lotsagarria sumatu duen bat posizioak aldatzen hastea okerrago dela.

– Hiru kristal-orri zeharrazgizko leiho etzanek lantsuki argitzen eta aireztatzen gaituzte, zeintzuen bi hegalak finkoak eta erdikoa baskulantea izanik, inpresioa damaigun ezen kanpoko zorua doi-doi libratzen dutela eta, beraz, gu lurpean gaudela.

– Baina atzetik eta alboetatik ere oso era naturalean hurbil zitekeen, abantailaz ezen komunitate guztien (txikien eta handien) pasealeku eta jolastoki gehienak atze aldean zirela.

– Apaizak garela badakite, eta uste dut nire inkontzienteak unearen larritasuna bere kabuz kudeatzea erabaki duela, gure presuntzio kasik infusora jorik ezen apaizgoa beste gabe dela aski arrazoiz edozein ate ireki dakion, eta molestatzen egotea ere beretzat eskergarri eta molestatuentzat ohore izan dadin.

BESTE BATZUK

Gure sintaxian, erlatiboan eta izen baten menpeko perpausetan aurkitzen nituen bi hutsune nagusiak azaldu ondoren, orain beste arlo batzuk joko ditut, non batzuetan hutsuneak eta beste batzuetan dudak agertzen diren, edo, behintzat, zurruntasun handiegiak oraindik. Nire asmoa ez da inondik ere sintaxiko puntu guztiak jotzea, eurretan arazo edo dudaren bat aurkitzen dudanak baizik. Gehiago ere izango dira, seguruenik, baina liburu honetan eta aurrekoan (*Euskara batuaren bigarren jaiotza*), problematikoena jasota gelditzen direla esango nuke.

I) KORRELATIBOAK

Karlos Cid Abasolok dio: "Dakizunez, hauek ohikoak dira euskal autore klasikoetan".

Hala da, noski, eta pozten naiz Karlos bezalako autoritate batek egia hori berrestea. Susmoa daukat, ordea (ziurtasuna, garbi esanda), autore klasikoen ekarpen askori muzin handia egiten zaiola... oraindik ere! Korrelatiboek (literarioki, hain emankor direnak, bestalde) ez dira azkenak muzin horretan.

Sail honetan, bi termino korrelatiboz osatzen diren esaldiak jarriko ditugu: *hain... nola, zenbat... hainbat...*

Nola

– Txoriak txikiak izanik, ez zen hego hots nabarmenik tokatzen, baina bai harritu nau ohiko txortxor ozenik ezak, jakinik txoriei, usoen alderantziz, isiltasuna hainbat kostatzen zaiela nola gelditasuna.

Esaldi hau osa zitekeen beste honela ere: "*isiltasuna gelditasuna adina kostatzen zaiela*". Ideia berbera, baina espresio ezberdinez. Honetan, "gelditasuna" indartzen da. Testu originalak "isiltasuna" indartu nahi zuen.

– Poza bezalako sentipen llabur bat izan zuen, nola, urka-sokan zaudela, begi aurretik tximeleta bat pasatzea.

Hau ere esan zitekeen honela: "*urka-sokan zaudela, begi aurretik tximeleta bat pasatzea bezala*". Berriz ere, ideia berdina, baina espresio ezberdina. Testu originalean, konparazioa aurretik iragartzen da, eta "urka-sokan zaudela" tartea ere konparazioan sartuago nabari da.

– Artean zabalduegi zegoen jauntasun autoritario eta dominantea hala hedatzen zuten (inozoki, pentsatzen nuen), nola euren gain-maila fisiko eta moralari zor balitzaio bezala.

Idatz zitekeen: "Artean zabalduegi zegoen jauntasun autoritario eta dominantea hedatzen zuten (inozoki, pentsatzen nuen), euren gain-maila fisiko eta moralari zor balitzaio bezala". Baita honela ere: "Artean zabalduegi zegoen jauntasun autoritario eta dominantea euren gain-maila fisiko eta moralari zor balitzaio bezala hedatzen zuten (inozoki, pentsatzen nuen)". Ideia berdinarene hiru espresio oso ezberdin. Hirugarrena galkatuegi legoke, eta esaldiaren osagaiak desorekan, batez ere beste bietan bide batez bezala zihon parentesia (inozoki, pentsatzen nuen) azken koda bihurtzean. Testu originalean, konparatiboa errepikaturik legez dator: "nola... bezala". Horrela, konparazioa xedatuago gelditzen da, hasiera-amaiera argiekin.

– Ezin dugu ekidin sentsazio bikoitz bat, bietarantz bortitza, hala masa ahalguztidun batena, nola esplotatuak izateko gaitasun berdinarena.

Esaldi hau ez da konparatiboa, baizik emendiozko esangura dauka, *bai... bai-k* bezalatsu.

– Entzerrona bat iruditu zaigu bete-betean, nola den piztiak harrapatzeko ezarri duten bat, pasabide luze baten ondoren.

Esaldi hau honela idatz zitekeen: "Entzerrona bat iruditu zaigu bete-betean, piztiak harrapatzeko ezarri duten bat bezalakoa". Seguruenik, horrelaxe idatziko nukeen, jarraian "*pasabide luze baten ondoren*" ez baletor.

– Taldearen ordezkari erantzuleak bi ginen, hautatze-kriterio hain soil eta biribilez nola denen artean pasaportedun bakarrak ginela.

Hemen, "nola" terminoak esanahi konparatiboa baino gehiago esplikatiboa dauka. Halako zerbait nola gaztelaniazko "como que éramos lo únicos con pasaporte".

– Lehen ez diguzu begirada hain laztana nola azkarra jaurti –ohartzen nau Tazitok, bere estilo ez gutxiago korrosibo nola trinkoan.

"Hain laztana nola azkarra". Zehar-era subtil bat, adierazteko

begiradak azkarretik gehiago zeukala laztanetik baino. "*Bere estilo ez gutxiago korrosibo nola trinkoan*". Hemen bi terminoak pareko dira, baina esateko era oso ezberdina da honakotik: "*bere estilo korrosibo bezain trinkoan*".

– Entzun dozue! –jauki du, tonu berdinez (nahiz eta moja batengan intentzio ezin berdinez) nola esango zukeen "putakumeak zarie!".

Esaldia honela jos zitekeen: "*Entzun dozue!* –jauki du, «putakumeak zarie!» esango zukeen tonu berdinez (nahiz eta moja batengan intentzio ezin berdinez)". Gauza berdina esaten dira, baina elementuen ordena guztiz aldaturik, eta zentzua ere bai, neurri batean. Testu originalak "putakumeak zarie!" azkenerako utzi nahi zuen. Bigarren eran ezin da hori egin, esaldia zatitzen edo arbitrarioki berregiten hasi ezik. Hurrengo esaldian ere jokaldi berdina gertatzen da.

– Zelan ausartu da berori izugarrikeria hori sinestera, Beticelli honetan danak burutik ez badagoz? –Azken lau hitzok geuk ere unisono amorratuan jaulki ditugu, tonu eta, kasu honetan, intentzio berdinez nola esan bagenu: "Danok putak zarie!".

– Halako zerbait nola, irakatsia dizuten eta inoiz zeuk ere predikatua duzun Azken Judiziora arreta larriz aurkeztu ondoren, Josafateko zelaian bisonteak eta larre-txakurrak bakarrik aurkitzea.

Idatz zitekeen: "*Halako zerbait, irakatsia dizuten eta inoiz zeuk ere predikatua duzun Azken Judiziora arreta larriz aurkeztu ondoren, Josafateko zelaian bisonteak eta larre-txakurrak bakarrik aurkitzea bezala*". Esaldi luzeegia eta elementu gehiegi daude hemen, konparazioan zoazela azken hitzera arte ez jabetzeko.

Aurreranzko iruzkinak (edo muzinak) irakurlearen esku utziko ditugu.

– Hau espirituen gainetik jagok. Ez joat ezagutu adimenik, zapaltzaileekiko hain ferozik nola zapalduetikiko hain samurrik.

– Halako, zerbait nola espektro bisiblea deskonposatzen hasi eta argirik aurkitzen ez.

– Pentsatzea baizik ez dago mundua bera ere logika berdinez har daitekeela Jainkoaren estentsiotzat nola errakuntza dibinotzat.

– Miraria esku artean erditu bailitzan, prismatikoei ziotsen musuka, soldadu gosekila otarteari hozka bezala: *Hi haz hi inbentua!* Inbentuak aldi batean jarraituko zuen, Karporen zenbait dudaz ezen zekusena egiazkoa ote zen ala prismatikoan elaborazio bat; halako zerbait baitzen hura nola "familia sanoaren" miniatura bat, Duchampek margotua, antzeko eszena bat ikusteko aukerarik izan balu.

– Neskatoa munan eseri zen, erori zen, bola dardarti bat egina, zeinaren buru ezabatua negar-zotin sarriek, estuek bakarrik salatzen zuten. Samina hala biltzen, uzurtzen, ixten denean, bere intentsitatea baino larriago da irteerarik eza; halako zerbait nola, hondartzako bakardadean, arnasaren urriak iratzarrik, begiak lokuku urrumakoi batetik ireki eta ortzi urdina zeure tamainara txikiturik aurkitu duzunean, maskor garden-urdiñ bihurturik, estaltzen ala xurgatzen zaituen ez dakizula.

– Halako sentieran aurki zitekeen nola urpekari bat itsas hondoan, olagarro erraldoi baten atxilo, non norbere ahalmen bakarra zero erresistentzia den, itxaropenez ezen piztia aspertuko dela, jaregingo diola, oxigenoá amaitu aurretik.

– Argudioa baino laburtasuna eskertzeko prestago agertu zen mahaiburua zurtz gelditu zen hain interbentzio kontzisoaz, loerdi bat egitea pentsatuta egotetik, bat-batean zer agindu ez jakitera pasatzeraino. Bere adar faboritoan kokatua den babuino buruzagia ohartu balitz bezala zuhaitza falta dela. *Ni adarrean ondo, baina adarra zeri datzeko?* Nola jauziak babuinoa, hala salbatu zuen ofizioak mahaiburua, hamar minutuko etena iragarritz.

– Margolariak bere susmo "ziurraren" aipurik menturatzen ez baitzuen, eurak identifikatu behar izan ziren, txapatxoa erakutsiz: *Poliziak gara*.

Halako aingeru-tonuan nola esan bailuten: *Gereziei hezurrak apartatzen laguntzera gatoz.*

– Zartako bat izan zen nola, bat-batean, parapentearen huts egite absolutuz (inbentzioaren deusezpena), amildu eta kank gelditu zaren zintzilik, nondik ez dakizula.

– Zurezko zubi erraldoi miragarriro arkutua igarorik, ikuspen hain ustegabe nola faszinanteagaz topo egin genuen.

– Kasu deigarria, ez hainbeste bi anaia apaizek herri bereko bi postuak betetze txit ohigabeagatik, nola hain denbora luzean elkarrekin ondo konpontzeagatik.

– Erromatar jakintsuak hain trebeak ziren esapide espresiboak asmatzen, nola gero alkar hiltzen.

– Nahigabe handia hartu ei zuen, eta nahigabetik ez dira hain errefus malignoak sortzen, nola sortu ziren beste askoren erreminetik.

– Harritzen naiz lagunaren praka hain geldi, hain zintzilik egoteaz, gauza hain zaila berau nola litzatekeen zango hezurra dardar eta mamia bare agertzea.

– Baina badirudi, giza begi infantilentzat, ikusgarritasuna ez datzala; hainbeste, motiboen tamainan, nola absurdoaren graduan.

– Herriaren gehiengo nabarmen bat gurekin dago, hain arrazoi sinpleagatik nola gure ekintza ez den gehiengo nahi horrexen adierazpenetako bat besterik.

– Ez familietan bezala, zenbat txikiago hainbat larriago, non banako baten galera etxearen hondamena izan daitekeen.

– Hurrengo eszena bat, inbisiblea, elizako diruen ezabapena izan zen, Zindokek hain kontzientzia osoz nola antze handiz burutua, ama-umeak mantendu behar zituenu.

Zenbat, hainbat, -ago...

– Bildurra ur guztien hondar dok, hainbatago, sarritan, zenbat ura garbiago.

Gehienetan, *zenbat... hainbat* izan ohi den korrelazioan, ordena inbertitzeak elementuen progresio ezberdina sortzen du. "Hainbat" bera graduatuz, laburrago gelditu dira "hainbat gehiago" edo "hainbat eta gehiago". "Zenbat"-ek ere ez du "eta" nahitaez behar. Osoenik honela litzatekeena: "*hainbat eta gehiago, sarritan, zenbat eta ura garbiago*", testu originalean asko estutu da. Bai laburtasunak, bai ordena inbertitzeak esateko era asko aldatu du.

– Orduan, egin neuk esandako moduan. Zenbat txarriago, hainbat sublimeago.

Kasu honetan, "zenbat... hainbat", biak doaz "eta" gabe. "Zenbat eta... hainbat eta".

– Beharbada, erreparo bakarra izan daiteke zuk berari baino berak zuri adiago, jarraituago begiratzen dizula, eta hori kezagarri zaizu, deduzitzen baituzu bere insistentziak beste inolako maliziarik eza adieraz dezakeela, hots, ez-intentzio oso bat, neska nerabeen sentimendua zenbat ohartuago izan, nabariago uzkuertzen baita lotsan.

Oraingoan, bigarren terminoko "hainbat" bera ere ezabatzen da. Osorik honela: "*Zenbat eta ohartuago izan, hainbat eta nabariago uzkuertzen*".

– Zenbat eta higuina handiago, jakin-minak hainbatago ziztatzen zuen.

– Sentimendua hain piztia boraza da, ezen, zenbat gehiago espresatzen duzun, hainbatago eskatzen dizun espresatua izatea, ez espresagaitza delako, asegitza delako baizik.

II) GRADUATZAILEAK

Berdinezkoak

– Badirudi, heriotza bat aipatuz gero, denekin konplitzen duzula. Inork ezin du ezer objektatu. Nahi nuen musikari aski on izan, *Dies irae* triunfal bat sortzeko bezain. *Rex tremendae maiestatis* ikaragarri baikor bat.

Adibide honetan, esaldi ohikoagoa: "*Nahi nuen izan Dies irae triunfal bat sortzeko bezain musikari on*" edo "*Dies irae triunfal bat sortzeko bezain musikari ona izan nahi nuen*" inbertitu egiten da. Espresioa asko aldatzen da. Originalak "*Dies irae triunfal bat sortzeko bezain*" bereizi eta azkenerako utzi nahi zuen. Eta ez du "on" adjektiboa errepikatzen: "*bezain on*".

Goranzkoak

– Eta hori mezuaren hartzailearentzat ongarri baino kaltegarriago izan daiteke.

Esamolde honetan ulertu behar da bi adjektiboak goranzko direla, baina ongarri maila baino kaltegarri maila handiagoa izanez.

– Txakurrak, ostera, agirakari eskapatzen erabakior baino erorkorrago baitira laztanera, Puzkin berehala errenditu zen, bueltan-bueltan, Xuneren ondo-esanera, zeinak, lehenik, txakur dardaratia baretzeko, igurtzi txerakorrak egin zizkion.

Kasu honetan ere berdin. Txakurrek laster erabakitzen dute agirakari eskapatzea, baina laztanera erorkorrago dira, eta sarritan horrek gaitzen ditu. Baiezpen honek ez du egia izan beharrik, noski. Kontestu literarioan ari gara.

– Ohartu nintzen motorraren atzean esertzeak berak aipatu "suplizio" baino ikara gehiago zemaiola.

– Belarri orokor bat geroz zainago dago noiz entzungo ote den *Mesias*

badator kanta koral irrikatua.

"Geroago eta zainago", "gero eta zainago" edo, soilik, "geroz zainago". Adberbio ohikoago bategaz: "geroago eta hobeto → gero eta hobeto → geroz hobeto".

– Eta gauez berdin, ez lo, ez la. La gurago lo baino, deskuidaturik dagidanapurra atsedean baino areago baita amesgaitz.

– Sufrimendu solidarioa miresgarri izan daitekeen baino desiagarriago da sufrimendu efikaza.

– Guk ihardetsi dugu ea zer ardua dion pertsona ala merkantzia legezhartuak izan, maitatu baino gorrotatuago daudela diruditenen aldetik.

– Konbentzitu nauzu. Beste zergati guztiak nire alde egoteak jarkitzera animatzen nauen baino gehiago bultzatzen nau bakar horrek albo egitera.

– Hortik aurrerakoa oskilasoen elkarrizketa zen. Galdetuak ez zuen bere irabazirik agertuko, kopuruagatik baino ez gutxiago soberbiagatik, eta Zindokek ekingo zion: *Ba, ni hilean bost milara iritsi ezinik nabil, eta lan orduak, seguruenik, berorrenak baino gehiago izango dira*.

– Lehenago ere, gizateria omniboro hartan, maite-poemak areago ziren norberetzat hartzaileentzat baino, argitaratzeak gehitzen zien banitatetik honago.

– Horietan, Elizak, inputatuaren onaren baino bere itzal orokorraren jagoleago, artatsu begiratzen zuen legearen betetze zorrotza.

– Funtsean, bazen filosofia bat ere, kontzientea baino instintiboagoa, ezen gaitz bakoitzak ekarriko duela aski osotasun, bere sufrimendua aurreratzen saiatu gabe; jakinik, batez ere, geroko betetzeak ez duela onartuko aurrerapen horren deskonturik.

– Esan beharrik ez dago, Cirarda monsinorearentzat, motor bat elizbarrutiko

kutxatik ordaintzea erraza zen baino zailago izango zela bidegabekeria bat instituzionalki aitortzea.

Bainoago

Termino honi gradu atzizkia eransteak hizkera eta idazkera herrikoian pedante eman lezake, baina idazkera exigenteagoan, tonu eta espresio ezberdinak ematen ditu.

– Kuarterok, denbora eseki baten buruan, hots bainoago oihu egin zuen, hitzetan bainoago tonuan autoritatea jarritz.

Esaldi honetan, egitura berdineko bi esapide jarraian doaz. Jos zitezkeen biak honela: "*hots baino gehiago oihu egin zuen, hitzetan baino tonuan autoritate handiagoa jarritz*". Edo era bietatik bana: "*hots baino gehiago oihu egin zuen, hitzetan bainoago tonuan autoritatea jarritz*". Bariaziorako aukera baliabide literario bat da.

– Isiltzea erabaki dut, ohartzen bainaiz maliziak bainoago esturak hitz eginarazten didala.

– Bagindoazen zuhurtzia osoz eta ausardiaz bainoago tentazioz konbinaturiko asaltora, eta bat-batean, atea atzean itxi zitzaigun, konde zaharrak zakurra jaurti zeigun.

– Batek, talde handi batean denerik izateko legea berretsiz, ikasketak solairu nobleetan bainoago sotoetan eginak zituenak, baziharduen hari elektrikoei hara-hona tiratzen.

– Iluntasunean ikusiz bainoago haztatuz.

– Barruan aurkitu dudak bainoago bertan jausi naizen iluntasun linbozko hau banekike nola desegin, horman haztamuka, argiaren giltza aurkituko banu.

– Badoken sen berehala ernaituarentzat kinka delikatu bainoago bikaina zen hura.

– Orduan, zertarako garatu dut buru-mataza opresibo hau guztia, kontrako erabaki argia harturik ere, ni abailtzen darraiena? Uste dut oraingoa angustia bainoago urguilua dela.

– Jada neure ohean, zulo betearen gainean bainoago tontor baten erpinean sentitzen naiz, artean azpitik eta opresio sentipenez nekusen immensitate baten begirale, kasik miresle.

– Zorionez, bera ere abiatu da, eta atean aurrea damaiot, gizalegez bainoago atzez obserbatzarren.

– "Meltxior astotxo beltza" bere oinez irtengo zen gordelekutik, zaharrez bainoago penaz.

– Zehaztu nahi izan dudanean eleberri dibinoa bainoago errealitate lurta bat dela, batek ihardetsi du euren errealitatea ere horrelakoxea dela, nahiz mundua tematu deabruzkotzat jotzen.

– Auzia, gehienbat, horrela zuzenki bainoago zeharka planteatzen zen.

– Hain ondoez larriak jo nau, neure burua huskeria bategatiko fardel eskergan ikusiz, ezen Laidako hondartzetan oihu bainoago marru dagit.

– Hain seguru, ezen bazirudien pentsamenez bainoago senez jokutzen zuela.

– *Argia itzungiko joat?* – galdetu zuen Badokek. – *Nigaitik bai* – erantzun nuen. – *Nigaitik baiago* – Zindokek. – *Argitan ezin joat ideiarik koordinatu.*

– *Bainoago bera baino* hutsean ere ez legoke gaizki (agian hobeto?), eta sarritan halaxe idazten dut. Izan ere, -ago atzizki konparatiboa ezabatu arren, partikulak berak darama kutsu konparatiboa. Horrela:

– Haizeak baino gehiago beldurtzen nau (higuintzen, garbi esanda) barrunbeko kiratsak, ustelarena baino disekazio txar batena dirudienak.

Esaldi honetako *baino* biek esanahi ezberdina dute. Lehenengoa

konparazio petoa izanik (gaztelaniazko "más que"), bigarrenak gaztelaniazko "más bien que" esan nahiko luke.

– Eta min edo larritasun estremoetan, kontrako faktoreek batzera baino bidertzera jotzen dutenez gero...

– Uste dut oraingoa angustia baino urguilua dela.

– Iluntasunean ikusiz baino haztatuz.

– Horrek egiten baitzuen, artistaren esanean, bularra arnasontzi baino espiritu-kutxa bihur zedin.

Beheranzkoak

Euskarak beheranzko graduatzaile direktorik ez zeukan Itzulunguruz edo esamoldeak aldatuz jokatu behar zen. Esamoldeak aldatzean, berriz, esanahia ere aldatzen zen. Ez baitira esanahi berdinekoak honako esamolde bikoak: *gutxiago ona-ez hain ona, gutxien txarra-txarreña*. Are ezberdinago: *gutxien txarra-onena*, eta abar. Graduak, goranzko eta beheranzko, simetrikoak dira. Norabide biak dira korrelatiboak, nahiz praktikan goranzkoak maizago gertatu. *Euskara batuaren bigarren jaiotza*-n ematen zen soluzioari jarraituz, behar denean, ez dago erreparorik honakoak lasai erabiltzeko:

– Ez genuen mirari gutxiago ustegabea aurkitu, jabetu ginenean, gure ibaiaren bihurtze barik, bi ibai handiren elkargune zela.

– Ez naiz gutxiago aberats zu zekenago zarelako.

– Jakinarazoko deusuguz erabagiaren xehetasunak, eta gustagarri izan dakizuzen itxaron ezin badogu be, egon ziur, kinka eszeptzional honen barruan, ahalik gitxien perturbagarri izango direla.

– Ez dakit zelan lortu behar dozuen gitxien perturbagarri izatea, poliziak inguraturik gagozenez.

– Motiboak diren astunenak izanik ere, zuen ekintzaren ondorioak ez dira gutxiago astun.

– Jesus! Sienako eta Seiano ez dira gauza bera izango, ezta? Erroman ez al dago historiaz jabetzerik era gutxiago terriblean?

– Zenbat eta eraldatze horribleagoak, hainbat itxaropen handiagoa izango nukeen, hurrengo gutxiago beldurgarri gerta zedin.

III) KONTSEKUTIBOAK

Karlos Cid Abasolok dio: "Hemengo adibideak bat datoz EGLUrekin-eta".

Ba, badirudi asko, zenbait irakasle, esatari, kazetari eta... idazle ere barne, ez direla jabetu, edo ez dutela jabetu nahi. *Euskara batuaren bigarren jaiotza*-n genioen (82-83. or.):

"Perpaua kontsekutiboetan, oraindik hainbat zalantza nabari da. Eta okerrera, sarritan, esaldi zelebreak entzuten direla, egitura soil bat aplikatzea besterik izan behar ez lukeenean. (...) Jasan ez daitekeena da hain gauza simple batek hainbeste trakeskeria sortzea oraindik. *"Hainbeste diru dauka, ez dakiela zer egin"*, eta gisakoak. Gaztelaniazko *'que'* kontsekutiboa *-tan, tanto... que-* konpletibo bihurtu, eta aurrera bolie. Aurkitu izan ditut euskara irakasleak, hori eta antzeko kastellanismoak defendatzen, hizkuntzaren eboluzioa dela eta. Baikortasun hori eskertuko nuke, eboluzioaren formetako bat degradazioa dela ez baneki".

Atal honetan, soluzioak baditugu, argiak eta zehatzak, baina, degradazioa ebitatuz gainera, badago modua, baliabideak aniztu eta adierazmena zabaltzeko.

Aizan, Dora! Une hau, eta, oro har, egoera osoa, hainbestean eta hainbeste bider idealizaturik neukanan ze, ahalegin suprahumanoa egin behar jonat sentitzeko errealtatea ez dela idealizazioaren luzapan bat.

"Ze" partikula honek ez du eskatzen ondorengo aditza zehar-galderan edo *bait* partikulaz jokaterik, bere sinonimo hertsia diren *ezen* eta *non* kontsekutiboekin ohikoena izan den moduan, zeintzuen kasuan honela izango zen: "*hainbeste bider idealizaturik neukanan, ezen/non ahalegin suprahumanoa egin behar baitut/dudan sentitzeko...*". Partikula sinonimoen artean erregimen berdina aplikatzeari irizpide sanoa deritzonak jakin behar du ia euskaldun erdiek "ze" partikula horrelaxe esan dutela, jostera sinpleagoan. Kasu batean elementu bakarra nahikoa da, kontsekutiboa adierazteko, eta besteetan, bi elementu behar dira.

– Baldin, batez ere, ostua edo bahitua izateko kasuan, etorkizuneko gerraoste guztiak hornitzeko lain oihal bazuten. Koherentzia deduzigarri bakarra da ezen, berak jagoten zuen Txit Santuaren analogiatik, konbentziturik zeudela, oihalaren transubstantziazio batez, pulpitutik dilindatzen zen bandera hura Espainia bera bezain irrepitiblea zela, halako eran non banderak paira zezakeen oker oro espainiar gorputzaren zauri bihurtzen zen.

– Berton urtzetik salbatzera kondenatzen nau, ordea, nire pentsamen madarikatuak, zeinak, edozein unetan, irudirik horribleenak ezartzei dizkidan, hain tanpez eta erauntsian, non ez duten defentsa aukerarik ere uzten.

– Zure baitan, hitzak hain biziro loturik daude sekretuari beronen erle zaintzaile gisan, non ezin baituzu hitz horien erabilera inozenterik irudikatu, denbora batek segurantza berretsi arte.

– Hortik aurreranzko elkarrizketa hain doilor, mingarri, bortxati litzateke, non literaturak ere ez baitu justifikatzen hitzez hitz berritzea.

– Halako ezaxol airean dena, non batzuetan ez baitzen galdeturik ere sentitzen.

– Lasaitzen gara ikusiz operazioaren hasiera itxaroten zen baino bibranteago burutu dela, halako legeari esker, seguruenik, non beti ere zalantza zatxekon aurreikuspen baten gauzatze minimoki on batek gogoan segurtzen eta gotortzen baitu.

– Horrek esan nahi du nire zentzua, une honetan, hamar urtekoa dela, eta gogoz uzten diot izaten, halako lege dohatsura makurtuz, non zentzua tanta mugikor bat den alanbre arinki kurbo batean, edozein puntutara lerratzea gustatzen zaiona.

– Pentsa mundu honetan (eta beste posible guztietan) zenbat kanpai diren, eta, hala ere, hain bereziak denak, non itsu batek euren soinutik atera baitezake, zehaztasun osoz, non dagoen edo non abandonatu duten. Edo bahitu batek non gordeta eduki duten, zegoen zulotik kanpairik entzun bazezakeen.

– Eta nik badut bizio material zuzenezin bat (espirituan sinesten nuenetik), non ezin dudan gizaki baten izaera atzeman, gorputzaren hedapen osoan ez bada.

– Urduri edo larri nenbilenean, zugazko egonaldi batek berritzen ninduen, edo horixe pentsarazten zenidan, halako eran, non, eroriz bezala eseri ondoren (burua belaunak baino beherago), altxatzean, oinak berez mugitzen ziren, nora joan argi jakinik bezala.

– Hain aurpegikera dislokaturik nabari zitzaion, hain marmar bairaotia zekarren ahopean, ezen ikaratu ginen besteok ere, egoera hartan ez baitzen gure artean gaitz partikularrik, denak atxikiko ez zituenik.

– Izan ere, ez dago sakontasunik forma eder bat gabe, hainbestearino non ez baitago argi sakontasuna formaren ederrean ez datzan. Horregatik, nik ez daukat presarik hil arte.

– Nor da errukarriago? Neskato hau ala hainbesteko grinaz begiratzen dioten apaizgaiek? Hauek ziur nago, nire zortearen bekaitzean urtuz, beragaz batera idealtzen nautela, zeren, eurak ere izateko bidean direna nigan era liluragarrian gauzaturik ikusi arren, eguna hain urrun sentitzen dute, non oraingo etsipenean ehorztea gutxiago kostatzen baitzaie poz hura aurreratzea baino.

– Aurpegi biribilkoi, deigarriro simetrikoa, non sudur labur eta lirainki

zorrotzak inguru guztia dominatzen duen, hain era konbintzentean, ezen, konpas baten zango finkoa bere erpinean kokatuz gero (minik egin gabe, noski!), besteak osatuko lukeen zirkunferentzia ia exaktoki marratzen baita beheko ezpain, masailezur eta bekainetan.

– Banindoan kalean behera, astiro, arreta zorrotz bezain disimulatuan, eta aurpegi guztietan hautematen nuen zerbait anormala, halako neurriraino non denek niri begiratzetik ulertzen nuen neure normaltasuna zela hango destonu bakarra.

– Erabaki neurekiko hain temerarioa eta araeukiko immorala hartzea hainbeste kosta ondoren, kolorean eta merkean lehiatzaile ziruditen idazkunez jositako errealitate hura atxikitzeko nire ahalegina hain zen intentsoa, hain gogotsua, non ezin nuen lortu dena irreal zelako sentipena gainditzetik.

IV) KAUSALAK

– Harrigarriena zen jesuiten kuxidadeak nola onar zezakeen lagundian halako perla bat. Tarresek ihardesten zuen izan zitekeela zeren loiolar fundatzailea, bere herrenaren traumagatik seguruenik, behealde fisikoaren nardatik liberatzen zelako goialdea exaltatuz, talentua, alegia.

Esaldi kausal honetan, "zeren" partikulak tarteko beste arrazoi baten ondoren etorriko den kausala iragartzen du. Normalean, esapidea "zeren... liberatzen baitzen" edo "zeren... liberatzen zen" izan ohi da, baina kasu honetan, kausal murrizgarria nahi zen, zeinari ere ondo datorkion "zeren" partikularen funtzio iragarlea. Bestalde, "goialdea exaltatuz" zatiak galdegaiaren indarra behar zuen eta, aukeran, hobeto zegokeen aditzaren aurre hurbilean: "goialdea exaltatuz liberatzen zelako". Baina orduan goialdearen aposizioa, "talentua, alegia", urrun gelditzen da. Hau bere jabearen ondoren jartzeak, berriz, galdegaiaren eta aditzaren kontigutasuna hausten du: "goialdea exaltatuz, talentua, alegia, liberatzen zelako". Berriz ere desoreka. Eragozpen hauek guztiak honelatsu gaindi zitezkeen:

"Tarresek ihardesten zuen arrazoia honakoa izan zitekeela: loiolar fundatzailea, seguruenik, bere herrenaz traumaturik zebilen. Horregatik, bere behealde fisikoa nardatzen zuen. Hortik liberatzeko, goialdea exaltatzen zuen. Talentua, alegia".

Argitasun eta egitura euskaraz "jatorragoen" nahiak esaldiaren xehatzea, hitz osagarrien agerpenean (*arrazoia, horregatik, hortik*) eta aditz baiezteen ugaltzea (*zebilen, nardatzen zuen, exaltatzen zuen*) ekarri du. Hamar urteko haurren sintaxia. Zenbait kontestutan (bariazioa, mozte efektua, abiadura...) edo generotan (haur ipuinak, zuzeneko hizkera...), estilo espresiboa izan daiteke, baina ezin du izan sintaxi adultu baten ohiko eredu. Konparazio bat ezartzeko, itzul dezagun esaldi originala erdarara.

"Lo más asombroso era cómo la pulcritud de los jesuitas podía haber admitido en la compañía una perla así. Tarres contestaba que podría ser porque el fundador de Loyola, seguramente por el trauma de su cojera, se liberaba de su aversión a la parte física inferior exaltando la superior, es decir, el talento".

Konparazioan ez dago dudarik. Inork ez genuke esango erdal esaldi hori konplikatua denik. Are gutxiago, zaila.

– Hobeto esanda, hain nago asaldaturik, heroinari kolpera utzita bezala, non amorruek bakarrik inspiratzen baitizkit ideiak, eta desesperazioak deusezten denak, zeren, umekeria bat egin banuen, nork diost orain ez dudala astakeria bat burutuko, lehen zeintzuen eraginez jokatu nuen eta orain zeintzuei aurre egin behar diedan ez dakidan indarrak xaxatuz?

– Ez hainbeste, ze, gagozen puntuan, lau egunen faltan, nik dudazkoak ezezkotzat jotzen dodaz.

– Martxan ikusiko joagu, baina baietz esango neukek, ze ordu biko joana jagok iragarrita, eta Bilbotik ordu bian ez jagok nora joanik, Bizkaitik urten ezik.

Kontsekutiboetan azaldu bezala, "ze" partikulak, kausaletan ere, bere aditzari eragin gabe jokatzen du. Edo joka dezake, bietara jos baitaiteke. "Zagoz isilik, ze zeuk be ez dakizu zelan dan". Edo: "Zagoz isilik, ze zeuk be ez dakizu zelan dan eta". Bigarren kasuan, "eta" menderagailu kausala gehiten zaio, "bait" partikulagaz bezala: "Zaude isilik, zeren zeuk ere ez baitakizu nola den". Batean zein bestean, ze-zeren ezabagarri dira: "Zagoz isilik, zeuk be ez dakizu zelan dan eta". "Zaude isilik, zeuk ere ez baitakizu nola den". Ze partikularen kasuan, esaldi luzeetan normalena da eta partikula ezabatzea. Laburretan, bietara da ohiko.

– Guardia zibilak liberaturik bezala sentitu ziren, ez hainbeste kanprietatik eurretatik, nola kontaduria fatidikotik, ze "apaiz putazilak", zioten bezala, ez zuen beti hirunaka jotzen, inoiz bi edo lau baizik, eta batzuetan erritmoa aldatuz, apurtuz alegia, zera amorragarriago bihurtzen baitzen, nahi gabe egiten zuelako. Apropos ari zela jakinez gero, norbera ere "har ezak popatik!" marrumatuz libra zitekeen, baina, zer jotzen ari zen ere ez zela ohartzen iruditzen bazitzaizun, nondik sartu behar zenion biraoa?

– Nork esango zuen behinolako "Jainkoa zergatik dago isilik?" baino galdera larriagoa izango zela "txoriak zergatik isildu dira?". Ingurua, zarata guztia barne, hutsune bihurtu da, eta hutsunea tristuraz bete. Ez da dena materialki hustu, baina denak tristatzen nau, ez hainbeste txoriak isildu direlako (horrelako uneak ezagutzen nituen), baizik isiltzea erabaki dutelako, zeren, goiz partean eta egunaren argirik baikorrenean, isiltasun hori ez daiteke izan erabaki baten ondorio baizik, inkontzientea berau (okerrago, beraz), zaila baita kontzientzia batek horren batasun exaktok jokatzea.

Parrafo honetan hiru kausal datoz jarraian, eta "zeren... isiltasun hori ez daiteke..." ageri da. Zeren partikulari bere sinonimo ze-ren erregimena aplikatu zaio. Aukera ona izan daiteke, bai bariatorako, bai, batez ere, beste menpeko zati batzuk tartekatzen direnean, kasu honetan "goiz partean eta egunaren argirik baikorrenean" bezala.

V) ATZIZKI EZOHIKO BAT

Euskarak hainbeste aditz-atzizki edukirik, ondo dago ahalik eremu kontzeptual gehien hornitzeko moduan banatzea. Esaterako, baditugu, *etorri, etortzeko, etorkin, etorkor...* baina ez dago argi nola izan ditekenean "etortzen ari dena". Tun atzizkia egokia da. Horrela, adibidez: *Eguzki sortuna* = sol naciente. *Eguzki sartuna* = sol poniente. *Joatun-etortunak* = joaten eta etortzen ARI direnak. Horrelakoak dira ondorengo esaldiak.

– Eraikina hurbildu ginenean, eguzki sartunaren kontra hauteman genuen atzera-aurrera azeleratua piramideen eraikuntzako mugida prebeliko bat iruditu zitzaigun.

– Deriok bazuen Bilbotik eta Bizkaia trinkotik hur egoteko abantaila, ez baitzegoen alferrik kokatua bilbotar joanen eta etortunen artean (hilerria eta hegazkinak).

– Errebelio publiko bategaz purifikatu gura dozue gure Eliza sufrutina?

– Esan gabe doa Badoken jokaera ohartun baino instintiboago zela.

– Geu ere etortunen artean ginen, Derioko itxialditik dozena bat laguneko ordezkaritza bidaltzea erabaki ondoren, herri eta eliza harekiko elkartasun-erakutsi hutsezinean.

VI) LOTSAS ETXEKUEN

Euskara batuaren bigarren jaiotza-n, Etxahun Barkoxekoren bertso hau eman nuen adibidetzat:

Traditu zütüdala deitazüt erraiten
bata eta bestia, gu biak bat ginen.
Ene bihotza zaizü bizikoz egonen
behar beitzütüt ützi lotsaz etxekuen.

Azken puntuak, gure gramatiken arabera, *behar beitzütüt ützi etxekuen lotsaz* behar luke. Bestalde, bi genitibo jarraian, izen berdinaren mende doazenean, bigarrenean ere izena errepikatu behar da, edo genitiboa mugatu eta deklinatu. Esaterako: *Hori ez zait gertatzen amaren kasuan, baina bai aitaren kasuan*. Edo: *baina bai aitarenean*. Etxahunen eta Ipar Euskal Herriko beste autore anitzen, hala nola Leizarragaren espirituari jarraituz, genitiboari ere askatasun baldintzagabea iritsi zaio, ondorengo adibideetan ikusiko denez.

– Sar naiek koldarren artean, baina ez aluen. Hain gitxi, lagun-saltzaileen.

– Ezin diot eman dudatzeko motiborik niretzat palmondoa lehenago ote den, funtsean neuk ere gehiago sinesten baitut artearen bizi luzeagoan, palmondoaren baino.

– Izadiaren fragmentu guztiek artearen forma gaztetuak edo zaharragoak damaizkidate, heriotza barne, haitz-mendien unada zuriska batzuk berdin-berdinak baitira artearen zementuzko begitzarren.

Adibide honetan, genitiboaren askatasunetik baino eragozpen larriagoa etor daiteke *berdin* adjektiboaren erregimenetik, zeinak genitiboa eskatzen duen. Gaztelaniaz, "soy igual a ti" edo "soy igual que tú", baina euskaraz: *Zure berdina naiz. Arranoaren moko berdina daukazu. Haitz-mendien unada zuriska batzuk artearen zementuzko begitzarren berdin-berdinak dira*.

– Batez ere suposatzen badute aukera balia dezakegula baita ere, ez agian mendeku gisan, baina bai nolabaiteko ordain gisan, seminarioan pairatuak izan gaitzkeen menperakuntza egiazko edo ustezko guztien.

Genitiboaren askatasun hori gabe, esaldi hau honela eraiki beharko zen: "*Batez ere suposatzen badute aukera balia dezakegula baita ere, ez agian mendeku gisan, baina bai seminarioan pairatuak izan gaitzkeen menperakuntza egiazko edo ustezko guztien nolabaiteko ordain gisan*". Joskera honetan ez dago argi genitibo luze horrek ("seminarioan

pairatuak... guztien") mendeku ere atxiki behar duen, ala ordain bakarrik. Izan zitekeen beste honela ere: "*Batez ere suposatzen badute aukera balia dezakegula baita ere, ez agian seminarioan pairatuak izan gaitzkeen menperakuntza egiazko edo ustezko guztien mendeku gisan, baina bai nolabaiteko ordain gisan*". Bertsio honek aurreko esaldiaren anbigutasuna argitzen du, baina desoreka handia sortzen du esaldian.

– Kontua da deabruagaz ondo konpontzen nintzela, hura ere zale baitzen lagun argien, bera baino argiagoak ez baziren.

– Honi ere izen bat esleitzea komeni denez, "Bruno" esan digu. Ez dakigu izen ala ezizen, bere kasuko Alkimo bezala. Kontua da Bruno eta Alkimoren esku gaudela, Alkimoren, funtsean, Bruno ez baitugu fedez baizik sentitzen.

– Egia da Herriak Elizaren gure Herriari buruzko alderdi zapaltzaileen kontzientzia har dezan nahi dugula, baina asmoa da, batez ere, kontzientzia har dezan Elizaren benetako zentzuaren. Bere eginkizun salbatzailearen.

– Kanpandorrea ere elizaren zati baita, garita kuartelaren bezala – Gaur deskubritu behar al zenuen paralelismo hori?

VII) BAILUEN; BAILIREN

Baliabide hau aditz bakan batzuekin eta salbuespen bezala erabiltzetik ia edozein aditzetara zabaltzeak adierazpidea asko zabaltzen du. Adibide iturrizat hartu dudan liburuan (4 x 4 operazioa), antzeko ugari agertuko da: *bailetzan, bailuten, bailioten, baileraman, bailegoen, bailekusen, bailekarren, bailihoan...* Subjektuak beti (oraingoz, behintzat) hirugarren pertsona izan behar du, singularra edo plurala, joko guztia zeta ele bihurtzetik baitator: *bai(t)zuten-bailuten, bai(t)zegoen-bailegoen*. Jarraian, askotariko adibide bakan batzuk bakarrik:

– *Hirurogeita-zortzikooo, a-za-ro-äk... lau!!* –ulu dagio, adi-adi, esku arteko 'papertxoari', dokumentuaren korapilo gordiarra data bailitzan, non urtea ledin bere gela; hila, bere aulkia; zenbakia; bere burua.

Azken puntuak, gure gramatiken arabera, *behar beitzütüt ützi etxekuen lotsaz* behar luke. Bestalde, bi genitibo jarraian, izen berdinarene mende doazenean, bigarrenen ere izena errepikatu behar da, edo genitiboa mugatu eta deklinatu. Esaterako: *Hori ez zait gertatzen amaren kasuan, baina bai aitaren kasuan*. Edo: *baina bai aitarenean*. Etxahunen eta Ipar Euskal Herriko beste autore anitzen, hala nola Leizarragaren espirituari jarraituz, genitiboari ere askatasun baldintzagabea iritsi zaio, ondorengo adibideetan ikusiko denez.

– Sar naikek koldarren artean, baina ez aluen. Hain gitxi, lagun-saltzaileen.

– Ezin diot eman dudatzeko motiborik niretzat palmondoa lehenago ote den, funtsean neuk ere gehiago sinesten baitut artearen bizi luzeagoan, palmondoaren baino.

– Izadiaren fragmentu guztiek artearen forma gaztetuak edo zaharragoak damaizkidate, heriotza barne, haitz-mendien unada zuriska batzuk berdin-berdinak baitira artearen zementuzko begitzarren.

Adibide honetan, genitiboaren askatasunetik baino eragozpen larriagoa etor daiteke *berdin* adjektiboaren erregimenetik, zeinak genitiboa eskatzen duen. Gaztelaniaz, "soy igual a ti" edo "soy igual que tú", baina euskaraz: *Zure berdina naiz. Arranoaren moko berdina daukazu. Haitz-mendien unada zuriska batzuk artearen zementuzko begitzarren berdin-berdinak dira*.

– Batez ere suposatzen badute aukera balia dezakegula baita ere, ez agian mendeku gisan, baina bai nolabaiteko ordain gisan, seminarioan pairatuak izan gaitezkeen menperakuntza egiazko edo ustezko guztien.

Genitiboaren askatasun hori gabe, esaldi hau honela eraiki beharko zen: "*Batez ere suposatzen badute aukera balia dezakegula baita ere, ez agian mendeku gisan, baina bai seminarioan pairatuak izan gaitezkeen menperakuntza egiazko edo ustezko guztien nolabaiteko ordain gisan*". Joskera honetan ez dago argi genitibo luze horrek ("seminarioan

pairatuak... guztien") mendeku ere atxiki behar duen, ala *ordain* bakarrik. Izan zitekeen beste honela ere: "*Batez ere suposatzen badute aukera balia dezakegula baita ere, ez agian seminarioan pairatuak izan gaitezkeen menperakuntza egiazko edo ustezko guztien mendeku gisan, baina bai nolabaiteko ordain gisan*". Bertsio honek aurreko esaldiaren anbigutasuna argitzen du, baina desoreka handia sortzen du esaldian.

– Kontua da deabruagaz ondo konpontzen nintzela, hura ere zale baitzen lagun argien, bera baino argiagoak ez baziren.

– Honi ere izen bat esleitzea komeni denez, "Bruno" esan digu. Ez dakigu izen ala ezizen, bere kasuko Alkimo bezala. Kontua da Bruno eta Alkimoren esku gaudela, Alkimoren, funtsean, Bruno ez baitugu fedez baizik sentitzen.

– Egia da Herriak Elizaren gure Herriari buruzko alderdi zapaltzaileen kontzientzia har dezan nahi dugula, baina asmoa da, batez ere, kontzientzia har dezan Elizaren benetako zentzuaren. Bere eginkizun salbatzailearen.

– Kanpandorra ere elizaren zati baita, garita kuartelaren bezala – Gaur deskubritu behar al zenuen paralelismo hori?

VII) BAILUEN, BAILIREN

Baliabide hau aditz bakan batzuekin eta salbuespen bezala erabiltzetik ia edozein aditzetara zabaltzeak adierazpidea asko zabaltzen du. Adibide iturrizat hartu dudan liburuan (4 x 4 *operazioa*), antzeko ugari agertuko da: *bailletzan, bailuten, bailioten, baileraman, bailegoen, bailekusen, bailekarren, bailihoan*... Subjektuak beti (oraingoz, behintzat) hirugarren pertsona izan behar du, singularra edo plurala, joko guztia zeta ele bihurtzetik baitator: *bai(t)zuten-bailuten, bai(t)zegoen-bailegoen*. Jarraian, askotariko adibide bakan batzuk bakarrik:

– *Hirurogeita-zortzikoo, a-za-ro-äk... lau!!* –ulu dagio, adi-adi, esku arteko 'papertxoari', dokumentuaren korapilo gordiarra data bailitzan, non urtea ledin bere gela; hila, bere aulkia; zenbakia; bere burua.

- Azken hitzok zakarrak izan dira, "bizi zaitezte hilda" agindu bailuen.
- Batzar garrantzitsua izan arren, disimulu osoan doaz-datoz, pixka bat makur, sapaia metro eta erdira jaitsi bailitzan.

VIII) ATRIBUTUA ARTIKULU GABE

Euskara batuaren bigarren jaiotza-k dio (89-90 or.):

"Hiru kategoria hauek (subjektua, atributua eta adberbioa) deklinabidean uniformatzeko gero eta bide azkarragoa daramagu, eta pobrekuntza tamalgarria letorke. Geroz gutxiago bereizten da *salda beroa dago* eta *salda bero dago* (...) Adjektiboak edo izenak adberbio lana egiten duenean ez ezik, atributu denean ere, mugagabeen uzteko tradizioirik ez da falta, batez ere, Iparraldean eta, bereziki, zubererari. Horren arabera, *gaztea naiz* eta *gazte naiz* gauza ezberdinak lirateke".

Ez dago Iparraldera jo beharrik. Hegoalde guztian kantatu zen (eta kantatzen da): "*Gazte gera gazte, ta ez gaude konforme*". Eta adibideak ugari eman daitezke. Nire norabideak uniformatzera baino bereiztera gehiago tiratzen du, batez ere hain bereizkuntza interesgarriak direnean, kasu honetan bezala. Ez sistematikoki (oraindik), baina geroz gehiago, batez ere, adjektibo atzizkidunak direnean, nola: *harrigarri litzateke, ura bizigarri da, haurrak lotsagabe dira, txapeldun dira horretan...* Hona adibide batzuk, ekar zitezkeen ehunkatik:

- Nire beldurra ez da, munduan bakarrik gelditu naizenetik, sentipenak gezurti ala egiati diren, baizik bereiz geldi nadin "neu" deritzodan iltze horretatik, lokartzean maiz asaldatu naizen moduan. Batzuetan, tanpez lo hartzen duzu, zeure "ni"-tik noiz erori zaren ohartzeke.
- Pozten nau trikimailu onen bat izango dela pentsatzeak, une honetan zentzugabe bailitzateke arrakasta ziurreko ez den ahalegina. Hala ere, handiago da nire larritasuna, irudikatzen, ikusten ari bainaiz...
- Bai, ba! Amak egin beharrekoa edonoiz izaten dok egingarri.

- Zergaitik uko egin behar jako bakotzak bere erara eskaini gura dauen laguntasunari, dela jenero, diru zein objektu?

- Kalifikuak ez dirudi laudoriozko, baina izan daiteke egiazko, euren egonezinak Erromaraino bialdu gaituenez gero.

- Egun on denoi, "on" horren esanahi exzepzional guztietan –hasi zen nire kidea, Klaudio izen, "Trunbo" goitzen.

IX) -AN + GO

GO-KO loturak, ohiko *nongo* ez ezik, *non* kasua ere adieraz dezake, nahiz eta, batzuetan, inguruko hizkuntzek beste era batera jokatu. Esaterako, gaztelaniazko "la vida en soledad" euskaraz "*bakardadeko bizitza*" edo "*bakarreko bizitza*" litzateke, beste gabe. Baina kasu batzuetan, *non* hori zehatza, espresoa da. Intentzio hori argia denean, adierazi egin behar da, eta ez dago modu argirik, kasu inesiboari GO atzizkia erantsita baino.

- Bere eskolatzea ondorio kontradiktorioen teoretara baino askoz lehenago eten baitzen, egintzez zeukan lotura gorena planoango kontigutasuna zen, tantaka marrazturiko objektuak bezala, erliebe gabe.

- Itsasoa, izan ere, izan daiteke mugimenduango immentsitatearen espresio gorena, baina edertasun berezia, zehaztua itsasertzak damaio.

- Pelbis lehertuan gora edo eztarri ito-hurrenean behera (hartzailearen aukeran), zopilote burua duen zakil ekologiko bat diafragma deboratzera doa, ñu baten martxango umontzia bezala.

- Naturaren aurreango emozioa norbere aurreango emozioa da. Natura ez da emozionatzen.

X) NOIZ ETA...

Denborazko esaldiak luzeak direnean, eta batez ere, bere baitan beste menpeko bat hartzen dutenean, oso ondo dator (ia beharrezko) zati

hori aurretik iragartzea, sarritan denbora atzizkia –*nean*– azkenean joan ohi baita. *Noiz eta* forma hau, hizkeran zein idazkeran, enfatikoa izan ohi da. "*Han etorri zen diru eske, noiz eta neu xentimo gabe nengoenean-ngoela. Inoiz bisitatzen nau, noiz eta zerbait behar duenean*". Gaztelaniaz "justo cuando", "precisamente cuando" edo horrelako zerbait litzateke. Erabilera oso mugatu horretatik harago, esamoldeak esaten ari garen funtzio garrantzitsua bete dezake, eta horixe da hurrengo esaldietan datorrena.

– Neskatoaren edertasun oraindik nabarmenki garagarria sobera gainditzen du bere mugikortasun txairoki etengabeak, urduritasunera iritsi gabe, zerak muineraino txunditzen nauen, ezin baitut sinetsi bere patxadaren naturaltasun gardena, partxisera jokatzera etorri bailitzan, noiz eta, giza esperientzia brutal baten ondoren, heriotza lazgarri baten eragile izan berri, bihar ehorzteko hilotz bat auzoan daukanean.

– Munduan bakarrik gelditu nintzen, noiz eta probatzen hasia nintzenean bizitza sexual osoa izan daitekeela, harreman sexualik gabe.

Esaldi honetan areago litzateke esamoldearen intentzio enfatikoa.

– Herri txikietan eta naturagaz harreman zuzenagoan, gutxiago alteraturik iraun ohi duen sen basikoren batek sumarazten zion ezen hitza (hitz egitea), sarritan, gogoaren laguntzaile baino, arrastatzaile izan ohi dela, noiz eta, zamari erotuak bezala, orga zulora ez daroanean.

– Hamar urteko atzera-jauzi batek berez-berez barnatu nau, igela uretan bezala, apaizgai furtibo jada ezabatuen larruan, hain hur, hain bizi irudikatzeke nolako konbultsioa sentitu izango genukeen, apaiz-talde bat geure oinetara bildu balitz egoera osoaren aurrean errebelatzeraz, noiz eta aginte mundutarra ere Jainkoagandik zuzen etorria zela onarrarazten zigutenean; Francoren ministro Iturmendik Ama Birginaren debozioa predikatzen zigunean ("*imitad al Caudillo, cuyo lecho preside la Virgen del Pilar*"), eta Gulpide gotzainak politikaren zikinaz harengatzen gintuenean ("*iseminaristas! ique no se entere vuestro obispo que andais tonteando con*

cicutas separatistas!"); euskara gaztelaniaren dialekto bat zela defendatu behar genuenean; unibertsaltasuna ezein partikularitasunez ez genuela orbanduko zin egin behar genuenean (izarrak urdintasunaren zuloak bailiran!); lege oinarritzko horiekin eguneko arau zorrotz guztiak (113) komunztatu behar zirenean.

– Duela hamar urte bezala, noiz eta, honelako soto-gela batean, apaizgai gautxoriok geure isil-beilak egitera ausartzen ginen ilunaren babesean.

Esaldi honetan, aditzari, erlatibo antzera, denborazko atzizkia jan zaio ("*ausartzen ginen*", ez "*ginenean*"), eta dotore gelditu da.

XI) AHOAN-DA

Esapide interesgarri hau darabilten euskaldunek (ia denek, esango nuke) era laburtu eta bigundu horretan esaten dute, nahiz eta osorik *ahoa eta, burua eta, eskua eta* behar. Izan ere, izena gehienez N-z amaiturik (non kasuan), fonetikak horixe eskatzen digu, *janda, edanda, emanda* bezala. Hauek ere, osorik, *jan eta, edan eta, eman eta* beharko lukete, baina forma laburtua guztiz onartua dago. Izan daitezke honela ere: *ahoa duela, burua duela, esku duela*. Edo *dituela*, objektu plurala bada: *eskuak poltsikoan dituela (ditugula, dituztela...)*. Noiz edo noiz, izan daitezke N-z beste atzizki bat ere: *hankak aurrerantz zituela irten zen*. Kasu honetan, aditza jatekotan, beharko luke: *hankak aurrerantz-eta irten zen*.

N-z amaitzean, forma bigundua (*ahoa-da, eskuak burua-da*) praktikatzen dut izenekiko esapide honetan. Hain dotore eta komunki errotua den esapideak merezi du bere horretan ibiltzeko eskubidea. Batzuetan, *da-eta* partikula ezabaturik ere ederto ulertzen da. *Txapela burua, ibili munduan*. "Txapela burua-da/burua eta" litzatekeena. Hain egitura argi, erraz eta laburraren lekuan, hor ibiltzen gara oraindik kastellanismo traketsak ezin moldatuz, "*eskuekin poltsikoan*", "*hankekin aurrerantz*" eta abar.

– Bakarrik behar dogu bazterretan zabaltzea abadeon itxialdia neskak motorrean-da ibiltzea dela.

– Kirmenek jentilzubiaren beste alde ikusezinetik igarri zuen kuleroak noiz joan ziren buru azpira burkostat, txakurrak eurak ahoan-da ihes egin ez zezan.

– Herriko jaiak ere baziren, eta badirudi jendea ez zela etorri kalapita hutsa gogoan-da.

– Berehala hurbildu zitzaigun, laukia eskuan-da.

– Biharamun goizeko zortzietan (orduaren konkordantzia garrantzitsua zen), gizon bat agertu zen Bilboko Autobus Geltokian, motxila eran egokituriko maleta handi bat soinean eta bisera bat aurrekoz atzera buruan.

– Baina hor dator sor Misiello, zopaontzi fenizio handi bat eskuetan-da, burruntzali korsarioa dirudiena ezker bularrerantz pausatua.

– Gau guztia emon ei joan esteak ateko kisketean-da, giltza-zuloa azartatu ezinik.

– Oinetakoak alderantzizko oinetan-da bazetorren, atzetik zerraizkion "txakurrak desorientatzeko" izan zen.

XII) GURASOEI BISITA, ETXERA BIDEA

Deklinabideko kasurik gehien izen batekiko lotura GO-KO atzizkiz egiten da: *amagandik-amagandiko, amagana-amaganako, amagan-amagango, amarekin-amarekiko, amagaz-amagazko, etxetik-etxetiko, mendian-mendiko/mendiango, etxera-etxerako*, eta abar. Genitiboa zuzenean lotzen da: *amaren etxea*. Kasu adlatiboan, bietara ohi da: mendira bidea-mendirako bidea. Datiboa da loturarik onartzen ez duen bakarra. Edo onartzen utzi ez zaiona. Horrela, esaterako, gaztelaniazko "la visita a los padres" esan behar da: *gurasoei eginiko bisita*. Edo segun nor ari den berbetan: *gurasoei egin diedan, egin diegun, egiten diegun... bisita*. Moldaketa astuna da hori, batez ere laburtasuna behar denean, slogan, titular, kanta eta abar. Kasuan kasuko konponketara beharkizun gabe, deklinabide kasuen izenekiko lotura askeak on handia dakar. Kasu

batzuetan, oso sen emankorrez, bi moduak hautazko eta zilegi dira: *zerura bidea-zerurako bidea, menditik jaitsiera-menditiko jaitsiera*.

Karlos Cid Abasolok dio:

"Nik adieraziko nuke orain arte euskal literaturan erabili den eta euskal gramatikan onartu den forma –ko gabeko bakarra adlatiboduna dela (zerura bidea)".

Ez dago, noski, inguruko hizkuntzen lotura eredia jarraitu beharrik. *Jai gogoa, Jainkoaren fedea, ardoaren debozioa* gaztelaniaz izango dira: "ganas de fiesta, la fe en Dios, la devoción al vino". Suposatzen da Jainkoak ez duela federik, berari zaiona baizik, eta debozioa ere ez dela ardoarena, berari zaiona baizik. Batzuetan, ordea, ezin da libratu bereizi beharretik. Izan daiteke, eta ez da inola ere berdin, *gurasoen bisita* edo *gurasoei bisita*. *Batzuetan, gurasoen bisita haserre bide gertatzen zaigu. Batzuetan, gurasoei bisita haserre bide gertatzen zaigu*. Batean, gurasoek bisitatzen gaituzte, bestean, geuk bisitatzen ditugu. Sarritan, erdaren eraginez, euskarazko esapideak degradatzen dira. Esaterako, *modan egon, modatik pasatu, kalean ibili, zerura begira* orain entzuten da: *modaz egon, modaz pasatu, kaletik ibili, zeruari begira*. (Karlos Cid Abasolok dio: "Nik uste dut bestelakoak direla adibide hauek, aditza dutelako esplizito"). Datiboa izen bategaz lotzearen kasuan, egitura ontzat eta emankortzat jo behar da.

Hona, ondoren, adibide askotariko batzuetan, lotura librea edo bitarteko gabea nola praktika daitekeen.

– Itxialdiko agiriaren atalak azaldu zituen: ekintzaren aurrekariak, Elizaren makurkeria diktadurari, Euskal Herriaren pizkundera gerraosteko ilunpe luzean...

– Zueri bisita niretzat hutsean be atsegin mukuruzkoa den arren, gaur badau beste motibo txiki bat, berba labur bezain lagunkorretan azaldu nahi neukeena.

– Nola lot nezakeen neure bizia zuhaitz batzuen iraupenari? Jolas bat izan

zen, naturagaz flirt bat. Baina gero obsesio bihurtu zen.

– Zer koño dagit gauaren erdian, bi zuhaitz inozenteri hirugarren bisitan, egunak lau osterara egiteko beste ordu ez zuelako?

– Zueri eskerrik asko berriz ere, baina oraingoan ez txaloengatik, baizik, gure zuengana etorrera baino, zuen guri gonbita delako zinez eskergarri.

– Guk uste genduen lapur mota hori, arteagaz kontaktuan, bera be lanean artistago bihurtu ohi zela.

– *Gu filosofoak gara* –erantsi dute, komunei buruzko ezjakintzaren justifikua lotu gabe teologoaren sailera inkurtsioaren susmagarritasun handiagagaz.

– Heriotzara kondukzio bat baino bizkorrago goaz, nahiz ez jakin bila ala ihesi goazen.

– Mojatxo itxuraz pobreei donazio bat izanaren aire guztia baitauka, mirabetza bat eliminatu zuen edo berau izurriak akabatu zion baroisaren baten aldetik.

– Emakumearen txakurrari felazioak intrigatu zuen gehien, ez hainbeste irudiaren beraren inpaktuagatik, baizik etxeko txakurren misterio zenbait, bat-batean, ulerbidean aurkeztu zitzaizolako.

– Bat-batean, jendarte guztia hasi zen joaten, norabide guztietan. Ez zen ihes bat zela pentsatzeko bezain abantada oldartsua, baina bai kamamilitan irteera baino biagiagoa.

XIII) NEUTROA: ZER...

Euskaraz generorik ez ote den, ba ote den, azkenean neutroa ere beharrezko. Eta badela. Ez da, noski, inguruko hizkuntzen berdin erabiltzekoa. Euskarazko "*normalena da*" erdaraz "es lo más normal" izango da. Euskaldun batek badio: *onak ez du preziorik, txarrak ez du neurririk*, erdaraz itzuli beharko da: "lo bueno no tiene precio, lo malo

no tiene medida". Baina, batzuetan, euskaraz ere beharrezko da, edo, gutxienez, argibide handia ematen du. *Gauza* eta *zer* dira neutroa adierazteko hitzak. Biak izan dira (eta dira) asko erabiliak. *Gauza onak ez du preziorik. Zer tragikoak asko tiratzen du. Gauza ezkuak beldurra ematen du. Zer absolutua ez da existitzen.* Hauen antzekoak dira ondorengoak, askotarik batzuk bakarrik hautatuak.

– Zer onak ez du abizenik.

– Modus est res. Era da zera.

– Gero, erdiko zerrenda beltz hori berdexka bihurtu da, eta horrek zerrenda zurbilak gorri bihurtarazi ditu, zerak poltsaren iluntasun orokorra horitzera behartu duen.

– Orduan, zeure baiezen soil eta labur bat errepikatuko dizut: "Aldi berean, Luzio Pison pontifizea, zer arraroa hain gizon ospetsuagan, berez hil zen". Beharbada, horixe dateke zure kontsizioak eman duen obserbaziorik brutalena, zeren, ospe batetik gorakoak berez hiltzea hain arraroa bazen, gizaki soilak nola hiltzen ziren Erroman?

BIHURKARIA

Bihurkari edo erreflexibo deritzonak badu euskaraz esapide oso errotu bat, baina hortxe du koska: esamolde bat da, luzeegia, laburtasuna nahitaezko denean. *Norbere (neure, zeure, bere...)* burua esamolde erreflexiboaz gainera, honako formak ez ditut baztertzen, aitzitik komenizko eta beharrezko deritzet: *ukatzen naiz, zaintzen naiz, higuin naiz, maite naiz, gorroto naiz, torturatzen naiz, zugar abandonatzen naiz, nagusi sentitzen naiz, azter zaitez, babes zaitez, urka zaitez...*

– Ez naiz ukatzen eramana izatera, baina historiaren aurrean garbi gelditu behar du gotzaina dela atxilotzailea.

– Zuk zeure burua torturatzen duzu, baina ni, neu torturatzen naiz.

– Ama! Ondo dago zain gaitzazun, baina zain zaitetz zeu ere.

– Puta diola! Batzuetan dena gorroto dut, eta dena gorroto naiz.

Beste kontu bat litzateke esanahi erreflexiboa beti argia denetz. Gaztela-niaren jitea da esatea: *"Me tomo la libertad de pensar, me cojo un taxi, me zampo un jamón, nos jugamos la vida"*. Horiek denak euskaldunentzat ez dira erreflexiboak. Ezta erdaldunentzat ere. *"Me pregunto, nos preguntamos"* erreflexiboa al da? Seguruenik, gaztelaniaren eraginez, *"neure buruari galdetzen diot"* edo *"geure buruari galdetzen diogu"* diotenek argi dago horrelaxe interpretatzen dutela. Esapidea laburtu behar izanez gero, ondo al legoke, goragoko adibideen ildotik, *"galdetzen naiz"*? Ezetz esango nuke. Nahikoa eta sobra da *"galdetzen dut"*, beste gabe. *"Me imagino, me supongo, me planteo, me bebo, me fumo..."*. Horiek denak euskaraz ez dira besterik: *imaginatzen dut, suposatzen dut, planteatzen dut, edaten dut, erretzen dut.*

IRAKURGAIK

Fede Propagandan porrot egin bageneza, Kleroarentzako Kontseilu Pontifizioa daukagu beste aldean, tunel batek loturik, lurpe-sarea seguruago baita, ebangelioak esanaren arabera: *Fida zaitetze ilunetik argia ateratzen dakien Aita zerutarrak*. Kontseilu horretan azal dezakegu Derioko itxialdiak, bere ozenean, ez duela Bizkaiko kleroaren zati txiki bat besterik islatzen, eta, beraz, ez duela merezi gurea bezalako ordezkari zume bat errezibitzeari uko egiterik. Jakinaraziko diegu klerorik gehiena ondo kokaturik dagoela diktaduran, edo ondo kukuturik, bakoitzaren beldurren arabera; baina giza bihotzetan beste sentimendu batzuk ere izan ohi direla, eta gure ordezkariaren arbuio publikoak erruzkizko elkartasun isil bat sor dezakeela, zeina, azkenean, errebeldiarantz lerra daitekeen, zintzotasun kanonikoa sari urrikoa dela ikusiz. Azken batez, gutxienez ebangelio apokrifotetan sartu beharko zuketzen Tazitok dioenez, *"nam contra punitis ingeniis gliscit auctoritas..."*. Hots: *"Aitzitik, talentu jazarrien autoritatea handitzen baita, ez errege arrotzek, ez amorru berdinez jokatu zutenek ez zuten lortu eurentzat desohorea eta haientzat aintza besterik"*. Horrela, esango diegu guri geuri, egoismoz, gehiago interesatzen zaigula

Kleroarentzako Kontseilu Pontifizio batean zapuztuak izatea, baina ez dugula jokatu nahi ez abertitzeko bezain maltzur ezen pentsa dezatela nola banatuko diren desohorea eta aintza. (...) Izan ere, *Iustitia et Pax* leman, bigarrenak uso hila izan behar du, zeren justizia baden tokian, nor egon liteke hain aldrebessik, hori bera baketzat ez hartekorik? *Pax justa* proposatuko diegu, labur eta argi. Argiegi, beharbada, arrakasta onik izateko, nahiz eta ez dugun uste ardura izango dienik, Erroman hitzak antzina bereizi baitziren esanahitik. Horrek ez du esan nahi ez dutenik elkar miragarririo ulertzen, berriz ere Tazito aipatuz, indar osoan baitirau enperadore baten tankerak. *Propium id Tiberio fuit scelera nuper reperta priscis verbis obtegere. Tiberioren jenioa izan zen krimen asmaberriak hitz zaharrekin estaltzea.*

Sor Misiellok, Erromako zorupe merkantil guztiaren azpian, bazuen oraindik, sustraiek edo sustraien urruntasunak emana, zindotasun edo, gutxienez, inozentzia bat, non itxaropena aisa ernetzen zen, haitzeko inarra bezala, gero handiegi egingo ez bazen ere. Baina itxaropenaren bikaintasun nagusia erretzeko ahalmena denez gero, itxaropen bat zapuztua zeneko, hurrengoa abian zen. Ordezte hori nahi besteko maiztasunez gerta zitekeen, egunero ere bai, behar bazen, eta hortik haren alaitasun beti espektantea, noiznahi handitasun hurbilen baten zain egoteak zemaiona, edo horretan gauzatzen zena. Ez dago dudarik Erroma oreka subtil bat zela itxaropena bezalako sentimenduak zapuzten eta berritzen, bai bilatzera zetozena erromesek eurek zekartelako, bai aurretik etorrien baikortasuna hiriaren dohaintzat hartzen zelako. Turbina erraldoi bat bezalakoa, non ur joatunari ur sartunak darraion eten gabe. Horrelako zerbait gertatu izango zitzaion sor Misiellori, gudan ur badaezpadakoa baina berria aurkitu uste izan zuenean. Gure jesuita ohiak ez zigun bidea hain txarto prestatu.

Iluntze nahiko beranduan, hor dator bera: Alkimo. Izenetik ere deitu beharko zaio noizbait. Ezizen horixe damaioгу, ikasle garaian bolada bat izan zuelako, alkimiaz itsuturik ibili zena. Itxaropenaren beste aldaera bat. Erroma guztia Columelaren goldeagaz irauli balu bezalako aurpegia dakar. *"Gestioak hasi besterik ez dira egin"*. Horixe erantzun digu, Erromako beste jesuita bitartekaria noiz ikusiko dugun galdetu diogunean.

Honi ere izen bat esleitzea komeni denez, "Bruno" esan digu. Ez dakigu izen ala ezizen, bere kasuko Alkimo bezala. Kontua da Bruno eta Alkimoren esku gaudela. Alkimoren, funtsean, Bruno ez baitugu fedez baizik sentitzen. Alkimok dio egon dela Brunogaz eta honek dokumentua eskatu diola. Guk esan diogu audientzia bat dela behar duguna, esanda dagoen instantzian, eta dokumentua geuk entregatuko dugula. Alkimok dio ezetz; Brunok bihar, dokumentua eskuan duela, ate batzuk tentatuko dituela. Eurretan dokumentua utziko du eta gero, berak ei dituen bide seguruetatik, baiezko erantzuna landuko. Prozesua azaltzea helburua lortzea baino zailago ei da, eta alferreko galdera eta aieruetan ez nahasteko eskatu digu. Brunok bihar goizean egingo dituen gestioekin, harrera bat prest egon daiteke arratsalderako. Pazientzia apur bat bakarrik eskatzen ei du Brunok, Erroma ez dela Derioko hilerria eta. Guretzat pazientzia errazena dela diotsagu, eguna horretanxe igaro baitugu; eta gaua igartzeko, ez dugula pazientiaren beharrik. Bat ere arazo gabe sinetsi du Alkimok. Beraz, gure Erromaldiaren ardatz nagusiari buruz, ez dago beste zeresanik. Domus Beticelli-n lehenengo eguna dugunez gero, ez gara ausartu Erroma gutarrera irteera bat egin genezakeen galdetzer.

Erromako gauan barnatu naizenean, argirik urrireneko kaleak bilatzen ditut, establezimenduen idazkunak doi-doi ikusteko lain. Albinoni kalean, bar Frescobaldi, Arcimboldo meloidenda, Bramante kafetegia, Cannibaldi janaridenda, Elisabetta Sirani edergintza eta bar Pizzicato gainturik, Piazza di Hostiliano-n agertu naiz. Ez naiz aukera ilunera jaitsi den bakarra, barbaro zarratua baitantzut, begiak itxita. Italiar gehiago nabari dut, areago hala izan beharra iruditzen zaidalako, badelako baino, zeren kakarraldoino baten burrundada dirudien honek gutxiago baitauka italiararen zolitasunetik, atzerri entzutetsua marmartzera datorren migrazio estatistikotik baino, neu barne, baina ni isilik nago, behintzat. Ez ditut begiak guztiz itxi, baizik zuhaitzak eta posteak jo gabe aurreratzeko lain doi-doi. Pertsoez ez naiz arduratzen, suposatzen baita, eurak begizabal, saihestuko nautela, itsuren bat egokitzen ez bada, baina zaila da itsuak gau sakonera arriskatzea. (Bai ergelkeria pentsatu dudana! Itsuari

zer ardura dio egun zein gau?) Begiak ixtea ez zait otu, hiri unibertsal baten sentsazio kaotiko kitzikagarri hori esperimenezko (bakarrik behar dut, irekitzean, signorina bat besotik tiraka aurkitzea), Bilbon nabilela sentitzeko baizik. Hantxe, Ledesman behera edo Txakurkalen gora (Iparragirre gustura zehartuko nuke, gobernu zibilar erantsitako kuartel norbaitek maitea aurkitu behar ez banu), zeintzuk, begiak itxita ere, itsu batek baino prezisio handiagoz oinkatuko nituzkeen, Erroman nabilela irudikatuz. Badut grina gaintzein bat, denboragaz dohainera lerratua eta azkenean bizio bihurtua, zeinaren aginduz munduko edozein hiritako ibileren obsesio nagusia bertan neure Bilbo sentitzea den, hemendik, alderantziz, munduko hiri guztiak ikustera biziaturik nagoen moduan. Kontua da nagoen toki hura bera nekez bizi ohi dudala zuzenki. Horrela, hango alderdi txar guztiak saihesteko abantailaren gainean, edonora desplazatzen naiz, bertsolari batek Argentinatik etsiki kantatua nik dohatsuki konfirmatuz ezen "zu ikusteko noiznahi asko det nere begiak itxia".

Saiakerak merezi izan du. Bilbo han dago, bueltan maitagarriago aurkituko dudana, Erromaren xarma positibo guztia erantsirik. Orain begiak erabat zabalduko ditut, Erroman nagoenez gero, hau ere osoan balia dezadan, ez baitago merezi ez duen erresumarik, krimen posible guztien ruinak gordetzen dituen bada ere. Giro epelera irtenik, edo non sarturik ez dutelako, Erroma guztia kalean dabilela dirudi. Ez dakit, begiak itxita, nola libratu naizen norbaitegaz talkatetik, munduko argienak bertan bildu ez badira. Kalearen izena jakin arte ez bainaiz inon seguru aurkitzen, lortu dut noizbait idazkuna: Vespasiano Etorbidea. Hurrengo hauteman dudana: La Fontana di Nefertari. Aurrera. Guttuso Kafetegia, Bar Allegro, Galerio Ostatu, Stradivari Musikadenda, Vitrubio Materialak, Kaligula Harategia, Bar Crescendo, Tiziano Alfonbrak, Piazza di Nabucco. Eta barbaro inpenetrablea, eta musika deigarria edonon, eta marionetak edozein kantoitan, eta txilioak ere bai kale txiki transbersaletan. Kale ilunago, huts samar eta luzea dirudien bati erreparaturik, bertatik jo dut, beste grina zahar bati jarraituz. Ezker-eskuin ostentzen eta inoiz amaitzen ez diren kaleska horiek (nahiz bitartean irakurri Kurzio Malaparte Zerbait, Germaniko Edergintza, Vasari Bitxidenda, Gordini Torlojuak, Bar Tocini, Monteverdi Kluba edo Norma Biletxea) beti atzitzen naute, zurruputzen

esango nuke, kale mukuruen itomenetik askatuko nauen aurkikuntza neuretzat eskusibo baten itxaropena edo beldurra direla bide. Itxaropen baino beldur gehiago, baina orain arte inork ez nau jan. Lehoiak ez dira euren harrietatik mugitu.

Bihurgune batean, argiune bat somatu dut, idazkun batek eragina, zeinak, hurbiltzean, ez nauen gutxi harritu, jartzen baitu: Bar Bustini. *Joño! Hementxe ez dok lehorterik izango.* Guztiz hurbiltzean, bi gizon adin samarreko hauteman ditut, ate aurreko mahaitxo baten inguruan eserita, pitxar bat erdian dutela, garagardoa neuk uste, vestalen txiza ez bada. Adin samarreko, edo agureak, garbi esanda, baldin idazkunaren markoak azpi hurbilera jaurtitzen duen gerizagunearen inpresioa ez bada. Pasaeran, mostradore pegatinaz betean ez dut inor hauteman, ez barrutik, ez kanpotik. Baliteke barrurago gozoan egotea, eta bi agureak, zain edo bueltan, nork jakin. Ugazabak ez badira, egunean zehar irabazi dutenagatik, gehiago inor etor ez dadin desiatzen. Ez zait sartzeko tokia iruditu eta aurrera noa, ez atzera begiratu gabe, bi agureen tankera azkenengoz ikusi nahirik, eta hona non daurkidan biak neu seinalatuz hizketan ari direla (ni paretik pasatzean isildu egin dira), ezagun banintzaie bezala, edo izaki arraro bat iruditu, edo, beharbada, nitaz deskojonatzen ari, esanez (eta orain keinuetatik horixe diotela dirudi): *Joan, joan! Hortik ez haz urrun ailegatuko.* Badaezpada, eurt egin dut eta, neure eskutur hutsa erakutsiz, ordua galdetzeko baliabide tontora jo dut. Eurek ere, keinu berdintsuekin eskutur hutsak aurreratuz, erlojurik ez daukatela adierazi dute. *Tontoari bi tonto!* –pentsatu dut. Orduan, mostradore hutsa seinalatuz, zerbitzaririk ez ote dagoen galdera imintziotu dut, eta eurek ere imintziotu dute barruan dagoela eta denbora behar izaten duela irteten, horretarako buru inguru astinak seinalatuz, ez dakit pentsakizun airosak ala ilaje extrabagantea adierazteko. Batek gerriagaz egin duen kulunketatik atera dut zerbitzariak emakumea izan behar duela. Edaria nahi banu, trago baten eskain-planta egin didate euren pitxarretik. Orain dakust ez dela garagardoa, zerbait transparentea baizik. Ura esango nuke. *Joño! Estimatzekoa dok hauxe,* pentsatuz, onartu dut, eta munduko milaka hizkuntzetako batean (*berbetan hasi beharko joagu nonoiz, elkar desulertzeko bada be*):

- Erromaren bisitariak zuek ere? – galdetzera ausartu naiz, areago neu zer naizen agertzeko, eurak nor diren jakiteko baino.
- Gu erromatarrak gara.
- Bai, bai, erromatarrak! –darantzute esaldi jarraitu bakarrean bezala, harriturik neu milaka hizkuntzetako bat horretantxe mintzatu zaizkidalako.
- Erroma-Erromakoak ala ingururen batetik etorriak?
- Erromatar genetikoak, Romulo eta Remoren gizaldiraino, behintzat –dio batak.
- Aurreko konstantziarik ez daukagu –besteak.
- Beheregi ez al zarete jaitsi zuhaitz genealogikoan?
- Hau Tazito da –dio batak.
- Ta-ta... zer? –galdetzen dut, muturreko bat harturik bezala.
- Tazito!
- Cornelius Tacitus?
- Ipsissimus.
- Berau Lukrezio duzu –derants Tazitok.
- Titus Lucretius Carus?
- De rerum natura! –baiezten du Lukreziok berak–. Iraungia ez baderitzozu.
- Hau da ruina bila etorri eta dinosauroak topatzea! Eser al ninteke?
- Lehen ez diguzu begirada hain laztana nola azkarra jaurti –ohartzen nau Tazitok, bere estilo ez gutxiago korrosibo nola trinkoan.
- Eser lasai –agintzen dit Lukreziok, aulki bat aurreratuz–. Dinosaurio ez-aktiboak gara.
- Egia esan, tabernaren izenak erakarri nau gehiago azpiko zuen mamu-gerizek baino.
- Eskerrik asko gutazko definiziora horren zoliki hurbiltzearen –dio Tazitok–, baina taberna hau Bar Justiniano izaten hasi zen. Gero jabez aldatu zen, eta ugazaba berriari izen luzeegia begitandu zitzaion, nonbait, idazkunean hizki handiz sartzeko, eta Bar Justini-ra laburtu zuen. Halaxe ezagutu genuen mende batzuetan, “ataundarra” ei zen batek hartu eta lehen hizkia aldatu zion arte, jentilen inisialik ezin zuela beste ezain hitzetan ikusi eta. Horrelaxe aurreratzen da historia.

- Hizki-aldaren arrazoa beste bat ere izan zitekeen, ataundarrak ezagutzen baitituz apur bat, baina izena deigarri iruditu zait.
- Urrundiko deia izango da, ze begira zenbat gauden bertan –dio Lukreziok.
- Ordua ere ez baita aproposena berau –nik.
- Erroman ez dago ordu zekenik, pare bat kale harago sartzen bazara, Via Lepida eta abar.
- Agurtu nahi nuke ataundar horixe.
- Kostako zaizu –Tazitok–, alde egin baitzuen, “bezeroak etortzeari uzten ez ikustearren”. Nik uste dut hura beste zerbaitea etorri zela Erromara, Aita Santua ere, bolada batean, larumin arraro batek ezkutatu baitzuen. San Pedro plazak, sanoak ezabaturik, areago zirudien helbarrien üzgune bat, zeintzuek elkar animatzen zuten eustera, Aita Santuaren berragerpenak salbatuko zituela itxaronez, eta kasik desiatuz haren sendakuntza atzera zedin, euren itxaropena luzatzearen.
- Interpretazio horrek oso tazitoarra dirudi –ahopetzen diot.
- Tazitotzat aurkeztu natzaizulako? Inpresio berriak ezagutza ikasira ekartzea ez da aurkikuntz metodo oparoa.
- Epai horrek tazitoar baino lukreziarrago dirudi.
- Ondorioa faltsua balitz ere, atrebentziak balio du aurkikuntza erdi.
- Niretzat aski aurkikuntza bada gaur zuek ezagutzea, ezustean izan bada ere.
- Ez dago ezusterik, etorkizuna usteezina dela onartzetik hasiz gero.
- Horrek ere lukreziarrago dirudiela esatera nindoan, baina oraingoan Tazito petoan utziko zaituz, galdera bat egitea onartzen badidazu.
- Entzun aurretik ezin dut erabaki.
- Nire duda platonikoa beti izan da (honi duda cartesiarra aitatzea alperrik izango dok) zuretzat historia ez ote zen genero literario bat besterik.
- Tragedia?
- Hara! Ez dut hainbeste pentsatu, baina, tragedia aipatu duzunez, zure Analak eta Historiak azpigeno misto batean sartuko nituzke: komedia tragikoa.
- Azaltzen baduzu, saiatuko naiz ulertzen.
- Esaterako, diozu: “Beste batzuk erremedio gogorragoen aldekoak ziren. «Populuarentzat ezer ez duk gutxi. Izu ezak, beldurtzen ez bada. Behin

- beldurra sartzen badiok, arbuia dezakek»”. Edo: “Senatariak erabaki zuten haren liburuak edilek erreak izan zitezela; baina ezkutuan egonik, argitaratu egin ziren. Hainbat arrazoï gehiago, oraingo botereak geroaren oroimena ere iraungi dezakeela uste dutenen ergelkeriari barre egiteko”.
- Honek ez al dirudi historia kontatzea bainoago trepanatzea?
- Pare bat esaldigaz epaitu behar al nauzu?
- Tiberioz konkluditzen duzu: “Bere jokaera ere denborarekin asko aldatu zen: bizieraz eta ospez nabarmendu zen, hala zer pribatuetan, nola publikoetan, Augustoren menpealdian; ezkutua eta bertuteen simulatzaile engainakorra, Germaniko eta Druso bizi zireno; ongi-gaizkien nahastea, halaber, ama hil arte; anker nazkagarria, baina bizioak estaliz, Seiano maite eta beldur izan zuen artean; azkenean, krimenera eta desohorera batera jo zuen, lotsa eta beldurra urrundurik, bere izaera hutsez jokatu zuenean”. Zuk ez zenuen Tiberio ezagutu. Haren gogo-izaerari eman zenion espresioa zail da datu historiko bat izatea, batez ere, “bere izaera hutsez jokatu zuenean” erremate larrigarri hori. Eta badirudi Tiberio ez zela egoera orokorraren konkrezio bat besterik, hura hil eta oso geroko aro batez baitiozu: “Ezein estamentu ez zegoen beldurretik edo arriskutik libre. Senatuko gorenak, adinez herbal eta bake luzean alfer, noblezia, geldi eta gerrez ahantzia, zalduna, miliziaren ezjakin, zenbat eta saiatuago izua disimulatzen eta ezkututzen, hainbat ageriago izutzen ziren. Ez ziren falta, ostera, anbizio tentelez, arma ikusgarriak, zaldi bikainak, batzuek luxuzko oturuntza-tresnak eta plazer-eragileak, gerra-tresnatzat erosten zituztenak. Zuhurren ardura bakea eta errepublika ziren. Buruarinak eta etorkizunera begiratzeko gai ez zirenak itxaropen hutsalez beteak ziren; asko, konfiantza agorturik, bakean larri, nahasmenean alai eta zalantzan txit segur”. Ez dakit bere izenik entzuna duzun, baina (“plazer-eragileak gerra-tresnatzat”, “bakean larri, nahasmenean alai eta zalantzan txit segur”...) Shakespeare ere ez zen ausartu horrelako kontudentzia txikitzaile.
- Pentsarazten didazu zeuek zaretela Erromaren historia literaturatzen ikasi duzuenak.
- Zu irakurrita, zaila da beste era batera hartzea, diozunean, adibidez: “Garaiako autoreek diote ezen, birgina batek heriotza zigorra jasatea inoiz entzungabea zenez, borreroak bortxatu zuela, soka ipintzen zion bitartean”.

Hain aldi berean anker eta piadosoa zen Erroma?

– Galderaren zentzua esaldi bera harridura-markaz entzutea bada, zeuk egin operazioa.

– Orduan, zeure baiezen soil eta labur bat errepikatuko dizut: "Aldi berean, Luzio Pison pontifizea, zer arraroa hain gizon ospetsuagan, berez hil zen". Beharbada, horixe dateke zure kontsizioak eman duen obserbaziorik brutalena, zeren, ospe batetik gorakoak berez hiltzea hain arraróa bazen, gizaki soilak nola hiltzen ziren Erroman?

– Egia esan, jende horrengan ez nintzen gehiegi arretatu.

– Orduan, baliteke beste aipu bat ondo etortzea: "Erromaren historia handiosak damaidan plazer nagusia da ia inor inportanterik ez zela berez hil".

– Ero-une batean edozer idatz liteke, baina Erromaren historia plazertzeko baino minkiago bizi izan nuen.

– Ez da zuk, baizik neuk idatzia, *Dinosauroak horizontean* eleberrian.

– Banengoan, ba!

– Nik idatzia, baina zeu irakurrita.

– Jmm!

Gizon batek barra hutsean errukarri ematen duelako aitzakian, "goazen bertara" hots eginez zutitu naizenean, beldur naiz mahaikideak ez didala jarraituko, dena izan baita trikimaina bat Lukrezio zutik ikusi ahal izateko. Zorionez, bera ere abiatu da, eta atean aurea damaiot, gizalegez bainoago atzez obserbatzearren. Ez nau dezepzionatu. Tazitorea baino altuera handiagoa aurrerantz okertuxe darama, Erroma bezalako hiri nekatu batean "igo hakit" bezala uler daitekeena, baina berehala ohartu naiz norbait baxuagori maiz entzutetik gelditu zaion bizioa dela. Izan ere, Epikuro misterioa beti iruditu zait, bere bustoek diotenaz bestera, gizakume fiarro, arean konkorr, eta buru zapal biribileko, sudur puntatik belarrien kurbadurara zirkunferentzia bat trazatuz gero. Ez da erraz ulertzen naturak halako engainua behar izatea, antzinateko adimenik naturalena elfo itxuran ezkutatzeko. Barrara hurreratu garenean, "hemen autozerbitzua al dago?" nik galdeturik, Tazitok "gai batzuetan bai" erantzutea nahikoa

izan da, uste baino luzeago agertu zaidan barra-aurrearen hondoko zokoan bikote bat hautemateko, ez hain gaztea bera, horma kontrako zizeiluan era nahiko zailean besarkaturik, guneko argi urriaren inpresioa ez bada. Pareko zoko simetrikoan, gizonezko bat dago mahaitxo batean, kirten urdin eta banda zuriko pitxar gorriska bati heldurik, ez jakin erdi lo ala aurreko bikoteari begira. Bikotearen itxura ezertaz ez jabetzearena baino areago da ezertatik babestu beharrik ez izatearena, biek bola bat osatzeko darakusten antzetik. Barrako hiru lagunon barbarora, emakume luzanga bat bistaratu da, bezero bakarria atenditzea motibo txikia bailitzan. Goitik behera begiratzeko emakumea da, adatsa burmuin forma garbian trentzaturik ez balekar, benetako kolore eta guzti, araberako lakaren batez, Arcimbaldorantz bidean. Laster ohartu naiz kasket erromatarren imitazioa dela, azkenean etsi behar izan dudana arte mototsera bilduriko bere ilea besterik ez dela, leungarriren batek eraginiko argi-islekin aldakor. Bereizi ezin dudana da argia kanpotik ala barrutik duen, lokalean ez baita inondik sumatzen hainbeste efektu eragiteko argitasunik. Atorra beilegi kasik gardenez jantzia da, moko luzeko eskotez bera, alde batean lau botoi deigarri dituena, apaingarri hutsak duda gabe, argi baitago eskote hori ez dagoela ixteko pentsatua. Gorputza, halaber, ia erdi bi dagio inpresio horixe emateaz beste asmorik nekez izan dezakeen gerriko arrosa batek. Hortik beherantz, mokorrek inbutu iraulian suabeki zabaltzen hasten direla besterik ez du ikusten uzten barra ertzak. Bere hizkera jori eta irrutsuan, "signorino, signorino" besterik ez dantzut, berriro ezkutatu den arte, gure pitxarrak garagardo berriz eta mahaiko gizon bakartiarena ez dakit zerez bete ondoren.

Horixe da bidezkoen, baina nire gogoak ezin du sedukzio "brutalarena" saihestu, ukondoak barran solastun pausatu dituenetik, hainbestearino ezen ez bainaiz ausartzen ia bular osoetara sakondu zaion eskotera begiratzen, beldurrez nire begien beroa nabari dezan, edo igar dezan zer pentsatu dudana: *Buah! A zer surfaldia hortxe!* Desioa uzkonotik gorgoileraino igo zait, barne zirrara batek berretsi didanean inork ez dakiela Erromara zertara etorri naizen, are gutxiago apaiza naizenik, hurrengo dardarak alertatu nauen arte: *Baina heuk badakik!* Ebidentzia horren aurka ezin dut jokatu. Ezin dut egitekoa arriskatu, halabeharrak jarri nauelako neuk hainbestetan eztenkatu dudana erromatar

Lortzen nuen ilunaren osotasun salbagarria ere, burua mantapean estu-estu gorderik, baina ito behar nuen, eta nire nahiaren kontra, itotzea desiatzeraino iristen bainintzen, burua berez irteten zen, eta berriro leioa nekusen. Leioaren geometria brutala, doi-doi markatua kanpoalde abismalaren kontra.

Leioa ez zen, ez, munstro bihurtzen. Zer nukkeen nahiago, bere hegala eta erdiko ebaki gurutzatuak deforma zitezene baino, irudi ezberdinek arrasta nintzaten! Zenbat eta eraldatze horribleagoak, hainbat itxaropen handiagoa izango nukkeen, hurrengo gutxiago beldurgarri gerta zedin; diferentziari esker, onberatzat sentitzeraino irits zitekeena. Ez! Leio geroz leioagoa ezin nuen gabetu bere leiohasun eztanda-hurrenez, non sartun-irtetun oro bere separazio gardenean elkar suntsitzera destinatuak zeuden, mitxeleta tripandiak bi ahur zaplatzaileen amorruan bezala. Leioa geldi-geldi zegoen, ez ni irenstera hurbildu, ez nire izutik urrundu. Bere bi orri eta sei laukien dohain aztoragarriena zen ezen, guztiz independenteak izanik, ezin zutela ordena aldaezinetik irten, mugimendua gaitzi zitzaion jainko batek hartaraxe kondenatu bailituen. Bariazio bakarra zen leioak nire begirada alboraezinari handituz erantzuten ziola. Handituz-handituz, nire niniak gehiago zabaldu ezin zirenean, burua mantapean gordetzen zen. Itozoriak berriz kanporatzen zuenean, leioa jatorrizko neurrietan zen berriz. Ez zen berehala hasten handitzen. Areago, neu ez nintzen konturatzen noiz handitzen zen, konturatzeak egoerari buruzko gaintasun zerbait banuelako lasaitasuna eman ez zeidan. Gertatu eta gero igartzen nion beti, kolpera. *Et! Orain handiagoo dok!* Horrek nire izuari beste bihurkada bat zemaion. Alarmanteena zen hori guztia, seminarioan, normaltzat hartzen nuela, baina etxean? Urte guztia bertara itzultzeko irrikaz pasatzen nuen lekurik maiteenean?

Biharamun goizean, oso goiz ibiltzea pentsatua genuen, gosari ordua baino lehenago, baina baziren goizago abiatuak. Inor

likiskeria fundazionalaren aurrean. Horixe pentsatzea nahikoa izan da askatasun mugagabearen esperientzia berri dakidan, neure arau moralik emankorrenaren arabera: "*Senti hadi egitekoen jaun, pentsa ahal dezaan zernahi*". Orduan lasai eta zuzen begiratzen diot, desioa araberako adeian bilduz beti ere begietara, surfgunera zein edozein biluztasun ezkututara, zaila ere ez berau, soinekoaren arintasuna bide, nahiz eta pentsamenaren eztanda honetara iristen naizenean, nire begientzat ez dagoen gai penetraezinik. Messinaren xarma agian profesionalak, baina neuganako espresotzat hartzea batere kostatzen ez zaidanak, nire desioari sakonera artistikoa eranstean dio, ezagutzen ez dudana hizkeran (ulertzen ez denak nahi den moduan interpretatzeko abantaila du), behin baitantzut Freskobaldi edo Vivaldi (gloria! gloria!), nola Mascagni, Maderna edo Respighi (Feste romane). Barra barrura saltatu naiz, eta erromatar ahaztu hauei eta euren zoko-maitale uneon autistei (gehi pitxarretik eskurik eta begirik kendu ezinik dabilen edale neoklasikoari) exhibizio millertar bat eskaintzen diegu, euren txundimenerako eta gure osasun zikinerako. Gero, sen basikoak apur bat baretu edo uzkuritu zaizkidanean, leran bezala altzoan daramat elur-maldan behera, eskuekin bularrak estutuz eta lepo-hegal hozkatutik irrintziak ateraz, berak nire zakila izter artean merezi baino likinkorrago eskuztatzen duela (*kostako zain hortik ezer ateratzea, egiten duen freskuragaz!*), harik eta hartz arte bat iheska hauteman dugun arte (zuria izan balitz, ez ginatkeen konturatuko), honelako dibertsiorik sekula ikusi gabe, nonbait, bera ere. Badaezpada, haragizkoak garela ohar dadin arriskutik geu ere ihesi, Bar Bustinira itzuli gara, hots, Bar Bustiniko lehen solairuko pasillora, non, alfonbra siziliar baten kontra, Messinaren gainera failoan akoplaturik, hain etsirik eta gustura gelditu naiz, ezen, bera lokartu denean, pena damait iratzartzeak denbora kontingentera itzul dadin, baina komunera joan beharra dut. Pentsamena oroahaltzu bezala, nire txoritxo ahula da. *Ez, Messina! Hi gelditu barran. Hau bakarrik egitekoa dun.* Nire lagun itxiek, eliztarrek, herkieek, hari-punta txikienean ehiztari-medioek, une zehatz honetan banindekuste! Komuna barrutik ixteak lasaitu nau. Abantaila handia da, bakartoki honetan, nornahiren zernahi dela lotsagarri (ez naiz, beraz, salbuespen nazkagarri bat), ipurdia garbitzeko *ama!* deiadarka ari den haurra ez bada.

ez molestatzearren, eskailerak ahalik isilen jaisteko lan zaila amaitu genuenean, bertan sartzeko asmorik ez genuen jantokiko atean bi lagun topatu genituen, gaua hantxe gure zain pasatuaren itxura hartu genienak, geure urduritasunaren irudipena ere izan zitekeen baina. Ezusteak garbi bereizarazi zigun gauza bakarra mustelido sentsazioa izan zen. Ea, une batez, jantokira sar gintezkeen, eta guk baietz, baina ez genuela gosaltzeko astirik. Sor Misiello eta beste moja bat ziren, hau ibilkeratik dorpeago eta, beraz, zaharrago zirudiena, belo goiztar oraindik nahaspildu gabeen artean zaila baitzen aurpegia atzematea. Mahaian eseri eta argitan aurrez aurre hauteman dugunean, Buonisegnaren Madonnaren aurpegia iruditu zaigu. Zahartuago, noski, baina begirakera eta buru-okertze berdinez, urguilu-apaltasunek bat egiten duten une horretan. Gutxienez, Beticelliko ama priorea izan behar du.

- Zer da Sor Misiellok kontatu didan asmo inaudito hori?
- Ez dakigu zer kontatu ahalko zion berorri Sor Misiellok. Geuk dakigula, ez dugu ezer alarmanterik iradoki.
- Sor Misiello! Argitu, mesedez, gure apopilooi euren oroimen ahanzkorra.
- Oh, ama priore! Ahal balitz, ez ni, arren, estura horretaraino bortxa. Aurkez beza berorrek nik beste dakiena, eta nik baino askoz hobeto azalduko duena.
- Ondo dago. Dispentsaturik zaude. Egia al da –galdetzen digu, buru alboratu, tentetzean, askoz luzeagoz– Aita Santua bahitu eta gure etxe apalera ekartzeko plana duzue?
- Aita Santua bahitu guk? Nork amestu du irudikeria hori?
- Irudikeria ala izugarrikeria?
- Barka, ama... suposatzen dugu... nagusi!
- Ama priorea. Nabardurak ezabatuak diren auzian gaude. Apaiz sano batzuen gogoan, nola gara liteke horren buruera munstroa?
- Barka berriro, ama priore, baina hemen munstroa beste bando batean dabilela esango guke. Nola uste du berorrek...
- Sor Missiello! Egia al da esaten ari naizena?
- Hhh... –negarrari eusteko ahaleginean dihardu.
- Oraingoan ez dago dispentsarik. Bai ala ez erantzun behar duzu. Egia al da?

- Bai, ama priore!
- Entzun duzue! –jauki du, tonu berdinez (nahiz eta moja batengan intentzio ezin berdinez) nola esango zukeen “putakumeak zarete!”.
- Defentsibatik geroz okerragora goazenez gero, geuk ere badugu itaun bat, Ama Priore. Nola ausartu da berori izugarrikeria hori sinestera, Beticelli honetan... denak burutik ez badaude? –Azken lau hitzok geuk ere unisono amorratuan jaulki ditugu, tonu eta, kasu honetan, intentzio berdinez nola esan bagenu: “Denok putak zarete!”.
- Sor Misiello! –oihu dagi ama prioreak, haserre norantz bideratu dudan–. “Bai” ala “ez” esan duzu?
- “Bai” esan dut, Ama –entzun-uste dugu, ia golkoan gorderiko buruaren zotinan artean.
- Sor Misiello! –oihu dagigu geuk ere, haserreari errukitik arbuiora tonua ezartzen saiatuz–. Zein demoniok atxiki zaitu, zeure herritarrak honela hondatu gura izateko?
- Horixe esan zenidaten! Eta kolaborazioa eskatu, gainera.
- Ama priore! Uste dugu Sor Misiello gaz bakarrean hitz egin behar dugula. Eskertuko guke berori erretiratzea, ahal dela ezer ez entzuteko tokiraino.
- Hemen ez dago ispirik gero! –furfuriatuz zutitu da.
- Eskerrik asko. Horixe komeni zaigu.

Lekeitioko faro txikiaren malekoian paseatzea berdingabea da, itsasoaren errebelioa usnatzen denean; olatu kontenituak konspiratzen hasten direnean, disimulu osoz, bariazio soilean bezala, balea aseak jostaz iduri. Ez da gutxiago berdingabe, itsasoa baretasun zintzoan datzala, ortziaren errebelioa sumatzen denean, une honetan bezala. Iluntzeko gandu-erreinu gorriskan, hodeiek harrapaka dihardute gorrotoz, norabide gabe zirimolduz, txakur aldra amorratuen gisan, edo piltzarretan urratuz, barrabletatik hozkaturik. Eguzkia horizonte-labarren ebaketan ezkutatzera doa, biekin lagun amaitu guran, eta begiraleei esanez: *Zeuek konpondu. Nik ez joat ezer ikusi gura*. Begiraleak neure bi begiak bakarrik dira, eta ikaratu naiz eguzkiagandik horren abisu pertsonala jasotzeaz, baina, seguruenik,

beste inor inon ez egonik, hark ere ezingo du mirari ugaltzailerik egin. Une batez iruditu zaidan berun ala brontze usainaren dudak ere ez du zentzu handirik, doi-doi iristen bainaiz burdina oxidatua bereiztera, areago ukitzez berau ere, usnaz baino. Eta ez dakit hodei erronkatiak baino beldurgarriago ez diren ostarre urduriak, ez bainengoen mentalizaturik horren forma munstrosetan bidertzen ikustera beti hain atsegina eta baregarri agertu zaidan urdina. Horregatik dateke itsasoa ere baurreari eusten saiatzea, gertatzekoa inpentsuan atzeman nahirik bezala, alarmerik zabaldu gabe. Natur fenomenoak inoiz berdin errepikatzen ez diren arren, argi ulertu dut seinale hauek guztiek haizete baten biolentzia diragartela.

Otoio hoteleko terrazara baztertu naiz, ikuskizunaren zain, ez luzerako, parkeko zuhaitzak berehala hasi baitira elkar jotze desesperatuan, eta portuko ontziak elkarri iheska, beraz, elkar joka, ez baitago ihesbiderik. Zuhaitzenak harritu nau, zeren, haizeak elkargaintza eragitea bidezko izanik, norabide gurutzatuak hautematen dira. Horrek esan nahi du haizea bera ere apurtuta edo epilepsiak jota dabilela. Minutu gutxiren buruan, ikuskizuna izukizun bilakatu da, teilatu hegalarri bat udaletxearen kontra talkatu denean. Olatuak parkeraino, zuhaitzak erauzten, airea aparturik, San Nikolas irlak Pequod ontzia azkenetan irudi, jantokira sartu naiz, objektu alderraiak joko nauten beldurrez. Muturra beiratearen kontra zapal, grazia handia egiten dit naturaren haserrearek, horrela bat-batean, inork motiborik eman gabe, arteko denbora milionario guztiak ezertarako balio izan ez balu bezala; itsasoak horizontetik harantz tokirik ez balu bezala. "Graziagile" ez da, noski, natura amorratuari dagokion kalifikua, eta ez dakit fribolitate horrexen mendekuz ala zer, benetako dardarak jo nau, zuhaitz biekina egina dudana tratuaz oroitzean: *Sinatuko neuke bizitzea, zuek biotako bat bizi deno*. Eta sinaturik gelditu zen. Oraintxe ulertzen dut haizete honen biolentzia ohigabea. Neure palmondo luzea lur jotzearek dakust, eta neure arteondo zaharra karraskan lehertzearek. Erasoak ez du amore emango biak eraitsi arte, oraintxe bertan bi albo elkarren kontra eta kiosko gainera jausi diren moduan, bat ere hotsik gabe, zarata orokorra hain baita mortala, non negar partikularrak ezerezean gelditzen baitira.

Hau guztia neure azkena bortxatzeko pentsaturik dago. *Baina nork pentsatzen jok hemen ezer, pentsatzaile bakarra banaz?* Neure bizi-

zuhaitzen ondora joan behar dut. Hil behar bada, hil nadila seinaleen ikusle eta unearen jakile. Neure zaldi maitea prestatu dut, esanez: *Goazen, Kiko! Gaitu jok, baina hik zuzen eta bizkor eroango nok*. Zaldia artega, puzka doala konturatzen naiz, baina badoa, bagoaz. Ospitalearen parean, aberea irrintzi bizian tentetu da, aurreko zangoekin eguratsa urratuz. Motiboa ez zen hutsa, Zubieta jauregiko parketik pinutzar bat gurutzatu baita errepide erdira, bi metro eta erdiko murrua harrietan birrinduz. Zoruan natza, ez dakit zaldiak botata ala neuk gorputza jaurtita, pinuzko mamutzarra gainera zetorrela ohartu naizenean, karraskadatik gehiago ikustez baino. *Zuzen habil, Kiko. Hau suizidio bat dok*. Otoio hotelera itzultzerako arriskatu beharrean, ospitale hurbilera erretiratu gara. Zaldiari, bridak kenduta, aurreko jardinetan jaregin diot, nik baino babes sen hobeia izango duelakoan, eta hemengo zuhaitzak mehatzak eta ez hain handiak direlako. Ospitale zaharbertuan sartzean, haizetea beldurgarriago egin zait, burrunba guztia kutxa erraldoi baten barruan bideturik baitantzut. Munstroak alde guztietatik barruratu nahi du, eta lortzen du, ate edo leiho ugari sumatzen baita zabalik edo apurturik. *Hau desolazinoa!*, pentsatu dut une iheskor batez, behinolako zaharretxe eta aurreragoko erietxe gaineztuaz oroitzean. *Putz! Putz!*, xaxatzen dut haizea, kostako zaiola pentsatuz harlanduzko eraikin gotor honi zirkinik eragitea. Haizeak baino gehiago beldurtzen nau (higuintzen, garbi esanda) barrunbeto kiratsak, ustelarena baino disekeazio txar batena dirudiena, gaixoen eta zaharren populazioa bertan utzita joan ziren seinale. Zorionez, hilezurrik ez da inon ageri, oraindik behintzat, ezta burezur apurturik ere, desesperazioan elkar hiltzen saiatu ziren seinale. Pentsakizun dibertigarriok ezin dute nire gogoa libratu palmondo luzetik arteondo zaharrera lastertzetik. Beharbada, bata edo bestea jada luze da, eta gutxien ustean, neu ere luze naiz, bigarrenak lurra jotzean. Geroz larriago nago. Joan behar dut, zaldiz ez bada oinez. Buf! Astakeria! Nola egin behar ditut hamabost kilometro, triskantzua ilun honetan zehar?

4. EBIDENTZIA. ADITZA ERRAZTU ETA LABURTU

4. EBIDENTZIA / 1.- ADITZA ERRAZTEA ETA SINPLETzea KOMENI DA

Euskara batuaren bigarren jaiotza-n esaten zen (102. or.):

"Gure aditzaren erabilera praktikoaren proportzio exaktoak neurtzea interesgarri litzateke, baina, handi-handika, honako ebaluaketa egin genezake. Aditzaren %50a inoiz ez da erabiltzen. Geratzen den 50aren erdia (osoaren %25a) oso gutxitan eta oso gutxi darabil. Erabiltzen den %25aren erdia gehienek gaizki darabilte. Eta, azkenik, ondo erabiltzen den proportzio txiki hori ere erosio-arrisku etengabe bizi da. Ezin dugu lortu euskaldun berriek aditzaren parte txiki bat menpera dezaten. Ezin dugu lortu euskaldun zaharrok aditzaren parte txiki horri korrekzio sanoan eusterik. Orduan, galdera bikoitza da. Alde batetik, zertarako dira sekula erabiliko ez ditugun aditz-paradigma amaigabe horiek, ikasleen eta hiltunen buruak alferrik apurtzeko ez bada?

Bestetik, zer egin genezake nahitaez erabili beharrekoak diren, baina zuzen eta erraz erabiltzerik lortu ezin dugun beste aditz-forma amaigabe horiekin? 'Ezin lortze' horretan, ez dut, noski, betiko adituen edo saiatuen multzo konplazent hori jotzen. Hizkuntza normal eta normalki 'leihakor' batean, hiztunek masiboki eta erraz menperatzeko modukoa izan behar du aditzak. Ez daiteke izan hizkuntza baten bizkarrezurra den aditzaren menperakuntza mirari pro(me)teikotzat hautematea. Begiratzén zaion tokitik begiratu, euskal aditza da euskararen problemarik larrienetakoa".

Problema larri horren lehen gakoa euskal aditzaren zailtasuna da. Zailtasun labirintikoa. (Karlos Cid Abasolok dio: "Gaztelaniaren aditza baino zailagoa? Ez dut uste. Gaztelania ikasten duten atzerritarrek ere ez. Ehunka aditz irregular ditu gaztelaniak"). Bigarren gakoa bere luzera da, 4. ebidentzia 2an ikusiko duguna. Zailtasunari gagozkiola, ebidentzia argia da gure aditza erraztea eta sinpletzea komeni dela. Gai politiko edo sozialetan ariketa demokratiko gorentzat jotzen den erreferendum bat egiterik balego euskaldungo osoaren zabaleran, ez dago dudarik gehiengo nabarmena, ia totala aterako litzatekeela ebidentziaren alde. Soluzioa, ostera, ez da hain ebidentea. Nola sartu eskua aditz demonio honi? Soluzioa ebidentea ez izatearen arrazoiak bikoitza izan daiteke. Alde batetik, operazioaren beraren zaila. Bestetik, operazioaren aldeko erabakiaren zaila. Erabakia, funtsean. Erabakia gauzatuz gero, antolakuntza bidera liteke, abiadura batean edo bestean. Erabakirako konbikziorik edo ausardiarik izan ezik, ez dago inora iristerik, edo iristea oso urruna eta nolabaitekoa izango da.

Euskara batuaren bigarren jaiotza-n, aditzaren atalari izenburu haxe jarri nion: *Aditzaren fantasia heroikoa*. Hala, "fantasiak" egitera ere menturatu nintzen, irtenbideak proposatzea zaila zela jakinik (agian, alferreko ere bai, oraingoz). Hemen ez dut irudipenetan distrahitu gura. Ebidentziaren muinari lotuko natzaio, eta ebidentzia hori, lehen-lehenik, premia mailan aurkezten dut. Aditza erraztea eta sinpletzea premia ebidentea da. Hortik aurrera, irudipenezko ez diren hiru puntu bakarrak aurkeztuko ditut (gehi askoz garrantzi txikiagoko laugarren bat), aditzaren errazte edo sinpletzeak nondik jo lezakeen iradokizun bezala. Puntu horiek euskarak berak garatu dituen ahalbide errealetan, "ebidenteetan", oinarriturik daude.

1) EZAN - EIN

Oro har, formarik zailenak dakartzan aditza EZAN laguntzailea dela esan genezake: *ezazu, dezan, nezan, dezaket, lezake*, eta gero bere flexio deabruzkoak, batez ere, objektu pluraldunak: *iezaziozu-iezazkiozu, diezazion-diezazkion, geniezaion-geniezazkion, diezaiokegu-diezazkiokegu, zeniezadake-zeniezazkidake...*

Euskaldun erdiek beste laguntzaile bat erabili dute eta darabilte, *ezan*-en sinonimo hertsia: E(G)IN: *eizu, daien, (z)eien, daiket, leike*, eta beronen flexio ez hain deabruzkoak: *eiozu-eiozuz, deion-deiozen, neion-neiozen, daikeogu-daikeoguz, geinkeo-geinkeoz...* Ahalerazko formetan, normalena da hizkeran (idazkeran ere sarritan) *e-i* bihurtzea: *daikeogu-z, geinkio-z*. Laguntzaile hau EGIN aditza den ala ez, eta bada ere, forma originala IN, EIN ala EGIN den, bego adituen esku. Nahiz eta *dagizun, dagiket, nengike* eta abar ere idatzi izan diren, hizkeran maiztasun osoa dago, eta idazkeran ere ia beste hainbeste, *daizun, daiket, neike* bezalako formen alde. *Nengike* lakoak areago dira ohiko formen kultismoak.

Har ditzagun bi aditz sinonimoon denbora eta pertsonen ordain berdinak:

- EZAN: *genezake, genitzake, geniezaioke, geniezazkioke*.

- EIN: *geinke, geinkez, geinkeo, geinkeoz*.

Geniezaioke = 6 silaba. *Geniezazkioke* = 7 silaba.

Geinkeo = 3 silaba. *Geinkeoz* = 3 silaba.

Ezan-en forma horiek idatzita ikusi ditut, baita entzun ere inoiz, zenbait aho jasotatik, baina ezein hiztuni ez diot inoiz inon entzun *eman geniezazkioke* eta antzeko formarik. *Emon geinkioz*, ostera, laguntzaile horregaz dabilen edozein hiztunek esan izan du, *emon dogu* bezain normal. Hizkera mailan aditzak daroan erosio prozesu eta guzti, oraintxe ere *eroan geinkioz* errazago entzungo duzu *eroan ginduzen* baino. Ez dirudi logika oso praktikoa forma batzuk guztiz ohiki eta naturalki darabiltzan euskaldungoaren erdia beharturik aurkitzea sekula erabiliko ez dituen (eta inork ez darabiltzan) formetara aldatzera. Eta euskaldun berriak ere

sakrifizio erantsi horretara behartzea.

Non dago gakoa forma bataren hiru silabak bestean zazpi izateko, aditz bien hasierako aldea silaba bakarra baizik ez izanik, *ein-ezan?* *Neike-neikez-neikeoz* dioenak (hizkeran, *neikioz*, baita *neioz* ere) *ezan* sinonimoa jokatu behar balu, honela legike bere sisteman: *nezake, nezakez, nezakeoz*. (Hemen ere, seguruenik, *nezakioz* esango luke). Gakoa ez dago *ezan* ala *ein* aditzetan, Z eta IT pluralgileetan eta NORI flexioetan baizik. Sistema batak pluralgilea eta NORI datiboa aditz flexioaren erdian sartzen ditu, eta besteak, azkenean. Bai aditzean, bai denean, gauza jakina da erdian alterazio handiagoak eragiten direla ertzean baino.

Z erdian: *dauzka, dazki-dakizki, lezazke, letozke*.

Z azkenean: *daukaz, dakiz, leikez, letorkez*.

NORI erdian: *dakioke, letorkioke, diezaioke, geniezaioke*.

NORI azkenean: *dakikeo, letorkeo, daikeo, geinkeo*.

Bi elementu hauen artean, nahiz biak erdian sartu, NORI flexioak alterazio handiagoak eragiten ditu pluralgileak baino, Z bihurtuz ZKI, eta abar. Berez, *dezaket, dezakegu, lezake, zenezake* formatatik ez dago iragaitza zaila euren pluraletara: *ditzaket, ditzakegu, litzake, zenitzake*. Datiboa erdian sartzea da forma hauek erabat itxuraldatzen dituen: *diezazkioket, diezazkiokegu, liezazkioko, zeniezazkioko*. Nork esango luke "zeniezazkioko" ez dela "zenitzake + O" besterik? Euskaldun erdiek (neu barne) egiten duten bezala, NORI datiboa erditik azkenera lerratzea nahikoa litzateke (pluralgileari bakean utzita), askoz forma errazagoak osatzeko:

Ditzaket, nitzake, zenitzake + O = ditzakeot, nitzakeo, zenitzakeo.

Orain konparatu:

Ditzakeot, ditzakezut, nitzakeo, zenitzakeo, zenitzaket.

Diezazkioket, diezazkizuket, diezazkioko, zeniezazkioko, zeniezazkidake.

Zailtasunetik at, luzeran ere, silabatan, lerrotik lerrora 21etik 32rako aldea dago. Heren bat baino gehiago! Soluzioa ez litzateke, noski,

forma zailak eta luzeak dekretuz eliminatzea. Hizkuntza batek denentzat izan dezake bere gune oportunoa. Iradokitzen ari naizen bakarra da (eta hau ere ebidentzia bat iruditzen zait) forma errazago eta praktikoago hauena aukera onetako bat izan daitekeela.

Bestalde, bi aditz laguntzaile sinonimoek bizikidetzak baketsuan irau dezakete, erabilerak erabakitzeko utziz euskaldungoa norantz lerratzen den, ala bien jarraipena hobesten duen. Bata eliminatzen bada (euskara batuan, esan nahi dut), ez dago modurik erabilerak ezer hauta dezan. Biak zilegizat emanez gero, honako paradigma paraleloak sortuko lirateke:

– *Dezaket, diezaaket/diezanaket, diezaioket, diezazuket, diezazueket, diezaioket*.

Ditzaket, diezazkiaket/diezazkinaket, diezazkioket, diezazkizuket, diezazkizueket, diezazkieket.

Daiket, daikeat/daikenat, daikeot, daikezut, daikezuet, daikeet.

Daizket, daizkeat/daizkenat, daizkeot, daizkezut, daizkezuet, daizkeet.
(*Daikedaz, daikeazat/daikenazat, daikeodaz, daikezudaz, daikeedaz*).

– *Nezake, niezaioko, niezazuke, niezazueke, niezaioko*.

Neike, neikeo, neikezu, neikezue, neikee.

– *Nitzake, niezazkioko, niezazkizuke, niezazkizueke, niezazkieke*.

Neizke, neizkeo, neizkezu, neizkezue, neizkee.

(*Neikez, neikeoz, neikezuz, neikezuez, neikeez*).

– *Dezan, diezaiian/diezainan, diezaiion, diezagun, diezazun, diezazuen, diezaiian*.

Ditzan, diezazkian/diezazkinan, diezazkion, diezazkigun, diezazkizun, diezazkizuen, diezazkien.

Daian, deian/deinan, deion, deigun, deizun, deizuen, deien.

Daidazen, deiazzen/deinazzen, deiozen, deiguzen, deizuzen, deizuezen, deiezen.

– *Nezan, niezaan/niezanan, niezaion, niezazun, niezazuen, niezaien. Nitzan, niezazkian/niezazkinan, niezazkion, niezazkizun, niezazkizuen, niezazkien.*

Neien, neian/neinan, neion, neizun, neizuen, neien. Neizen, neiazan/neinazan, neiozen, neizuzen, neizuezen, neiezen.

Daizket, neizke, neizkeo... Forma hauek sistema bakoitzaren elementu praktikoak baliatzen dituzte, eta kontua ez da batere arbitrarioa. Euskaldun asko eta asko dira (erdigune guztia) *daizke, daizkezu, leizke* eta horrelakoak dioztenak.

Ikusten denez, eta oro har, datiboa eta plurala azkenean daramatzen sistemak errazago dirudi erdian daramatzana baino. Flexioetako objektu plurala da, batez ere, aditza gehien zailtzen duena. Sistema errazagoa dirudien horretan ere, objektu singularduak (*neion, neizun, neizuen*) nahiko digerigarri izan arren, pluralera jotzean (*neiozen, neizuzen, neizuezen*), zorabioa dator. Zer esanik ere ez beste sisteman, *diezazkion, diezazkigun, diezazkidake, zeniezazkidake*, eta antzekoei aurre egin behar zaienean. Forma hauek, gorago esan bezala, alazo etor daitezke une puntualetan eta tonu markatuetan, baina eguneroko hizkeran edo idazkeran normal daitezen nahi bada, bizitza asko luzatu beharko zaigu.

Konponbide on eta praktiko bat hurrengo puntuak zabal lezake.

2) DATIBOA ADITZETIK KANPORA

Karlos Cid Abasolok dio: "Nik aipatuko nuke erabilera hau Iparraldeko euskalkietan gertatzen dela".

2. Ebidentzian ("Perpausaren ordena") aipatu nire ezustean, ia sustoen artean (Altube, Axular, Mogel...), txikiena ez zen izan ikustea nola euskararen tradizio indartsu batean (klasikoki indartsuena), datiboa aditzetik kanpora uzteko askatasun guztiz normala hartzen zuten. Aditzak berak ez zuen datiborik adierazten, zegokion izen edo izenordainak baizik. "Aldiz, ama, ZURI bihurtzen DUT, ni baitan bada deus onik". Perplexutasun

osoz, ia haserrez hartzen nituen, lizentziak baino areago, nire sisteman akats iraingarri neritzen forma horiek. Bertso baten puntua den aipu horretan, neurria ez da inolako aitzakia, konpontze guztiz erraza baitzukeen: "Nik, ama, zuri bihurtzen dizut, ni baitan bada deus onik". Edo: "Aldiz, nik zuri bihurtzen dizut, ni baitan bada deus onik". Idazleak, ordea, ez zuen inolako ahaleginik egin niretzat hain akats larria zena konpontzen, nondik atera behar nuen harentzat guztiz esapide naturala zela. Hainbeste idazletan eta hainbeste aldiz irakurri ondoren, neu ere naturaltzat hartzera iritsi nintzen, ez baitago harridurarik, errepikak zalutzen ez duenik, edo misteriorik, ohiturak arruntzen ez duenik. Nork esango zidakeen orduan baliabide hori, handik urteetara, gure aditz demoniozkoa errazteko eta sinpletzeko aukera posibletzat ikusiko nuenik!

Banekien adibideak zenbanahi aurki nitzakeela, baina ez neukan gogorik hainbeste liburu miatzen hasteko. Edo galdetzen hasteko non topa nitzakeen, seguruenik jasota egongo diren adibide zerrendak. Pentsatu nuen: "Ziur Xalbadorren liburuan batzuk aurkituko ditudala". Berehala agertu ziren batzuk.

Odolaren mintzoa. Xalbador. Auspoa liburutegia, 1976.

- *Aldiz, ama, zuri bihurtzen dut, ni baitan bada deus onik.* (80. or., 10. bertsoa).
- *Jainkoak emaiten du zonbaiti dohaina.* (119. or., 7. bertsoa).
- *Aldude'ri izena nork eman ote du?* (123. or., 3. bertsoa).
- *Hiritarrak zerasan baserritarrari.* (147. or., 2. bertsoa).
- *Ez duzu zuk nehoi nehoiz egin gaitzik.* (189. or., 4. bertsoa).
- *Jarraiki zaizte Jainkoak berak egin zuen legeari.* (211. or., 2. bertsoa).
- *Jainkoak zer gauza handiak eman tuen munduari gero lurretik baldin badugu begiratzen zeruari.* (339. or., 1. bertsoa).
- *Norbaiti eman nintzan maitearen maitez.* (341. or., 2. bertsoa).
- *Nihori nehoiz ezin dut gorde ene aurpegi iluna.* (345. or., 2. bertsoa).

Xalbadorren liburua uztean, ondoan zeuden eta jarraian datozen beste bie ere gainbegirada arin bat eman nien, non ere berehala agertu ziren adibideak.

Bertsolaritzaren historia I Anonimoak. Patri Urkizu. Etor.

- *Eskerrak eman zagun zeruko Jainkoari* ("Frantsesak orhoit gaiten". 496. or., 11. bertsoa).
- *Gernikako haritza guzien aintzindari indar emaiten zuen harek bihotzeri.* ("Gernikako haritza". 21 or., 3. bertsoa).
- *Aberatsari zer erranen du ezkilak:*
"Zoin diren zaluak denboraren hegala!". ("Ezkila". 23. or., 7. bertsoa).
- *Hola segi gintazke gure egin-bideri.* ("Eskualdunen ganean". 26. or., 6. bertsoa).

Bertsolaritzaren historia II. 1545-1900. Patri Urkizu. Etor.

Bernart Etxepare

- *Ni, gaixoa, etsaiari nihaur jin niz eskura* (8. or., 5. bertsoa).

Piarres D'Ibarrart

- *Zorion hunen iraupena dut Jainko Jaunari galdatzen.* (590. o., 5. bertsoa).
- *Behatu zuen guri, bainan urrunetik.* (594. or., 4. bertsoa).
- *Erran ahal daiteke mundu guziari.* (623. or., 9. or.).

Jean Baptiste Elizanburu

- *Hu-pa, ama, ez dut nahi korda eman lepoari.* (454. or., 8. bertsoa).
- *Nola birundan arbolari da segitzen itzala.* (435. or., 10. bertsoa).
- *Arrano bati lotu zirela berrehun bele batean.* (445. or., 2. bertsoa).

Pierre Topet-Etxahun. (Bertsolaritzaren historia II)

- *Aitamer beinintzan hurreti hügüntu.* (813. or., 2. bertsoa).

Alexandre Dihinx

- *Ez nuen fitsik erran lore maiteari.* (385. or., 4. bertsoa).

Elizalde

- *Ohart hadi, gaixoa, lepoko sokari.* (405. or., 5. bertsoa).
- *Etxauzeko jaun handiak eztu zorrik Gaskoiner.* (408. or., 3. bertsoa).
- *Eruk lotsa egin dezan hik guri sail handirik.* (409. or., 5. bertsoa).

Jose Mendiage

- *Heiek ez dute egiten kasurik nehuri.* (695. or., 3. bertsoa).
- *Abiatua ziren lanari beti segitzen bazira.* (698. or., 6. bertsoa).

Jose Palassie

- *Itsasoari besoak ditut zabaltzen.* (798. or., 7. bertsoa).

Adibide hauetan guztietan, aditz transitiboekin batera, intransitiboak ere agertzen dira, non ere datiboa berdin sar edo omi daitekeen. Etxepareren adibideak zioen: *Ni, gaixoa, etsaiari nihaur jin niz eskura*. Ez nago ziur Etxeparek nola jarriko zuen (*nizaio?*), baina nik esan beharko nukeen: *Ni, gaixoa, etsaiari nihaur jin natzaio eskura*.

Tradizio sendo eta luzeko baliabide honi tiratuz, praktika askoz zabalagoa gara daiteke. Honako aditz paradigma bikoitzak, paraleloak, elkarrekin harmonia sanoan bizi litezke:

EMAN DEZAKET

<i>Zoriona eman diezaioket</i> →	<i>Zoriona eman dezaket hari.</i>
<i>Zoriona eman diezazuket</i> →	<i>Zoriona eman dezaket zuri</i>
<i>Zoriona eman diezazueket</i> →	<i>Zoriona eman dezaket zueri</i>
<i>Zoriona eman diezaieket</i> →	<i>Zoriona eman dezaket haiei</i>

EMAN DITZAKET

<i>Eskerrak eman diezazkioket</i>	→	<i>Eskerrak eman ditzaket hari</i>
<i>Eskerrak eman diezazkizuket</i>	→	<i>Eskerrak eman ditzaket zuri</i>
<i>Eskerrak eman diezazkizueket</i>	→	<i>Eskerrak eman ditzaket zueri</i>
<i>Eskerrak eman diezazkieket</i>	→	<i>Eskerrak eman ditzaket haiei</i>

EMAN NEZAN

<i>Bakea eman niezaion</i>	→	<i>Bakea eman nezan hari</i>
<i>Bakea eman niezazun</i>	→	<i>Bakea eman nezan zuri</i>
<i>Bakea eman niezazuen</i>	→	<i>Bakea eman nezan zueri</i>
<i>Bakea eman niezaïen</i>	→	<i>Bakea eman nezan haiei</i>

EMAN NITZAN

<i>Eskerrak eman niezazkion</i>	→	<i>Eskerrak eman nitzan hari</i>
<i>Eskerrak eman niezazkizun</i>	→	<i>Eskerrak eman nitzan zuri</i>
<i>Eskerrak eman niezazkizuen</i>	→	<i>Eskerrak eman nitzan zueri</i>
<i>Eskerrak eman niezazkien</i>	→	<i>Eskerrak eman nitzan haiei</i>

EMANGO ZENUKE

<i>Bakea emango zenidake</i>	→	<i>Bakea emango zenuke niri</i>
<i>Bakea emango zenioke</i>	→	<i>Bakea emango zenuke hari</i>
<i>Bakea emango zeniguke</i>	→	<i>Bakea emango zenuke guri</i>
<i>Bakea emango zenieke</i>	→	<i>Bakea emango zenuke haiei</i>

EMANGO ZENITUZKE

<i>Eskerrak emango zenizkidake</i>	→	<i>Eskerrak emango zenituzke niri</i>
<i>Eskerrak emango zenizkioket</i>	→	<i>Eskerrak emango zenituzke hari</i>
<i>Eskerrak emango zenizkiguke</i>	→	<i>Eskerrak emango zenituzke guri</i>
<i>Eskerrak emango zenizkietet</i>	→	<i>Eskerrak emango zenituzke haiei</i>

Eta horrelaxe beste guztiak. *Ezan* aditzaren taulak konparatuz

gero, datiboa barne ala kanpo dela, bitxia da sortzen den aldea.

<i>Eman niezazkion</i>	→	<i>Eman nitzan hari</i>
<i>Eman niezazkizun</i>	→	<i>Eman nitzan zuri</i>
<i>Eman diezazkioket</i>	→	<i>Eman ditzaket hari</i>
<i>Eman diezazkizuket</i>	→	<i>Eman ditzaket zuri</i>
<i>Eman niezazkizuke</i>	→	<i>Eman nitzake zuri</i>
<i>Eman liezazkiguke</i>	→	<i>Eman litzake guri</i>

Alde batetik, ia fedea bezalako zerbait behar da *nitzan* + *o* = *niezazkion*; *nitzan* + *zu* = *niezazkizun*; *nitzake* + *zu* = *niezazkizuke* bihurtzen ikusteko. Eta bestetik, datiboa kanpoan dela, bi hitz bereziak silaba bat laburrago dira aditz forma bakarra baino.

3) OBJEKTU PLURALA ADITZETIK KANPORA

Karlos Cid Abasolok dio:

"Nire ikasle asko oso poztuko dira proposamen horrekin!"

Azkenik, ebidentziaren garapena bururaino eroateko, aditza, datibotik ez ezik, objektu pluralatik ere askatzea besterik ez litzateke falta, arestian emandako aipu honen arabera:

– *Eskerrak eman zagun zeruko Jainkoari* ("Frantsesak orhoit gaiten". 496. or., 11. bertsoa).

Lehen *de*-aren *-(de)zagun-* ezabatze nahiko ohikoa alde batera utzita, esaldi horretan datiboa eta objektu plurala, biak kanporatu dira aditzetik, zeinak honela beharko zukeen, aditz batuaren arabera: *Eskerrak eman diezazkiogun zeruko Jainkoari*. Ez uste bertso anonimoa errakuntza edo deskuido bat izan denik. Euskaldun asko eta eskualde bat baino gehiago dira oso aspalditik, erdararik ia inork ez zekienetik, esaten datozenak: *emon daigun eskerrak Jaungoikoari*; *babak egosita jan dot*; *emoiok goraintziak neure partez*, eta abar eta abar. Soka horri gehiago tiratzen ez naiz luzatuko, norbaiti ez dakion beste soka mota bat burura.

4) DEZON, DEZOKE

Puntu hau sartu ala ez dudan egon naiz. Izan ere, aditz bakarrari ('ezan') eta hirugarren pertsonako datiboari bakarrrik daragion forma honek ez dauka, hurrik ere, aurreko hiru baliabideen garrantzi edo garapen posiblerako ahalmenik. Hirugarren pertsona singularra da gehienbat, nahiz eta badiren "dezen" (diezaien) bezalako formak ere. Egia da hirugarren pertsona singular horixe dela maizkoena, baina, hala ere, baliabidearen ibilbidea hortxe amaitzen da. Hona zenbait adibide, aipatu liburuetan aurkituak:

Odolaren mintzoa. Xalbador. Auspoa liburutegia, 1976.

- *Jendeak sujet huni kasu egin bezo*. (147. or., 1. bertsua).
- *Egin dezogun denek otoitz bat kartsua*:
Pompidou'ri ez dezon hets parabisua. (194. or., 8. bertsua).
- *Etx'aintzineko sagar arbolan xori bat zagon kantari*:
- *Gau hartan zerbait gertatu zela, beha nezon kanpoari*. (197. or., 1. bertsua).
- *Gure etxean sendi duk uda azkena*
- *Hi haiz uda berria ekar hezokena*. ("Semeari". 202. or., 8. bertsua).
Hurrengo hasten da:
- *Ekar dezokek bainan ez utzi gerora*.

Elissalde

- *Errozu ene partez milaka goraintzi*. (398. or., 3. bertsua).
- *Zato enekin eta errozu berari*. (399. or., 6. bertsua).

Dagigun orain zerrenda konparatibo bat:

- *Bezo, dezoket, dezokegu, nezoke, genezoke, lezoke, dezodan, dezogun, nezon, genezon...*
- *Biezaio, diezaioket, diezaiokegu, niezaioke, geniezaioke, liezaioke, diezaiodan, deizaiogun, niezaion, geniezaion.*

Baliabide guztiz errotu eta tradizio luzeko horren abantaila argia da, dagozkion aditz formak, batetik, asko errazten eta, bestetik, asko laburtzen baititu.

Hona, ondoren, adibide askotarik batzuk, non zenbait aplikazio ageri diren aurkeztutako ebidentziaren bidetik, eta idazkera batuan. Oraindik urrunegi eroan gabe, baina batuan idazten ari naizen kontzientzia osoz.

– Gure amak dio, behin edo behin, "padresito" bategaz egon behar dela, Jainkoak zortea eman deigun. Gu kolonbiarrak gara. ¡Deme suerte, padresito!

– "Ostuko balute, hobe baino ez, beste bat pinta deizuedan.

– Baina gauean, bakarrean, neure inbidia gaindiezinagaz oheratzen nintzen, atsegin osoaren benetako etorrera erregutuz. Ez zetorren, eta hutsunea zen Jainkoari eskain nezakeon bakarra, musikaren emozioak apur bat bete.

– Berriro begiratu zidan aurpegira, baina ez zuen ezer esan, baizik erizainari zeinu egin, ontzitxoak ekar zeidan.

– Musu bat eman daikezut? –Gehiago ez dut ikusi, baina musua ez da amaitzen.

– Areago, neu ez nintzen konturatzen noiz handitzen zen, konturatzeak egoerari buruzko gaintasan zerbait banuelako lasaitasuna eman ez zeidan. (Leiho batekiko izuez ari da).

– Monje edo lekaiame kaputxadunak albora begiratu gabe pasatzen dira, euren otoitz marmartuak helburu absorbenterantz baileramatzan. Inoiz, kaputxa barrenak altxatu izan dizkiet, tentuz-tentuz, baina ez dut lortu begira zeidaten.

– Dena agresibo eta opresibo nekusena bat-batean gozo eta poetiko dakust. Baita (zergatik lotsatu?) erabat erromantiko ere, bai baitakit non eta zein segurü dagoen ene laztan bakar eta osoki asegarria, nahi dudán guztian. Oraintxe, adibidez, eta oinez, animalien ezkutuan, inork jarraitu ez deidan.

– Neskatoak adi-adi dantzu itxialdiko bizitzari buruzko dena, ipuin bati legokeon arretaz, baina ez diot hortik lar ekin nahi.

– Zer egin dezoket zorteari, hain ontzi gozatsuan datorrenean?

– Karramarroak, golkoan edo sakeletan eroateko, piztia irrituak dira. Barrabilak zula ditzakezute, hartarakoxe diseinatuak balira bezala.

– Pentsatzen jarraitu nahi dut, nire kontzientzia pitza ez dadin, ur gabeko kanala bezala, eta horregatik nator zugana, neure nitasun preziatuari eusten lagun deidazun.

– Hala ere, norbaitek uste balu bere gogoia traditu dudala, eska bezait lasai zenbatekoa, itzul deiodan dirua. Aurkituko dut berriz ere non ostu kristauki.

– Guzurra badirudi be, hogeita sei urte behar izan zonazen, gorputzak berak, itxaroten gogaiturik, ikasgai praktikoa emon zeidan.

– Norinahi gogora zitekeon iluntasun salbagarria lortzeko nahikoa zela begiak ixtea.

– Euren mahaian esertzera gonbidatu nauten emakumeak, denak maitemingarri irudi daitezket, zutitu eta ezkidirantz abiatu diren arte, hondartzako eskudel kontratik.

– Edozer galde dezokezu edonori, denak baitaude euren banakotasun ezkutatua agertzeko prest, zeinaren forma atseginetako bat galdera bati erantzutea den.

– Intrigatzen ari nau, Gorentasun. Ez al da komeniko zerbait konkreta deidan berorrek?

– Horretan musikak abantaila osoa daroa, bere grina ez baita iraungitzen, bizitzen baizik, une honetan kontrakoa hobeto letorket baina.

IRAKURGAIAK

Atea zabalik zegoen, eta motorra bazihoan pasillo luzean barrura, berak ondo zekien zokora. *Zer episodio infernal ete jatorik barriro hemen!* Neskatoa atzetik zetorren, sukaldera sartu nintzen, bera ere bai, eta atea ondo itxi arte (etxe zahar hartan ez zen erraza ateak ondo ixtea), ez nintzen ausartu galdetzera:

– Zer gertatu da, Xune?

– Harrigarria! –darantzu aurpegikera estralurtarrez.

– Ez dirudizu izutuegi.

– Ez dakit zer sentimendu jagodan.

– Ez da esatekoa?

– Esan beharrekoa.

– Ba, esan lehenbailehen, neu zartatu aurretik.

– Karpo hil da!

– Ohhh... –hertu naiz plost, palmondoa gainera jausita. Hauxe ez nuen itxaroten.

– Hil egin da! –errepikatzen du, ni baino bera konbentzitu nahian bezala.

– Hil... –diot neuk ere, hitzaren esanahia osatu ezinik-. Ez dakizu zer sentimendu?

– Ez naz ausartzen ezer sentitzera.

– Ni zure lekuan ausartuko nintzateke. Poztu zaitez lasai, Xune! Ez eiozu biderik itxi moraltasun ooren aurrekoa den sentimendu bati. Sukalde honetan, behintzat. Nik, ofizioz, ezin dot inoren heriotzaren pozik agertu, baina Jainkoak, batzuetan, gauzak ondo egiten ditu.

– Bere gogoia izango zen hau?

– Kontrakoa ez, behintzat. Jesar gaitezen-. Horixe dagit, izterrak dar-dar. Berak zutik darrai.

– Orduan, amaitu da dana?

– Heriotza nik ulertzen dodana bada, bai.

– Ai, ama!

Orain ez urte asko, nerabe edo gazte neu ere, herriko neska nerabeek kartetan jokatzeko zutenean, nire desio kartsuetako bat eurekin nahastea zen. Urtzen nintzen pentsatzen, baina pentsatze hutsean amaitzen zen dena. Apaizgaiok ezin ginen neskengana hurreratu. Kartetan zebiltzaneko barre gangar, ijui basa haiek, delizien jardineko eszenak iruditzen zitzaizkidan mahai-bira haiek, neure gogoan bakarrik egiazten ziren, neu ere tarteko nintzela. Eta hor, garapen gorenean, fantastikoenean osatzen ziren, ondo barneratua bainuen ezen, pentsatzea libre bazen (edo ez bazen ere, atzietina bazen), onena pentsatu behar zela; errealtate egiazkoan bekaizten nituen pasarteen bertsiorik zoragarriena. Pentsamena. Erreinurik hedatsuen hori, zeinaren askapena, menperatuen egonik ere, norbere erabaki soil baten mende dagoen. Askapena bera, eta askatasunaren forma posible oro. Pentsatzeraino ezen nik, izaki neurtuak, lorpen neurrigabeak garatu ahal banituen, Jainkoaren pentsamen infinituak zertarako behar zuen errealtate finitu bat, deskuido batean izan ez bazen. Mundu honek, izan ere, posibleetan onena adina baitirudi Jainkoaren ahulaldi baten emaitza, zeren, filosofian berehala pentsatu nuenez, izaki finitua infinitura iristea ezinezko bazen, ezin zen posibleago izan izaki finitu bat zer finituen sorburu izatea. Baina ondo egin zuen mundu hau sortzeaz, Xunerekin kartaldi hau gerta zedin. Hots, beronen adinean desio nuena gerta zedin, maitemindu nauen bategaz, hain zuzen. Karta-jokoak bestela ezinezko edo ezin ausartuzko litzatekeena erarik naturalenean posible izan dizu. Aurpegiak hurbil-hurbil, belauak mahaipena ia elkar jotzen, bekoz beko eta luze begira dezakezu, behar duzu. Kartea begira, pentsatze plantak egin ditzakezu, bat-batean, begi irrifartsuak begi irrifartsuetara zuzenduz, galdetzeko edo galde-keinuak egiteko: *Badaukazuj?* *Hutsik ala beterik zagoz?* Aurrekoak, *ahh!* hots eginez, airean uzten zaitu; zuri xarma-gama osoa iruditzen zaizkizun keinu mota guztiekin. Saiatzen zara eusten, eutsi beharra baituzu. Ez duzu briska bat jaurtiko, triunfo inozoko batek jan dezan. Ohartzen zara zure "kontrario" xarmanta gozatzen ari dela zure zalantzaz. Azkenean, bateko urrea bota diozu, eta zausk jan dizu, baina ez biko triunfo bategaz, batekoagaz baizik, menpean zauzkala erakutsiz. Zu pozik menpetasun horregaz, nahiz amorru plantak egin. Hurrengo jokoan alderantziz gertatuko da. Bera dago larri, briskaz kargaturik, eta zuk *bota*,

bota!—diotsazu—. *Hiru briska badaukazuz, bati derrigor jaregin behar deusazu* — *Eta briska bi eta bateko triunfoa badaukadaz?* — *Aaahh!! Zeuk be horixe hots egin deustazu lehen.* Pentsaketa luze eta zure begien indagatzailean jardun ondoren, briska bota dizu, batekoa jaurtitzeak pena emanik. Zuk ez daukazu ezer. Hura bere poza, briska bat salbatu eta batekoa gorde izanaz! Eta harrotasuna, asmatu baitu. Begietan igarri dizu, luzaro begiraturik. Zuk bazenuen triunfo txiki bat, baina pasatzen utzi diozu, bere poz menperatzilea baino handiago baita zure poz menperatua. Beti ezin diozu, noski, irabazten utzi. Batzuetan, kartek menperatzen zaituzte, baina berak uste du zortea baino gehiago dela bere trebetasuna. Batzuetan, nahita ere ezin diozu irabazten utzi, kartek nabarmen faboratu baitzaituzte. Lilura guztiaren hondamena litzateke berak igartzea uzten ari zarela. (...). Sagar-begiak ireki zitzaizkion eta musu azkar bat eman zidan horma kontrara, igel-jauzia bezalakoa. Atea ireki zuen eta joan zen. Trataera "donsuak" (*Don Jabier!* esan zuen) musuaren alkantzua bere tokira ekarri zuen, baina nekez itxiko nuen inoiz aterik zirrara beteagoz. Ederra da bi ordurako maitemintzea.

Goazen, Kiko! —esanez orgatzen nuen zaldia goizero, egunsentia nabaritu baikoz. Kiko beti zen bidaiagura, benetako maitemindua bera bailitzan, baina beste zaldi bat ere prestatu nuen, Ziko, egunean bi itzuli esplotazio handiegi iruditurik. Berak nahi bazuen, bigarren zaldiari ere uzten nion jarraitzen, libreki eta ezereen zama gabe, eta horixe zegiten biek, niotsela: *Gero, egin beharra datorrenean, ez niri neke konturik aitatu, entzun?* Ez dakit zer ulertzen zuten, baina beti ziren atzean, borondatez edo biderako jakien pozean. Txakur eta beste animalia batzuk ere gehitu ziren, itsas hegaztiak barne (hauena inertzia izango zen, barkuekiko euren lotura mendetsua erreferentzia gabe gelditu zenean), eta azkenean, opari eskaintza baino gehiago zirudien aisia-txango didaktiko bat, eskolaz eskola aurkezteko prestatua, mundua aspaldi ez balitz bezala helburu oro gabetua, zeren, giza biziraule bakarra naizen hau desager dadinean, nork galdetuko du munduaren zentzuaz edo zertarakoaz, neu izanik galde-aroaren parentesia ixtea egokitu zaiona? Ez dirudi zentzuzko aro infinitesimal eta guztiz kontingente horri eskatzea gainerako guztiaren esplikazio izatea, kaikuakeria

litzatekeenez parentesi ñimiño batek esplikatzea *Denbora galduaren bila* osoa, edo eztultxo batek *Sinfonia fantastikoa*. Galdetzaila gabe, munduak berdin badarrai, darraikeenez, zertan letzake bere zentzua?

Amorotoko artearentzat, neure pentsalagun eta pentsaleku maiteari dagokionez, liburu mordo bat hautatu dut Lekeitioko Udal Bibliotekatik. Hautatu baino areago, irradan hartu, edonondik edozer, ikusteko ea Arturrek selekzio zorrotzagoa eskatzen duen ala hari ere bost axola dion munduan geratu zaidan ondare iraunkor ia bakarrak. Bidean, Kiko zaldiak tiraturik, neure organ noala, zaldi jarraitunari ez diot utzi nahi aleak usna edo mihizka ditzan. *Atzera, Ziko! Honeek jaki gogorregiak dozak hire este mizkinentzat*. Aitzakia ondo datorkit, zer daroan neuk ere disimulan begiratzeko. Diogenes Sinopeko eta Henry Miller hor datoz, behintzat, elkarren ondoan, berez gaizto bezain itxuraz mantso, marrazoa eta krokodiloa letozkeen moduan, biak ernal posizioa eskainiz, laguna beldugarriago delakoan. Aurrera begiratu behar dut, zaldi zamariak ere, Kikok, atzera begiratu nahi baitu, zerbait interesgarria ikusten ari ote naizen. Esku bategaz bridak maneiatzen ditudala, besteagaz badut zeregin aski deserrosoa atzeko zaldiaren mutur bibliofiloa zaintzen. Loreei ukitu ere ez die nahi barrabanak, euron lurrin antidiabolikoen beldur bailitzan. *Ziko! Aldeko dok hortik! Zelan esan behar deuat liburuak ez direla mukizapiak?* Azkenean, zaldiaren muturra uxatu beharrez, neu ere tentatu naiz zer datorren arakatzera, haztamuz. Pilo batek Santo Tomasen *Summa Theologiae* dirudi, baina Barandiaranen *Lan Guztiak* ere izan daitezke. *Arre, Kiko! Baztarrak bueltan ikusiko joguzak!* Beste pilo honek Balzacen *Giza Komedia* izan behar luke, baina *Bertsolari* aldizkariaren bilduma ere izan daiteke. Bai ukimen gutxi garatuagaz iritsi naizela azken bakardadera! Hurrengoak ez dago dudarik *Auñamendi Entziklopedia* izan behar duela, baina badago dudarik *Osasunaren Entziklopedia* ere izan daitekeela, oraintxe, hain zuzen, nor sendaturik ez daukadanean. *Artur maite! Txikiagoek be izan behar dabe tartean*. Zaldi bizioso horrek jan ez baditu, hor datozke nonbait *Harri eta herri, 100 metro, Ni ez naiz hemengoa...*

Kristorengan anai-arreba bihotzekook! Meza santua fedearen alkartasun salbagarrian ospatzeko egun aproposa genduen herriko zaindaria San Joanena, ebangelioak dinonari jarraituz: "Emoiozue Jainkoari Jainkoarena eta Zesarrari Zesarrarena". Eliza Jainkoaren etxea izanik, garbiena litzateke bertan ez exhibitzea ezein Zesarren sinbolorik. Herriko agintariei horixe proposatu deutset, onez onean, baina, dakusenez, ez dabe onartu. Gauzak horrela izanik, bidezko deritzot beste proposamen bat aurkezteari, alde biak konformatzeko balio leikeena, salmonikoa izan barik. Udaltzak bere nagusi errespetagarriak dituen legez, neuk be badot neure hierarkia agurgarria, Bilboko gotzain txit gorena, eta gorago Erromako zubia. Badakit nire goikoen guraria eta agindua –eta obeditzea dagokit– meza nagusi hau emona izatea dela. Agindu ezin dabena da entzuna be izatea. Horregaitik, sinbolo zesartar horren zainpean, zeuen kristau kontzientzia bortxaturik sentitzen dozuena meza entzuteko obligaziotik salbuesten zaituet, Jainkoaren aurrean neu erantzule nazela. Tarte bat emongo dot, beraz, gura dozuena elizatik urten daizuen, Jaunaren bakean.

- Hau amarru indignoa da! –orro dagi alkateak, zutik eta sutan.
- Hau neure berbalekua da, jauna. Zagoz trankil, zuentzat ez da mezarik faltako eta.

Meza nagusia bazihoan aurrera, bere normaltasun urrituan. (...) Jaunartzea iritsi zenean, ez alkateari ez inori ez zitzaiokeen bururatuko eguneko ezusterik aluena gertatzear zenik, meza-emailea esaten hasi zenean:

- Fedean senideok! Nire eskuek ezin dabe Kristoren gorputza ipini eliztar gehien sentiera eta Elizaren ordezkaria bortxatuz sartu direnen mihinean. Ukatu be ezin dot egin. Kontzientziak agintzen badeutsue, hemen dozue kopoi santua. Etor eta har zeuek bertatik.
- Hau txarrikeria da! –orro dagi alkateak, beso-goran zutituz.

– Ez da jaunartze bati jagokon berbakera, baina izan daiteke dinozuna, zeu be berton zagoz eta.

Herriko jaiak ere baziren, eta badirudi jendea ez zela etorri kalapita hutsera. Bandera espainolaren mugida era ezusteko eta kasik pikareskoan garatu izanak jendearen dibertsio gogoia piztu zuen, eta arrakastaren sentipen orokorrak erronomia emankorrako bihurtuko zuen, arlo hori ere nasai-premia gorrian aurkitzen zenean. Diktadura sektorialik ez baitago. Apaizok Derioko geure satora itzuli ginen. Eguna badirudi, herri hartan, umoretik eta sarkasmotik joan zela, eta biharamuneko egunkarietan fruituz irakurri genituen "irain nazional baten" kronika martzialak.

Artistarik genialena azarea da. Zertara joko duen inondik ere prebisiblea ez denez gero, ateratzen zaiona beti da originalena. Horrek ez du esan nahi onena, natura jakintsuak sobera frogatu duen bezala. Begi bakar bat non kokatu dudatzea ulergarri da, baina pareta izatekotan, ipini behar zigun bata aurrerantz eta bestea atzerantz. Atzea ere ez al zen, ba, gurea? Baietz dirudi, musika horiekin frogatzen den moduan, zeintzuk sintoniara kolpera iristean, autoa gelditu eta azpira begiratzen duzun, zerbait deskatxarratu ote den. Edo beste une horiek bezala, non desiatzen zauden alkohol kontrol batean geldi zaitzaten, bai baituzu ohartzeko adina ezaguera ez zaudela aurrerako moduan. (...). Munduan bakarrik gelditu nintzen, noiz eta probatzen hasi nintzenean bizitza sexual osoa izan daitekeela, harreman sexualik gabe. Ez, noski, emakume hura bezala, senarra etxetik falta zedin desiatzen zegoena, berak goiza bainuontzian pasatzeko, zimeldu arte masturbatzen. Beste era batera ere irudikatzen nuen bizitza: bikoteak paseatzen, elkartzen, dibertitzen, eztabaidatzen munduaz, arteaz, gizarteaz, giza izateaz... Gustatuko zitzaizkideen pentsamenduzko mundu batean bizitzea, baina mundu hori ez zegoen, niretzat behintzat. Beste artista handi askorentzat ere ez, antza, egia bada miserian edo munduaren eurekiko ignorantzian hil zirela. Hortik ezin dut atera neu artista handia

nintzenik. Unamunogan ere maiteen dudana da bere antz handia mosaiko kopto bateko irudi batena. Jubilatzen nintzenean, laster igarri nion munduak ez ninduela ezertarako behar. Ondo etorri zitzaidan, neuk ere munduagaz berdin egiteko, tamalez berandutxo baina. (...). Naturaren kontraesana da izaki arrazionala sortu zuela, irrazionalki jokatzeko jarraitzeko. Esan nahi baita izaki arrazionalok eragile irrazionalen mende dihardugula, neugan frogatua dudanez. Biolentzia eta harraparia naiz. Aldatu den bakarra da, neu bakarrik gelditzean, ezin naizela biolentzia izan. Izaki naturala ote naiz?

– Hau kentzen dauenari... hauxe egingo jako!

Mehatxu inkonkretu hori Bizkai guztian zabaldu zen, eta denek ulertzen zuten esanahia zehaztasun osoz, gehienei hainbesteko ignominia sinestezin egiten bazitzaien ere. Zenbat eta entzuleek errefus planta handiagoak egin, kontatzaileak gehiago gozatzen zuen haien burugogorra zulatzen. *Baietz, ba! Horixe esan joan!* Lehenengo erakuslean –"hau"–, oihal bat seinatu behar zen goian, edo haren barrenari heldu eta maiestate sakraleraz eragin. Bigarrenean –"hauxe"–, oihala seinatzen edo astintzen zuen esku bertikalak keinu horizontal azkar bat egingo zuen. Lepoa mozteko keinu unibertsala. Ez zen sinesterraza esaldi enigmatiko hura sermoi baten laburpena izan zitekeela. Artetako parrokoarena. Oihala bandera espainola zen, pulpitutik eliza erdirantz okertutako masta txiki batetik dilindatzen zena, azpiko giza masa txitatzeko hego bat bezala. Bandera espainolaren sar-irtenak ohiko ziren elizetan, agintarien aurrelari, egun edo ospakizun berezietan, baina, seguruenik, Artetako ia izango zen bakarra, espainiar txarkeria guztien sinboloak eliza bat etengabeki dominatzen zuena. (...) Eta egun hanpatu batez, ostu egin zuten. Baldin zaharra berri distiratsuz ordeztuko simulazio bat izan ez bazen, inork ez zezan pentsa izuaren bigentzia zaharkitzen zihoanik. Hitz inofentsibo eta keinu letaleko mehatxuagaz batera, sermoi ospetsu haren laburpena beste argibide doktrinalago batez osatzen zen:

– *Alperrik arriskatuko dozuez samak. Abadetxean badago hamalau gerraoste hornitzeko beste oihala.*

Bertako ez ziren herritarren atrebentzia bat Artetako elizan meza entzutea zen, hain ikuskizun harrigarria euren begiz ikusi nahirik. Ez ziren gehiegi, intentzioa igarriko ote zitzairen beldurrez. Turista kostazaleen igaro-herri izateak amarrua erabat estal zezakeen arren, badirudi beldurrak bere burua bakarrik ikusteko agindua duela, zirkunstantziei begiratu gabe. Gehiago ziren beste turista mota batzuk, bandera espainolaren azpian meza osoagoa gozatzeko pozean sartzen zirenak, edo euren presentzia deigarritz parroko etsenplar hura loriatu nahi zutenak. Batzuk egoeragaz eta gehienak bizimoduagaz gustura ziren eliz-aginte ertainak ez ziren eroso aurkitzen euren kide hurbil baten ostentazio politiko hain nabarmenean, eta ez ziren falta izan goi hierarkietara jotzeko ahaleginak ere (oso ezkutuan, badaezpada), baina dena amaitzen zen Bilbora joan-etorri bistoso batean, bazkari mardul eta guzti, Begoñako Ama bisitatu ondoren. Honek badirudi ondorengo edozein zorion magaltzen zuela, behin hiriburuaino iritsita, denean hutsik itzultzea ez baitzitekeen izan probidentzia sanao. *Ezin da ezer egin*, izaten zen gotzainaren edo goragokoen erantzuna, Aita Santuaren nuntzioagana ere jo izan baitzen, Madrilen. Ezer ezin egite hori Francoren heriotza ondoren ere asko luzatuko zen, bai baitirudi heriotzak ere beldur ziola Artetako parrokoari. Herritik itsasoranzko errepede bazterrak bere sotana beltzez tarrastzen, ia ekortzen ikusiko zuten urteetan, geroz okerrago, egutera epelean, sugandilen konpainian. Batzuk gelditzen zitzaizkion (geroz gutxiago, diktadorearen heriotza urrundu ahala), eskuan muin emateko, baina gehienek artean, Gernikaldean, esaera zabaldu zen: *Azkenean, kotxe batek jotzetik be libratu behar jok horrexek!* Noizbait hil zenean, Artetako herrian, askapen sentsazioa baino txikiago ez zen izan ondoeza ezen paisaiaren ezaugarri kasik berezkitzat bizi izandako espektroaren gabeziara egokitu beharra.

Baurregi ez da herri handia, baina harro daiteke arrazoiz, itsasoak beronen izaterik ederrenaren behatokitatzat altxatu zuelako. Itsasoa, izan ere, izan daiteke mugimenduango immentsitatearen espresio gorena, baina edertasun bereizia, zehaztua, itsasertzak damaio. Baurregik immentsitate esentzial horri itsasertz fabulos baten moztura eransten dio. Ezin da

bertarantz hurreratu, goitik agertuko den ikuspegi beti originalaren emozioa igo ahala handitzen sentitu gabe, barne olatu bat bezala. Sentsazio horretatik ez da libratzen ikuspen amorragarri baten konprobaziorantz doana ere, orain goazen moduan. Elizan sartu garenean, presbiterioko estampak gure barne olatua laster bihurtu du labar. Gorpuzti eguna da, eta aldare inguruak lirio eta larrosa ugariz apaindurik daude erretaularen altuera erdiraino. Gorago Jainkoaren kupula dago, baina hori kota arriskutsua da, antza. Eliza ohiki handiegia txiki gelditu da, herri guztia barruan hartzeko nola zabaldu ez dakiela. Egia da aurreko jarlekuak udalbatzak eta beste zenbait agintari edo kargu gonbidatuk betetzen dituztela, erdizka, inor ez baita gehiegi hurbiltzera ausartzen solemnitare osoaren erdigune izan nahi duela dirudien bandera espainolaren ingurura, zeinak zenbait zuhaitzen antzeko efektua dagien; belar eta landare oro itorik, zirkulu huts bat zabaltzen dute bueltan, esanez bezala: *Nire azpiak ez du onartzen orbela besterik.* Horrek ez du kentzen harrigarriago egin dakigun aldareko mailadi-buruko alde bietan gizon armatu bana tente ikustea (guardia zibil bikotea), bere arma halaber tente eta luzeari kanoi muturretik eutsiz, halako eran non bien artetik aldarea ikusten baita apaiz meza-emaile eta akolitoekin, eta gorago, lau zutabe xumeko tabernakulua, Txit Santuaren urrezko custodia erakutsiz. Sagarakoan, bandera espainola aldarerantz makurtu da, guardia zibilak genuflexio eran belaunikatu dira, eta hona orain ikuskizunaren bortitzena, norbere begiez dudarazten duena, ikusteak ezin baitu sinestea segurtu: bi armek hostia santura apuntatzen dute, tiratzeko posizio totalean. Asmoa "erreberentzia eta zerbitzu seinalea" izango da, baina gatilu bat deskuidatuko balitz, hostia santua bihotz-bihotzean zulatuko luke. Armak deskargaturik egotea ere pentsagarri da, noski, baina ikuspenaren inpaktua ez da ezertan txikitzen. Elizpean, banda batek espainiar himnoa jotzen du, eta jarraian, Falangearen *Cara al sol-a*, Zegamako Juan Telleria musikari euskaldunaren ekarpen nagusia Espainiari. Ikusten edo bere berri jakiten ohituta gauden errepresentazio globalaren barruan, gehien, duda gabe, guardia zibil bikotearen armek inpresionatu gaituzte, Baurregin baizik ezagutu ez dugun detailea berau, nahiz eta, gure ezagutzara heldua izan ez arren, ohitura orokorrako baten konpliera izan behar duen nahitaez, ezin baita pentsatu honelako herritxo bat gai izan daitekeenik horren eszena sinistrea asmatzeko.

- Betor lehen lekukoa! -agindu zuen mahaiburuak-. Izen-abizenak, mesedez?
- Agurtzane Belaustegigoitia Zarakondegi.
- Abizen horiekin hasi al zinen oinez?
- Nik oroimenaren aurretik dakit oinez, jauna.
- Sortzetik agian?
- Lehenagotik seguruenik, oroimenaren aurrekoa eternitatea bada.
- Nola dakizu oroimenaren aurrekoa zer den?
- Horrexegatik esan dut baldintza eran.
- Hemen baldintzak auzitegiak bakarrik jartzen ditu.
- Orduan, badela esan behar dut?
- Hori neuk ere esan nezake.
- Berorrek ez dauzka nire abizenak, jauna.
- Ez, noski, Jainkoari eskerrak! Zin dagizu egia, egia osoa eta egia bakarrik esango duzula?
- Egia nire ohitura da, jauna.
- Baina hemen obligazio da.
- Zin dagit, jauna, obligazioa ez dut lar gogoko baina.
- Badirudi lekukoak hizketa erraza dakarrela, eta defentsak erreparorik ez badu, galdeketa neuk hasi nahi nuke, Ministerio Publikoa ere, ohiko txikilearen orde, flemoiagaz etorri baitzaigu.
- Erreparorik bat ere ez, jauna -defentsak-. Kasik nahiago baino ez.
- Ministerio Publikoak ez dio ezer?
- Konforme, jauna -fiskalak-, zehazpen bat onartzen bada ezen flemaia eta txiklea ez direla inkompatibleak.
- Onartua, bistako zernahi bezala! Aizu, lekuko andereño! Akusatuaren lagun intimoa zara?
- Intimoa inondik ere ez, jauna, eta laguna ere nekez. Ezaguna soilik, eta urruna.
- Nondik ezaguna?
- Herri Gaztediko kontseilari den aldetik.
- Hartaz akusatua den bere sermoia entzun al zenuen?
- Irakurri bakarrik, Caracasko Gudari aldizkariak gaztelaniaz argitaratu zuena. Baita, geroago, Baionako Enbatan ere, frantsesez.

- Nork bidali zituen itzulpenak aldizkari horietara?
- Usainik ere ez, jauna.
- Nola eskuratu zenituen aldizkari ilegal horiek?
- Aldizkari horiek Caracasen eta Baionan legalak dira, jauna.
- Baina Espainian ilegalak!
- Baionan irakurri nituen, jauna.
- Biarritzera film zikinen eta Baionara gai subertsiboen bila doazenetakoa zara?
- Osaba-izebak bisitatzera bakarrik joaten naiz Baionara, jauna.
- Iheslariak?
- Ez iheslari, ez zinelari, jauna. Gerrak bidaliak.
- Gerrak? Ikertuko dugu hori ere. Erantzun orain defentsak galdetzen dizunari.
- Defentsaren aldetik, milesker, jauna. Berorren baimenaz, jauna, defentsa honek ez dakus ezer galdetzeko premiarik.
- Zeuk ekarritako lekukoari ez diozu ezer galdetu behar?
- Berorrek egin duen galdeketa egokitzat eta nahikotzat jotzen du defentsak, jauna.
- Epaimahaia defentsaren aldean kokatu nahi al duzu?
- Defentsak ez du epaimahaiak ondo egindako lan bat aitortu baizik nahi.
- Koipe-taktika ez al dirudi horrek?
- Defentsa ez da ari justizia kompetente batez kolaboratzen baizik, jauna.
- Erretira zaitzke, andereño. Betor bigarren lekukoa.
- Izen-abizenak esango al dizkiozu, mesedez, auzitegiari? -agintzen dio defentsak bigarren lekukoari.
- Geldi hor! -aztoratzen da mahaiburua-. Auzitegia ordeztu nahi al du defentsak?
- Barka, jauna, baina defentsak ez du ulertzen.
- Noiztik da defentsaren zeregina lekukoaren nortasuna galdetzea?
- Oh, barka, jauna. Oharkabearen jukutria izango zen, aurreko lekukoagaz berorrek egindako lana eskertu guran edo.
- Begira bedi defentsa auzitegiaren lana eskertzetik, eta muga bedi bere zeregin doira.
- Bai, jauna. Horretantxe saiatuko gara, jauna.
- Orain zuk, lekuko berri -eta barka nahasmen quevedotar hau-, esan,

- mesedez, auzitegiari zeure izen-abizenak.
- Gergorio Antselmo Zamarripa Arantzamendi.
 - Abizenekin nahiko kalbario genuela, izenak ere deabrutu behar al zaizkigu orain? –kargu hartzen du mahaiburuak.
 - Barka, jauna, baina berriz ere defentsak ez du ulertzen –defentsak.
 - Galdera ez zen defentsarentzat, lekukoarentzat baizik.
 - Nik zer erantzun behar dut, jauna? –lekukoak.
 - Zeintzuk izen esan dituzu?
 - Gergorio Antselmo.
 - Auzitegiak jasotzeko moduan ezin dituzu esan?
 - Nire jaiotza eta bataio agirietan horrelaxe datoz, jauna.
 - Non eta noiz jaioa zara?
 - Bizkaiko Bermution, Bigarren Errepublikako lehen urtean.
 - Ez al dakizu Errepublika hori derrotatua izan zela?
 - Batzuk bizirik gelditu ginen, jauna.
 - Baina izenak hil ziren! Esan itzazu bigentzia ofizialean.
 - Gregorio Antselmo?
 - Bigarrena ere bai!
 - Gregorio... Anselmo?
 - Jarrai bedi deklarazioa!
 - Eskerrik asko, jauna –defentsak–. Berorren baimenaz, jauna, lekukoari: ezagutzen al duzu akusatua?
 - Motiboak badituz.
 - Zer zara berea?
 - Parrokoa.
 - Entzun al zenuen sermoia?
 - Entzun ez, beste eliza batean meza eman behar bainuen, baina irakurri bai, astebete lehenago aurkeztu baitzidan, zer irizten nion.
 - Zer iritzi zenion?
 - Nire izen santu bietako edozein doktorek, Done Gergorio Handiak zein Done Antselmo Canterburykok...
 - Berriz ere? –mahaiburuak, mahaia mailukatuz.
 - Zera... –ahopeko marmarrean 2. lekukoak– argudio ontologikoa baino zailago duk hemen deklaratzeara.
 - Ezin duzu ozenago hitz egin? –mahaiburuak.
 - Bai, jauna, barka. San Gregorio Handiak zein San Anselmo ez txikiagoak

- egingo zuketen bezain eskolastikoa, sermoia.
- Zer esan nahi duzu “eskolastiko” horregaz?
 - Logika osokoa. Zintzoa eta zuzena, alegia.
 - Beude doktoreak eta santuak, eta lot zaitez galderari. Defentsa ere saia bedi galderak zehazten, ez dibagatzeko moduan.
 - Milesker, jauna! –apaltzen da defentsa–. Ahalegin faltan ez da geldituko. Berorren baimenaz, jauna. Beraz, Gergo... Gregorio Anselmo! Zuk, akusatuaaren parroko zaren aldetik eta, beraz, akusatuaaren eliztar guztiena ere bai, nola esango zenuke...
 - Hara! –mozten du orain lekukoak–. Nik badakit abokatuok galderak egiten trebeak zaretela, erantzunak loratzeko, baina nire esatekoa bakarra eta sinplea da. Ezagutzen duzu Julio Iglesias?
 - Julio zer? –abokatu defentsoreak, harriturik.
 - Mediterraneoan arrasatzen ari den fenomeno hori ez duzu ezagutzen?
 - Zertara dator hemen Julio Iglesias? –mahaiburuak, purrustan.
 - Oraintxe, neuk ere ez dakit garbi, jauna –2. lekukoak–, ze defentsak ez badaki... Berorrek ez al du Julio Iglesiasen...
 - Nola ez dut, ba, izen hori entzuna izango? –mahaiburuak, iraindurik.
 - Eskerrak epaileak abokatuak baino aktualago dauden! Ba, aulki horretan eserita dagoen Humberto Gastibeltza hori Julio Iglesias baino ospetsuago dago Euskal Herrian. Eta maiteago, zer esanik ere ez!
 - Hori deklaratzera etorri al zara Madrilera? –mahaiburuak.
 - Gehiago esan behar al da?
 - Lekuko ez al zatoz?
 - Orduan, entzun beza profezia bat, Jeremias oso maitea duen parroko baten aldetik. Herrian “Don Humberto” eta Euskal Herrian “Gastibeltza abadea” bezala ezagutzen denaren entzutea epaiketa honi esker asko handitu bada, hamaikaz bidertuko da, kondenaturik gerta baledi. Estimua, berriz, Jainkoak jakin zenbatean.
 - Mahai agurgarri! –defentsak auzitegiari–. Apur bat kostata bazen ere, zerbait konkretua deklaratu zezan lortu dugunez gero, defentsak nahiago du lekukoari beste galderarik ez egitea.
 - Defentsa aise nekaorra gertatu zaigu gaur! –mahaiburuak–. Betor hurrengo lekukoa. Izen-abizenak, mesedez?
 - Luis Mariano Otxandategi Urrutibeaskoa.
 - Izen horiek ez al dute ordainik, aurreko lekukoaren jargoian bezala?

- mahaiburuak.
- Jargoi hori euskara deritzon hizkuntza da, jauna, eta izan daiteke, esaterako, Koldo Mirendar.
- Esaterako? Zenbat era daude, ba?
- Ba, esaterako, lehenengo Koldobika eta bigarrena Maritxunorazoaz.
- Ondo dago! Izenena horretan utzirik, defentsari eskatuko genioke hurrengoan ekar ditzala lekukoak, abizen soziablegokoak.
- Eskerrik asko, jauna –defentsak–. Berorren baimenaz, jauna, orain lekukoari. Nondik ezagutzen duzu Don Humberto?
- Geldi hor! –mahaiburuak, mailukada batez–. Hemen ez dago Don-ik, auzitegiko kideak eta beste funtzio eta pertsona ofizial eta legalak salbu, defentsa barne.
- Orduan denak barne, akusatua salbu?
- Salbu!
- Milesker, jauna. Berorren baimenaz, jauna. Nondik ezagutzen duzu zuk, Don Luis Mariano...
- Ni Don? –3. lekukoak, zurturik.
- Ez al diozu mahaiburuari entzun "akusatua salbu"?
- Entzun diot –3. lekukoak–, baina, Don izatekotan, kasik nahiago dut Donizeto izan.
- Aski! –beste mailukada batez, mahaiburuak–. Ezin al dugu epaiketan aurrera egin, era arrazionalagoan?
- Milesker, jauna –defentsak–. Berorren baimenaz, jauna. Nondik ezagutzen duzu Gastibeltza abadea?

5. EBIDENTZIA / 2.- ADITZA LABURTZEA KOMENI DA, ETA ADITZ TRINKOAK GALBIDETIK GARAPENERANTZ BIDERATU BEHAR DIRA

Euskara batuaren bigarren jaiotza-n, 103. orrialdetik aurrera, elkarrizketa luze bat dator euskaraz, eta jarraian, gaztelaniazko itzulpena. Bi testuen luzerak zenbaturik, honako ondorioak ateratzen ziren:

"Euskarazko testuan 880 silaba zenbatu ditut. Erdarazkoan, 656. Bietan egin beharreko sinalefa guztiak eginda atera ditut kopuruak. Zenbakiak ehunekora ekarrita, 100-75 proportzioa irteten da (...) Badakit

hizkuntza bataren eta bestearen esakuntzak ezin direla mekanikoki konparatu, baina, gutxi gorabehera, proportzio horretatik eskapatzerik ez dago (...) Alde horren erantzule nagusia aditza dugu (...) Testu luze eta diskurtsiboetan ez da hain nabaria izaten, aditzak beste era batera banatzen direlako (...) Baina esaldi laburretan, sarritan, aditz bakarra dago, bera jokatua eta, gehienez, perifrastikoa, aditz trinkoak oso gutxi baitira. Elkarrizketak eta hizkuntza mintzatuko eredu gehienak horrelakoak dira".

Gaztelaniarekiko erlazioa frantsesean handitu egingo litzateke, eta ingelesean zer esanik ere ez. Susmoa daukat katalana ere gaztelania baino laburrago dela. Hala ere, oro har, gure inguruko hizkuntza garatuen artean ez da aterako gorabehera handiegirik, denek jokatzen baitute, gehienbat, aditz trinkoz. Edo, behintzat, ez dute arrastatzen gure aditz perifrastikoaren zamarik. Honi gehitzen bazaio euskal aditz asko bi elementuz osatzen direla (*negar egin, barre egin, maite ukan, porrot egin...*), orduan gaztelaniazko, adibidez: *lloras, llorarías, respiras, huías...* euskaraz esan behar dira: *negar egiten duzu, negar egingo zenuke, arnasa hartzen duzu, ihes egiten zenuen*.

Hizkuntza garatuekiko lehia hurbil eta direktoan gabiltzala, ebidentzia bat da laburtasunaren "komententzia", bigunki esanda. Argi esanda, premia bat. Premia hori ez da, noski, sumatzen sukaldean, tabernan edo gaupasan, non orduak, zenbat luzeago, hainbat gozoago diren. Gaur egungo hizkuntza batean, ostera (lehenago ere bai, beste era batera), espazioak konprimitu beharreko okasioak etengabe eta amaigabeak dira. Irrati eta telebista hizkuntzako esaldi laburrak, filmetako elkarrizketak, titularrak, formulazioak, definizioak, azpi-tituluak, komikiak, iragarkiak, leloak, sloganak, kankak, publizitate guztia, kartelak, kale eta bideetan aurkitzen den hizkuntza idatzia... Hitzen espazioa estutu behar den guztian, euskaraz larri gabiltza, eta sarritan motz (luzeagatik), esan beharrekoak esan gabe edo erdi esanda utzi behar baitira.

Urte mordo da, Josu Zabalak kanta ipar-irlandar baten itzulpena eskatu zidana, Hertzainak taldean euskarazko bertsio bat egiteko. Kanta batean ez dago eskapurik. Itzulpenak jatorrizko testuaren neurria egokitu behar du, ez luzeago, ez laburrago. Laburrago irteteko arriskurik ez zegoen. Neurriaz gainera, itzulpenak ondo kantagarri izateko moduan

gelditu behar du. Zorionez, euskarak horretan ez du izaten arazo handirik. Nire oztopo nagusia luze-laburra zen. Euskarak, bistara, laburrago ematen du, deklinabide erantsiari esker. Ingelesak, alderantziz, hainbeste silabakar ditu, eta sarritan, silaba bakoitzean hainbeste hizki. Paperaren engainu hori, ahoskatzen hasiz gero, berehala desegiten da. Ahalegin guztiak egin nituen, baina, irakurlea berehala ohartuko denez, estutze eta elipsi guztiekin ere (batez ere, aditzenak), ideia eta ñabardura asko itzulpenetik at utzi behar izan ziren. Iritz beza irakurleak berak, nahiko bistan baitago.

NO TIME FOR LOVE

They call it the law, we call it apartheid, internment, conscription,
partition and silence
It 's the law that they make to keep you and me where they think we belong
They hide behind steel and bullet-proof glass, machine guns and spies,
And they tell us who suffer the tear gas and the torture that we're in the wrong.

No time for love if they come in the morning
No time to show tears or for fears in the morning
No time for goodbye, no time to ask why,
And the sound of the siren's the cry of the morning.

They suffered the torture, they rotted in cells, went crazy, wrote letters
and died.
The limits of pain they endured, but the loneliness got them instead
And the courts gave them justice as justice is given by well-mannered thugs.
Sometimes they fought for the will to survive, but more times they just
wished they were dead.

No time for love if they come in the morning...

They took away young Francis Hughes and his cousin Tom McIlwee as well
They came for Patsy O'Hara and Bobby Sands and some of his friends.
In Boston, Chicago, Saigon, Santiago, Warsaw and Belfast
And places that never make headlines, the list never ends..

No time for love if they come in the morning...

The boys in blue are only a few of the everyday cops on the beat,
The C.I.D. Branchmen, the blacks and the gilmores do they job as well,
Behind them the men who tap phones, take photos, programme computers
and files
And the man who tells them when to come and yake you to your cell.

No time for love if they come in the morning...

Come all you people who give to your sisters and brothers the will to fight on,
They say you can get used to a war, that doesn't mean that the war isn't on.
The fish need the sea to survive just like your people need you
And the death squad can only get through to them if first they can get
through to you

No time for love if they come in the morning...

Yes the sound of the siren's the cry of the morning.
Oh the sound of the siren's the cry of the morning.

*Haien legea guretzat apartheid, gartzela, ihesa, hauspena ta isiltzea
hoien legea, zu ta ni euren gisara eukitzea
gordeak dituzu arma ta izpien kontrako altzairu atzean
eta gu negar gasen mende gaudenok oker omen gaude*

*Ez dute uzten maitatzen gauean
ez agurrik ez negarrik gauean
ez zergatik ez norarik gabe
sirenotsa garrasi bakarra gauean.*

*Tortura sufritzen, zeldetan usteltzen, gutunak idazten eta bertan hil.
Eutsi zioten minari, baina bakardadeak irentsi
gorteek justizia egin zieten matoi txukunen gisara*



BILBAO
UDALA
AYUNTAMIENTO

Bidebarrietako Liburutegi Zentrala
Biblioteka Central de Bidebarrieta

Maiz borrokatuak iraun gogoz, baina maizago hiltzea nahi.

Ez dute uzten maitatzen gauean...

Eraman zuten Francis Hughes gaztea, baita haren lengusu Tom McElwee ere etorri ziren Patsy Ohara, Bobby Sands ta lagunak bila Bostonen, Chicagon, Saigonen; Santiagon, Varsovian, Gasteizen eta Belfasten eta beste hainbat lekutan, hau zerrenda amaigabea!

Zatozte anaiei borrokan lagundu nahi duten guztiak gerrara ohitu zintezke, baina gerra egon badago arrainak itsasoa behar du ta herriak zu behar zaitu gure gogoak iraun artean ez da beldurra nagusituko.

Ez dute uzten maitatzen gauean ez agurrik ez negarrik gauean ez zergatik ez norarik gabe sirenotsa garrasi bakarria gauean. Sirena garrasi bakarria gauean.

Ahalegin guztiak eginda, horrelaxe gelditu zen. Pentsa, adibidez, lehen lerroan:

– They call it the law, we call it apartheid, internment, conscription, partition and silence

honela hastea izan balitz: *Eurek legea deitzen diote, guk apartheidia deitzen diogu, kartzela...* Amaitu da jatorrizko neurriak lerro horretarako ematen zuena. Eta horrelatsu aurreranzko guztian. "They call it" ordez, "they say" izan balitz, itzul zitekeen: *Eurek legea diote*. Aditz trinkoa berau. Apur bat hurbildu gara. Gehiago hurbil gaitzake artikulua kenduta: *Eurek lege diote, guk apartheid diogu*. Gehiago ezin da hurbildu, elipsietan sartu ezik: *Eurek lege diote, guk apartheid*. Elipsia azkeneraino eramanez: *Eurek lege, guk apartheid*. Gehiago ezin da hurbildu. Baina azken hau, kontestutik at, okergarri litzateke, edozer izan baitaiteke. Aurretik "deitu" edo "esan" aditza erabili bada, horixe da ondoren eliditu dela ulertzekoa, baina esan

bada, adibidez: *Eurek justizia nahi dute, guk bakea nahi dugu. Eurek legea, guk apartheidia*. Kasu honetan, elipsidun testuak kantaren guztiz kontrakoa esan nahiko luke. Norbaitek lerrake: "Eta zergatik ez elipsia baliatu, kontestutak onartzen duen neurriraino?". Bai, noski, baina konparazioak berdinean egin behar dira. Elipsietan sartuz gero, ingelesa ez da euskara baino gutxiago izango. Gertatzen dena, normalean ingelesak ez duela hainbesteko premiarik, berez ere oso hizkuntza laburtua baita. Baina bai. Onar dezagun elipsia baliabide zilegia eta praktikoa dela. Zer besterik egiten dugu, ba?

1) ELIPSIA

Berau da erabili ohi ditugun bi baliabide handietako bat. Gorago aipatu bezala, testu bat denbora edo espazio zehatz batera mugatu behar denean, elipsira jotzen dugu, ahalik edukirik gutxien eliminatu ahal izateko. Alde horretatik esan dezakegu euskarak elipsia asko garatu duela, premiak eraginda. Eta elipsia, gehienbat, aditzean praktikatzen da, hortxe baitago gako nagusia. Hain zuzen, aditz laguntzailean, zeina ezabatu arren, aditz nagusiak ondo eusten baitio esanahiari. *Tikerik nahi?* galdetu dizute autopistan. 'Duzu' jan du. Galdetzaila zeu bazara, langileak ez dizula eman ikusirik, esan dezakezu: *Tikerik bai?* Eta berak: *Ah, bai, barka!* Zuk zer ezabatu duzu, "tikerik bai" galdetzean? Ba, "tikerik emango didazu?" edo horrelako zerbait. Elipsia, neurri batean, baliabide bizia eta airosoa da, hizkuntza guztiek erruz praktikatzen dutena. Bere erabilera sistematikoa, ordea, akats edo gabezia literario handi bat bilaka daiteke. Euskarak horixe gertatzeko arriskua dauka, filmetako itzulpenetan-eta maiz gertatzen dena.

2) ADITZ TRINKOA

Baliabiderik handiena, duda gabe, aditz trinkoa da. Kontua 2-3 silabaren artean dabilenean, ez da arazo handirik izaten. Silaba bakarreko aditz formak oso gutxi ditugu: *naiz, haiz, da, du, duk, zait, zaik, dik, dit, nau, hau...* Bikoak asko dira: *gara, zara, dira, zaigu, digu, dute, nuen, zuen, luke, nago, dabil, dakar, dauka, dator, bego...* eta abar eta abar. Berdin hirukoak: *dakigu, daukagu, ditugu, genuke, darama, darabil, zatozte, dagozkit...* Askok dira, eta eurak tokatzen direnean, ondo gabiltza.

Denak dira, ordea, aditz trinko gutxiren ingurukoak, eta, nahiz eurak izan maizkoenak, aditzen gehiengoa perifrastikoa da. Hala ere, maiz egin ohi dugu (eta hau ere baliabide bat da) esapideak beste esapide sinonimo edo antzeko era batera egokitu, laburtzeko edo hobeto koadratzeko. Arestian aipatu bezala, jatorrizkoak badio: "eurek legea deitzen diote, guk *apartheida deitzen diogu*", antzeko honetara ekar genezake: "eurek legea diote, guk *apartheida diogu*". Gehienetan, horixe dagigu: aditz perifrastikoa aditz trinko batez ordeztu. Horrexegatik da, kantetan eta abar, aditz trinkoak, erlatiboki bakanak izanik, askoz gehiago agertzea aditz perifrastikoa baino, eurok gehiengo ia totala izanik. Baliabide horren gehiegizko erabilera espresioaren murritztea dakar, beti jokaldi berdintsura jotzearen ondorioz. Baina sarritan, ia gehienetan, ezin da horixe ere egin. Ezin da elipsiaz edo esamolde aldaketaz abusatu.

Demagun Descartesen formulazio unibertsalki ospetsua: *Cogito, ergo sum*. 'Esse' aditza (sum) orain *existitu* bezala itzultzen da. Gaztelaniaz: "Pienso, luego existo". Euskaraz: "Pentsatzen dut, beraz existitzen naiz". Latinez 5 silaba, sinalefa eginez. Gaztelaniaz 6, hemen ere sinalefa eginez. Euskaraz 11. Ezin da laburtu, eta aditzak ezin dira ordeztu. "Pentsatu" eta "existitu" izan behar dute. Demagun orain, fikzio-jolas bat eginez, bi aditzok trinkoan jokatzen ditugula: *Pentsat, beraz nexist*". 6 silaba. Latinak bezala, *izan* erabiliz: *Pentsat, beraz banaiz*. Edo nahitaezko ez litzatekeen "ba" hori ezabaturik: *Pentsat, beraz naiz*. Gaztelaniaz: *Pienso, luego soy*. Orain hiru hizkuntzak berdindu dira 5 silabatan, latinari sinalefa eginez. Darabilguni gai nagusira itzuliz eta bertan zentratuz, garrantzitsuena da ondorio ebidente bat: aditz trinkoen balioa askoz handiagoa da perifrastikoena baino. Besteak beste, trinkoa perifrastiko bihur daiteke, nahi duenean: *dator-etortzen da, letozkegu-etorriko litzazkiguke*... Perifrastikoek ezin dute trinko bihurtu.

Honenbestez, eta albo-auzietan distrahitu gabe, gatozen berrero ebidentziaren aurkezpena. Alde batetik, aditza laburtzea komeni da. Niretzat ebidentzia bat da, hizkuntza "lehiakor" baten eremu asko eta guztiz garrantzitsueta labur-premiak ikusiz gero. Bestetik, operazio horren giltza nagusia aditz trinkoa da. Eta aditz trinkoak badaude. Irakurri izan ditut iruzkinak, euren defentsa anakronismoa bailitzan. Ba, aditz

trinkoa existitzen da! Aditz guztien proportzioan oso bakanak badira ere, ez dira uste bezain gutxi. Hona zerrenda bat, exhaustiboa izan asmorik ez duena, baina behinenak, dudarik gabe, bertan daudena.

Laguntzaileak: *izan* (naiz...), *edun* (dut...), *edin* (nadin...), *iten* (?) (naiten...), *ezan* (dezan, dezaket...), *e(g)in* (daiket, leike...), *eutsi* (deutsat, neutsan...).

Gainerakoak: *atxiki* (datxeko, datxeko...), *eduki* (daukat...), *egin* (dagit, dagizu ...), *egon* (dago...), *ekarri* (dakar...), *eman* (demagun, emaitza...), *entzun* (dantzut, dantzugu...), *erabili* (darabil...), *eragon* (daragoio, zeragoio...), *eraman* (daramat...), *erasi* (darasa, zerasan...), *erauntsi* (darauntsa...), *erautsi* (dirautsa, dirautsut...), *eroan* (daroat...), *erran* (errozu, lerrake...), *esan* (diot, diote...), *etorri* (nator...), *etzan* (datza, letzake...), *ezagutu* (dazagut, nezaguke...), *ibili* (nabil...), *ihardun* (dihardut, dihardute...), *ikusi* (dakust, dakuskit...), *irakin* (diraki, zirakien...), *iraun* (dirau...), *iritzi* (deritzot...), *irudi* (dirudi...), *jakin* (dakit...), *erion-jario* (dario, zerion...), *jarraiki* (darraizko, zerraizkon...), *jaugin* (haugi, daugi...), *joan* (noa...).

Gure aditz trinkoen bitxitasun bat da denak bokalez hasten direla, J ere bokaltzat hartuz: *yakin, yonan, yarraiki*... Kontsonantez hasten denik ez dago. Eta, *atxiki* salbu, denak E-I bokalez hasten dira. Ez dago O-U hasten den bakarrik. Zerrendan badakit gehiago falta direna, baina bego. Orain dagigun beste taula konparatibo bat:

<i>Litzateke</i>	→	<i>izango litzateke</i>
<i>Netorke</i>	→	<i>etorriko nintzateke</i>
<i>Dakigu</i>	→	<i>jakiten dugu</i>
<i>Neukan</i>	→	<i>edukitzen nuen</i>
<i>Zeutzan</i>	→	<i>etzaten ziren</i>
<i>Nekuske</i>	→	<i>ikusiko nuke</i>
<i>Datxeko</i>	→	<i>atxikitzen zaizkio</i>
<i>Lerioke</i>	→	<i>eriongo litzaioke</i>
<i>Neritzoke</i>	→	<i>iritziko niok</i>
<i>Zerraizkion</i>	→	<i>jarraikitzen zitzaizkion</i>

Bat beharrean, ez dago dudarik zein zutabe den teorikoki hobea, eta praktikoki lehiakorrago. Baina ez dago kontrajarri beharrik. Forma biak egon daitezke ondo, kasuen arabera. Horretarako baliabide biak prest eduki behar dira. Kontua da uste baino zerrenda luzeago horretatik, asko direla jausiak, eta beste asko, jausten ari direnak. Zenbait idazkeratan, laguntzaileez beste trinko gutxi gelditzen dira. Argi dago aditz trinkoek norabide galtzailea daramatela. Hizkuntzarentzat oker handia da hori, ebidentziaren arrazoia alderantzizkoa baita. Norabidea aldatzea komeni da. Ez dekretuz eta bat-batean, baina bai galdua berreskuratuz, eta apurka-apurka (baina lokartu gabe), baliabidea zabalduz eta garatuz. Zergatik? Ebidentzia soil batengatik: aditz trinkoa askoz baliosago, askoz praktikoago da aditz perifrastikoa baino. Eta baliosena, noski, aditz bakoitzak forma biak eduki ahal izatea, premia eta intentzio espresiboen aukeran. Hori, bat-batean, denekin eta sistematikoki egiterik ez dago, baina bai dago norabidea aldatzea eta garatzea. Eta beste gabe, goazen norabide aldatze eta garatze horrexen adibide zerrendara. Eta gaiari hain garrantzitsu baiteritzot, zerrenda berariaz luzatuko dut, beldur gabe.

ADIBIDEAK

- Ez dakigu zeri gagozkion, baina edozer izan daiteke. Kristotskyk bidea aise direki, bera mehea delako, baina bidea berehala ixten da.
- Horrek ez nau harritzen beste honakoak adina: "Denbora bera ere berez ez da existitzen; gauzek eurek sentiarazten dute zer burutu zen iraganean, zerk dirauen eta zerk darraikkeen.
- Bataren eta bestearen profil luzanga eta ildotuan, arraun-pala zizelkatu baten aurpegia nekusen, biengan edozein ur ebakitzeko ausardiak ezaugarri kontrajarri ere batasun garailea zemaiela.
- Nik ezin dut gaua logela horretan igaro. Ikara damait.
- Ez dukezu erraz behar direnak apartatzen.

- Talitak, inguru haietan eta antzekoetan gutxi ibilia zirudienak, nobedade handizat begiraten zion denari, edo hala zirudidan neuri.

- Leihoa jaitsi eta burua darakust.

- Ausar hadi, diost, ezin dut, darantzut, eta orduan berak dagi dena, nire eskuagaz orban bat ezabatu nahi bailuen.

- Ibaiak, nonbait, biratze estua zegien aurrerago, eta kasik kontrako bidean zihoan. Ibili ahala, aurrez genkusen egunsentia goratzen eta zabaltzen zetorren, mesetako horizonte planoaren luzeran.

- Hauxe duzue dena, non begi akusatzaileek desafio heretikoa eta grina nahaslea dakustena, elkartasun humanoa eta obediencia ebangelikoa baizik ez den guretzat.

- Galdetzaille gabe, munduak berdin badarrai, darraikeenez, zertan letzake bere zentzua?

- Eta horixe zegiten biek, niotsela: ...

- Eliza maternalak horixe aldarritzera behartzen gaitu, eta bakotzak dakike zer zelan sinistu. Kontua da gure gotzaina, hil baledi, askoz hobeto dagokeela zeruko zorionean, hemen gugaitiko sufrimenduan baino

- Azken batez, ikuste frigido batek zer gaitz leragike, mutilak arrazoi osoz gorrotatzeko froga argia besterik?

- Bekus orain mundu guztiak niri ez eustela oinez irakatsi behar.

- Hostoak ere beharrezko dira, gozo eta kilikor dira, baina hostoek ez dagite zuhaitza, ezta adartxo bat ere.

- Ez baita orain dakusdana, nekusena baizik.

– Horrelako pasarte bat pentsatze hutsak tarteka deragidan dardara korporala kontrolatzeko, leihoari heltzen diot, nondik gaua, ez hainbeste ikusten, baizik oihanez lehertzeaz sumatzen den, azienden arran-hots distante baina trinkoz, zeinak bareki bezain solemneki berresten duen benetan bakarrik nagoela.

– Hitzak ere banekarzke, egoerari dagozkionak zeintzuk diren baneki.

– Berak araberako irribarrez, ia ironiaz derantzuie nire aurpegi osoko keinu ezustezko, urduri, irribarretik barrera bitartekoei.

– Deusez dadin arrazoi guztiak damaizkiot, baina beldurrak bereari derraio.

– Neu ez naiz inoiz itsasoan ibili, baina haizeak hain furia likidoan derasa, ezen eraikina aldaroka nabari dut belarrien barruan dabilkidan kaosean.

– Abade errebeldeok ebangelioa hobeto dirakurgu zuzenbide kanonikoa baino.

– Inoiz ez nuen pentsatuko ez zitekeena bazitekeenik! –darantzut atzerapen handiz.

– Lau aldeetatik elkar dakustenez gero, operazioaren abiatze simultanoa ez da teknikoki zaila.

– Historia luzeegia da labur kontatzeko. Zuk orain zeure lana dukezu. Bihar natorke buru hornituagoz. Etxetik irten zaitezke?

– Nola deritzadazu diruzko aurrerapena eskatzeko bezain emagaldurik? – Barka, Talita, barka! Niretzat aurrerapena... Barka, bai! Bihar natorke.

– Beldurrak hortxe zerraidan, ordea, eta zerbaitena izan behar zuela pentsatu nuen.

– Ez baitakit horrelako petalorik baden, diodan korola laukoitz ñimiñoak

direla.

– Eta hortik haren alaitasun beti espektantea, noiznahai handitasun hurbilen baten zain egoteak zemaiona, edo horretan gauzatzen zena.

– Turbina erraldoi bat bezalakoa, non ur joatunari ur sartunak derraion eten gabe.

– Guretzat pazientzia errazena dela diotsagu.

– Bikotearen itxura ezertaz ez jabetzearena baino areago da ezertatik babestu beharrik ez izatearena, biek bola bat osatzeko darakusten antzetik.

– Gorputza, halaber, ia erdi bi dagio inpresio horixe emateaz beste asmorik nekez izan dezakeen gerriko arrosa batek.

– Aldi batera, berriro galdetzen nuen, eta orduan bazirudien erantzuna oparago zetorrela. Ah, bai, baina ez. Amama Kolonbian bizi da. Mendatea gailurtzerako, banekien amama Talita Amazoniara itzulia zela, ama Talitak Bilbon zerraiela eta alaba Talita kopiloto nekarrela.

– Ez nuke pentsatu nahi paisaiariaren helburua hori denik, suposatzen baita gizaki batek ezin duela hainbesteko lanik hartu, denek dakustena bistaratzeko, ezta emanik ere bi begik ez dakustela berdin; ezta norbereek ere.

– Oraindik batzuek Don Xabier dioste. Ez dakit badakizun, baina Xabier nafarra zen, eta Nafarroako zaindari da. Zeure zaindari – Bai linoa! Benetan zorte ona eman behar didazu.

– Hurrengoan, beharbada ez nagoke, edo okupaturik nagoke. Nik oraintxe behar zaitut. Zer kostatzen zaizu ahalegin bat egitea?

– Helduleku ezagun bakarra adimenean daurkizu, zeinak zorionez ez zaituen engainatzen, esanez: *Ezinezkoa dok!* Eta izaki zentzuduna zarella

emateko, diozu: *Nire zain al zeunden, zorte ona lortzeko?*

– Talitari berea izango den logela erakusten diot, eta leihoa zabaldurik, ibaia entzunarazten. Hots horrek loari uraren ziklo guztia daragio, itsaso, hodei, euri, itzulera. Talitak dio berak ez duela, lo egiteko, hainbeste poesia behar.

– Haurrek ere badakite, abadetxean aurpegi ezezagunik badakuste, ez dutela nor den galdetu behar.

– Gutxienean ere, denbora luzea egin dezakezu aurreko aurpegi desiatua ikertzen, kontenplazten, gozaten, berak ere zureagaz berdin dagiela pentsatzeko analogia guztiekin.

– Plaza koxkor honetan dena dago hur. Agertu da Talita elizako sarreran. Alboetara begiratzen du, bila bezala. Leihoa jaitsi eta burua darakust. Hauteman nau eta agurka ari zait, eskukada musuak bidaliz. Nik ez darantzut, dagokiona ez baniintz bezala. Talitak ez duela ulertzen dirudi nire jaramonik eza (...)Autobusak berari darraiola uste dut.

– Ez nuen ulertu, baina ez nintzen harritu ere, zerbait zerrikeria iruditzeke mugetatik harago bainengoen. Bakarrrik nekien izterrak estutzeko gogoa neukala, eta horixe negien, bere besoen laguntzaz.

– Nire bat-bateko laxotzearen arrazoiaz ere ohartu dela nerrake, ni ere areago ohartu bainaiz bere aurpegitik, neure sentipenetik baino.

– Dena agresibo eta opresibo nekusena bat-batean gozo eta poetiko dakust.

– Horrela, egunen batez, etorri behar baitu egun horrek, jausten dakusket, eta ziur dakiket zein izango den nire heriotzaren une exaktoa.

– Ez naiz ausartzen buruko hormetan erreboteka ari zaidan desio bat formulatzera, gutxi gorabehera litzatekeena: *Hobe palmondoa be luze baletza!*

– Etxeek beti bezain harro eta huts darraite.

– Esaera da sokari tiratzen dionak kanpaia dantzuela.

– Neure herrian balitz, esekia zinen bertatik.

– Ostera, bitxiro gertatzen zen ezen, begirada bata jaisten bazen, besteak automatikoki zerraiola lurreko puntu berberera, eta bata goratzen bazen, bestea idem. Begirada batak bestea hutsik gabe zerakarren, ordenatik aparte.

– Orduerdi aurreragoko joaldi arauzkoak lauretan meza izango zela ziragarren.

– Zertan ziharduen argi zeukan bakarra apaiza zela zirudien, bederatzia eta erdietan meza nagusia iragarri ohi zuen kanpaialdi luzea jo baitzuen, berdin laurden gutxiagotan, eta nola ez mezaren hasieran bertan, zeina, nagusia izanik, kanpaiek ere solemnitare osoan aldarritu behar zuten.

– Bigarren hamahirukoak norbere buruari tiratzea ziradokien, armaren itzultzeko nagiagatik ez izatera. Badirudi dena kutsatu dela zerbaitez! – Bardin dok ez badakigu zerez. Elizaren geriza teilatuen gainera luzatzen zen, katuei ilusioa sortuz usoak inpentsuan harrapatzeko, ohartu gabe hauek gerizpetik hobeto dakustela.

– Agente guztiak beraganantz biratu dute burua. Zentrotasun kanibaldar baten sentipenak damaio.

– Korridoreen eta eraikin osoaren barrunbeak oihuei bolumen inponentea, kasik ahalguztiduna zemaien, edo oihugileei, jada inguruetan ziren guztiei, horixe sentiarazten zien.

– Baina hortik doazke 'tiroak', oraingoan metafora hutsetik harago, seguruenik.

– Atsegin handiz, epaimahaiak baimena balemaiz.

– Baduzu –mahaiburuak–, gizalegez eskatu duzulako, baina laburki, hau ez baita Vatikanoren kongregazio bat.

– Buruak kostata tentetu zirenean, aireportuak leihotik zerraigun, hegazkin lokartu batetik zintzilik.

– Ez gaudek toki bikainean. Dagigun agudo egitekoa.

– Gure aldetik, meseta-mistikaren oharpen horri baino gehiago generraion usteari ezen pertsona baten izatea argiago salatzen duela ibilkerak.

– Gotzaina hiltorian zegoeneko arrazoi guztiek indarrean darraite, baina indartsuago orain, bai baita arrazoi berri bat, duda posible oro ezabatzen duena: heriotzaren beraren bueltarik eza.

– Nik erabakia behar dut, ez askatasuna. Galaitasunak maitaleagana narakar, leialtasunak adiskideagana.

– Don Sabino, kosta-hirira jaistean, "Aita Sabin" ere diotsena, lehen destinoan iritsi zen Baurregira.

– Hantxe bizi ziren honeek euron autismo izutuan, halako infamiarik inon ez zegoelakoan, harik eta gaur Baurregikoa ikusi arte. Guk baietz ginotsan; baina ez eban sinistu nahi. Ikusi dau, eta ez dakigu sinistea gaxago egin ez jakon.

– Hemendik ez hain herri urrun bateko solemnitete bat bazenkus, gitxienez dudan zengokez.

– Arturrek irakurgaiei daragoien bitartean (distantziara ere badirakur, transparentzia animalen bat tartetu ezik), nik Artearen Historia Bisuala gozatzen dut.

– Halako batean, bera da diotsuna: *Hau be bada, ba!*

– Zuek jokoan darraizue, kartek hortxe dirautelakoan, baina orain, zuretzat, keinuei eta hitzei azpi-esanahia bakarrik gelditzen zaie. Eta zuk karta ezabatuekin eta berak egiazkoekin jokatzeari dibergentzia ergelegia deritzozunez, berak ere egoera berdinean diharduela pentsatu duzu, eta pentsatu baduzu, halaxe izan behar du, pentsamena, bere eremuan, ahalguztiduna baita.

– Leihotik ibai zaratatsura begira, badirudi pentsakizun inhumanoen eraso baretuz doala, ibaiagaz itsasorantz bailihoazen, beste naufragio baten bila.

– Ilaje uhinkor eta bel-beltzean markoturiko aurpegi biribilkoj, poussindar horrek, eta lepoak txit suabeki diragarren eskote xingolatuak ez dute behar esku gerakaitzen ("neuretzat jostarien") itzulpena besterik, dena neure erarik amesgarrienean uler dezadan.

– Darrai eta darraike –darantzu jangurak gehiegi luzatua dirudien batek, galdetua izateko bezain desioz dirudiena alukeria bat jaulkitzeko.

– Xunek berdin dagi, kontakizun bat amaitzerako, beste bat eskatuz.

– Apaizgai izanik, Jainkoa onartzen nuen (behar nuen) barrunbe hartan, baina *nik zugaz ez daukat problemarik* niotsan, eta konfiantza eskertzen zuen.

– Bidean noala, pentsakizun bihurri guztiak gurutzatu zaizkit, irudituz Xunegaz nakustenek berbertan susmatu behar dutela erlazioaren bat Karporen heriotzagaz.

– Orein-salto batean esku biek burutik heldurik, musu ozen bat damait, zer dagien kontrol gabe bezala.

– Motorra ez zen gelditu, baina nire begiak zurrun zeuden sarrera ondoan zekusten neskatoagana.

– Jarraitu holantxe, onez eta adorez, eta dagiguna dagigula, alkar maiteago izateko modukoa izan daitela beti.

- Aurpegizko puzzlearen aditasun bibrakor hartan (norbaitek elizako argi guztiak su jarri zituen), suspentsio reberberatua nekusen, txera irrikortzat ala erruki ironikotzat hartzekoa zen ez nekiena.
- Xune eta nire artean, alde bat dago handiegia. Nire insegurantzari arriskurik ez datxekon bitartean, haren sinets ezina zalantzaren larriari loturik doa. Behin edo behin, animaliekiko jardunen argazkiak ager balitez, Xuneren gainera sua baino madarikapen beltzagoa lerorke.
- Kondairak nokaturik bezala utzi ninduen, ezin irentsiz nekusen paisaia xalo, ia inozente hark nola ezkuta zezakeen halako horrorea.
- Bolatxoa nukleoa zartaturik bezala ireki zen, eta abantada informean aldendu, atzean sua baileroan.
- Animaliekiko grinez bazuen zerbaite entzuna, baina inoiz ez zitzaion otu federik ematerik, eta horra orain non jakin duen fantasia arraro hura errealitate bat dela, zeinatik at aurkitzeak bertigoa damaion, errealitate ezkutu guztietan gertatzen zaion moduan. Azken batez, ikuste frigido batek zer gaitz leragike, mutilak arrazoi osoz gorrotatzeko froga argia besterik?
- Berak azalpenik ez bazeman, nik ez nion eskatuko.
- Iragarpenak gezurtu gabe darrai. Urteak joan arren, gauza batzuek lehenean diraute, ez baitago arorik ez daukanik sekreturen bat, geroari gordetzea merezi duena.
- Batzuetan, itomenak itzar-orduetan ere zabaltzen darrai, uhinek ezin baitute zentrorra itzuli. Zer diostazu, Artur txit maite? Pasako dela? Arrazoi horrek pasatzen denerako bakarrik balio dit.
- Leunak zulo eta zuloak leize dakuskit, batez ere ohetik jaikitzerakoan.
- Orainera itzultzeko helduleku bakarra Dobalen aurpegia zen, baina ezin nion begiratu, edo ez nuen ezabatu nahi bere eite originala, neure baitan argitasun, zehaztasun, liraintasun osoz nekusena.

- Nik ulertzen nuen zerbaite "neska batekiko sentimendua" zer zen. Lehenengoz nentzuen zen, ordea, "mutil batekiko sentitzea neska batekiko sentituko hukeena".
- Esaterako, hik heure lagun bat dakusk, baina ez dakusk mutil bat, beno, bai, mutil bat dakusk, baina neska bat ikusi nahi duk, eta azkenean, neska bati bezala begiratzen hasten haz.
- Hori eskumiku garbia izango zen, batzuek horizonte ez hain urrunean zekustena.
- Begia nora, han nekusen zentzua.
- Lizentziak eten zitzaizkien apaizei meza entzuteko eta jaunartzeko aukerarik ez uzteak garbi zerakusen berriz ere itxialdiak salatzen zuena, hots, Elizan tirania kanonikoa eskandaloski gaintitzen zitzaiola espiritu sakramentalari.
- Poeta inozoak lerrake: "Zergatik amaitu behar dute honelako gauek?".
- Denbora behar dut, eta berau azkarregi joaterik ezin baitut saihestu, dagidan luza dadin.
- Bere hatzak dakuskit nireak ferekatzen bainoago igurzten, konpondu nahi balitu bezala.
- Gehienez ere, halako erreflexu hermetiko bat izan behar du, beragaz egokitu nahian hasten naizenean, konbultsio kontrolgabez darantzuena.
- Horri eransten badiot lehenago ere arrakastaz erabilia dudan metodo bat, gauaren luzetasunari gailenki aurre egin dezoket.
- Abiatu naiz, eta zaldia distantzia batera derraidala nabari dut.
- Natur fenomenoak inoiz berdin errepikatzen ez diren arren, argi ulertu

dut seinale hauek guztiek haizete baten biolentzia diragartela.

- Gehitxoago azalduko bazenu, pozik nentzuke – Neuk ere pozik nentzukek nor haizen, azaltzeko gizalegerik bahu.
- Neu nahiko fresko nago, gau-giroa aparte, eta distrakzio berrietan galdu aurretik, Lukreziori zuzen derasaiot:
- Ez baitago inor barra luzean, muturreko argitasun berdeska batek diradokien ategune bat besterik, non suposatu behar den barruan ez dagoela inor.
- Orduan, baliteke beste aipu bat ondo etortzea: "Erromaren historia handiosak damaidan plazer nagusia da ia inor inportanterik ez zela berez hil".
- Hau Tazito da –dio besteak.– Berau Lukrezio duzu –derants Tazitok.
- Eta hona non daurkidan biak neu seinalatuz hizketan ari direla (ni paretik pasatzean isildu egin dira), ezagun banintzaie bezala.
- Argibide on bat izan daiteke ikustea nortzuek dakusten begi onez ekintza hau, eta nortzuek bat dagiten zuen tesiekin.
- Tranbia dabil hemen?, izan da gure ezustea. Ezetz darantzute, Hinorsako errailbidea dela, bere merkantzien garraiorako.
- Igoeran baino bihurtune eta zoko gehiago daurkigu, dena norbait ezkutatzeko edo norbaitengana iritsiera zailtzeko egina bailitzan.
- Hori Marx eta Engelsena izateko baino satanikoago da –deransgu barreka.
- Alkartasun ekonomikoa be badakargu apur bat –deransgu guk–. Gizakia ez da ogi hutsez bizi, baina hori barik be zail da ezer.
- Isiiii!! –orro egin du Teknerrek, zeinaren aginduek obedientzia radikalak

daragiten denongan.

- Arretaz dantzugu informazio guztia, jakin-minez baino ez gutxiago premiaz, gure egoera, irrealak ez ote zen larrizetik libratu ezin ginena, berresteko eta finkatzeko.
- Bakoitzak bere koltxoneta puzgarriari daragoio, biriken eta matrailen hanpatze txandatuan.
- Errektoreordearen aurpegia bihurtzen, iluntzen, sutzen dakusgu. Adialdi luzea isil-isilik eginik, momia bat zinuka bezala, esekitzean diosku: –Zer da hemen gertatzen dena?
- Harik eta, epaitegi atarian, sarrera mozturik daurkigun arte segurantzaindarren aldetik.
- Erdiak inguru sotanadun dira, bilerari oso bitasun arraroa emanez, kanpotik lekusenak aurrerako ala atzerako inflexioan garen ez lekikeela.
- Eta, seguruenik, sentitze horixe luzatu nahiak daragi astirotasun guztia.
- Lotxok arreta biziz dantzu kasua, geruza klandestinora jaisteak daman piztia-senez, gehienean inaktibo baina hortxe datzana bera, aspaldion aktibatzerak ere maiz behartua.
- Gero, prestakuntzek ziragarten bezain mahai ez hain ugarian, laster oharatuko zinen batak zioena ez zela posizio irmoa...
- Operazioaren sortze-batzarra, garrantzitsuena, bertan edukia, forma eta tokia taxutuko zirena, urriaren bigarren astelehenerako deitu zen.
- Musikaz bezala, arte oroz ere berdin nerrake.
- Ez arduratu. Geuk dakarkegu. Zuk ez dozu Ebangelioen Liburua zabalik edukitzea besterik.

– Zer da... "hori"? –Alkatearen marruak elizpea dardaratu du—. Hau geure bandera da, Espainia bat eta handi dagiena, eta Elizari jaten damotsona.

– Badirudi *Bakearen urzoa* isilik zentzutenek gaztedi berriarena ezin dutela zirrara soil gisan jarraitu.

– Atzeko kale-ahoa, guardia zibil bat bere kideari galdetzen dantzugu.

– Iragarpenak gezurtu gabe darrai.

ADITZAREN BESTE LABURBIDE BATZUK

1) Lehenik, aditzaz gainera, 4. ebidentzia ere, bide batez, horretara dator. Ia beti (ez dakit salbuespenik izan daitekeen ere) aditz forma zail bat errazteak emaitza laburragoa dakar. *Nezoke* edo *neikeoz* bezalako formak *niezaioke* edo *niezazkioke* baino errazago izatearen arrazoi handi bat eurok baino laburrago izatean datza. Beraz, aurreko atalean esanak baliozko dira laburtzea komeni izateko ebidentziarako ere.

2) ADITZ ATZIZKIAK

Aditzak eurak ere (aditzen partizipioa) luzeago edo laburrago izan daitezke. *Jan* silababakarretik *ondorioztatu*-ra 5 silabaren alde dago. Nik neuk, ahal dela, esanahian alderik edo ñabardura ezberdinik ez badago, forma laburren aldera joko dut. Luzeak ere beude bertan, "betelana" komeni denerako. Edo tonu handios bat eman nahi denerako. Espazio arazorik ez bada, espresioak agintzen du.

TU-ZTU-ZTATU

Aditz asko dira izenetik zuzen adiztuak: *arnastu, larrutu, lumatu, penatu, egurtu, makilatu, kolpatu, dirutu, arautu, damutu, giltzatu, gizondu, urtu, sutu, elurtu, txandatu* ... Batzuetan, atzizki bakoitzagaz esanahi ezberdina hartzen dute, edo har dezaten balia daitezke. *Urtu* = funditu. *Ureztu* = ura egin, erregatu. *Ureztatu* = inundatu. *Arautu* = zerbait arau bihurtu. *Arauztatu* = dena arauz bete. Oso ezberdinak direnez: *umetu-*

umeztatu, gizondu-gizoneztatu, burutu-buruztatu, hirindu-hirineztatu, zuhaiztu-zuhaitzeztatu, loratu-loreztatu... *Mendia elurtu* zen dioenak mendian elurra egin duela esan nahiko luke. *Mendia elurrez, soilik. Bazterrak elurreztatu, ostera, elurra denean sartzea* litzateke. Sarritan, ostera, ez dago inolako adiera edo ñabardura ezberdinik. *Legeztatu* dioenak lege bihurtu esan nahi du soilik. Horretarako, nahikoa litzateke *legetu (arautu bezala)* edo gehenez, *legeztu*. Orduan *legeztatu* bazterrak lege betetzea litzateke. Batean egintza markagabea, eta bestean, ugaritasuna edo, zenbait kasutan, gehiegitasuna adieraziko luke, bereizkuntza interesgarria eginez. Ugaritasun edo maiztasun kutsu interesgarri hori KA artizkiak ere ematen du. *Egurtu* = egurra eman, soilik. *Egurkatu* = egunkoko jipoia eman. *Aldarritu* = aldarri egin soilik, proklamatu. *Aldarrikatu* = aldarri eta aldarri ibili. Alde horretatik, "aldarri" bera litzateke proklamazioa, eta "aldarrikapen" aldarri insistentea. Hona, beraz, bereizkuntza interesgarriak eman ditzaketen bi zerrenda:

Airatu-aireztatu, airatze-aireztatze
Argitu-argiztatu, argitze-argizatzen
Harritu-harriztatu, harritze-harriztatze
Higuindu-higuineztatu, higuintze-higuineztatze
Iraindu-iraineztatu, iraintze-iraineztatze
Gezurtu-gezurreztatu, gezurtze-gezurreztatze
Hirindu-hirineztatu, hirintze-hirineztatze
Elurtu-elurreztatu-elurreztatze, elurtze-elurreztatze
Loratu-loreztatu, lorapen-loreztapen
Arautu-arauztatu, arautze-arauztapen
Legetu-legeztu-legeztatu, legetze-legezpen-legeztapen
Ondoriotu-ondorioztatu, ondoriotze-ondorioztatze
Simaurtu-simaurreztatu, simaurtze-simaurreztatze
Karetu/kareztu-kareztatu, kareitze-kareztatze
Lohitu-lohiztatu, lohitze-lohiztatze
Koloratu-koloreztu-koloreztatu, kolorapen-koloreztapen
Urretu-urreztatze, urretze-urreztatze
Hondartu-hondarrestatu, hondartze-hodarrestatze
Ureztu-ureztatu, urezpen-ureztapen
Zauritu-zauriztatu, zauritze-zaurizatze

TU-KATU

Aitzurtu-aitzurkatu, aitzurtze-aitzurkatze
Zigortu-zigorkatu, zigortze-zigorkatze
Ordetu-ordeztu-ordezkatu, ordezpen-ordezkapen
Aldarritu-aldarrikatu, aldarri-aldarrikapen
Egurtu-egurkatu-egurreztatu, egurtze-egurkatze-egurreztatze
Zatitu-zatikatu, zatitze-zatikatz
Tartetu-tartekatu, tartetze-tartekatze
Ziztatu-ziztakatu, ziztatz
Sastatu-sastakatu, sastada/sastatze-sastakatze
Aiztotu-aiztokatu, aiztotze-aiztokatze
Laurdendu-laurdenkatu, laurdentze-laurdenkatze
Saltatu-saltakatu, salto/saltatze-saltakatze

Beste batzuetan ez da ikusten esanahi ezberdinik, oraingoz behintzat.

Baieztu-baieztatu, baiezpen-baieztapen
Berritu/berriztu-berriztatu, berritze/berrizte-berriztapen
Ezeztu-ezeztatu, ezezpen-ezeztapen
Begiztu-begiztatu, begizte-begiztapen
Gaineztu-gainezkatu, gainezpen-gaineztatze
Gezurtu-gezurtatu, gezurtze-gezurtatze
Zehaztu-zehaztatu, zehazpen-zehaztapen
Ziurtu-ziurtatu, ziurpen-ziurtapen
Segurtu-segurtatu, segurtze-segurtapen
Zehartu-zeharkatu, zehartze-zeharkapen

TU-RATU

Zerrenda honetan ere ez da atzematen bikoen artean bereizkuntzarik.

Urrundu-urruneratu, urruntze-urruneratze
Urrutitu-urrutiratu, urrutitze-urrutiratze
Menpetu-menperatu, menpetze-menperatze

Gaindu-gaineratu, gaintze-gaineratze
Gailurtu-gailurreratu, gailurtze-gailurreratze
Hilkutxatu-hilkutxaratu, hilkutxatze-hilkutxaratze
Aldamendu-aldameneratu, aldamentze-aldameneratze
Helmugatu-helmugaratu, helmugatze-helmugaratze
Kartzelatu-kartzelaratu, kartzelatze-kartzelaratze
Kaiolatu-kaiolaratu, kaiolatze-kaiolaratze
Lurpetu-lurperatu, lurpetze-lurperatze
Giltzapetu-giltzaperatu, giltzapetze-giltzaperatze
Desbidetu-desbideratu, desbide/desbidetze-desbideratze
Kordetu-korderatu, kordetze-korderatze
Bizkartu-bizkarreratu, bizkartze-bizkarreratze
Sasoitu-sasoiratu, sasoiitze-sasoiratze

IZATU

Normaldu-normalizatu
Formaldu-formalizatu
Kanaldu-kanalizatu
Idealdu-idealizatu
Ofizialdu-ofizializatu
Fosildu-fosilizatu
Bisualdu-bisualizatu
Sozialdu-sozializatu
Pluraldu-pluralizatu
Unibertsaldu-unibertsalizatu
Naturaldu-naturalizatu
Sekulartu-sekularizatu
Modernotu-modernizatu
Maximotu-maximizatu
Sponsortu-sponsorizatu
Sensibletu-sensibilizatu

FIKATU

Sinpletu-simplifikatu
Solidotu-solidifikatu
Posibletu-posibilitatu
Momiatu-momifikatu
Santutu-santifikatu
Dibertsotu-dibertsifikatu
Arrarotu-arrarifikatu

BESTE BATZUK

Baldindu-baldintzatu
Zotz egin/zozkatu-zozketatu (hau gaizki)
Nahasi-nahastatu
Sukartu-sukarra egin
Izenburutu-izenburua jarri

Eta abar. Ebidentziaren izenburua, ondorio gisan laburturik, honela formula daiteke:

“Aditz errazago eta laburrago bat aitzin-urrats handia litzateke euskaldunentzat”.

IRAKURGAIK

Zerbait ulertzen hasi nintzen, erantsi zenuenean filosofiak eta teologiak literatura mota bat zirela, genero filosofikoa edo genero teologikoa esan genezakeena. *Fikzio literariorik bestialena metafisika da* –borobildu zenuen. Horrek asko poztu ninduen, bide eman baitzidan lasai berreskuratzeke baztertzera tentaturik nengoen giza sorkuntzaren zati handi eta –zergatik ez aitortu?– arrazoi ezberdinengatik kutun bat, halako eran, non, aurrerantzean, plano berean gozatzen nituen Proust eta Santo Tomas, Sarri eta San Agustin, Biblia eta Mila eta bat gauak, Kant eta Aresti, Kafka eta Ratzinger.

Odamak Izeko Guteneren desagerpena iragartzearen biharamunean, orriak berdin agertu ziren Derioko soto-gelan, txukunago eta garbiago. Izeko Bieni baino kuriosoago izan bazen Izeko Gutene, berau baino modernoago zetorren “Meltxior” edo “Astotxo beltza”, itxialdiko propaganda elikatzen jarraituko zuena, Odamaren zorionerako. Astotxo hori Guardia Zibilaren sarjento eta kapitainen obsesio bilakatu zen. Hainbeste saiakera atera zitzairen ustel (*zoruko ohol guztia jasoko diat! horma guztiak zulatuko ditiat!*), ezen, amorru hutsean ez itzultzearen, etxean aurkitzen zuten edonor atxilotzen zuten, Aldundiak kontrataturiko artistak barne, euskara praktikatzen eurok, abadetxe hartan beti baitzen nonbaiteko norbait, jabea bera izan ezik, Ategorri apaiza.

Gordelekuak, ostera, bere hartan iraun zuen, isilpe osoan, hutsik. Zerbait susmatzen genuenok, halako jakin-minik (are gutxiago galderarik) ez zela agertu behar jakin arren, ezin genion utzi, etxe hartara sartzean, betiko pentsaketari: *Hementxe egon behar jok bazterren batean!* Adi-adi ere gelditu ohi ginen disimuluan, gordeta zegoena piztia bailitzan, zaratatxoren bategaz bere burua nahitaez salatu behar zuena. Pentsaketa hainbat zen horzkariago zenbat eta gehiago hauteman etxearen dimentsioak, kale-zoko

soil bat baitzen, ezker-eskuineko zortzietako bat. Noizbait, Ategorriek, areago biziera aldatu zuelako hartara behartzen zutelako baino (*derrigorrean ezta zorionera ere!*), apaiz-etxe hura abandonatu zuenean, osaba-izeko-astotoxoen gordelekua osorik eta ukigabe gelditu zen, bizilagun berrien inozentziarako. Ategorriek eta Gratxik (bere "kontzientziak") pentsatu izango zuten: *Ez dabe aurkituko, eta aurkituko balebe, ez dira ausartuko salatzen*. Iragarpenak gezurtu gabe darrai. Urteak joan arren, gauza batzuek lehenean diraute, ez baitago arorik ez daukanik sekreturen bat, geroari gordetzea merezi duena.

"Tarres" itxialdian partaide ziren bi jesuitetako bat zen. Ezizen hori inork ez zekien nondik zetorren, baina denok susmatzen genuen oinak, ibileran, erdi trabes eta "tarraz" botatzen zituelako zela. (...) Berak zioen oinez derrigorrean ikasarazi ziotelako zela. Berak ez ei zuen inondik ere nahi, ze: *Behin ikasten badok, bizi guztian ibili beharko dok*. Halaxe gertatu ei zitzaion, baina emaitza argi zegoen. *Bekus orain mundu guztiak niri ez eustela oinez irakatsi behar*. Haren trabestasuna oinak apur bat barrurantz botatzea zen, elkarrri bidea itxi nahian bezala, baina ez biak neurri berdinean, ezta biak beti berdin ere. Konbinazio asimetrikoen gama amaigabea zeukan, segun pentsamendua nondik zebilkion, horretan zorrotza bezain portentosoa baitzen. (...) Harrigarriena zen nola jesuiten kuxidadeak halako perla bat lagundian onar zezakeen. Tarresek ihardesten zuen izan zitekeela ezen loilar fundatzailea, bere herrenaren traumagatik seguruenik, behealde fisikoaren nardatik liberatzen zela goialdea exaltatuz, talentua, alegia. Horretan bazuen arrazoi izateko motiboa, zeren fisikoki ageri zuen ezaxola kasik organiko hartan, gezurra zirudien halako argitasun mentala eta ingenio oportunoa gorde zitekeela. (...) Batzuek eskaletzat, beste batzuek postaritzat (beti fardela bizkarrean), ez gutxik txatar-erosletzat hartzen baitzuten, eta edozein zokotan edonogaz trabatzeko, edo hobeto esanda, edonor hurbil zekion dohaina baitzeukan, kaleko berri-zaskara guztiak biltzen zituen, zeintzuok, bere ahalmen narratibo deliranteari esker, berehala hartzen zuten epika baten itxura; edo pikareskarena bazen; ongiaren gaizkiarekiko trufaldi mortal. Oinetakoak alderantzizko oinetanda bazetorren, atzetik zerraizkion "txakurrak desorientatzeko" izan zen.

Semen "freskoak" epela izan behar zuen, antza. Goizean gogorik izango ez nuen beldurrez, bezpera gauekoa eroan nion ginekologoari, arauzko ontzitzoan. Analisi arin bat eginik, aurpegia ekortu zidan, hilotz bati bezala, galdetuz: *Noizko semena dozu hau?* Gezurra esatekotan egon nintzen, baina egia bila nindoanez gero, *bart gauekoa* –esan nion, eta espantu egin zuen: *Ez dozu, ba, usteko espermatozoideak hilezko direnik!* – *Hainbesteren artean baten bat!* –ahapetu nuen, eta neurekiko: –*Hain hillkor ere!* Azaldu zidan baldintzetan ekartzekotan, Bilboko hotelen batean lo eginda etorri beharko nuela kalkulatu bainuen, esan nion: *Ontzi bat eta komun bat emoten badeustazuz, berton egingo dot atoan*. Azken isuritik denbora tarte luzeagoa behar zela erantzun zidan, kalitatezko hazia izango bazen. *Eguerdira arte, gitxienez*. Orduan animatu nintzen: *Behin Bilboraino etorrira, ez jat bape kostatzen*. *Esaidazu ordu bat, eta hantxe etorriko naz, txikito batzuk jota*. Berriro begitzu zidan aurpegia, baina ez zuen ezer esan, baizik erizainari zeinu egin, ontzitzoa ekar zaidan. Ordu bietan kaletik itzuli nintzenean, erizainak sendaleku zirudien gela apain bat ireki zidan (klinika partikularren adeiak), eta esan nion, ez kosta gabe: *Parka, andereño, baina hemen ezingo nintzateke trankil zertu. Komunean nahiago dot*. Erizainaren irribarre arrosatua berehala gorritu zen, baina ez zen tematu, pentsatuz, seguruenik, eztabaida konplikatu eta beretzat ineditoa sor zitekeela, zaila baitzen, kasu hartan, "bezeroak beti du arrazoi" pentsatzea. Neu ere, egia esan, ez nengoen arrazoiari begiratzeko trenpuan, eta komun zurixka bat barrutik kisketaturik, ontzitzoa prestatzen hasi nintzenean, hots egin ahal izan nuen: *Zenbat txarrikeria egin behar den, espezie puta bat iraurarazteko!*

Horregatik, nik ez daukat presarik hil arte. Eta ez dut neure burua adituago uste, musikan adibidez, kontzertu bat irratiz entzutean, ez tulak eta aulki hotsak partiturarenak ez zirela deskubritu nuelako. Naturaren aurreango emozioa norbere aurreango emozioa da. Natura ez da emozionatzen. Laino horiek bezala, zeintzuek haitza irentsi dutela sinetsi duzun, baina non haitzak berak ez duen ezer igarri.

Sentimendua hain piztia boraza da, ezen, zenbat eta gehiago espresatzen duzun, hainbat gehiago eskatzen dizu espresatua izatea, ez espresagaitza delako, asegaitza delako baizik.

Zertarako ikertu behar dut zer ente naizen edo zertarako? Ez al da nahikoa X. X. naizela jakitea? Ba, galdetzen zidatenean, banekien ez zela horretarako, baina ez nioen ezer, zeren, eurek merezi bezala kalifikatu behar izan banitu, intsultatu beharko nituzkeen, nahiz saiätzen nintzen ulerkor izaten, neu ere izaki ezdeus bat bainintzen. Ez dit ardura erligioa egia ala gezurra den beste munduaz, mundu hau eroateko balio badit. Horixe esan zidan, eta arrazoi eman nion. Ez zitekeen izan gizateria oso bat mende amaibakoetan ibiltzea erligioari bueltaka, honek abantaila handiren bat izan gabe bere eragile nagusia zen biziraun senarentzat. Heriotza ez da maitagarri, baina gauza asko konpontzen ditu; batzuk oso garrantzitsuak. Miseriaren edo errepresioaren mende bizi direnen kasuan izan ezik, herri bat izan nahian dabiltzanek badute abantaila bat herri bat direnei buruz. Hauek zail dute direnagaz konformatzen, eta haientzat, izango direna beti da onena. (...) Heriotza kamalehoi bistoso da, kolorge bihurtu arte. Orduan berandu da. Ebidentzia bat onartu ezinak sortu ditu arazo intelektual guztiak. Hilko gara, bai. Eta zer? Zergatik kostatzen zaigu hain egia nabaria onartzea?

Ezin nuen kalkulatu alboan neraman neskatoak nola eta nori zer galdetuz zehartu zituen eraikin erraldoi hartako sarrera eta zoko guztiak, hainbeste begirada zurtu eta gosetiren artetik. Eurak ere nerabazarotik irteten (atzerapenez irteten) ari ziren mutil sotanadun haiengan, bat-bateko zauskada aztoratu bat nabari nuen, deskonposizio sentimental bat, euren irrika etsietan amestutako zisne liraina hain toki ezinezkoan agertu zitzaieanean. Ikustea besterik ez zegoen nola haien gorgoilek gluk-gluk zegiten paradoxa fisiologiko hartan, non, txistu antsiosa irenstean, paparrak gorantz zetozen, begi

geldiezinen kliskadan. Zisnea eurek kontenplatua izateko bereziki aurkeztua zela pentsatzen bazuten ere (beste esplikaziorik ezin zuten pentsatu), ez ziren gauza begiratze zuzenean baliatzeko ondotik pasatzeko une laburregia, aitzitik buruak elkarrengana pilatzen zituzten, irrimurri eta xuxurla eragabean, gero ikus zezaten, atzetik lapurki begiratur, nola betiko ezkututzen zen lehen kantoian, eurentzat egiazko agerpen guztiak zekarten destinoan. Destino aluki aldagaitza bera, zeren, batetik, bokazio zintzo batek maitasun lurtarren uko boluntario eta "pozezkoa" esan nahi bazuen, bestetik, borondate pozezko horrek, benetan lortu zela emanik, ez zuen grina moteltzen, are bizitzen baizik, naturari ez baitzaio gustatzen bere funtsei eragin diezaieten.

Ez dakit neskato honen izaerak ez nauen gehiago probatu behar, bere kasuak estutuko nauen baino, azkenean, motorrean aurrean plantatu natzaionean, arestian neuk pentsatua ia hitzez hitz jaulki baitu: *Ez dira zeregin zailak izan, horren arin amaitzeko!* Neurea errua, ez jaramon egitearren esperientzia sobera konfirmatuari ezen etorkizunaren bizio kutuna aurreikuspenak haustea dela.

Kontua da besteek nola ikusten gaituzten pentsakizunak, subjektuen elkartruke magikoan bezala, grinak eta sentsazioak ere abiarazi dizkidala, eta ezin dut gorputz osoaren zirrara ekidin, sentitzean neskatala bat dakardala, lehen aldiz!, neure gorputzari itsatsia, dena delako tragedia eta guzti ere, bere lore-lorea jotzear den eme bat izateari utzi ezin diona, zeinaganako irritsa agian tragediaren mehatxuak berretzen duen, berak ezin ditu, gajoak, pentsakizunok susmatu baina.

Motorraren ispilu biribil txikitik, behar den tokirantz egokiturik, aurpegia ikusten diot, tarteka oso-osorik, burua alborantz ateratzen duenean, aurretik zer ote datorren, edo haizea aurpegiaren kontra sentitu

nahian. Ez diot jarraian begirutzen, motorra ere gidatu behar baita, baina bai aldizka eta maiz, zuzenguneetan batik bat, halako kezka beti ere ezen, nik bera bezala, berak ere banakusela, baina ez dut uste nire disimuluei igartzeko beste malizia edo motor kontuen ezagutzarik izango duenik. Ispiluan irudi txikia, oso txikia dakust, baina nahikoa, bestela ondo ezagutzen dudan aurpegia neure begipean edukitzeko. Aurpegi biribilkoi, deigarriro simetrikoa, non sudur labur eta lirainki zorrotzak inguru guztia dominatzen duen, hain era konbintzentean, ezen, konpas baten zango finkoa bere erpinean kokatuz gero (minik egin gabe, noski!), besteak osatuko lukeen zirkunferentzia ia exaktoki marratzen baita beheko ezpain, masailezur eta bekainetan. Handiagoan, sudurraren liraintasunari darraion kokotsak eta ileak pitinki inbaditzen duen bekokiak luzangatuko lukete bisaia, ile belbeltza berriz ere ia konpasean zabaldu eta jausiko ez balitz, belarri ertzak doi-doi ferekatuz, beheko masailezurren azpian biltzera.

Zenbat eta higuina handiago, jakin-minak hainbatago ziztutzen zuen. Animaliekiko grinez bazuen zerbait entzuna, baina inoiz ez zitzaion otu federik ematerik, eta horra orain non jakin duen fantasia arraro hura errealitate bat dela, zeinatik at aurkitzeak bertigoa damaion, errealitate ezkutu guztietan gertatzen zaion moduan. Azken batez, ikuste frigido batek zer gaitz leragike, mutilak arrazoi osoz gorrotatzeko froga argia besterik?

Herri txikietan eta naturagaz harreman zuzenagoan, gutxiago alteraturik irauin ohi duen sen basikoren batek sumarazten zion ezen hitza (hitz egitea), sarritan, gogoaren laguntzaile baino, arrastatzaile izan ohi dela, noiz eta, zamari erotuak bezala, orga zulora ez daroanean.

Kirmenek asteme txiki, horiska (kolore arraroa) eta guri-guri bat ekarri zuen, eta ahuntz gorri bat, mutilari noranahi jarraitzeko gertu

egoten zena, txokolate apur baten pozean. (...). Bere jardueran, hogeita hamar zentimetroko harri-idulkitik, eroso eta artoso maneiatzen zuen astotxoa, zeinarentzat atzean nabari zuena bezain gozagarri zen esku luzatuek bizkarrean zegioten azkura, horixe baitzen parametroa, nondik astotxoak atsegin oro neurtzen zuen. Xuneri ikuskizun xarmagarria iruditzen zitzaion, poeta greko-latinorik onenen duin. Ahuntzarena zailagoa zen, zeren, honentzat ere azkura garrantzitsua izan arren, eta astoarena ez bezala, atzea belaun artean atxiki ahal izan arren, txokolatearen orotzapenak ez zion barkatzen, eta etengabe nahi zuen buelta eman huraxe lortzeko. Zorionez, bazituen bi adar dotore, zeintzuetatik heldurik aise larrujoa izan zitekeen, haren indarra bestela ere ez baitzen izugarria. Buelta eman nahiak eta astoarena baino berezko ezinegon handiagoak sortzen zuen mugimenduak, edo gutxienez dardarak, jarduerari exzitazio zoragarria eransten zion, Xunek mutilaren aurpegi exaltatuan eta mihi itsuki kanporatuan nabari zuenez.

Puzkin ez zen aise bereizi Kirmenen txorizulotik, lan bat amaitzeke bestera pasatzea profesionaltasun txakila bailitzan. Mutilak agiraka egin behar izan zion, eta horrek arras deskontzertatu zuen animalia gaixoa, baita umiliatu ere, sekula ez baitzuen halako errefusik jaso, konplazentzia generoso hartan ari zela. Txakurrak, oster, agirakari eskapatzen erabakior baino erorkorrago baitira laztanera, Puzkin berehala errenditu zen, bueltan-bueltan, Xuneren ondo-esanera, zeinak, lehenik, txakur dardaratia baretzeko, igurtzi txerakorrak egin zizkion. Zorionez, txakurrek gertaera mingarriak laster bidaltzen dituzte oroimenaren satora, han betiko gorderik edukitzeko, ezein une on ez interferitzeko moduan. Xuneren aurpegi irribarretsua hurbiltzea nahikoa izan zen, Puzkinek irrikaz milika zezan, edo saia zedin, neskatoak alto eman baitzion, esanez: *Et, et, et! Aurpegia garbituta ekarri joat. Nik beste milika mota baterako deitu deuat.* Txakurra, jolasgarritzat hartu zuen indarketa baten ondoren, aurpegi ezin zuela lortu ikusirik, gorputzeko beste zoko batzuk usnatzen hasi zen, milikatzen ere bai, batez ere, gonatxoa jasorik, izterrak ezustean ireki zitzaizkionean. Xuneri barreak eta ijuiak irten zitzaizkion, inoiz ez baitzuen nabaritu hain

kilikili bizkorrik, gorputzetik ere kanpora eskapatzekorik. Txakurraren mutur jorantsuak laster adierazi zuen kuleroak traban zeudela. Xunek baiezko planta egin zion, abiadura kontrolatzeko baldintzaz. Puzkinek, begietara adi-adi, buru-okertze llabur bana egin zuen ezker-eskuin, ttik-ttak, bai?, ez?, eta duda kasu gehienetan bezala, aurreko lanera itzuli zen. Xunek berak ere, esku biek in atxikiz, saihe salde bietako larru iletsua xuabe baina irmoki astintzen zion, dumper txiki bat gidatzen bezala, eta behar bazen, min egiteko prest, ez baitzen ausartzen, bere lehen esperientzian, txakurraren tentuaz fidatzera. Kirmenek jentilzubiaren beste alde ikusezinetik igarri zuen kuleroak noiz joan ziren buru azpira burkotzat, txakurrak eurak ahoan-da ihes egin ez zezan, harik eta, lar luze egin zitzaion suspentse baten ondoren, Xuneren garrasi eskandalizatuak entzun zituen arte:

- Ene! Ai ama! Kirmen! Honek josi egin gura najok!
- Utzion! Horretan don, ba!
- Baina hau benetan jabilk!
- Eta gu olgetan! Zer ardura jon batera ala bestera izan?

Hortik aurreranzko elkarrizketa hain doilor, mingarri, bortxati litzateke, non literaturak ere ez baitu justifikatzen hitzez hitz berritzea. Ederraren barruan piztiarik bazen, deusezturik gelditu zen bere begirada agonikoan, krokodiloaren ahotik burua ur azalera doi-doi ageri zaion zebra-renean bezala. Bataren ezetza indargetu ahala, bestearen tirania gordinduz, bortiztuz zihoan, ez baitzuen arteko ibilbide guztia hain buru-neke eta xehetasun kalkulatuaren eraman, orain dena galtzeko, onenaren atarian. Piztia, duda gabe, batagandik besteagana pasatu zen. Krokodilo antsiosari ezin diozu eskatu, behin hartara, piezari jaregiteko. Une eta trantze horretantxe izan zen, Xunek nigana jotzeaz beste irtenbiderik ikusi ez zuena. Kondairak nokaturik bezala utzi ninduen, ezin irentsiz nekusen paisaia xalo, ia inozente hark nola ezkuta zezakeen halako horrorea. Iruditu zitzaidan, hala ere, nitaz kamusaturik gelditu zela, nire espresioan ez bide baitzuen hauteman bere aitortzari zegokiola uste zuen urradura biolentorik.

Negarrak, ikarak, exasperazioak dislokaturiko aurpegiz errepikatzen zuen:
Ba al dakizu zer litzatekeen halako argazkiak zabaltzea?

Pentsakizunok airean-da hurbildu naizeneko, Karporen ama izan behar duen emakume batek, negarrez, *berorrek be jakin dau ezbeharraren barri?* galdez, banaroa eskaileretan gora koltzaraino, non aita izan behar duen gizon bategaz topo eginik, begira gelditu garen logelako ate erdi-irekitik ageri den ohe zurira. Guztiz zuria horiskarantz, burua behar duena ere zuritasun trakets bat baizik ez dela, pintore baten balde iraulia bezalako. Beldurtzen nau aurrera jotzeak, erdiratzen nau gurasoen larriminak, abailtzen nau baserri monumental honen zamak, eta sentipen gainezle horien guztien azpian, dema biolento batek astintzen nau, kontrako bulkadek hertsaturik. Errukia, higuina, amorrua... Errukia eta higuina, edo amorrua eta higuina bateragarri izan daitezke, baina nola fusionatu behar ditu nire gogoak beldar izugarri bat (astronauta anorexiko bat) bihurtu den gizon bati dagokion errukia, eta hargatik natorren historiaren doilorrak ezartzen duen amorrua?

- Egun on eta eskerririk asko, entzuten gelditzeko borondatea izan dozuelako. Hau ez da sermoia. Hau ez da dotrina, umetxoak. Badakust beti bezain maitagarri zagozeela danok. Ikuspen honexek damosku argitasuna eta kemena, hainbeste zeresan, on eta txar, sortu dauen ekintzan jarraitzeko. Eskertzen dot meza-emoileak "zuen abade" legez iragarri nauelako. Halantxe sentitzen naz, izan be, inoiz baino zuenago. Pozten nau zeuek be holantxe hartzen nozuela pentsatzeak. Ofizialki, ostera, ez naz zuen abadea. Lizentziak kendu deuskuez. Ezin dogu mezarik emon, ez sermoirik egin, ez sakramenturik banandu. Gaur ezin zaituet konfesatu. Nigaitik, beraz, pekatuok aldean eroan beharko dozuez, gozoak baziren, atseginez, mingotsak baziren, pazientziaz. Nahiz eta zuzenean bere aurkako ekintza izan ez, gotzain agurgarriak gu holantxe zigortzea nahi izan eban. Eta hona orain, destinoaren ukaldi bihurritz, kasik susmagarritz, gotzain gaixoa hil

zorian dogula. Egin beharreko gogoetak eginik, eta hainbat herritarren aholkuaz baliatu ondoren, itxialdian jarraitzea erabagi dogu. Inork errespetu faltatzat hartuko baleu, jakin bei kristaumentzat heriotza ez dela zoritxar bat, lekuri dohatsuenara igarotze bat baino. Neuk ez dot guztiz horrela sentitzen, baina Eliza maternalak horixe aldarritzera behartzen gaitu, eta bakotxak dakike zer zelan sinistu. Kontua da gure gotzaina, hil baledi, askoz hobeto dagokeela zeruko zorionean, hemen gugaitiko sufrimenduan baino. Hori itxialdiari eusteko arrazoi bat gehiago izan zeitekeela pentsatu dogu, konfiantza osoz ezen berak be, zeruko argitasunetik, gauzak era sano eta kristaurogoan ikusiko dituela, munduko morrontzen nahasmenetik baino.

- Berori da danaren errudun!
- Astiro, lagun! Zer da dana eta zein da errua?
- Ez dago bistan? Berorrek armatu dau hau guztia!
- Egidazu, mesedez, hika, gehienez zuka, ez behintzat berorika. Ez dot behar berbetan errespeturik, pertsonari ez jakonik.
- Deritzodan moduan berba egingo dot, berorri zein Aita Santuari. Hau ez da mendietatik jaitsiera espontano bat, berorren moldaketa bat baino.
- Zer dauka txarrik gazteria dantzan eta kantuan batzeak?
- Zer kantatzen eta zeri dantzan? Hau agitazino bat besterik ez da, berorrek ondo dakizen helburuetarako.
- Hemen ez zen ezer agitatuko, zeuk deitu ez bazeuntse errepideko uniforme horreei, eta disimuluan pasatzerik lortu ezin daben beste sekretuei.
- Uniformeek laster egingo dabe egin beharrekoa, jai hau desegiteko eskaria atoa zabaltzen ez badozu.
- Nik? Sermoiakaitik salatzen nozu, eta orain alkate-lanak eginarazo gura deustazuz?
- Agindua emonda dago. Ezin da ezere ostentazino publikorik egin.
- Dantzan eta pilotan egitea ostentazinoa da?
- Leku publikoan eta intentzino ezkutuekin bai.
- Ondo dago! Lagunok! -hots egin zien jaigileei-. Zatoze elizpera edo txokora.

- Zer koño gertatzen da hemen? Zergatik doaz denak?
- Nik esan dodan unean eta moduan interbenitu izan balitz, ez ziren danak joango.
- Baina nora doaz?
- Nik zer dakit!
- Hau potrokundea! Mugimendu Nazionalak hiru hamarkada garaile daramatzala, nola daukagu oraindik mugimendu ulertu gabeak?
- Galdera ala errieta zen hori?
- Mehatxua, azkar ez badiozu usain hartzen.
- Kapitain! Zeuek zarie horretan adituak.
- Zer egin behar genuen? Etorri direlako alertatu eta joan direlako alarmatu?
- Ba, horretantxe gagoz. Joan dira!
- Ez al dago modurik nora joan zitezkeen suposizio bat egiteko?
- Etorri diren lekura izango da.
- Lekura ala lekuetara?
- Honanzkoan, leku ezberdinetatik etortzea leku jakin batera heltzeko estratagema izan bada, orain leku jakinetik norabide ezberdinetan joateak be derrigor izan behar dau asmoren bat.
- Beste bilkuraren bat nonbait?
- Kapitain! Berandu hasi gara galderak egiten.
- Gu oraindik zerbitzuan gaude, eta jardun beharra dugu.
- Beste nonbait izan beharko dau, ze hemen ez dago zereginik. Abadeari heltzea-edo pentsatu ezik.
- Apaiza ez al da eurekin joan?
- Eurekin, norabide guztietan?
- Helmugara, behintzat! Dispersioak asmoren bat izan duela egia bada, edo Bermeon, edo Markinan, edo Durangon, edo Galdakaon berbildu behar dute.
- Edo Gernikan, edo Lekeition, edo Mungian, edo Zornotzan.
- Ez nago instrukzio geografikoetarako! Esaidazu zein den helbide probableena.
- Zure zerrendatik ala niretik?

- Bietatik ere, probableena bakarra izango da, ezta?
- Izan daiteke errotazinoa.
- Orduan zerrenda bat hautatu behar da.
- Ni neu Gernikatik hasiko nintzateke. Huts egitea balitz, bertan gelditzeko ez da txarrena.
- Etxera bidali nahi gaituzu, gero zeuk Arrien-en bazkaltzeko?
- Abadea  roanez gero, gainerakoa utz leiteke bertan behera.
- Bai temosoa! Abadearena egingo dugu beste batean.
- Orduan, ez dakit norantz erabagi, zotzez ez bada.
- Erabaki bat da hori ere. Goazen Gernikarantz. Gaur ez bada bihar, zail da denak noizbait handik ez pasatzea.

5. EBIDENTZIA. ONDARE KOMUNA - LEXIKOA

EUSKARA, BERE BEREZITASUN GUZTIEKIN, ONDARE KOMUN BATEKO PARTAIDE ERE BADA, ETA HORI LEXIKOARI DAGOKIO, BATEZ ERE

HIZTEGIEN JOKABIDEA

Hiztegien jokabidearen adibide batzuk emanez hasiko gara. Erdaretan, lau jaso ditut, portugesa barne, erabili nuen iturriak (*WordReference.com. Diccionario de sin nimos y ant nimos*) lau horiexek darabiltzalako. Zerrenda konparatiko hauek Mendebalde Kultura Alkarteko XV. Jardunaldietan ere erabili nituen. (*Hiztegi batu idealerantz* izeneko txostena. Xabier Amuriza. *Berbak hariz josten*, 11. or. Mendebalde Kultur Alkartea).

AMBICION

Labayru:

handigura, handinahi, askogura, askonahi, goragura, goranahi, largura, -gura, -nahi, desio, gogo, irrits (anhelo)

3000:

irrits, askogura, handinahikeria, uzi, largura

Elhuyar:

nahi, gura, gurari, desira, lehia (bizi), gogo, asmo, uzi, anbizio; handinahi, goranahi, askonahi, askogura

Zehazki:

1) *nahi bizi, grina* 2) *handinahi, goranahi*

AMBICIOSO

Labayru:

1) Ref. a proyectos, que demuestra ambición: *handi, eder, itzel(ezko)*
 2) Persona que tiene gran ambición: *dana/dena gurako, anbizino/anbizio / asmo handiko, handigura(ko), gehiago-gurako/-nahi, askogura(ko), askonahi, handizale, goragura(ko), goranahi; codicioso gose(ti), gutziatsu; de riquezas diruzale, zeken; expr. dirugose, diruegarri*

3000:

1) *handigura, handinahi*
 2) ambicioso/sa; grande: *handi, bikain, eder*

Elhuyar:

anbizio handiko; askonahi, handinahi, handizale, handinahiko, goranahi; [referido a objetivos, proyectos] asmo handiko, handi

Zehazki:

handinahi, handinahiko, handizale

SINONIMOAK 3000:

1) *largura, irrits, gutizia, handinahi, askogura*
 2) *gutiziatzaile, gutizios, irritsu, askonahi, dirugose, diruzale, ñapur*

SINONIMOAK UZEI

1) *askonahi, goranahi, handinahikeria, askogura, handigura., handinahitasun, handizaletasun, largura, anbizio*
 2) *handinahi, askonahi, goizale, handigura, handinahiko, handizale, askonahiko, goranahi, handikari*

SINONIMOAK WordReference (Ikus Julio Casaresen "Diccionario ideológico" be).

1) *Ambición, ansia, codicia, deseo, anhelo, apetencia, aspiración, pretensión, afán, aidez*
 2) *Ambicioso, codicioso, ansioso, deseoso, insaciable, intrigante, calculador*

Ingelesa: *ambition.*Frantsesa: *ambition.*Portuguesa: *ambiçaõ*

AMBICIOSO

Ingelesa:

1) <persona> a) (codicioso) *ambitious, overambitious* b) (con empuje) *enterprising, ambitious* 2) <proyecto/plan> *ambitious*

Frantsesa:

ambitieux(euse)

Portuguesa:

ambicioso(a)

OPORTUNO

Labayru:

1) Que se hace o sucede en el momento adecuado: *erazko, egoki, era oneko, behar dan momentuko/behar den mementoko, apropos; idóneo: autuko/ hautu(z)ko, aukerako, hartako, hautu, aukeratu; apropiado jaseko,*

tañuzko/taxuzko, ganorazko

2) Ingenioso u ocurrente: *burutsu, jeinutsu, asmotsu, (buru)argi, mainatsu* (mañoso), *burugin* (tb. prudente)

3000:

1) *egoki, aukerako, apropos, eroso, erako, ordu oneko, aiutu, beharrezko, alagalako*

2) ocurrente: *ateralditsu*

Elhuyar:

1) *egoki, apropos, beharrezko, bidezko*

2) persona: *burutsu, asmotsu*

Zehazki:

egoki

OPORTUNIDAD

Labayru:

1) Momento y circunstancia oportunos: *era (on), abagune, parada, aukera* (opción), *une* (frec. en composición), *bide, komenentzia, egokiera, okasino/okasio*.

2) Cualidad de oportuno: *egokitasun*.

3000:

abagune, era, aukera, atajoda, deretxa, parada, bide, egokiera, adiuntza, ereti, bitarte, une, aldi, tenore, tentu, zori

Elhuyar:

1) *aukera, egokiera, parada, abagune; tertzio, mugon*

2) *egokitasun*

Zehazki:

1) *egokiera, aukera, parada, era (on), abagune*

2) *aukera, (ganga) mauka*

INOPORTUNO

Labayru:

1) Intempestivo: *orduz kanpoko, ezorduko, ezgaraiko, desgaraiko*

2) Inadecuado: *desegoki, egokia ez dan(a)/egoki ez den(a), ezegoki, lakasta (fig.)*.

3000:

1) intempestivo: *desgaraiko, desorduko, ezgaraiko*

2) inadecuado: *behar gabeko, desegoki*

Elhuyar:

1) *ezgaraiko, ezorduko, desgaraiko, desorduko*. 2) *desegoki, ezegoki*

Zehazki:

ezgaraiko, ezorduko, tokiz kanpoko, orduz kanpoko

OPORTUNO

Ingelesa:

1) *timely, opportune*.

2) *appropriate*.

Frantsesa:

opportun(e).

Portugesa:

oportuno(a), adequado(a)

INOPORTUNO:

Ingelesa:

1) (visita-llamada) *untimely, inopportune*.

2) (comentario-crítica) *ill-timed, inopportune*.

Frantsesa:

opportun(e).

Portugesa: *inoportuno(a)*

INOPORTUNIDAD

Ingelesa:
inopportuneness.

Frantsesa:
inopportunit .

Portugesa:
inoportunidade

ADULAR

Labayru:
-(r)i eder/lausengu egin, lausengatu, palagau/balakatu, losintxatu, losindu; fig. koipe(z)tu/koipez(ta)tu, zuritu/zuri(ka)tu, -(r)i koipea emon/eman, -(r)i jaboia emon/-(r)i xaboia eman, -(r)i lepoa igurtzi.

3000:
balakatu, xaboia eman, koipatu, zurikatu, lausengatu, losintxatu

Elhuyar:
losintxatu, lausengatu, koipetu, balakatu, zurikatu

Zehazki:
losintxatu, balakatu, losintxa egin.

ADULACI N

Labayru:
lausengu, palagu/balaku, losin(txa), amainu, leunketa, titulika; peyor. koipekeria, palagukeria/balakakeria, losintxakeria, leunkeria, labankeria/labainkeria, zaplanderia, eztikeria; fig. jaboixaboi, koipe.

3000:

koipekeria, zurikeria, labankeria, eztikeria, zaplanderia, lausengaldi, balaku adulaci n perversa: lausengukeria

Elhuyar:
lausengu, koipekeria, balaku, zurikeria, losintxa

Zehazki:
losintxa, leunkeria, zurikeria, labainkeria, balaku goi

ARROGANCIA

Labayru:
1) *Cualidad harrotasun, handiuste/hantuste, burueretxi/buruiritzi, handitasun, mukertasun, burgoitasun, ozartasun; actitud harrokeria, handikeria, harropuzkeria, burgoikera, ozarkeria, oilarkeria (fig.).*
2) *Valor harro(putz), (buru)eretxi/(buru)iritzi, handiuste/hantuste, handigura, handinahi, arranpalo, haidor (tb. altero); fig. mosugora/musugora, surgora/sudurgora.*
3) *adore, kemen, gogo, ausardia, animo, ausartasun, bipiltasun, kopeta, balore, bihotz (fig.).*

3000:
handigura, handinahi, burgoikera, handikeria, handipuzkeria, handiuste, ozarkeria, harropuzkeria, oilarkeria

Elhuyar:
1) *harrokeria, hantuste, burgoikera, oilarkeria*
2) *ausardia, ausartasun, kemen, adore*

Zehazki:
harrokeria, harropuzkeria pei, burgoikera goi.

ARROGANTE

Labayru:

1) Orgullosa *harro(putz)*, (*buru*)*eretxi*/(*buru*)*iritzi*, *handiuste/hantuste*, *handigura*, *handinahi*, *arranpalo*, *haidor* (tb. *altero*); fig. *mosugora/musugora*, *surgora/sudurgora*.

2) Que es apuesto *galant*, *armatu*, *martzal*, *sona*, *dotore* (elegante), *eder* (bello); esbelto *lerden*, *lirain*, *txairo*.

3) Que es valiente *adoretsu*, *ausart(i)*, *bulartsu*, *kementsu*, *bihoztsu*, *bihoztun*, *azarri*, *bildurbako/beldurgabe*, *bipil*, *izukaitz*, *oldarkor* (osado).

3000:

harroxko, *harroputz*, *handiusteko*, *handigura*, *burgoi*, *anpurutsu*, *hanpurus*

Elhuyar:

1) *harro*, *harroputz*, *hantuste*, *burgoi*

2) *ausart*, *ausarti*, *kementsu*, *adoretsu*

Zehazki:

harro, *harroputz* pei, *hantuste*, *burgoi* goi.

ENTUSIASMO

Labayru:

1) Emoción *zoramen*, *zoragarritasun*, *zirrara*, *bihotzondoko*, *hunkipen*, *zirristada*, *pilpira*, *gortasun* (clás.), *asai(a)* (emoción violenta acompañada de sollozos), *alaitasun* (alegría).

2) Afán o ansia *gogo bizi* | *handi*, *grina*, *gogo*, *irrika*, *garda*, *-gura*, *-nahi*; fig. *su*, *gar*, *berotasun*; expr. *behar* (tb. en composición), *-min*.

3000:

joran, *irrika*, *gar*, *gogo bizi*, *su*, *furia*, *azkortasun*, *afan*, *berotasun*

Elhuyar:

berotasun, *su*, *kar*, *gar*, *gogo handi/bizi*

Zehazki:

gogoberotasun, *gogo bero*, *suhartasun*, *kar*, *entusiasmo*.

PRUDENCIA

Labayru:

1) Sensatez o buen juicio *zuhurtasun*, *zentzun(tasun)/zentzu(tasun)*, *zuztar*, *zuhurtzia*, *gurbiltasun*, *zogiera*, *fundamentu*, *buru*, *sen*, *soegi* (clás.), *formalidate/formalitate* (seriedad).

2) Moderación *neurri(tasun)*, *neurribide*, *izari*.

3000:

zuhurtasun, *zuhurtzia*, *tentu*, *zogiera*, *arreta*

Elhuyar:

1) *zuhurtzia*, *zuhurtasun*, *tentu*, *kontu*

2) Rel. *zuhurtzia*

Zehazki:

1) (cuidado) *arreta*

2) (moderación) *neurritasun*

3) (sensatez) *zuhurtasun*, *zuhurtzia* 4 erl (virtud) *zuhurtasun*

PRUDENTE

Labayru:

1) Que actúa con sensatez y moderación *zentzundun/zentzudun*, *zentzun/zentzu handiko/oneko*, *zuhur*, *burudun*, *arduratsu* (responsable), *adindun*, *jarri*, *zori*, *begiratu* (comedido).

2) Que es razonable *egoki*, *erazko*, *behar dan/den moduko*, *jaseko*, *taiuzko/taxuzko*, *errazoizko/arrazoizko*.

3000:

zuhur, zogi, arduratsu, artatsu, axolati, begiratu

Elhuyar:

- 1) *zuhur, burutsu, zentzudun, zogi*
- 2) referido a la hora *zentzuzko, arrazoizko*

Zehazki:

- 1) adj *zuhur, zentzuzko* 2 (cantidad, medida) *zentzuzko, neurrizko*

INCOMPATIBLE

Labayru:

alkartuezin(eko)/elkarrezin, alkargatx/elkargaitz, bateratuezin (eko / bateraezin, adostuezin(eko)/adostezin (de pensamiento); de difícil convergencia *bateragatx/bateragaitz, alkargatx/elkargaitz, bateratzen gatxa dan(a)/bateratzen gaitza den(a)*

3000:

bateraezin, elkartezin, (de modo de pensar) adostezin

Elhuyar:

bateraezin, elkartezin, bateragaitz, elkargaitz

Zehazki:

bateraezin, ezin elkartuzko, elkarrezin: casi incompatible, bateragaitza

INDIFERENCIA

Labayru:

- 1) Despreocupación (cualidad) *ardurabakotasun/arduragabetasun, ardurarik/Lebarik/axolarik eza, axolagabetasun, itxitasun/utzitasun* (dejadez); acto o hecho despreocupado *ardurabakokeria/arduragabekeria, axolagabekeria, itxikeria/utzikeria.*
- 2) Frialdad (cualidad) *hoztasun, muker(tasun), muzin(tasun), puztasun;* actitud fría *hozkeria, mukerkeria, muzinkeria, mutin, zapuzkeria.*

3000:

- 1) despreocupación *arduragabetasun, ezaxola, ezaxolakeria, axolagabetasun, antsikabetasun, aihergabetasun*
- 2) frialdad de trato *hoztasun, hotzaldi*

Elhuyar:

axolagabetasun, aihergatasun, ezaxola; ezaxolakeria

Zehazki:

ezaxola, axolagabetasun, axolagabekeria pei.

INHUMANO

Labayru:

(bihotz) gogor, bihozbako/bihozgabe, anker, krudel/krudel, bihotz-baltz/-beltz, errukibako/errukigabe, gizabako/gizagabe, gupidagabe, sabelgorri (fiero), odolgiro (sanguinario), *mokor;* ref. a cosas *jasanezin(eko), jasangatx/jasangaitz.*

3000:

- 1) *ezgizatiar*
- 2) persona: *anker, bihotz-gogor*
- 3) *jasangaitz, jasanekin*

Elhuyar:

- 1) persona *bihotz-gogor, anker, krudel*
- 2) dolor, pena *jasangaitz, jasanekin*

Zehazki:

- 1) adj (persona) *gizagabe, anker*
- 2) (dolor, sufrimiento) *gizagabe*

Orain arteko zerrendetan, espainolak, frantsesak eta ingelesak elkarrekin dituzten berba komunak eman ditut. Badira beste berba asko, espainolak eta frantsesak konpartitzen dituztenak. Hori ere, euskararen

kasurako, ez da komuntasun txikia. Badira, azkenik, beste berba asko eta asko, Iparraldean frantsesetik eta Hegoaldean espainoetik hartuak, eta hartu beharrekoak. Hona espainoetik harako adibide bat, lau hiztegien jokaera konparatzeko.

AFÁN

Labayru:

- 1) Empeño o esfuerzo *ahalegin*, (*egin*)*ahal* (frec. en plur.), *esfortzu/esportzu*, *azterrika/aztarrika*, *jarduntza* (insistencia)
- 2) Deseo fuerte *gogo* | *nahi bizi*, *grina*, *irrika*, *desio*, *lehia*, *garda*, *supitu*, *-gura*, *-nahi*, *behar* (tb. en composición); expr. *su*, *gar*, *itsumen*, *erretasun*, *-min*
- 3) Fatiga, apuro o penalidad *larritasun*, *estutasun*, *estu(ku)ra*, *larrialdi*, *estualdi*, *egonezin*, *larridura*, *herstura*, *urduritasun* (nerviosismo), *kezka* (preocupación); fig. *itotasun*, *itoaldi*; trance *egoera* | *momentu/memento* | *une* | *hinka* | *ataka*, *txar* (tb. con larri, gaizto, etc.).

3000:

- 1) ansia *afan*, *joran*, *ahalegin*, *lehia*, *gar*, *uzi*, *pasio*, *irrika*, *azku*
- 2) pretensión *uzi* 3 *esfuerzo ahalegin*, *neke*

Elhuyar:

- 1) *ahalegin*, *eginahal*, *lehia*; *grina*, *irrika*, *kar*, *nahi (bizi)*, *gogo (bizi)*, *gogo (handi)*
- 2) pl. *Neke(ak)*

Zehazki:

- 1) *gogo bizi*, *grina*, *lehia*, *joran* goi: *afán* de aprender, *ikasmina*, *ikasgalea* goi, *ikasnahia*
- 2) (empeño) *ahalegin* 3 *afanes* mpl *lan(ak)*, *neke(ak)*

ARGIA ETA BEREIZIA

Irakurlearen esku utziko ditudan gogoeten abiabide soil gisan, deigarri da oso, joera orokor ia sistematikoaren adierazle diren adibide

hauetan guztietan, nola gure hiztegi orokorrek, sarrera baten ordain kopuruan, sinonimo-hiztegiak ere gainditzen dituzten. Ostera, ikus gure inguruko hizkuntza garatuen jokaera zer neurtua eta zehaztua den.

Descartesek ideiei buruz zioen "argi eta bereizi" kontzeptua (gaztelaniaz "claro y distinto" diotena) egoki dakust terminoei aplikatzeko ere. Erdal hitz komun batentzat, euskaran ordain argi eta bereizirik aurkitzen ez bada, eta neologismoak ere ez badira "argi eta bereizi" gelditzen, zentzuzkoena da hitz komuna mailegatzea. Eztabaida liteke zein den era horretako hitza, zeren bati "argi eta bereizi" begitantzen zaiona beste batek iluntzat jo dezake. Edo batek pentsa dezake gaur iluntzat jo daitekeen hitz bat erabilerak argi eta bereizi bihurtuko duela. Beste batek pentsa dezake alferreko ilunpe batetik pasatzea dela hori. Argi dagoena da, aurreko adibide zerrendan ikusi bezala, hiztegi batean, edo hiztegi batetik bestera, hitz bati ordain asko eta ezberdinak aplikatzen bazaizkio, kasu horretarako ordain argirik ez zegoelako dela, zeren, balego, bakarra litzateke nahikoa. Edo pare bat, gehienik.

Sinonimoen edo antzekoen ugaldenak, argitasuna baino areago, kontzeptua zorabiatzea dakar. Hitz komun batentzat, euskal ordain argirik ez badago, neologismoen baliabidea ere, gehiengan, zorabioa gehitzeko izango da. Laburturik, "ondare komunaren" gehi ordain "argi eta bereizien" kontzeptuek irizpide nahiko zehatza damaigute, jokaera gidatzeko. Hitzak banaka erabaki behar direla eta dudako kasu ugari agertuko dela argi izanik, ziur da irizpide bikoitz horrek kasuen gehiengoa zuzen konponduko duela.

HITZ KOMUNA GEHI EUSKAL ORDAINA

Ez dago gaia konfrontazio bihurtu beharrik. Hitz komuna eta ustezko euskal ordaina sinonimotzat utz litezke, elkarren lagun. Duda kasuan, biak jasotzea da gutxien kostatzen dena, bataren ala bestearen errotzea (edo biena) erabileraren esku utziz. Bidezko ez dirudiena da bata erabileraren esku uztea, bestea eliminatu eta gero. Eta bai bitxia hitz eliminatua, gehienetan, hitz komuna izaten dela. Esaterako, gorago erakutsitako bigarren adibide multzoa honela utz daiteke:

Ambición: *anbizio, (handi-, asko-...) gura/ nahi*
 Ambicioso: *anbiziodun, anbizios(o), (handi-, asko-...)gurako/nahiko*
 Oportuno: *oportuno, egoki/aiutu*
 Oportunidad: *1. Oportunitate, egokitasun. 2. Aukera*
 Inoportuno: *inoportuno, desegoki*
 Inoportunidad: *inoportunitate, desegokitasun*
 Adular: *adulatu, zuri(ka)tu*
 Adulación: *adulazio, zurikeria*
 Arrogante: *burgoi, arrogante*
 Arrogancia: *burgoitasun-keria, arrogantzia*
 Entusiasmo: *berotasun, entusiasmo*
 Prudente: *prudente, zuhur*
 Prudencia: *prudentzia, zuhurtzia*
 Incompatible: *bateraezin, inkompatible*
 Indiferencia: *indiferentzia, aihergatasun*
 Inhumano-a: *gizagabe, inhumano*
 Afán: *afan, joran*

Hona, azkenik, amaigabea izan litekeen zerrenda baten lagin adibidezko bat, euskara hutsean emana.

Adierazpen-espresio
Aitortu-konfesatu
Aitortza-konfesio
Aldarri(ka)tu-proklamatu
Alderatu-konparatu
Antzerki-teatro
Antzerki-, teatral
Arreta-atentzio
Askapen-liberazio
Askatasun-libertate
Aurreikuspen-prebisio
Aurrerapen-progresu
Ausarkeria-temeritate
Baieztu-afirmatu

Baldindu-kondionatu
Baldintza-kondizio
Baliagarritasun-utilitate
Banatu/banitze-separatu/separazio
Batzorde-komite
Behartu-obligatu
Berezi/bereizte-separatu/separazio
Berretsi-konfirmatu
Bezero-kliente
Bider(ka)tu-multiplikatu
Bilduma-kolekzio
Bildumatu-kolekzionatu
Bortxa/indarkeria-biolentzia
Egiaztatu-berifikatu
Egiaztatu-zertifikatu
Ekoizpen-produkzio
Ekoiztu-produzitu
Eldarnio-delirio
Esklamazio-oihu
Espresibo-adierazkor
Estimulatu-kinatu
Estimulu-kinada
Eztabaida-diskusio
Eztanda/leherketa-esplosio
Garantia-berme
Garden-transparente
Gardentasun-transparentzia
Gihar-muskulu
Hedapen-espantsio
Hedakor-espantsibo
Higidura-mugimendu
Hitzez hitz-literalki
Hitzez hitzezko-literal
Hobespen/lehentasun-preferentzia
Ikasturte-kurtso
Iradokizun-sugerentzia
Iraingarri-ofentsibo
Irizpide-kriterio
Izenburu-titulu

Jabetza-posesio
Jatorrizko-original
Komuntadura-konkordantzia
Konkretatu-zehaztu
Konkrezio-zehazpen
Konpetentzia-eskumen
Konpetentzia-gaitasun
Konponbide-soluzio
Larrialdi-urgentzia/emergentzia
Lehergarri-esplosibo
Lerro-linea
Lurralde-territorio
Matxinatu-sublebatu
Menderatu-dominatu
Obserbatu-behatu
Obserbazio-behaketa
Oinarri/oinarrizko-base/basiko
Ondorio-konklusio,
Ondorio(zta)tu-konkluditu
Oroimen-memoria
Oso-kompleto
Oso-total
Partekatu-konpartitu
Saihestu/ekidin-ebitatu
Sailkatu-klasifikatu
Sakatu-presionatu
Sarraski-masakre
Seduzitu-limurtu
Sorkuntza-kreazio
Sortu-kreatu
Zapalkuntza-opresio
Zeharrargi-transluzido
Zehaztasun-prezizio
Zorrotz/zorroztasun-sebero/seberitate
Zuhurtzia-prudentzia

ONDARE KOMUNEKO ZERRENDA ZABAL BAT

Ondorengo zerrendan pare bat mila hitz jasotzen dira, jaso zitezkeen beste hainbat milatatik. Komuntasuna neurtzean, hiru hizkuntzatara mugatu naiz (espainola, frantsesa eta ingelesa), uste baitut, euren artean, euskararen kokapen geografikoa, kulturala eta soziologikoa sobera ordezkatzeko dela. Zerrenda honetako hitz guztiak hiztegi espainol, frantses eta ingelesean sarturik daude. Esan beharrik ez dago komuntasan hori konpartitzen dutela, gutxienez: katalanak, galegoak, portugesak, italiar... Ez naiz hizkuntzen zerrenda zehatza osatzeko bezain aditua, baina lasai esan genezake mila milioi biztanlek osatzen duten gune komunaren erdi-erdian gaudela.

Hiru hizkuntzen lekukotza jasotzek ez du esan gura hiruretako bi edo bakarra nahikoa ez litzatekeenik, hitz bat euskarari onartzeko. Hitz asko dira onartuak (edo onartu beharrekoak), Iparraldeak frantsesetik eta Hegoaldeak espainoletik jaso dituenak. Maila horretaraino ez dut jaitsi nahi izan, ikusarazteko komuntasan askoz zabalago eta sendoagoan gabiltzala.

Ohar bat, hala ere, norbaitek oker txiki batetik argudio orokorren bat atera ez dezan. Zerrendak osatzean, hitz bakoitzari komuntasanaren adierazle hauxe erantzen nion: (*esp.*, *fr.*, *ing.*). Gero pentsatu nuen hitz bakoitzean zertarako eman behar nuen adierazlea, ohar batean jakinarazi ahal izanez gero zerrenda osoa zela hiru hizkuntzena. Hala, hitzak hutsean utzi nituen, alferreko errepiken itsustasuna mozturik. Gero konturatu nintzen hitz batzuek (oso gutxiak) bi hizkuntzaren erreferentzia izan zutela: (*esp.*, *fr.*) edo (*esp.*, *ing.*). Hitz horien artean zerrenda osoa banan-banan berrikusteko lanik ez dut hartu. Dozena bat ez dira izango guztira, baina badaude batzuk, zeintzuek jabetzea irakurle adituen esku uzten dudana.

Azkenik, zerrenda hau ikusita, ez dago gehiegi ekin beharrik gure inguruko hizkuntza garatuak nolako batasun kontzeptualean mugitzen diren. Hain praktika komun eta finkatu horri euskal hiztegien gorago aipatu jokaera kontrajartzea eta ondorio batzuk ikustea ez da lan zaila. Ebidentzien eremuan gabiltza. Hitzen bat edo beste eztabaidagarri izan daitekeela ukatu gabe, bloke bezala, gure inguruko hizkuntza garatuen

komuntasuna (ondare komuna) hain da ebidentzia argia, non ez baitu merezi argudiatzen hasterik. Beste kontu bat da, ondare komun horretan, euskara ere partaide izatea nahi den ala ez. Niretzat eta askorentzat (suposatu nahi nuke, gehienentzat), partaidetza hori ere ebidentzia argia denez gero, goazen, beste gabe, aipatu bokabulario luzea ematera.

Abandonatu
Abandono
Abalantxa
Abantzatu
Abantzu
Abarizia
Abarizios(o)
Abdikatu
Abdikazio
Abdomen
Abdominal
Abentura
Abenturatu
Abenturazale
Aberrante
Aberrazio
Abertentzia
Abertitu
Abertsio
Abiazio
Abioi
Abiadore
Abido
Abidotasun
Abisal-abismal
Abismo
Abjuratu
Abjurazio
Ablazio

Abluzio
Abnegazio
Abolitu
Abolizio
Abolizionismo
Abolizionista
Abominable
Abominatu
Abominazio
Abordaje
Abordatu
Aborigene
Abortatu
Abortibo
Abortista
Aborto
Abrasio
Abrasio
Abrebiatu
Abrebiazio
Absentzia
Absente
Absolutismo
Absolutista
Absolutu
Absolutuki
Absolbitu
Absoluzio
Absorbente

Absorbitu
Absortzio
Abstemio
Abstenitu
Abstentzio
Abstentzionismo
Abstentzionista
Abstinenzia
Abstrahitu
Abstraktu
Abstrakzio
Abstruso
Absurdu
Abulia
Abuliko
Abundante
Abundantzia
Abusatu
Abusatzaile
Abusibo
Abusu
Adaptatu
Adaptazio
Adaptagarri
Adaptagarritasun
Adberbial
Adberbio
Adbersario
Adbersatibo
Adbersitate
Adberso
Adherente
Adherentzia
Adheritu
Adhesibo
Adhesio

Adizio
Adizional
Adiposo
Adipositate
Aditibo
Adjazente
Adjektibo
Adjektibatu
Adjektibazio
Adkiritu
Adkisizio
Adkisitibo
Administratu
Administrazio
Administratzaile
Admiratu
Admiragarri
Admiratzaile
Admirazio
Admititu
Admisio
Admisible
Admonizio
Adoleszente
Adoleszentzia
Adoptatu
Adoptatzaile
Adoptibo
Adopzio
Adoratu
Adoragarri
Adorazio
Adoratzaila
Adornu
(Ad)ornatu
(Ad)ornamendu

Adulatu
 Adulazio
 Adulteratu
 Adulterazio
 Adulterio
 Adultu
 Adultasun
 Aduzitu
 Aeroespazial
 Aeródromo
 (gehi Aero- guztiak)
 Afable
 Afabletasun
 Afasia
 Afasiko
 Afektatu
 Afektazio
 Afektibo
 Afektu
 Afeminatu
 Afiliazio
 Afinitate
 Afirmatibo
 Afirmatu
 Afirmazio
 Afigitu
 Aflikzio
 Afiktibo
 Afluentzia
 Afluitu
 Afonia
 Afoniko
 Aforismo
 Aforistiko
 Agentzia
 Agentziatu

Agenda
 Agente
 Agil
 Agildu
 Agiltasun
 Agitatu
 Agitazio
 Agitzaile
 Aglomerazio
 Aglutinazio
 Aglutinatu
 Aglutinatzaile
 Agrario
 Agrabatu
 Agrabazio
 Agrabante
 Agresio
 Agresibo
 Agresibitate
 Agresore
 Agronomia
 (gehi Agro-zerrenda)
 Airatu
 Airbusa
 Aireazio
 Ajustatu
 Ajustamendu
 Akademia
 Akademiko
 Akademismo
 Akieszentzia
 Aklamatu
 Aklamazio
 Aklimatatu
 Aklimatazio
 Akolito

Akonpainamendu
 Akonpainatu
 Akonpainatzaile
 Akoplamendu
 Akoplatu
 Akoplatzaile
 Akordeoi
 Akordeonista
 Akreditatu
 Akreditazio
 Akreditagarri
 Akrobata
 Akrobatiko
 Akrobazia
 Akromatiko
 Akromatismo
 Akromatizatu
 Aktitude
 Aktibatu
 Aktibitate
 Aktibazio
 Aktibista
 Aktibo
 Aktibismo
 Aktu
 Aktuatu
 Aktuazio
 Aktual
 Aktualdu
 Aktualitate
 Aktualizazio
 Akuatiko
 Akueduktu
 Akordio
 Akordu
 Akuifero

Akumulatu
 Akumulazio
 Akumulagarri
 Akumulatzaile
 Akulturazio
 Akupuntore
 Akupuntura
 Akusatu
 Akusazio
 Akusatzaile
 Akusatibo
 Akustika
 Akustiko
 Akutu
 Akzeditu
 Akzesible
 Akzesibletasun
 Akzesio
 Akzesorio
 Akzidental
 Akzidentaltasun
 Akzidente
 Akzio
 Akzionatu
 Alarma
 Alarmatu
 Alarmante
 Albino
 Album
 Alegoria
 Alegoriko
 Alegorismo
 Alerta
 Alertatu
 Aliantza
 Aliatu

Alienazio
 Alineatu
 Alineazio
 Aliterazio
 Alkoholismo
 Alteratu
 Alterazio
 Alternantzia
 Alternatore
 Alternatiba
 Alternatibo
 Alterno
 Altu
 Altuera
 Aluditu
 Alusio
 Amalgama
 Amalgamatu
 (A)maneratu
 (A)maneramendu
 Amoral
 Amoraltasun
 Amorfo
 Amorfismo
 Amuleto
 Anal
 Analisi
 Analizatu
 Analogo
 Analogia
 Anbibalente
 Anbibalentzia
 Anbizio
 Anbizionatu
 Anbizios
 Anbiguo
 Anbiguotasun
 Anekdota
 Anexatu
 Anexio
 Anexo
 Anfibio
 Angustia
 Angustios
 Animazio
 Animoso
 Anodino
 Anormal
 Anormaltasun
 Anotatu
 Anotazio
 Ankilosi
 Ankilosatu
 Anplifikatu
 Anplifikatzaile
 Anplitude
 Anputatu
 Anputazio
 Antagoniko
 Antagonismo
 Antiazido
 Antiaereo
 Antiklerikal
 Antikorrosibo
 Antizipatu
 Antizipazio
 (gehi Anti- zerrenda)
 Ansietate
 Ansios
 Anual
 Anualitate
 Anulatu

Anulazio
 Anuntziatu
 Anuntzio
 Aparente
 Aparentzia
 Aparizio
 (A)pasionatu
 Apatia
 Apatiko
 Apelable
 Apelatu
 Apelazio
 Apendize
 Aperitibo
 Apetito
 Apetitos(o)
 Apikultore
 Apikultura
 Aplikatu
 Aplikazio
 Apologia
 Aposizio
 Apostata
 Apostolu
 Apostrofo
 Apoteosi
 Apoteosiko
 Aprehentsio
 Aprehentsibo
 Apreziatu
 Apreziazio
 Aprobatu
 Aprobazio
 Apropiatu
 Apropiazio
 Arbitrarietate
 Arbitrario
 Arbitratu
 Arboreszente
 Arborikultura
 Ardente
 Ardore
 Argudiatu
 Argumentatu
 Argumentazio
 Argumentu
 Arido
 Aridotasun
 Arkaiko
 Arkaismo
 Arketipo
 Arkitekto
 Arkitektura
 Arkano
 Arku
 Arkutu
 Arlekin
 Arma
 Armairu
 Armatu
 Armatura
 Aroma
 Aromatiko
 Aromatizatu
 Arribatu
 Arribatze
 Arribismo
 Arribista
 Arrogante
 Arrogantzia
 Arteria
 Arterial

Artifizial
 Artifizio
 Artikulatu
 Artikular
 Artikulazio
 Artropodo
 Asalto
 Asaltatu
 Asanblada
 Asasino
 Asasinatu
 Asentitu
 Asentimendu
 Asertzio
 Asfalto
 Asfaltiko
 Asfixia
 Asfixiatu
 Asidu(o)
 Asidutasun
 Asignatu
 Asignazio
 Asimilatu
 Asimilazio
 Asistentzia
 Asistitu
 Asoziatu
 Asoziatibo
 Asoziazio
 Aspektu
 Aspiratu
 Aspirazio
 Astrakan
 Astringente
 Astringentzia
 Astutu

Astuzia
 Asumitu
 Asunptzio
 Atakatu
 Atakatzaille
 Atake
 Atenditu
 Atentibo
 Atentzio
 Ateo
 Ateismo
 Atenuante
 Atenuatu
 Atipiko
 Atmosfera
 Atmosferiko
 Atoloi
 Atomo
 Atomiko
 Atonal
 Atonia
 (A)tormentatu
 Atrakzio
 Atrahitu
 Atraktibo
 Atribuitu
 Atributibo
 Atributu
 Atribuzio
 Atrizio
 Atroz
 Atrozki
 Audaz
 Audazia
 Audizio
 Audientzia

Audiobisual
 Auditatu
 Auditore
 Auditorium
 Aurifero
 Auskultatu
 Auskultazio
 Austeritate
 Austero
 Autentiko
 Autentikotu
 Autentikotasun
 Autoktono
 Autonomia
 (gehi Auto- mordoia)
 Autore
 Autoretza
 Autoritate
 Autoritario
 Autorizatu
 Autorizazio
 Auxiliar
 Azefalo
 Azeleratu
 Azeleratzaile
 Azelerazio
 Azentu
 Azentuatu
 Azentuazio
 Azeptagari
 Azeptatu
 Azeptazio
 Azido
 Azidotasun
 Azidotu
 Axioma

Axiomatiko

Badia
 Bagaje
 Bakante
 Balantza
 Balantze
 Balidatu
 Balidazio
 Balkoi
 Baltsamo
 Baltsamatu
 Banal
 Banalitate
 Bandidu
 Banitate
 Banitos
 Barbarismo
 Barbaro
 Barbarokeria
 Variable
 Variabiletasun
 Bariatu
 Bariazio
 Barietate
 Barra
 Barril
 Barroko
 Base
 Basiko
 Bastioi
 Bataila
 Batailoi
 Bateria
 Baxu
 Baxu-erliebe

Begetal
 Begetazio
 Beligerante
 Beligerantzia
 Belikoso
 Belizismo
 Benal
 Benaltasun
 Benebolente
 Benebolentzia
 Benefiko
 Benefizio
 Beneratu
 Benerazio
 Beneragarri
 Benial
 Benialtasun
 Benigno
 Benignitate
 Bentilatu
 Bentilazio
 Berbal
 Berbalizatu
 Berifikatu
 Berifikazio
 Bermiloi
 Berniz
 Bernizatu
 Bersatil
 Bersatiltasun
 Bestia
 Bestial
 Bestialismo
 Beterano
 Biabile
 Biabletasun

Bianual
 Bibratu
 Bibrazio
 Bidimentsional
 Bikolore
 Bikonkabo
 Bikonbexo
 Bilateral
 (gehi Bi- zerrenda)
 Bilis
 Biografia
 Biolatu
 Biolazio
 Biolento
 Biolentzia
 Bipedo
 (gehi Bio- zerrenda)
 Biril
 Biriltasun
 Birulento
 Birulentzia
 Bisual
 Bisualdu
 Biszeral
 Bitál
 Bitálitate
 Bizefalo
 Bizeps
 Blasfematu
 Blasfematzaile
 Blokatu
 Blokatze
 Bloke
 Bohemio
 Boikot
 Boikotatu

Bokabulario
 Boluntario
 Boluptuos(o)
 Boluptuostasun
 Bonba
 Bonbatu
 Boraz
 Borazitate
 Brabo
 Brabotasun
 Branditu
 Brebe
 Brebetasun
 Brebiario
 Brida
 Brillante
 Brisa
 Brotxa
 Bronkio
 Bronkitiko
 Brusko
 Bruskotasun
 Brutal
 Brutaltasun
 Bruto
 Bukal
 Bulbo
 Bulbotsu
 Bulgar
 Bulgaritate
 Bulgarizatu
 Bulnerable
 Bulnerabletasun
 Burdel
 Burin
 Burlesko

Busto
 Datatu
 Debakle
 Debate
 Debatitu
 Degeneratu
 Degenerazio
 Dekadente
 Dekadentzia
 Deklamatu
 Deklamazio
 Deklaratu
 Deklarazio
 Dekoratu
 Dekorazio
 Defekzio
 Defektu
 Deferentzia
 Defiziente
 Defizientzia
 Definitibo
 Deformatu
 Deformazio
 Degeneratu
 Degenerazio
 Degradatu
 Degradazio
 Dezente
 Dezentzia
 Delizia
 Delizios
 Deliratu
 Delirio
 Dementzia
 Dementzial

Demonstratu
 Demonstrazio
 Dentsitate
 Dentso
 Denuntzia
 Denuntziatu
 Dependente
 Dependenzia
 Deportatu
 Deportazio
 Deprabatu
 Deprabazio
 Deribatu
 Deribazio
 Desalatu
 Desastre
 Deskreditatu
 Deskreditu
 Deskontzertatu
 Deskubritu
 Deskubrimendu
 Desenbarkatu
 Desenbarku
 Desenkantu
 Desenkantatu
 Desertatu
 Desertzio
 Desesperatu
 Deseperazio
 Desfiguratu
 Desheredatu
 Deshonest
 Deshonestasun
 Desinfektatu
 Desinfekzio
 Desmantelatu

Desmantelamendu
 Desmobilizatu
 Desmobilizazio
 Desmoralizatu
 Desmoralizazio
 Desorientatu
 Desorientazio
 Desplazatu
 Desplazamendu
 Despopulatu
 Despopulazio
 Desproporzio
 Deszifratu
 Debaluatu
 Debaluazio
 Debastatu
 Debastazio
 Deboratu
 Detaile
 Detailatu
 Detektatu
 Detekzio
 Detenitu
 Detentzio
 Determinatu
 Determinazio
 Detestatu
 Dialogo
 Dialogatu
 Dibertsitate
 Dibertso
 Dibinitate
 Dibino
 Dibiditu
 Dibisible
 Dibisio

Difamatu
 Difamazio
 Diferente
 Diferentzia
 Difusio
 Difuso
 Dignitate
 Dignifikatu
 Dikzio
 Dimentsio
 Direkzio
 Direkto
 Disipatu
 Disipazio
 Diskordia
 Diskretu
 Diskrezio
 Diskurtsibo
 Diskurtsio
 Diskusio
 Diskutitu
 Disoziatu
 Disoziazio
 Dispertsatu
 Dispertsio
 Disposizio
 Distingitu
 Distintzio
 Distrahitu
 Distrakzio
 Disuaditu
 Disuazio
 Diszernitu
 Diszernimendu
 Diszipulu
 Doblatu

Doble
 Doktrinatu
 Doktrinamendu
 Domestikatu
 Domestiko
 Dominatu
 Dominazio
 Donatu
 Donazio
 Dozil
 Dozilitate
 Drenaje
 Drenatu
 Dual
 Dualitate

Ebakuatu
 Ebakuazio
 Ebanesente
 Ebanesentzia
 Ebidente
 Ebidentzia
 Ebokatu
 Ebokazio
 Edukatu
 Edukazio
 Efektibitate
 Efektibo
 Efikaz
 Efikazia
 Efiziente
 Efizientzia
 Efimero
 Efusibo
 Efusio
 Egoismo

Egoista	Erosio
Ekibalente	Errebelatu
Ekibalentzia	Errebelazio
Ekitable	Errebelde
Ekitate	Errebelio
Eklosio	Erreberberatu
Ekuestre	Erreberbero
Elegante	Erreberente
Elegantzia	Erreberentzia
Elemental	Errebersible
Elementu	Errebokatu
Eliditu	Errebokazio
Elisio	Errebindikatu
Eliminatu	Errebindikazio
Eliminazio	Erredentzio
Elokuate	Erredentore
Elokuentzia	Erredimitu
Elukubratu	Erredukzio
Elukubrazio	Erreduzitu
Enbarkatu	Erreflexibo
Enbarku	Erreflexio
Enbuskatu	Errefrigeratu
Enbuskada	Errefrigerazio
Emisio	Errefutatu
Emititu	Errefutazio
Emozio	Erregeneratu
Emozio(na)tu	Erregenerazio
Enorme	Erregresio
Enormitate	Erregresibo
Entusiasmatu	Errehabilitatu
Entusiasmo	Errehabilitazio
Enuntziatu	Erreiteratu
Enuntziatio	Erreiteratibo
Epilogo	Errekarga
Episodio	Errekargatu
Epitafio	Erreklamu

Erreklamatu	Eskrutatu
Errekonozimendu	Eskrutinio
Errekonozitu	Eskulpitu
Errekonbertsio	Espanditu
Errektifikatu	Espantsio
Errektifikazio	Espantsibo
Errekuperatu	Espasmo
Errekuperazio	Espektante
Erresignatu	Espektazio
Erresignazio	Espezial
Erretizente	Espezialdu
Erretizentzia	Espezifikio
Erretraktatu	Espektakulu
Errezesio	Espektakular
Erreziproko	Esplendido
Errotatu	Esplendore
Errotazio	Esplikatu
Erruina	Esplikazio
Erruinatu	Esploratu
Errutina	Esplorazio
Erudito	Esplosibo
Erudizio	Esplotatu
Erupzio	Espontaneo
Esageratu	Espontaneite
Esagerazio	Esporadiko
Esentzia	Espresatu
Esentzial	Espresio
Eskisitu	Espropiatu
Esklamatu	Espropiazio
Esklamazio	Espultsatu
Eskluditu	Espultsio
Esklusio	Estable
Eskrementu	Establetasun
Eskrezio	Estazio
Eskrupulos(o)	Esteril
Eskrupulu	Esterilizatu

Esterminatu	Exekuzio
Esterminazio	Exentzio
Estingitu	Exhibitu
Estintzio	Exhibizio
Estipulatu	Exilio
Estipulazio	Exiliatu
Estortsio	Eximitu
Estortsionatu	Exoneratu
Estrabagante	Exonerazio
Estrabagantzia	Exotiko
Estraordinario	Expiatu
Estrangulatu	Expiazio
Estrangulazio	Exuberante
Estremista	Exuberantzia
Estremo	
Estridente	Faboratu
Estridentzia	Faborito
Estriktu	Fabula
Estudiatu	Fabulatu
Estudio	Fabuloso
Eszentriko	Fakultate
Eszentrikotasun	Fakzio
Eszitatu	Falible
Eszitazio	Falibletasun
Eterno	Fantasia
Eternitate	Fantastiko
Etsenplar	Fatal
Euforia	Fatalitate
Euforiko	Faszinatu
Exakto	Faszinazio
Exaktotasun	Felino
Exaltatu	Feminitate
Exaltazio	Femenino
Exasperatu	Ferbente
Exasperazio	Ferbore
Exekutatu	Feroz

Ferozitate	Frustrazio
Fetido	Fulminante
Fetidotasun	Fulminatu
Figura	Furia-furore
Figurazio	Furios
Filtratu	Futil
Filtrazio	Futilitate
Filtro	Futurible
Final	Futuro
Finalitate	
Finitu	Galante
Finitutasun	Galanteria
Fisura	Galopatu
Flagrante	Galope
Flagrantzia	Gelido
Fluktuante	Generatu
Fluktuazio	Generositate
Fluoreszente	Generoso
Fluoreszentzia	Gestikulatu
Formatu	Gestu
Formazio	Gloria
Fornikatu	Glorios
Fornikazio	Grabe
Fortuito	Grabitate
Fragmentu	Grandilokuenta
Franku	Grandilokuentzia
Frankutasun	Gratifikante
Fraternal	Gratifikatu
Fraternitate	Gratuitate
Fribolo	Gratuito
Frikizio	Gregario
Frikzionatu	Gregarismo
Frontal	Grotesko
Frugal	
Frugalitate	Halo
Frustratu	Haluzinatu

Haluzinazio	Inbalido
Haluzinagarri	Inbalidatu
Harmonia	Inbentatu
Harmonios	Inbentzio
Harmonizatu	Inbertitu
Hekatonbe	Inbertsio
Hegemonia	Inbokatu
Herbiboro	Inbokazio
Heredatu	Indefinitu
Herentzia	Indefinizio
Hilarante	Indeterminatu
Hilaritate	Indeterminazio
Honestasun	Indibiduo
Honesto	Indibidual
Horda	Indiferente
Horizontal	Indiferentzia
Horizonte	Indignatu
Horrible	Indignazio
Horrore	Indignitate
Hospitable	Indikatu
Hospitalitate	Indikazio
Hostil	Indirekto
Hostilitate	Indiskretu
Humanizatu	Indiskrezio
Humano	Indolente
	Indolentzia
Identiko	Indulgente
Identitate	Indulgentzia
Indezente	Induzitu
Indezentzia	Indukzio
Ignizio	Inefiziente
Ignominia	Inefikazia
Ignorantzia	Inexakto
Ignoratu	Inexorable
Ilustre	Inespresibo
Ilustratu	Inkonkretu

Inkonkrezio	Inaktibo
Inkontziente	Inakzio
Inkontzientzia	Inkluditu
Inpaziente	Inklusio
Inpazientzia	Inkonpatible
Inpasible	Inkongruente
Inpasibletasun	Inkongruentzia
Inpekable	Inkonpatibletasun
Inperfektu	Inkonpetente
Inperfekzio	Inkonpetentzia
Inpermeable	Inkonpleto
Inpermeabletasun	Inkonprentzio
Inpertinente	Inkonstante
Inpertinentzia	Inkonstantzia
Inpetu	Inkontinente
Inpetuos	Inkontinentzia
Inpio	Inkorrekto
Inpietate	Inkorrekzio
Inpotente	Inkubatu
Inpotentzia	Inkubazio
Inpresio	Inkulkatu
Inpresionatu	Inkurtsio
Inpreziso	Infalible
Inprezizio	Infalibletasun
Inprobable	Infamia
Inprobabilitate	Infantil
Inproduktibitate	Infantiltasun
Inproduktibo	Infektatu
Inprudente	Infekzio
Inprudentzia	Inferentzia
Inpune	Inferiore
Inpunitate	Inferioritate
Inpurity	Infiltratu
Inpuru	Infiltrazio
Inputatu	Inflamatu
Inputazio	Inflamazio

Inflexible
 Inflexibletasun
 Influitu
 Influyente
 Infrakzio
 Ingenuo
 Ingenuitate
 Inhalatu
 Inhalazio
 Inhibitu
 Inhibizio
 Inhumano
 Injustu
 Injustizia
 Immentso
 Immentsitate
 Imminente
 Imminentzia
 Inofentsibo
 Inoportuno
 Inoportunitate
 Inozente
 Inozentzia
 Insistentzia
 Insistitu
 Insolente
 Insolentzia
 Inspektore
 Inspekzio
 Instinto
 Instintibo
 Insurgente
 Insurrekzio
 Integritate
 Inteligentzia
 Inteligente

Intentsitate
 Intentso
 Interbenitu
 Interbentzio
 Intimo
 Intimitate
 Intolerante
 Intolerantzia
 Intonatu
 Intonazio
 Intransigente
 Intransigentzia
 Intransitibo
 Intriga
 Intrigatu
 Intrinseko
 Introbertsio
 Intsinuatu
 Intsinuazio
 Intsultu
 Intsultatu
 Intzidente
 Intzidentzia
 Irrigatu
 Irrigazio
 Irritatu
 Irritazio
 Irrupzio
 Isolatu
 Isolatzaile
 Isolamendu

Jardin
 Jobial
 Jobialtasun
 Junior

Jurisdikzio
 Jurisprudenzia
 Justizia
 Justu
 Justifikatu

Kabala
 Kabalistiko
 Kaberna
 Kabitate
 Kabina
 Kable
 Kabotage
 Kadentzia
 Kaiman
 Kalamitate
 Kalamitoso
 Kalendario
 Kalibratu
 Kalibre
 Kalifikatu
 Kalifikazio
 Kalifikatibo
 Kaligraia
 Kaligrafo
 Kaliza
 Kalkulatu
 Kalkulu
 Kalma
 Kalmatu
 Kaloria
 Kaltzifikatu
 Kaltzinatu
 Kalumnia
 Kalumniatu
 Kamarada

Kanbiatu
 Kanbio
 Kanpatu
 Kanpaldi
 Kanpamendu
 Karizia
 Kariziatu
 Kanpioi
 Kanpionatu
 Kamuflatu
 Kamuflaje
 Kanal
 Kanaldu
 Kandelabro
 Kandidatu
 Kandido
 Kandore
 Kanoniko
 Kanonizatu
 Kantitate
 Kantoi
 Kantzer
 Kantzerigeno
 Kantzeroso
 Kaos
 Kaotiko
 Kapa
 Kapaz-ble
 Kapazitate
 Kapital
 Kapitalizatu
 Kapitulu
 Kapritxo
 Kapritxoso
 Kaptatu
 Kaptazio

Kapturatu
 Kapzioso
 Karaktere
 Karakteristiko
 Karakterizatu
 Karburatu
 Karburante
 Karburadore
 Kardatu
 Kardiako
 Kardiobaskular
 Karga
 Kargatu
 Karikatura
 Karitate
 Karitatibo
 Karizia
 Karnabal
 Karniboro
 Kartilago
 Kartografia
 Kartomantzia
 Kartutxo
 Kasu
 Kasta
 Kastitate
 Kasto
 Kastratu
 Kastrazio
 Katafalko
 Kataklismo
 Katapulta
 Katastro
 Katastrofe
 Katategoria
 Kausa

Kausal
 Kausalitate
 Kazike
 Kazikismo
 Klandestinitate
 Kladestino
 Klaribidentzia
 Klasifikatu
 Klasifikazio
 Klemente
 Klementzia
 Kliente
 Klienteria
 Kobertura
 Koexistentzia
 Kohabitatu
 Kohabitazio
 Koherente
 Koherentzia
 Kohesio
 Kointzidentzia
 Kointziditu
 Kolaboratu
 Kolaborazio
 Kolapsatu
 Kolapso
 Kolekzio
 Kolekzionatu
 Kolosal
 Kolumna
 Komite
 Kommemoratu
 Komunio
 Konbaleszente
 Konbaleszentzia
 Konbate

Konbatitu
 Konbinatu
 Konbinazio
 Konbergente
 Konbergentzia
 Konbertible
 Konbertitu
 Konbikzio
 Konbintzente
 Konbultsio
 Konbultso
 Konbustible
 Konbustio
 Konparatu
 Konparazio
 Konpatible
 Konpatibletasun
 Konpentsatu
 Konpentsazio
 Konpetentzia
 Konpetizio
 Konpilatu
 Konpilazio
 Konpleto
 Konpletatu
 Konposatu
 Konposizio
 Konkabo
 Kontziliatu
 Kontziliazio
 Kontzisisio
 Kontziso
 Konkluditu
 Konklusio
 Konkordantzia
 Konkordatu

Konkret
 Konkretatu
 Konkupiszentzia
 Kondizio
 Kondizional
 Konfesatu
 Konfesio
 Konfirmatu
 Konfirmazio
 Konfiskatu
 Konfiskazio
 Konfliktu
 Konfluentzia
 Konfrontatu
 Konfrontazio
 Konfusio
 Konfuso
 Kongenital
 Konnotazio
 Konstante
 Konstantzia
 Konsternazio
 Konstrikzio
 Kontaktatu
 Kontaktu
 Kontaminatu
 Kontaminazio
 Kontenplatu
 Kontenplazio
 Kontenitu
 Kontigu(o)
 Kontingente
 Kontingentzia
 Kontrakzio
 Kontrahitu
 Kontradikzio

Kontradiktorio
 Kontraste
 Kontrastatu
 Kontribuitu
 Kontribuzio
 Kontrizio
 Kontrobertsia
 Kontsakratu
 Kontsakrazio
 Kontsentitu
 Kontsentimendu
 Konserbatu
 Kontserbazio
 Kotsideratu
 Kotsiderazio
 Kotsignatu
 Kotsignazio
 Kotsistente
 Kotsistentzia
 Kotsolidatu
 Kotsolidazio
 Kotsonantzia
 Kontsumatu
 Kontsumazio
 Kontumazia
 Kontusio
 Kooperatu
 Kooperazio
 Koordinatu
 Koordinazio
 Kopulatibo
 Kordial
 Kordialitate
 Korporal
 Korregitu
 Korrekzio

Korronepitu
 Korrupzio
 Kreatu
 Kreazio
 Krimen
 Kriminal
 Kuantifikatu
 Kuestio
 Kuestionatu
 Kulminatu
 Kulminazio
 Kultibatu
 Kultibazio
 Kurioso
 Kuriositate
 Kurtso

Lakaio
 Lakoniko
 Langido
 Laszibo
 Laszibotasun
 Latente
 Laxatibo
 Legenda
 Legendario
 Legitimitate
 Legitimo
 Letargia
 Letargiko
 Letargo
 Liberatu
 Liberazio
 Libertario
 Libertino
 Lizentzia

Lizentziatu
 Lintxamendu
 Lintxatu
 Linea
 Lineal
 Linealtasun
 Literal
 Literaltasun
 Livido
 Lividotasun
 Lokal
 Lokalizatu
 Lokomotore
 Lokomozio

Makabro
 Magnanimo
 Magnate
 Maiestate
 Maiestos
 Maleable
 Maleabletasun
 Malignitate
 Maligno
 Manual
 Manufaktura
 Masakratu
 Masakre
 Maskulino
 Maskulinotasun
 Maternal
 Maternitate
 Maximo
 Mazeratu
 Mazerazio
 Mediebal

Mediokre
 Mediokritate
 Meditatu
 Meditazio
 Memoria
 Memorizatu
 Menstrual
 Menstruazio
 Mental
 Menbro
 Milenio
 Minimizatu
 Minimo
 Minuskulu
 Miserable
 Miseria
 Moderatu
 Moderazio
 Modifikatu
 Modifikazio
 Morbido
 Mortal
 Mortalitate
 Mortifikatu
 Mortifikazio
 Multiplikatu
 Multiple
 Muskulatura
 Muskuloso
 Muskulu
 Mutilatu
 Mutilazio
 Mutinatu
 Nasal
 Nasalitate

Natibo
 Nebuloso
 Negligente
 Negligentzia
 Nostalgia
 Nostalgiko
 Nubil
 Nubilaro
 Nulitate
 Nulo

 Obesitate
 Obeso
 Obligatu
 Obligazio
 Obserbatu
 Obserbazio
 Obstinatu
 Obstinazio
 Obstruitu
 Obstrukzio
 Ofenditu
 Ofentsa
 Ofentsibo
 Okasio
 Okasional
 Oklusio
 Okupatu
 Okupazio
 Omisio
 Omititu
 Ondulatu
 Ondulazio
 Opako
 Opakotasun
 Operatibo

 Operatu
 Operazio
 Oportuno
 Oportunotasun
 Oposatu
 Oposizio
 Opresio
 Opresibo
 Oprimitu
 Opulento
 Opulentzia
 Organizatu
 Organizazio
 Orientazio
 Original
 Originaltasun
 Ornamentatu
 Ornamentu
 Oszilatu
 Oszilazio
 Ostentazio

 Paralisi
 Paralizatu
 Paritate
 Partikular
 Partikularitasun
 Pasio
 Pasional
 Paternal
 Patrimonio
 Patrimonial
 Paziente
 Pazientzia
 Pedante
 Pedanteria

Penal
 Penaldu
 Penetratu
 Penetrazio
 Perbertitu
 Perbertsio
 Perfido
 Perfidia
 Perforatu
 Perforazio
 Periodo
 Periodiko
 Permanente
 Permanentzia
 Permisibo
 Permisio
 Permititu
 Perplexu
 Perplexutasun
 Persistitu
 Persistente
 Persistentzia
 Persuaditu
 Persuasio
 Persuasibo
 Pertinente
 Pertinentzia
 Pertzepzio
 Pertzibitu
 Piadoso
 Pietate
 Pintatu
 Pintore
 Pintoresko
 Pintura
 Pionero

 Polibalente
 Poluzio
 Ponpatu
 Ponposo
 Popular
 Populartasun
 Posesio
 Posesibo
 Posible
 Posibletu
 Prebenitu
 Prebentzio
 Predisposatu
 Predisposizio
 Preeminente
 Preeminentzia
 Preferente
 Preferentzia
 Prekario
 Prekaritate
 Prekauzio
 Premeditatu
 Premeditazio
 Premonizio
 Presente
 Presentzia
 Preserbatu
 Preserbazio
 Presidentzia
 Presiditu
 Prestigio
 Prestigios(o)
 Presuntzio
 Pretentsio
 Pretentsios(o)
 Prezipitatu

Prezipitazio
 Preziso
 Preziso
 Pribatu
 Pribazio
 Pribatizatu
 Pribilegio
 Primario
 Primitibo
 Printzipal
 Prioritario
 Prioritate
 Probable
 Probabletasun
 Proklamatu
 Proklamazio
 Prokreatu
 Prokreaizio
 Prodigio
 Prodigios(o)
 Produktu
 Produzitu
 Produkzio
 Profanatu
 Profanazio
 Profesio
 Profesional
 Profusio
 Progresatu
 Progresibo
 Progresio
 Progresu
 Prolifiko
 Prominente
 Prominentzia
 Promulgatu

Promulgazio
 Propagatu
 Propagazio
 Prospekzio
 Prospero
 Prosperitate
 Prudente
 Prudentzia
 Pubertate
 Purifikatu
 Purifikazio

Rapsoda
 Rapsodia
 Rakitiko
 Rakitismo
 Ratifikatu
 Ratifikazio
 Restriktibo
 Restrikzio
 Ridikulu
 Rigore
 Riguros(o)
 Ribal
 Ribalitate
 Ruina
 Ruinoso
 Rural
 Ruralismo
 Rustiko
 Rustizismo

Sakrifikatu
 Sakrifizio
 Sakrilegio
 Sakrilego

Satisfakzio
 Satisfatu
 Sebero
 Seberitate
 Sedatibo
 Sedatu
 Sedizio
 Sedizios(o)
 Sedukzio
 Seduzitu
 Sekundario
 Sekzio
 Sekzionatu
 Selektibo
 Selektio
 Selektionatu
 Senil
 Seniltasun
 Separatu
 Separazio
 Sezesio
 Sibilino
 Sideral
 Simple
 Sinpletasun
 Sintzero
 Sintzeritate
 Singular
 Singulartasun
 Sinistro
 Sinuos(o)
 Sinuostasun
 Situatu
 Situazio
 Suborno
 Subornatu

Sobrietate
 Sobrio
 Solbente
 Solbentzia
 Solemne
 Solemnitate
 Solidario
 Solidaritate
 Soluzio
 Soluzionatu
 Sonoro
 Sonoritate
 Sordido
 Sordidotasun
 Subertitu
 Subertsio
 Sublime
 Sublimetasun
 Subordinatu
 Subordinazio
 Substantzia
 Substantzial
 Subtil
 Subtiltasun
 Sugeritu
 Sugerentzia
 Sugestibo
 Suizidio
 Suizidatu
 Sumiso
 Sumisio
 Superbisatu
 Superbisio
 Superfizial
 Superfizialtasun
 Superfluu

Suplantatu
 Suplantazio
 Supresio
 Suprimitu
 Supuratu
 Supurazio
 Suspenditu
 Suspentsio
 Teatral
 Teatralitate
 Teatro
 Temerario
 Temeritate
 Tenperamentu
 Tenperantza
 Tenporal
 Tenporaltasun
 Territorial
 Territorio
 Tinbre
 Tormentu
 Tormenatu
 Tortuos(o)
 Tortuostasun
 Total
 Transfiguratu
 Transfigurazio
 Transformatu
 Transformazio
 Transgreditu
 Transgresio
 Transitibo
 Transluzido
 Transparente
 Transparentzia

Transpiratu
 Transpirazio
 Transzendente
 Transzendentzia
 Triunfal
 Triunfalismo
 Tumefakto
 Tumefakzio
 Tumultu
 Tumultuos(o)
 Turbulento
 Turbulentzia
 Tutela
 Tutelatu
 Txeke
 Txofer
 Ubikuo
 Ubikuotasun
 Unanime
 Unanimitate
 Uniboko
 Uniforme
 Uniformitate
 Unilateral
 Urbanitate
 Urbano
 Urgente
 Urgentzia
 Usurpatu
 Usurpazio
 Utilitate
 Utilitarismo
 Zelebratu
 Zelebritate

Zelibatu
 Zentral
 Zentratu
 Zentro
 Zereal
 Zeremonia

Zertifikatu
 Zipres
 Zisma
 Zitazio
 Zona
 Zonal

Bokabularioan, R hizkiz hasten direnekin ere bada zerrenda bat. Muga zehatza non ezarri beharko litzatekeen ez dakit, baina honelako hitzak: *regresio, ribal, ridikulu, ruina, record, remake, ratifikatu, ratio, rural, ruralismo, rustiko...* sistematikoki "euskalduntzen" jarraitzeari arlote samar deritzot.

ADIBIDEAK

– Baurregik immensitate esentzial horri itsasertz fabulos baten moztura eransten dio.

– Sentsazioa materiala, karnala da, eta begirada ideala, kasik alienatua, eta bien nonbaiteko bilgunean, nortasun bat urtzen edo deliratzen ari da.

– Naturak mirasmena onartuko dizu, indiferentzia konsentituko, baina bera kuestionatzerik ez dizu barkatuko.

– Kafe konpleto bana edo aldarteak onartzen zuen bizigarria hartuz, lau pelotoiek gertu egon behar zuten, ziurki eta definitiboki abiatzeko erabakitako une doi-doian.

– Laurak hamar gutxiagotan, azken koneksio monosilabikoa. *Prest? Bai!* Bi minutu doi barru, zortzi gutxiagotan, denak batera abiatuko dira, adostutako kontsignaren arabera.

– Laurak zortzi gutxiagotan, ipar-hego-eki-mendebaldetik, sinkronizazio ia neurotikoa, abian da armada bateko elitearen azken asaltoa dirudiena gotorleku baten aurka, nahiz eta berez ez den, presentzia fisikoaz beste arma gabe, gordeleku batean fortifikatzea lortzeko kolpe intzertu bat besterik.

– Baina hori zuhaitzekiko infideltasun immorala iruditu zait. Eta batez ere, destinoaren tentatze lar temerarioa.

– Eta bazirudien berri horrek entusiasmoa handitu ziola.

– Oh, askatasuna! Jendeak maitasun librea dioena grina bulgar bat da. Benetako askatasuna da maitasuna –biolentzia salbu, jakina!– zernahi egiteko objektu bihurtzea, poesia eta aszetika barne. Utz nazazu posibilitate erreale baten sentipen gozoan.

– Neure lagun Beorlegiz oroitu naiz, bere ferozitate surrealistik biguntasun baikorragora jaitsi zenean, baina ez.

– Fauvismoaren koloreak eta kubismoaren geometriak hornigarri exzitanteak liriteke, zirriborro minimal honen xarma (prehistorikoa, neure terraza dela ez baneki) adulteratuko ez balute, kontuan izanik, batez ere, terrazako figurak aipatu horiena baino kurbotasun beteagoa, karnalagoa ageri duela, eta bere edertasuna lerro baten jarraipenik sinpleena izatean datzala.

– Horixe baita marrazki elemental, prehumano honen izate inponentea: misterioaren miraria.

– Nola liteke molusku ezteus baten angustiak hain figura sublimea eta sentsuala marraztea, lorratzaren huts-beteak zehaztasun exaktuan kateatuz?

– Atzeko bi pabilioi biki, erraldoi, fosilen aurrean, egitura berdineko beste bi pabilioi biki, erraldoi, berritu zeuden, gehi erdiko eliza eta dorre-eraikin deskomunala, zeinaren erremate planotik, faraoi lepamoztu bat bezalakotik, gurutze esperpentiko bat goratzen zen, ezarria baino areago kometa apurtu batetik inkrustatua zirudiena.

– Leihoaren geometria brutala, doi-doi markatua kanpoalde abismalaren kontra.

– Nahiz esperientzia pertsonalaren gidarik neuk ez izan, abstrakzioak haragitzeko nekarren trebetasunetik eta analogiarik zailenak fusionatzeko irudimenetik, garapenari, atzeragotik bazen ere, komunio aski oso eta erogarriro gozatsuan nerraion, harik eta, artea ferozitate bihurturik, Talitaren aurpegiaren otseme frenetiko bat hauteman nuen arte.

– Funtsean, hala ere, nebulosa batean galdurik nabil, zorioneko Talita dela bide. Ez daitekeen, bai daitekeen, haluzinaturik nago, beldurturik ere bai, kasualitate delirante bat izan litekeenaz.

– Angustiatik paranoiara astintzen ninduen natura, orain lagunkoi, laztankor ageri zait. Dena agresibo eta opresibo nekusena bat-batean gozo eta poetiko dakust.

– Horrek ez zuen kentzen Canela kapitainaren erremi nagusia, hain zuzen, susmo gori bat izatea ezen apaizaren kanpandorreko agerpen izorrateak seinale adostu bat izan behar zuela kontsigna madarikaturen bat abiatzeko.

– Tanketa gaineko bi numeroek, gidariak eta laguntzaileak, pribilegiozko ikuspegia dute ia kalearen luzera guztian, baina badirudi dibertsioak, grazia baino areago, ridikulu sentipena bera baino areago, hormona primario bat aktibatu diela, zeinaren efektua ez dagoen argi deskonjonoa ala narritadura den, bataren barreari bestearen mehatxu-aurpegiak baitarraio, eta alderantziz. Otarte eder banak berdinduko ahal ditu espresio diskordanteak, elkarri begiratu gabe mintzo baitira, paparrez behera organ ehortzirik.

– Pentsakizunek ere deskokatzen naute orain. Kontradikzio bat pentsatu dudala uste dut, zeren, pentsakizunez husten banaiz, zerekin elikatu behar dut kontzientzia? Baina huste horixe nahi dut, eta ez dut uste nahimen absurdoa denik. Pentsamena etenik, sentitu bakarrik. Sentitu egoera, ukitua, astrapalarik ezaren gailentasuna, inakzio dultzea, sentitu zirrara, barru-urtzea, atsegin zirkulantea, mirariaren inkarnazioa. Baina ezin dut sentitu pentsatu gabe. Eta ezin dut pentsatu irudimen gabe. Kontzentrazio espiritualean trebatu gaituzte, baita neurri batean lortu ere, baina giza

atseginean ez gaude prestatuak kontrolatzeko subjektuaren nahimenetik at batera doazen hiru motoreak, sentimen, pentsamen, irudimen.

– Polizia ere ez zen harritzen haren ahotik entzuteaz: *nik premiari ez diot karnetik eskatzen*, nahiz bazekien, jarrera inkondizional horren barruan, argitasun felino bat ere bazela, eta haren inguruan kobertura subtilak garatzen zirela. Hura atxilotzea, ostera, guztiz inopularraz gainera, meatzerrien altxagarri bat izan zitekeen, zerbait handi eta argian harrapatu ezik.

– Beharbada, regresio prozesu etengabearen sartuko nintzela, saguzarren hasierako garaikide bihurtzeraino.

IRAKURGAIK

Espainiako hiriburuan izango zen epaiketara apaiz ugari inguratu zen Euskal Herritik, baita penintsulako zenbait aldetatik ere, elkartasun publikoa erakustera. Artean oraindik denak sotanadun zirela, Madril ez zegoen ohituta halako marea beltzik ikustera, non eta epaitegi aurrean. Oihu bakan, kasik akzidental batzuk, gehienak femeninoak, entzuten baziren ere (*ibasuras separatistas! icuervos falderos! ibastardos terroristas!*), gehienen erreakzioa deskonfigurazio biologiko bat lakoa zen, tanpez animalia irrealak agertu bailiran. Edo errealak, baina toki guztiz ezinezkoan, denboragaz miraritzat erregistratu ohi diren errakuntza naturaletako batean. Esaterako, musketa-idiak Madrilen, uztaileen bigarren asteen, non ezarri zuten epaiketa. Garai horretan jakina da Madrilgo tenperatura ez dela izaten bakarrik, nahiz eta baita, ezpaten marruskatze edo sableen doitzearena. Eta horra bertan tundrako izaki ilun iletsuak, baina, zorionez, adardunak; ezaugarri natural bakarra berau, gorriak hala irudikatzen ohiturik zeudenezat, nahiz eta sotanen beltzak apur bat desorientatu. Edo pinguino aldra bat. Giza tamainara handituz gero, apaiz bilera baten irudi sinesgarria, nahiz eta, tamalez, tamainak eta tenperaturak aparte, itsasorik ezak dena inbalidatzen zuen, zeren Kixotea kontzibitu zuten irudimen mesetario gorientzat ere zailegi baitzen Madrilen itsasoa irudikatzea. Idi edo pinguino bakarra izanik, beharbada irengarri zatekeen irudimen mesetarioentzat ere –kixote deskonfiguratu bat–, baina hala tropelean, agerpen kolektiboak inexistentzia indibidualei izate bat balemaie bezala, eta paliopeko fedearen hiriburuan,

inork ez zekien zertara jo, poliziak barne, arretaz eta prekauzioz obserbatu baizik ea ikuspen zail hura mugitzen ote zen, zer forma munstrosetan zatitzen zen, ala une batetik bestera ezabatuko ote zen, noizean behingo hodei esplikaezin horiek bezala. Masa beltza ez zen, ez, asko mugitzen, aurreko posiziora ezin itzultzeko beldurrez-edo, eta ordena-indarren aldetik ere ez zen nabari interbentzio asmorik, eurok ere, seguruenik, goietara kontsultak eginez, fenomenoak zer patroï eskatzen zuen.

Corona hotel-jatetxean, bi lagun zeuden gure zain goizeko hamarretan, eurek eraman gintzaten, gure autoa bertan utzita. Bata Ibarrangelukoa, bestea Elgoibarkoa ei ziren. Ondo. Gure aldetik ez dago koskarik, falangekoak ez badira. *Eragozpenik bidean? – Lantzean bihurtune bat – Kontrolik? – Aurrean ez, eta albora begiratu be ez – Kafe bat edo? – Curasao bana, abadeen matxinadan gabilzenez gero.* Madrilgo kaleetan sartu ginenean, behin iruditzen zitzaigun dena arrotz: inor ez genuen ezagutzen, inoiz ikusi gabeko idazkunak zeuden, baziren estatuak ere, *Historia de España*-ko liburu higatuetan bakarrik zeudela uste genuenak. Behin dena antzeko: inor ez zebilen buruz behera, oinezkoek ondo apartatzen zuten elkar, autoak ordenan zebiltzan, atzetik ez gintuzten jotzen, aurrekoak guk jo aurretik aldentzen ziren, idazkun argidunek egunez ere keinu zegiten... Txofer zihoan elgoibartarrak jakinarazi nahi izan zigun: *Madril handia dok!* Nire lagun bera ere txoferrak erantzun: *Dana batera ez ikustekotan, Elgoibar beste.* Trafikozainek ez itozteko sokorru eske ziruditen auto artean; gure autoak nora zihoan bazekien, nonbait, eta halaxe iritsi ginen toki batera, erlojuari begiratu gabe. Jangela ala ikasgela den argi ez dagoen lokala ez da handia, baina berrehun lagun aurkitu ditugu, bat gorabehera, erdiz aurrekoak zoruan eserita, eta atzealdea zutik. Gehienak mutilak, neskak ere ez gutxi, eta hori bai, denak gazteak, infiltratuak izateko nabarmenegi diruditen bizar-zuri bat eta bizar-urdin bat salbu. Geuk ere zutik nahiago genukeen, baina mahaitxo bat ipini dute, eta eskertu beharko dugu. Ez dakigu unibertsitetearen ala garaje partikular batean gauden. Guk galdetu ere ez, erantzun beharrean gertatuz gero, nahita ere egiarik ezin deklaratzeko. Denak kaixoka, agurka, ni Laudiokoa, ni Bakiokoa, gu nafarrak, Erriberakoak, ni Lezokoa, *ni euskera dakit apur – lasai, nik*

urtebetegaz gutxiago nekien, madrildar euskaldun bat ere bai, finlandiar bi neska... Gaztetasunari bakarrik ez dagokion eufori giroa nabari da, sorterritik urrun biltzearen emozioa gaintituz, espektazio orokor bat bezalakoak eta, nola ez, zisku klandestinoak aglutinatzen dutena.

Zueri eskerrik asko berriz ere, baina oraingoan ez txaloengatik, baizik, gure zuengana etorrera baino, zuen guri gonbita delako zinez eskergarri. Izan ere, gure ekintzaren osagai ia funtsezkoena hedapena izanik, aukera garrantzitsua eman diguzue, non eta diktaduraren oinetan bertan. Olatu eder eta indartsu baten goraldia bizitzen ari gara Euskal Herrian. Penintsula osoan bezala, esango genuke, Portugal barne, salazarismoaren leize tektonikoa ere zartatzen hasia baita. Euskal Herrira itzulirik, apaizon ekintza hau olatuaren aparra besterik ez da. Apar deigarria, noski, estamentu ohiki kontserbadore eta hierarkikoki dominante baten erupzioa izan delako, eta eskandaluzko ere bai, erligioaren presentzia eta eragina ia ahalguztidun baitira gure herrian, eta non ez. Aparra ez da, ordea, olatuaren emanazio bat baizik, olatua bera ere masa moldagarri bat baizik ez den bezala, gain- eta azpi-indarren bilkuntzaren mende. Indar oinarrizko horietako bat ikasleok zarete, zeuen lanketa intelektuala eta sasoiaren idealismoa Euskal Herriaren pizkunde kartsu honi eskaintzen ari zaretenak. Gure aparra zuen olatuaren duin izan dadin, nahitaezko dugu elkarlan ahalik eratuena, eta sarritan zuen mugidei babesa eta azpiegitura eskaintzen saiatu garen bezala, oraingoan geu gara zuen kolaborazioa behar dugunak, geuk eskatu gabe eskaini diguzuen, bestalde, zeuen gonbitez iritsi baikara honaino. Ez da, noski, Gogor izeneko apaiz mugimenduaren lehen ekintza. Aurretik ere... –Hala abiatu eta orduerdian luzatutako azalpena honela amaitu zen: –Hauxe duzue dena, non begi akusatzaileek desafio heretikoa eta grina nahaslea dakustena, elkartasun humanoa eta obediencia ebangelikoa baizik ez den guretzat. “Gu” horren barruan ziur gaude –eta zuek ere sinets beldur gabe– herri oso bat dagoela.

Deustuko unibertsitateko paraninfoaz ez genuen beste gomutarik ekarri, tertziopelo gorri-ilunen eta moldura jori eta urrekaren distira baizik. Eta, nola ez, jarleku, pasillo eta palko, dena hain trinko beterik, non ikuspegi orokorrak buruen puntillismo bat zirudien. Ez genuen argitu (saiatu ere ez) baimenik bazuten ala ez, hasieran kanpoko parke handi eta aldapazkoan izatekoa baitzen. Paraninfoa sartu ginenean (bikoa hemen ere, ohi bezala), marmario trinkoa, beroa, ia boraza nabari zen, piztia arriskutsu bat aurre hurbilera dakartenean bezalatsu. Gure aldetik, hala ikusten gintuzten sentipenagatik, edo ikus gintzaten kezkatatik, itxura guztiz inofentsiboa eskaintzen saiatzen ginen, seriotasunari gaintasuna zemaioa sentitzen genuen irribarre kasik unibertsalez. Ikasle aurkezlea *egun on!* esaten hastea nahikoa izan zen, arteko barbaro trinkoa tanpez ezaba zedin, Karontek irentsia. Barbaro berriak sor zitezkeen, baina hura ez zen gehiago azaleratuko. Tentsioa txaloetan lehertu zen, aurkezleak esan zuenean: *Hemen ditugu, ba, eta beste gabe eurei emango diet hitza, hain ikus- eta entzun-minez euren zain egon garen bi protagonistak.*

Egun bereko iluntzean, Sarrikoko Ekonomia Fakultatera joan behar zen. Fakultate hau ikasle mugimenduan puntako zebilen, ekintzetan zein antolakuntzan. Hamarkadako suspertze politiko-sozialaren erreferentzia nagusietako bat bihurtua zen. Bertako ikasle izana zen Txabi Etxebarrieta, zeinaren hil batzuk aurreragoko heriotzak Euskal Herri osoa inarrosia zuen. Kale batzuk behegaroko taberna batean zen hitzordua pare bat ordezkari gaz. Aurretik ere itxaroten genuen arren, *espektazio handia dago!* esan zigutenean, zirrara-kolpe urduri batek zehartu zigun gorputza, “espektazioa” bezalako kontzeptu suhar baina inkonkretuan elementu aztoragarriak irudikatzen senaren arabera. (...) Bostehun laguneko aforodun aretoan baziren beste hainbeste, atze-alboetan tente, edo erdiko eta aurreko pasilloetan eserita, halako trinkotasunez, non banakoz osaturiko batura baino areago zirudien mihise erraldoi bat, aingeru esterminatzailearen eztenak pikartatua. Albo bietako ateak jada itxita zeudela, atzeko sarrera nagusitik buru-uhol bat bultzaka ageri zen

kaleraino. Temperatura humanoa bero, gori nabari zen, gasen bat jaurtitzera, su hartzeko moduan. Ezin genuen sinetsi dentsitate hura guztia gure hitz kokkorren interesak eragina izan zitekeenik.

Sarrera nagusian zurrumbilo bizia sortu zen, urmael bat goragaletu bailitzan. Pinguino aldra trinko bati (ba al da bestelakorik?) oinak elektrizatu bailitzaizkion. Areto guztia berehala tenkatu zen, eta gure hitzak deslari zebiltzan marmario konpaktu baten gainean. Neska bat albotik sartu zen eszenatokira eta zerbait esan zion belarrira aurkezleari, zeinak berehala iragarri zuen ozenki: *Barka, lagunok! Amaitu egin behar da. Badakizue. Betikoa!* Eta guri ahapeka: *Zuek etor geugaz.* Eszenatoki hondoko atexka batek eskailera mehar batera zeraman, zeinak, ilunean behera, soto batera jaurti gintuen, neskak piztutako metxero baten atzetik. *Gorde betaurrekoak eta jantzi anorak hauek,* agindu ziguten. Biok ginen betaurrekodun. *Ai, ai, ai!* txilio eutsi batek ihes egin zion neskari, metxeroa hatzetatik saltatuz. Argia egongo zen, baina ez zutela piztu nahi pentsatu genuen, edo ez zutela galdetu nahi non zegoen. Neskak metxeroa berpiztu zuen, aurkezle mutilak ere berea kliskatu zuen, eta garño bat aurretik, beste bat atzetik eta gu erdian, pasabide estu eta kurbo batean aurrera gindoazen, oinak narraska, oztopatzeko baino beldurriago muturrak apurtzeko. *Nora goazen badakigu?* galdetu zuen nire lagunak, eta neskak erantzun: *Uf! Hau sarritan entseiatua dugu.* Dakienak egiteko numero hobea iritzi genion, estreinatze bako. Beste atexka batetik kanpoko argitasunean ginen, nahiz eta enkajonaturik oraindino, bi metroko baranda entxapatuzko arrapala erripen, kurbo eta berriz ere estu batetik igo behar baitzen. Fakultatearen uzkitik irtetzen ari ginen, nonbait, eta uzkiak beti dira ilunak eta umelak probatu ez dituenarentzat, batik bat zereginak erdi-eginda gelditu direnean, orain genbiltzan bezala. Goian kaleketa kedartsu batera jo genuen, norabide bakarrerako ere meharregi irudituko zitzaiguna, auto bat bertan hauteman ez bagenu. Ezertan ez fijasen saiatu arren, autoa gorri zikina zela ohartzerik ezin izan genuen ebitatu, marka ere *Gordini*, alua. *Sar atzean, eta buruak jarlekupera!* agindu zigun gidariak, ikasle izateko baino adintsuago zirudienak. Maiordomoa ote zen? Laster jakingo genuen, bere ahotik, "kausa galduen askatzaile" zela. Autoa tarratadan irten zen

atzeka kalezulotik, eta Bilbotik, suposatu genuen, harik eta nire lagunak, bion buruak aurreko jarlekuen azpian elkar joka, marmartu zuen arte: *Ez zakiat aurreztu nahi zigutena baino tortura handiagoa ez den berau.*

Egunguentia urratzen ari zela, ibai baten eskuina ala ezkerre ote zen ez genekien ertzetik gindoazen. Zumar eta makalen lerro mehatza iluntasunak trinkotzen zuen kasik material bakarrean, eta ezin genuen ibaiaren norabidea igarri, nahiz eta joate lau-lauaren hots gozotik suposatu behar zen uraren alde gindoazela. Egunguentia argitu ahala, ibai ertzean forma guztietako leihoak irekiz zihoazen, eta beste aldean, distantziarik ezin kalkulatzeko erdi-ilunean oraindik, baina urrun nolana, beste zuhaitz lerro handi eta agian zarratuago bat hautematen zen. Ibaiak, nonbait, biratze estua zegien aurrerago, eta kasik kontrako bidean zihoan. Ibili ahala, aurrez genkusen egunguentia goratzen eta zabaltzen zetorren, mesetako horizonte planoaren luzeran. Masa argitsua lerroaren gainera saltatzeaz zela, bazirudien koloso distiratsu bat agertu behar zitzaigula, gorputz osoko pantokrator bat bezalakoa, zer esango ote zigun irri bezain beldur gina. *Nora zoazte? Nor zarete? Zeren bila zatozte?* Une batez, inpotentzia osoak jo gintuen, betidanik inpentsuan kontenplazten ohituta geunden egunguentiari erantzun logiko bat aurkitu ezinik. Bat-batean, ostertz goritu baten gainean, itxaropenaren eklosio hilezko gisan, eguzkia agertzen hasi zen, eta uzkururik gelditu ginen, dezepzio artistiko batean bezala. Isil-isilik, lapurki, naihezta bezala osatu zen biribila, eta horizontetik penaz, kohibiturik jaregin zen, inguruko argiztapen ahaltsuan irentsia izateko beldurrez. Gailur arteko eguzki sortunean, esfera titaniko batez zirrarratzen ohituta geundenok ostertz mesetarioko bolatxo hari areago iritzi genion zeru sorberriaren kondentsazio ñimiño bat, mirari haren guztiaren sorburu baino. Goiko ikuskizun utziezinetik estropezu batek gure begiak lurreratu zituen, ez genuen mirari gutxiago ustegabea aurkitu, jabetu ginenean, gure ibaiaren bihurtune barik, bi ibai handiren elkargune zela. Entzuten genuen nola Carrionek ziotsan Pisuergari:

– Tori! Nekatu naiz ibiltzen.

– Elkarrekin joango gara –erantzun zuen Pisuergak.

Zuhaitzak, batzuk oraindik lorean, lerro zuzen-zuzeneko kale laboragarrietan ordenatzen ziren, zeintzuek, paralelotasun hertsiz, bide funtzioko kale zabalago eta luzeagoetara jotzen zuten, etorbide antzera. Etorbideok, batzuek iturria zeukaten hegalean, arkuzko edo angeluzko teilatu txikietan babestua; beste batzuek etxola txikiak, lanabesak eta makinak gordetze soilerako baino helburu immaterialagoz eraikiak, duda gabe. Kapera antza ere bazuen batek. Unibertso kasik piktoriko hartan barnatu ahala, konfiantza hartzea eragozten ziguna inponentzia neurtezin eta itxuraz helburugabe baten zalantza zen, zeinari gehitu behar zitzaion halako larri-puntu bat ezen noiznahi ager zitekeela zakur-pare muturzapal bat, edo zaintzaille suminkorren bat, ehiztari-jantzi belarritsuak eta bisera-txanoan galkatua. Hartan, etorbide baten urrunean, giza irudia zirudien bat hauteman genuen, onezkoa izateko itxura esleitu geniona, arriskutsua izatera, zer saihezbide har zitekeen ez pentsatzearen. Guganantz zetorren, eta geuri ere gizalege iruditu zitzaigun Eden usteko hartan aurkitzen genuen lehen gizakiari *egun on!* esatea, ederra baitzetorren etorri ere, edo, ulertzen ez bazuen, desioa adieraztea, natura distiratsu hura barne hartzeko keinu batez. Distantzia batera hurbildu ginenean, ezagutu gintuela igarri genion, gure zain egon bailitzan, eta geuk ere bera besterik ez zitekeela izan pentsatu genuen. Gure bidaia ezkutua ez zen, beraz, ustela izango. Ba, bai! Bera zen eta geu ginen. Besarkadak txandatzuz hots egin genuen:

– Gastibeltza! Zelan ekarri zaitue hona?

– Oratu eta ekarri! Egiten dakieen era bakarrean.

Barbarora, mihise ostetik burua atera eta hauteman gintuenean, berehala hurbildu zitzaigun, laukia eskuan-da. Ia amaitutzat ei zeukan margolana ikusi genuenean, zurtz gelditu ginen, bai elkarri begira, bai, batez ere, Gastibeltzaren betarteari, zeinean harritu ginen adostasun handiko keinua nabari zela, bere ideia bat gauzaturik ikustearen poztasuna bailekarren. Metro bat garai eta hiru laurden zabal zen mihisean, billar mahaia bezalako fondo berdeean (berde ilunkara islakorra) Gastibeltza izan behar zuen giza irudi beilegi bat zegoen. Biluztasun osotik gerripea

gogo handi gabe estaltzen zion oihaltxo beltz deskuidatu batek salbatzen zuen, Kristo gurutzatuaren antzera. Begiak eta gainerako hazpegiak ere: bekainak, sudurzuloak, aho pitinki irekia, eta batez ere masail-ildo bertikalak, bekokiko izur transbertsalen bila igo nahi zutenak, beltzak ziren. Begien irisa beilegi felinoa zen, eta ninia berriro beltza. Gizon margotuak ikusleaganantz etortzen zirudien, fondo eta zoru berdin berdeak bereizten zituen marra pare beltzaren gainean, esku esekiak arinki zabal eta aurrerantz, hegoak izatera, hegatzera erabakitze bezala. Margolan guztian, aipatu hiru koloreen presentzia (beltza, horia, berdea) hain zen deigarria, non euren eskusibotasuna baino areago markatzen zen beste koloreen baztertze fratrizida. Nahitako sinpletasunak nahi gabeko biolentzia iradokitzen zuen, ikuspenari deserosotasun kezkarria ezarriz.

– Honek Gauginen Kristo horiaren bertsio bat dirudi –jaurti zuen batek. Margolariak ez zuen berehala erantzun. Zerbait ez zetorren bat ez genekien zerbaitegaz, Gastibeltza sublimatu nahi zuen Kristo hark eme-aire inoportuno bat bezalakoa zabaltzen baitzuen, gurutze ikustezin bat sumatzen zitzaion gorputz baten domeinuan. Erreparo horrek margolaria kitzikatu zuela zirudien, berehala hasi baitzen diskurtsoan, ea orain arte ez ginen konturatu arteak Kristorik mazalenak ipini dituela gurutzean, Velazquezen *Kristo Gurutzatua*, adibidez, zeinaren txima eroriak gehiago dirudien lo gozo bat disimulatzeko jarria, artistak bere gustura lortu ezin zuen eskuin masaila estaltzeko baino.

– Eta bai! –hots egin zuen finkoki–. Nire fondo berdeak Velazquezen fondo beltzaren garaipen bat izan nahi du.

– Horregaz ez diguzu argitzen –objektatu genion– zeure Kristo edo Gastibeltza horri inprimatu diozun anibalentzia karnala. Bere argal luzean, gerri meheegia dirudi, emakumezkoa ez izateko.

– Dirudi eta da. Kristo gehienak dira anibalenteak. Grunewalden gurutziltzatuaren gerrira (duela 5 mende!) ez da oinazearen espresio bakarrik, gorputzaren bi erdien banaketa baizik, emakumeengan bezalatsu. Ere mu pasionala eta arrazionala osotasun ezberdinetan taxutzen dira.

– Sentimenduak goian ala behean daude?

– Sentimenduak eremu arrazionalan sartzen dira.

- Gerri femeninoak banaketa hori esan nahi izatea ez dirudi oso bat datorrenik emakumeari orain arte esleitu zaion psikologia unitarioagaz.
- Ba, has pentsatzen naturak ez dituela zenbait iradokipen zori hutsez garatzen.
- Zeuk, Gastibeltza -galdetu genion apaiz presoari-, margo horretan islaturik dakusu zeure burua?
- Hori ez diozue objektuari galdetu behar, egileari baizik! -haserretu zen margolaria-. Gastibeltza nahi baduzue, hor duzue bera, hitz ere egin ahal dizuen.

Inpresio bat zerbait argitzen hasten edo ustez ulertzen zeneko, beste bat gaineratzen zitzaigun, kasu honetan, aurreko inpresio guztien esplikazio osoa zirudiena. Norbaitek On Kixote aipatu zuen, eta, bat-batean, giza irudi luze, argal, amesti, goseti hartan, mantxatar oskorriko kimera inkarnatua ikusi genuen, geunden lurraldean guztiz naturala bera, lautadak, lehen-azken argietan, gerizei damaien luzera amaigabeen arabera. Gastibeltzak bazuen aire fisonomiko bat, On Kixoteren zenbait errepresentazio ebokatzen zuena, gorputzaren luzera mortifikatuan baino areago, urrunera begiratzeko planta garaile eta kokots aurreratu hartan, horizontearen haraindia beronen gaintetik ikustea bailegokion. On Kixotegan, sarritan, gosearen liluramendua zena Gastibeltzagan egoera haluzinagarri baten ondorio izan zitekeen. Margolariak ez zuen gure interpretazioa gaitzitu, baldintzagaz ezen "On Kixote buonarrotiar bat" ikus genezan. Izan ere, margoak Adanen sorkuntzako berna gotor eta promeskorrek zeuzkan, irudiaren kolore horiak biguntzen zuelako izan ez balitz, presuntzio freudianotzat arbuiatu izango genukeena, zeren, batek jaulki zuenez:

- Vienatar petrikiloa baino artatsuago izan behar da, Kixotea eta Michelangelo koherenteki fusionatzeko.
- Asmoa horixe nuen, ba! -segurtu zuen margolariak, seguruenik orduantxe oturik.

Bat-batean, margolariak, laukia esku batean dilindatuz toreroak muleta bezala, solemneki interpelatu gintuen: *Ezagutzen duzue Von*

Karajan? Gehien ezjakin keinu nabarian, aurpegi azala gora eta behe-
ezpaina aurrera, batzuk ez ginen ausartu baietz esatera, harengan atzeman
zen sorpresa-asmoa zapuzteko beldurrez. *Izenik entzun ere ez?* Bistan
baitzen haren tonu kasik mehatxuzkoak entzuleen ezjakintasuna astindu
nahi zuela, lehen galderan jakinki isildu ginenok bigarreanean ez ginen
txorrotxioka hasiko.

- Herbert Von Karajan! Austriako orkestra-zuzendari ospetsua!
- Musika guztia bere hortzetatik pasatzeko setaturik dabilena? -galdetu
zuen batek, aurreko isiltasunaren engainua era aluan argituz.
- Joño! -Margolaria ezustea ironiarantz desbidetzera zihoan-. Aurrerapen
inteligentearen gakoa galderen erantzun atzeratuan datzala, beraz!-Zain
gelditu zen, inork dialektikari zerraion, baina isiltasuna hutsune bihurtzen ari
baitzen, azalpen pentsatura itzuli zen-. Kristo eta beste izen suprahumano
horien ebokazio posibleak asko atsegintzen nau, baina margo honetan
nahi nuena Gastibeltzaren eta Karajanen sinbiosia zen. Artista musikal
haren eta artista moral honen bisaiaik aire berdintsuko iruditu zaizkit beti,
fisikoki ere. Bataren eta bestearen profil luzanga eta ildotuan, arraun-
pala zizelkatu baten aurpegia nekusen, biengan edozein ur ebakitzeko
ausardiak ezaugarri kontrajarri ere batasun garailea damaiela. Orain,
uzten badidazue, lanera itzuli nahi nuke, susmoa baitut pentsatutako asmoa
burutzetik laster libratu behar nautela.

Gizona mertxika eta gerezi lerroen arteko kalean urrundu zen,
eta amaraun ihintzatu baten distiran dilindatu ziren azken hitz enigmatiko
horiek Gastibeltzak argitu zizkigun. Bezpera iluntzean, hirugarren aldia
izan zen margolariari bi gizon ezezagun ikusmiran hurbildu zitzaizkiona.
*Anaia trapensea zara? Trapako arrotza? Bisitaria? Margolari mistikoa,
agian?* Horrelako galdera toreroak joan ziren lehen egunean, margoa
miresteko hitz eta planten barruan. Bigarreanean, galdera izan zen ea
Gastibeltzagaz traturik bazuen. Ea haren bisitariak ezagutzen zituen.
Eta berehala, indiskrezioaz jabeturik bezala, arte kontuak berriro,
espainiar pinturako genioak eta. *Velazquez ala Picasso?* Margolariak: *Ni
utz Goyagaz.* Hirugarren egunean ez zuten ezer galdetu, ustez baiezteko
moduan baitzeuden: *Gastibeltzaren laguna zarela, beraz.* Margolariak lehen

ikustalditik hartua zien polizia sekretuen susmoa, usaina alegia, ziurtasuna, garbi esanda.

Kobratzailea harritu zen, bere *nora*? galderari bidaiariak *autobusa doan lekura* erantzun zionean.

- Baina zeuk norabait joan nahiko dozu! –eraso zion berriro kobratzaileak.
- Autobusa ez al doa norabait?
- Aizu! –muzindu zen kobratzaile azal-zimurra–. Solisombra bat edanda nator, baina oraindik ez da adar-soinuei erantzuten hasteko ordua, entzun?
- Neu be ez nago berba ulertezinak asmatzeko trenpua –esanik, jaitsi eta autobusei hizketan hasi zen, izaki adimendunak bailiran, edo gutxienez, mortuko gameluak–. Ba al da autobusik, inora ez doanik? –Erantzunik ez baitzuen jasotzen, bidaiarien irribarre sarkastikoaz besterik, lehenengo dozena bat lagunak bertan aurkituak zituen autobus urdinera sartu zen, esanez: –Egun on barriro! Hamabia zerbaki ezegonkorra ei da, eta hamahirugarrena osatzera nator, baten batek neuri kanpora lagundu eta hamaikan utzi gura ez badau–. Inork ez zion erantzun, eta ahalik atzeren eseri zen.
- Nora? –galdetu zuen hemen ere kobratzaileak, nahiko adintsua berau.
- Autobusa doan lekura.
- Ez nauk, ba, gogoratzen autobusa nora doan! –erantzun zuen agian solisombra bi edanda etorria zen kobratzaileak, berehala txoferrari deiadarka: –Hi, Boni! Autobus hau nora doan badakik?
- Niri dinostak? –txoferrak hanpatuki–. Heu haz kobratzailea!
- Entzun dok –kobratzaileak–. Hemen inork ez jakik ezer, eta heuk erabagi beharko dok.
- Eta gero kobratu egin nahiko deustazue! –hots egin zuen bidaiariak, kobratzailearen hitanoaz pozturik, apaiz antzik ez bide ziolako hartu.
- Ez be igual! Esaera dok munduan danerik dagoela, baina hi lako bat be behar zoan.
- Lasai! Txartel doblea gustura ordainduko dot, neure aldarteko autobusean joatearren.

- Hainbeste be! Horretarako, Bizkaitik kanpora joan beharko heunke.
- Eskertuko neuke horixe. Bizkaitik kanpora goaz?
- Ez jakiat. Martxan ikusiko joagu, baina baietz esango neukek. Ordu biko joana jagok iragarrita, eta Bilbotik ordu bian ez jagok nora joanik, Bizkaitik urten ezik.
- Informazino lar emon deustazu. Kobraidazu txartel bakarra.
- Gura badok, urteeran kobratuko deuat. Horrela, bidaia doan egin ahal izango dok, trankil-trankil.
- Nire problema ez da ordaina, zentzunez ordaintzea baino.
- Orduan, ordaindu eidak oraintxe, eta bakea.
- Zenbat da?
- Erdiaren doblea eta doblearen erdia. Bost hogerleko.
- Eutsi ehuneko bat, eta bueltak emongo deustazuz azkenean.
- Hara! Jente aberatsa be badagoela oraindino!
- Aberastasunik handiena beharizanik eza da. Laster ez dot beharko ezer.
- Joño! Nora hoa, ba?
- Ez al dogu esan ez dakigula nora goazen?
- Eutsoz bueltok oraintxe. Dana dalako lekura, senean heldu gura neukek.

Ordu biren buruan, haranak eta mendateak igarorik, autobusa iritsi zela azkenera jakinarazi zioten, bidaiari bakar gelditu zenean. Irten beharra zegoen. Hiri bat ez zen, baina herri handia zirudien. Izenik ez jakiteak handiago zegien, eta ez jakin nahiak, sugestiboago. Eguzki freskoak ezaugarri fundazionala zirudien bertan. La Bonanza izeneko kafetegiko terraza mahasparratuan, gosari "konpletoa" eskatu zuen, klausula horretan egunkariak ere barne zirenik susmatu gabe. Nora joan ondo zekien txakur baten kokotsa izterrean pausatu zitzaionean, madalena bustiari begira, egunkariak orrialde politikoetan zabalduak ziren. "Apaiz separatista baten igande turbulentuak". Horrelako titularren kronikak eta iritziak irakurtzen ziharduen, irribarrera iristen ez zen aurpegi okerberaz, zeharka zekusen txakurraren imitazio senez. Irakurri ahala, Don Fenixek sabelpeko sentipen huts-bete bat nabari zuen, munduaren ardatz saltatua izatearena.

6. EBIDENTZIA. ESAPIDEAK ETA ESAERAK

ESAPIDE INFORMATIBOAK, ESAPIDE ESPRESIBOAK
ETA ESAERAK HIZKUNTZAREN ARLO OSO ZABAL ETA
FUNTSEZKO BAT DIRA. EUSKARAK EUREN ORDAIN OSOA ETA
KONBINTZENTEA BEHAR DU

Zer esan nahi da "esapide informatiboekin"? Seigarren ebidentzian, "aditza laburtu" izenekoan, hizkuntza oso bat dagoela genioen, non oharrak, deiak, seinaleak, espotak, aholkuak, debekuak, iragarkiak, eta era guztietako informazioak ematen zaizkion hiritarrari. Edozein hiri oinez zehartzean, zoko guztiak idazkunez josita aurkituko ditugu, bakoitza, bere izaera eta ahalaren arabera, erarik ikusgarrienean aurkeztua. Edozein errepide edo autopistatan kilometro batzuk egitea nahikoa da, nahi beste idazkun aurkitzeko. Era guztietako publizitatean sartzen bagara (nahi ezta ere, sartuta gaude), beste hainbeste eta gehiago. Hizkuntza amaigabe horrek guztiak oso kontzisoa izan behar du, ahalik esaldi laburrenez burutua. Arrazoi ebidenteetako bat da horrelako esapideak hizki handiz eta deigarritz idatzi behar direla, distantziatik erreparatu ahal izateko. Hizkien handi-txikitik aparte, laburtasuna balio erantsi bat da, mezua sarkorrago gerta dadin. Beti ere, laburtasun "argia" denean, noski.

"Esapide espresiboak" terminoagaz, hizkuntzaren beste eremu

gutziz zabal eta ezinbesteko bat adierazi nahi da, non esapide egin batek adierazi nahi dugunari espresio erantsi bat damaion. Adibidez: *hortzak erakutsi, popatik eman, zorri biztua, adurra-lerdea dariola, asto bedeinkatua, etxekalte, lurra jo, hiruzaku egin*. Esapide espresibo hauek argotaren muga daude, eta sarritan ez da bereizterraz zein aldetakoak diren.

Gero badira esaerak ere, oso efektiboak, adierazi nahi dena argitzeko edo indartzeko makulutzat erabiltzen direnak. Hizkuntza garatuak josita daude horrelako esaerez. Euskara ere bai, noski. *Umeen zentzuna, etxean entzuna edo zer ikusi, hura ikasi* diogunean (era laburrago eta biziagoan, *zer ikus, hura ikas*), badirudi azaltzen ari ginenak ez duela luzapenik behar, esaerak dena argitu baitu. Nahiz eta euskara ugaria izan esaeretan, gabezia handian aurkitzen da oraindik, hizkuntza garatuen aldean.

Karlos Cid Abasolok dio: "Nik uste dut halako esaeretan ez dagoela alderik hizkuntzen artean".

Teorikoki ez daukat Karlosen ustea ezezteko argudiorik. Gehiago ari naiz konstatazio praktikoan, non, "*erdaraz esaten den bezala*" makuluaren ondoren, euskal hiztunok maizegi jotzen dugun honako erdal esaeretara:

Erdaraz esaten den bezala, "el que calla otorga".
Erdaraz esaten den bezala, "al pan pan y al vino vino".
Erdaraz esaten den bezala, "a mal tiempo buena cara".

Eta abar. Bere atalean ekingo diogu gai honi.

I) ESAPIDE INFORMATIBOAK

Gara dezagun apur bat esapide informatiboen eremu garrantzitsua. *Euskara batuaren bigarren jaiotza*-n (241. or.) honako adibide zerranda dator, eman zitezkeen milaka antzekotatik:

Pase usted sin llamar. Bilbao le saluda. Bilbao le despide. Entra usted en zona urbana. Ceda el paso. Empujar. Tirar. Usted no tiene preferencia.

Cambio de sentido. Dirección prohibida. Controle su velocidad. Recuerde. Entra usted en zona no nuclear. Entra usted en zona militar. No se detenga. No cargue con motor en marcha. Atención a las señales. Aparcamiento limitado. Recoja su ticket. Vía manual. Vía automática. Usuarios sin moneda. Atención al tren. Entrada. Salida. Prohibido fumar. Prohibido aparcar. Prohibido verter residuos. Curva peligrosa. Pendiente prolongada. Sea usted bienvenido. Buen viaje. Agradecemos su visita. Esperamos que vuelva. Area de descanso. Cuidamos su perro. Estamos a su servicio. Hablamos inglés. Espere hasta que le llamen. Prohibido pintar bajo multa. No respondemos de su vehículo. Tramo en obras. Respete las señales. Velocidad controlada por radar. Zona peatonal...

Frantsesez beste hainbeste egin daiteke Iparraldean, baita ingelesez ere, diasporako euskaldunentzat. Norbaitek esan dezake ea zergatik abiatzen naizen erdaretatik. Ba, gehienez, horrelaxe izaten delako. Euskaraz horrelako esapide bat behar denerako, erdaretan jada sorturik dago, eta sarritan, oso aspalditik. Asma daiteke zerbait guztiz berria, baina arrakasta urriz, erdarazkoa hain ezaguna eta finkatua denean. Horrez gainera, hizkuntza sendoek, nola arloa hain garatua eta osatua duten, orientabide zuzena eta segurua eman dezakete. Kontua da ez duela itzulpen bat izan beharrik, are gutxiago, itzulpen literal bat, euskara kastellanismoz, galizismoz, anglizismoz josita uzteko. Esapide baten ideia eta mezua jasorik, euskararen barrutik sortua balitz bezala ematen saiatu behar da. Eta, gutxien-gutxienez, itzulpen zuzena eta argia izan dadila. Hona aurreko zerranda zutabe hirukoitzean, diogunaren erakusgarri:

ESPAINOLEZKOA	ITZULPEN ZUZENA	ORDAIN HOBEA
Pase usted sin llamar	<i>Pasa zaitez deitu gabe</i>	Aurrera dei gabe
Bilbao le saluda	<i>Bilbok agurtzen zaitu</i>	Bilbok agur (zuri)
Bilbao le despide	<i>Bilbok adio egiten dizu</i>	Bilbok adio (zuri)

Karlos Cid Abasolok dio:

"Aipatuko nuke azken bi adibideok, gaztelaniaz, matxistak direla. Euskaraz, ordea, ez".

Entra usted en zona urbana	<i>Hirigunean sartzen ari zara</i>	Hirigunean sartzen
Ceda el paso	<i>Eman ezazu bidea</i>	Eman bidea-Utz aurrea
Empujar	<i>Bultzatu-Sakatu</i>	Bultza-Saka
Tirar	<i>Tiratu</i>	Tira
Usted no tiene preferencia	<i>Zuk ez duzu lehentasunik</i>	Ez duzu aurrerik-lehentasunik
Cambio de sentido	<i>Norabide aldaketa-Itzulbidea</i>	Itzul
Dirección prohibida	<i>Norabide debekatua</i>	Norabide debekatua
Controle su velocidad	<i>Kontrolatu zeure abiadura</i>	Zaindu abiadura
Recuerde	<i>Gogora ezazu</i>	Gogoratu-Oroit
Entra usted en zona no nuclear	<i>Gune ez nuklearrean sartzen ari zara</i>	Gune ez nuklearrera zator
Entra usted en zona militar	<i>Gune militarrean sartzen ari zara</i>	Gune militarrean sartzen
No se detenga	<i>Ez zaitez gelditu</i>	Ez gelditu
No cargue con motor en marcha	<i>Ez kargatu, motorra abian dela</i>	Ez bete motorra abian
Atención a las señales	<i>Begiratu seinaleei</i>	Adi seinaleei Begira seinaleak
Aparcamiento limitado	<i>Aparkamendu mugatua</i>	Aparkaldi mugatua
Recoja su ticket	<i>Har ezazu zeure tiketa</i>	Har tiketa
Vía manual	<i>Eskuzko era</i>	Eskuz

<i>Vía automática</i>	<i>Era automatikoa</i>	Automatikoa
Usuarios sin moneda	<i>Moneta gabeko erabiltzaileak</i>	Monetagabeak
Atención al tren	<i>Kontuz trenarekin</i>	Kontuz trenarekin
Entrada	<i>Sarrera</i>	Sar
Salida	<i>Irteera</i>	Irten
Prohibido fumar	<i>Erretzea debekaturik</i>	Ez erre
Prohibido aparcar	<i>Aparkatzea debekaturik</i>	Ez aparka
Prohibido verter residuos	<i>Hondakinak botatzea debekaturik</i>	Ez hondakinik
Curva peligrosa	<i>Bihurgune arriskutsua</i>	Bihurgune txarra
Pendiente prolongada	<i>Aldapa luzea</i>	Aldasbehera luzea
Sea usted bienvenido	<i>Izan zaitez ongi etorria</i>	Ongi etorri- Ongi etorria zu

"Hau ere gaztelania matxista", Karlos Cid Abasolok dioenez.

Buen viaje	<i>Izan bidaiara ona</i>	Ongi joan-Zoaz ondo
Agradecemos su visita	<i>Zure bisita eskertzen gu</i>	Bisita eskertzen dizugu Mila esker bisitagatik
Esperamos que vuelva	<i>Itzuliko zarela itxaroten dugu</i>	Itzuliko zarelakoan
Area de descanso	<i>Atsedena gunea</i>	Atsedena
Cuidamos su perro	<i>Zure txakurra zaintzen dugu</i>	Txakurra hemen
Estamos a su servicio	<i>Zure zerbitzuan gaude</i>	Zerbitzari gaituzu
Hablamos inglés	<i>Ingeleseaz hitz egiten dugu</i>	Ingeleseaz badakigu
Espere hasta que le llamen	<i>Itxaron ezazu deitu arte</i>	Itxaron deitu arte



BILBAO
UDALA
AYUNTAMIENTO

Bidebarrietako Liburutegi Zentrala
Biblioteka Central de Bidebarrieta

“Gaztelania matxista”, Karlos Cid Abasolok dioenez).

Prohibido pintar bajo multa	<i>Pintatzea isunpean debekaturik</i>	Pintatzea isungarri
No respondemos de su vehículo	<i>Ez dugu zure ibilgailuaz erantzuten</i>	Ez dugu ibilgailuen ardurarik
Tramo en obras	<i>Bideunea lanetan</i>	Lanak
Respete las señales	<i>Errespetatu itzazu seinaleak</i>	Kasu-adi seinaleei
Velocidad controlada por radar	<i>Radarrez kontrolaturiko abiadura</i>	Abiadura radarrez
Zona peatonal	<i>Oinezkoen ingurua</i>	Oinezgunea

Pare bat ohar:

1) Hirugarren zutabea eredu posible baten adibide bat besterik ez da, irizpide bat azaltzeko bakarrik. Hobetzekoa da, duda gabe, esku gehiagotatik pasaturik. Eta pasatu beharko luke euskara osoa ordezkatzeko dutenengatik, onena adostasunez hautatzeko. Hori horrela ezin dugu egin, jakina, iragarki edo esapide baten eskaera partikular bat egiten zaigunean, sarritan gertatzen den bezala. Lan osoago, globalago eta eratuago batez ari naiz.

2) Irizpide moduan, soluziorik onenak esan nahi du euskara osoaren ahalbide onenak bilatzen hasi behar dela. Horiek, gero, lurraldetik lurraldera egokitzea zuzena litzateke, baita beharrezko ere kasu askotan. Esaterako, *har, sar, itzul, tira, aparka...* aditz erroak zenbait eremutan gogor egiten badira, lasai jar litezke: *hartu, sartu, itzuli, tiratu, aparkatu...* partizipioak. Hizkuntza osoaren ikuspegitik, nahiago dut idatzi *zer ikus, hura ikas*, baina neure etxean edo inguruan *zer ikusi, ha ikasi* esaten dut. Euskara osoaren aldetik eredu onenak izateak ez du esan nahi tokian tokira egokitzea gaizki dagoenik. Neure euskalkiko beste adibide bat jartzeko, *aldats* izen orokorretik, *aldasbehera* eta *aldasgora* izen ezberdin moduan

bereizten dira. Barazarren behera gatozela, bereizkuntza hori dakien inork ez lerrake: *bai aldats luzea!*, baizik: *bai aldasbehera luzea!* Berdin gorantz: *bai aldasgora luzea!* Zehazpen egokia eta dotorea litzateke “aldats” esaten den eremuan.

Esapide “informatiboak” deitu diegun hauek, oso garrantzitsuak izan arren, ez dira euskararen hutsune larria. Bai elebitasun ofizialak edo boluntarioak, bai, sarritan, elebakartasun naturalak hutsune hori betetzera behartu gaitu, eta beteta dago, nahiz eta betetzeko era asko hobe daitekeen. Esapide horiengatik bakarrik izatera, ez nukeen euren auzia ebidentzia gisan aurkeztuko. Ez dago gaizki, hala ere, bide batez, hain arlo ugariaren soluzio global eta kalitatezko bat planteatzea. Metodoa honakoa izan liteke, gutxi gorabehera: lehenik, ahalik zerrenda osoena jaso, erdaren laguntzaz. Espainola eta frantsesa, gutxienez, eta ingelesa ere gaizki ez, kontzeptuak eta adierazteko erak beste ikuspegi batetik neurtzeko. Ondoren, zerrenda osoari soluzio unitario bat eman, lehendik ondo daudenak finkatuz, hain ondo ez daudenak hobetuz, eta falta direnak gehituz, premia datorrenean, bakoitza bere asmakuntzak egitera beharturik aurki ez dadin. Soluzio unitario hori euskalki guztietako eskuetatik pasarazi beharko litzateke, kalitate hobeko ez ezik, nazionalki konbintzentea izan dadin. Azkenik, hedapena legoke, funtsezkoa eta errazena, gaur internetak eskaintzen dituen aukerekin, baina efektiboa izan dadin lortzea hain erraza ez litzatekeena. Sarean dauden euskal hiztegiez gainera, eskaintzak hedabide guztietara iritsi beharko luke, ahalik erarik persuasiboenen. Lanaren eraketa posible bat iradokitzen baizik ez naiz ari. Argi dago metodo on bat zehaztu beharko litzatekeela, efikazia segurtzeko modukoa.

II) ESAPIDE ESPRESIBOAK

Hemen dator kontu nagusia eta beroena, ebidentziaren edukia justifikatzen duena. *Euskara batuaren bigarren jaiotza*-n (210. or.) esaten zen:

“Hizkuntzak esamoldez josita daude, eta gehienez, bakoitzak oso bide propioa egiten du, batez ere argotean. Hona gaztelaniazko adibide batzuk: *Tomar el pelo, meter la pata, hacer la pelota, comerse un rosco, pintar bastos, arrimar el ascua, hacerse el loco, tocar madera, hacer cola,*

estar como una cabra, tocar a rebato, repartirse la tarta, morderse la cola, hacer aguas, estar en la higuera, barrer para casa, echar la casa por la ventana, pasarse de rosca, esperar sentado, eso va a misa, caérsele la baba, pasarse de listo, coser y cantar, irse por las nubes... Edo: *de rompe y rasga, da cabo a rabo, de chuparse los dedos, muerto de risa, tirado en la calle, de cuerpo presente...* Edo: *sin ton ni son, viento en popa, por los cerros de Úbeda, como alma en pena, a mesa puesta, sin pelos en la lengua, ojo avizor, como gato sobre ascuas, cazando moscas, con el culo al aire, a toda mecha, en el quinto pino, a pelo, en pie de guerra...* Edo: *punto muerto, mieles del éxito, laureles de la victoria, caballero de honor, golpe de efecto, tiro por la culata, tiro de gracia, tiempo de descuento, marcha atrás, muerte dulce, camino de rosas, los pelos de punta, libro abierto, vela en el entierro, puerto seguro, tiempo de vacas flacas...* Edo esaera gisakoak: *a rey muerto, rey puesto; a Dios rogando, con el mazo dando; de tal palo tal astilla; quien tuvo la retuvo; llámame gorrión y échame trigo; haz bien y no mires a quién*”.

“Euskaraz ere honelakoak ugari dira: *lurra jo, hortzak erakutsi, popatik eman, zorri biztua, adurra-lerdea dariola, asto bedeinkatua, atzea eman, etxekalte, ustel egin, hiruzaku egin, koipea eman, zur eta lur, santua ez bada txerri aska, kopeta zimurtu, palutik eman, -ren lepötik bizi, bostekoa eman, eskupekoa jaso, sorbaldak jaso, odolesteak orde-odolkiak ordainez...* Baina daukaguna ez da problema, falta zaiguna edo sartzen zaiguna baizik. Gaur hego-euskaldun askoren belarrietan normalak dira *pelota egin, enteratu, hanka sartu, ilea hartu, porkulo bidali, korrupzioarekin amaitu, indioarena egin, erroskatik pasatu, listotik pasatu, faltan bota...* eta abar eta abar. Askotan, erdal-euskal esamolde mistoak ere bai: *a toda hostia bukatu du, a toda mecha zihoan, con pies de plomo ibili behar da, el acabóse izan zen, por pelos aurkitu nauzu, con más pena que gloria amaitu da, negozioa viento en popa doakigu, allá cuidaos besteak, portzierto lehengo batean...* Hau guztia hizkuntza baten erosio handiaren ezaugarri da”.

Saia gaitezen zerrenda luzatzen:

Con las espadas en alto. En pie de guerra. A trancas y a barrancas. A lo hecho pecho. A muerte. Apaga y vámonos. Entre la espada y la pared. Reír por no llorar. Hablar por no callar. Sin prisa pero sin pausa. Entre pitos

y flautas. En dique seco. Coser y cantar. Con pelos en la gatera. Como gato sobre ascuas. Chiquito pero matón. Hablar por no callar. En el fragor de la contienda. Pescar en río revuelto. Hacer de la necesidad virtud. De la ceca a la meca. Echar las campanas al vuelo. Quitar lo bailao. A bajar de un burro. Con un pan bajo el brazo. Sin pena ni gloria. Pedir peras al olmo. Salir escaldado. Eso va a misa. Las mata callando. A toda pastilla. Viento en popa. A las duras y a las maduras. Rozando el larguero. Echar la casa por la ventana. Arrimar el hombro. Llover sobre mojado. Mentir más que hablar. Nadar y guardar la ropa. Tirar la piedra y esconder la mano. A toro pasado. A cara de perro. A pedir de boca. A bocajaroro. Entre pitos y flautas. Con cuentagotas. Como el rosario de la aurora. Dar palos de ciego. Se acabó lo que se daba. Rizar el rizo. Dos dedos de frente. Deshacer el entuerto. Tirar por la borda. Por los cerros de Úbeda. Cruzarse el cable. Con el cable cruzado. No comerse ni un rosco. Desandar lo andado. A cuenta gorra. Buscarle las cosquillas. Convidado de piedra. Dar vela en un entierro. Arrimar el hombro. Echar una mano. A brazo partido. No dar su brazo a torcer. Ni pies ni cabeza. De su puño y letra. Más dura será la caída. La suerte está echada.

Esapide hauetan, arestian aipatu bezala, ez dago beti argi (nire zehaztasun mailan, behintzat) argotetik harantz ala honantz gabiltzan. Muga difusoa izanik, utz dezagun horretan, nire ebidentzia ez baita mugen zehazpena, mugakide diren bi eremuen artean osatzen den esparru garrantzitsua baizik. Mugatik haranzkoari, argotari, 7. ebidentzian ekingo diogu. Esapide espresiboetan, euskaratik emanda, aipa berri ditugu: *lurra jo, hortzak erakutsi, ustel egin, kopeta zimurtu, zur eta lur, bostekoa eman, sorbaldak jaso, begitan hartu, koipea eman...* Aipa genitzake beste ehunka, agian milaka, hala nola: *hutsaren hurrengo, asto bedeinkatu, kontakatilu, nonzeberri, itsumutil, pikutara, kakalana...* Edo euskal-erdal nahasketak: *con pies de plomo ibili behar da, el acabóse izan zen, por pelos aurkitu nauzu, con más pena que gloria amaitu da.*

Euskal-erdal nahasteetan dago gakoa. Zergatik jotzen dugu baliabide horretara? Euskaraz euren ordainik ez dagoelako? Edo, egonda, ezagutzen ez delako? Edo ezagutzera eman zaigunak konbentzitu ez gaituelako? Hizkuntza garatuetan milaka dira horrelakoak. Euskaraz ere bai, noski, baina badirudi zuloren bat badagoela, bestela ez baikenuke

joko erdal makuluetara. Hizkuntza lehiakor batentzat premia funtsezko bat da jorratzen ari garena. Saiatzen gara zuloa betetzen, baina ordaina konbintzentea ez denean, zuloak berean darrai. Adibide bat.

Pie sarreraren lokuzioetan, 3000 hiztegiak "andar con pies de plomo" esapideari honako ordaina damaio: zazpi begirekin ibili. Lokuzio bat da, baina ez dakit konbintzentea den. Beste hiru hiztegiak (Zehazki, Elhuyar, Labayru) honakoetara jotzen dute: *kontuz/arretaz/ tentuz/arduraz ibili*. Edo esapide bera "handi" erantsiz: *kontu handiz, arreta handiz...* Problema da "andar con cuidado" eta "andar con pies de plomo" ez direla inondik ere berdinak espresioz. Orduan, sen bereizle hori duen euskal hitzunik batean "kontuz ibili" esango du, eta bestean, "con pies de plomo ibili". Euskal-erdal nahastea gaitzi zaion hitzunik edo idazleak "kontuz ibili" emango du bietan. Nahiago du espresioa gezatu, nahaste itsusia baino. Nik neuk, ordain geza horiek baino nahiago nuke izulpen literala bera: *berunezko oinekin ibili*. Azken batez, beruna metal unibertsal bat da, espainola bezain euskalduna. Beraz, berunaren metafora ere unibertsala da, eta unibertsalki ulergarri izan behar du. Hala ere, pentsatzen hasita, nahiago nuke "harri". Elementu hau beruna baino askoz arinago izan arren, badirudi euskaldunontzat (niretzat, behintzat) esanguratsuago dela: *harrizko oinekin ibili*.

Ordain gezen fenomeno maizegi, ia ohiki gertatzen bada, zuloa "faltsuan" betetzen ari gara. Hona berau beste esapide bat ("llenar en falso", "cerrar en falso"), zeinarentzat hiztegietan ez dudan aurkitu ordain konbintzenterik. *Faltsu* hitza euskarak berea duenez gero, ez zait gaizki iruditzen, behin-behinean behintzat, *faltsuan* esapidea, beste adjektibo askotan aplikatzen den bezala: *hutsean jardun, gorian landu, luzean jokatu...*

Esapide kolokialak ere sail honetan sar daitezke, edo bertan sartuko ditut, gerta berri zaidan pasadizo bat aipatzearen. Autoan goaz autopistan. Bati mugikorrek jo dio, eta:

– "Bai?... *iHola, cariño!... igualmente... ya... ihombre!... claro, claro!... es que... iiii!... ino jodas!... ya... vale... ipues, claro!... ihombre, claro!... vale... ifaltaría más!... o sea que... enfin... ¿ya?... iya, ya!.. ini hablar!...*

(beste aldekoak ez dio, antza, ezer esaten utzi nahi), *así que... iqué va!.., iqué va, qué va!... pues... vale... vale ya... ja-ja-ja... así que... iya está!... ifenómeno!... por si acaso... bai?... tunela dator eta moztu egingo da... Bai?... Sartu gara... bale... gero jarraituko dugu.*

– Euskalduna al zen beste aldekoa? –galdetu diot noraezean.

– Zer izango zen, ba? –darantzu erdi autista, mugikorrari txist eta txast eraginez.

– Ba, hurrengo erdaldun batek deitzen dizunean, egiozu, adibidez, honela: *Bai?... Kaixo, laztantxo!... berdin zuri ere... bai, noski... hara!... bai, ba... bai, ba... izan ere... iuhu!... izorrai!... bai ondo ere!... jakina!... inola ez, ba!... beraz... bai?... esan ere!... iba, bai!... et, et, et!... ezta pentsatu ere!... beraz... tira, ba... bai zera!... ez, ez, ez!... ba... hooori!... horixe!... baietz, ba!... hainbeste?... ona!... ja-ja-ja... halaxe da, bai... ondo dago... eginda!... itzel!... zoragarri!... badaezpada... aizu!... zera... tunela dator eta...*

– Zergatik egin behar diot horrela erdaldun bati? –galdetzen du, egoeraren arrazoiak garbi ez jabetzearen muzinez.

– Ez dakit, ba! Konparaketa sozio-linguistiko bat egitearren-edo, karrera ere hortik egina duzunez gero.

– Egon pixka batean! Gero jarraituko dugu.

Tunela amaitu da, eta aurreko solasa lehengo airean berritu da, pare bat kilometrotan. Euskal Filologia egina izatea ez da hainbesteko okerra, idazlea ere ez balitz. Telefono deia amaitu denean, eztabaida txiki bat izan dugu, adostasun teoriko bat aise lortu dugu, baina praktikan uste dut ez duela ezertarako balioko. Beharbada, ortografian zerbait: *portsiakaso, keba, asike, portzierto, aillakuiraus* eta horrelako genialitateak.

Utzitako hariari berreldurik, esapide edo lokuzioak "milaka" direla esan dut. "Milaka eta milaka asko" erantsi beharko litzateke, hitzak eurak baino askoz gehiago. *Pie sarrera* horretantxe bakarrik sarturik, Real Academia Española-ren hiztegian, hasierako 28 adieren ondoren, 160 lokuzio zenbatu ditut, eta ez dakit ondo zenbatu ditudan, ia zorabiatu bainaiz. Elhuyar hiztegiak 10 adiera, 6 lexia eta 33 lokuzio dakartza. Zehazki hiztegian, 9 adiera eta 32 lokuzio zenbatu ditut. Ez ditu lexiak eta lokuzioak izendatzen. Berdin Labayru hiztegian, 8 adiera eta 25 lokuzio.

3000 hiztegia, 10 adiera eta 32 lokuzio. Kontua ez da, noski, espainolaren hiztegia (edo frantsesarena) osoan itzultzea, baina bai euskaldun batek (gaur egun, ia denek) bere baitan daroan beste hizkuntza dominante horren zabalerara ahalik gehien hurbiltzea. Eta, batez ere, ematen diren ordainak "konbintzenteak" izatea. Nola lortzen da hori? Ez daukat soluziorik. Premiaren ebidentzia da aurkezten ari naizena. Ez da premia sekundario bat, hizkuntzaren biologia zentralari dagokiona baizik. Eta metodo posible bat ere iradokitzen dut, "esapide informatiboak" atalean azal berri dudana eta ondorengo atalean errepikatuko dena, nahiz eta askoz indar handiagoz esapide espresiboentzat eta hurrengo ataleko esaerentzat.

Beharbada, euskararen gako nagusia ez da, hainbeste, baliabiderik eza, sortuak diren asmakuntza lokalak (eta sortzen ari direnak) zabaldu edo komundu ezina baizik. Apalean bistan daukat, adibidez, aspaldiko lan mardul bat, Koldo Izagirreraren *Euskal lokuzioak*. Lodi-meheagoan, zenbat ez ote dira burutuak horrelako ekarpen edo bilketak, Euskal Herri osoan zehar? Kontua ez da, berez, hain ezkorra. Iturriak badaude. Bi aldiz pentsaturik, ordea, nago iturririk eza baino larriago ez ote den ura helarazten ez jakitea, horrek pentsaraziko bailuke arazoa, euskararena bainoago, euskaldunena dela. Euskalgintzako bibliografiak ekarpen berriz eta metodo berritzailez josita egonik, badirudi euskara errealak hori guztia areago hartzen duela etnografiatzat, bizibidetzat baino. Neure mundualdi jada nahiko luze bezain gerorantz laburregian, susmo gehiago pilatzen zait alde horretarantz, zeinaren izendapen teknikoa (nahiago bada, antropologikoa) litzatekeen: euskaldunen jenio tribala.

III) ESAERAK

Atal hauxe da 6. ebidentzia honen hirugarren zango ezinbestekoa. Euskaraz ere asko dira esaerak, azalpen baten indargarritzat erabiltzen direnak:

Hasiak egina dirudi, eginak urre gorria. Zer ikus, hura ikas. Larra txarra da. Ez ito ez kito. Sardina bat jan, sardina bat lan. Zofoak beleari ipurbeltz. Goian zein behean, tximinoa tximino. Gizona gizon, katua mixon. Katua saguarentzat tigre, tigrearentzat sagu. Daukanak erakusten du.

Zaldizkoen zain, oinezkoak joan. Oinezkoei muzin, zaldizkorik ezin. Saldua galdua. Egizu on eta izango zara don. Daukanak ez daukanari txerri belarri gorri. Astoak mandoari belarri-handi. Joan-etorri, kapela gorri. Ondo, sutondoan katua. Dohatsua, zeruko atsoa. Goiz loratu, goiz zimeldu. Txakurrak nonahi oinuts. Dirua munduko Jainkoa. Habia egin deneko, txoria hil. Eta milaka. Azkuek 3.000 jasotzen ditu Euskalherriaren Yakintza III-an. Eta artean eta geroztik, auskalo zenbat bilduma osatu diren.

Hala ere, euskaldunok noiznahi jotzen dugu, jo beharra dugu (maizegi, hizkuntza baten osasun sendorako) honako laguntzara: "*Erdaraz esaten den bezala, «donde las dan las toman»*". Lehen makulu horren jarraian, esaera amaigabeak, hala nola:

Al pan pan y al vino vino. A mal tiempo buena cara. En todas partes cuecen habas. No hay bien que por mal no venga. Ojos que no ven, corazón que no siente. El que tuvo retuvo. Quien siembra vientos recoge tempestades. Caballero es don dinero. Quien mal empieza mal acaba. El que fue a Sevilla perdió su silla. Sarna con gusto no pica. Sobre gustos no hay nada escrito. Querer es poder. Haz bien y no mires a quién. A Dios rogando y con el mazo dando. A la tercera va la vencida. Más vale tarde que nunca. Más vale pájaro en mano que ciento volando. La mala hierba nunca muere. A falta de pan buenas son tortas. Nunca segundas parte fueron buenas. Más vale prevenir que curar. Muerto el perro, se acabó la rabia. No por mucho madrugar amanece más temprano. A perro flaco todo son pulgas. En boca cerrada no entran moscas. Antes cocinero que fraile. El hábito no hace al monje. El saber no ocupa lugar. El que calla otorga. La ignorancia es atrevida. El que espera desespera. Andando se hace el camino. El mayor desprecio es no hacer aprecio. Más vale tarde que nunca. Letra con sangre entra.

Eta abar eta abar. Frantsesez beste hainbeste.

Euskaraz milaka badira, erdara garatuetan ez dira gutxiago izango. Kontua da, euskararen blokean, asko eta asko erabileratik at gelditu direla. Edo ezagutzatik at. Edo konbikziotik at. Hori erdaretan ere berdin gertatzen da, baina hizkuntza sendoek uzten dutena baino gehiago sortzen dute, edo sortuari luzaroago eusten diote, hiztunen ezagutza edo

medioen hedapena sendoago delako. Hain zuzen, horixe da hizkuntza baten sendotasun-bizitasunen ezaugarrietako bat. Kontua da kontu asko aipa daitezkeela, baina euskaldunon kontu nagusia da noiznahi ateratzen zaigula "erdaraz esaten den bezala" delako makulua, ondoren erdal esapide bat edo esaera bat jaulkitzeko. Euskararen ezjakintza? Erdarekiko menpetasuna? Nahi dena, baina praktika ebidente horixe da. Eta kontua ez baitagokio hizkuntz zoko marginal bati, baizik hizkuntza baten bizi-adierazle funtsezkoetako bati, interbentzioak azkarra eta konbintzentea izan behar du. Eta metodoak, gorago aipatu berdina: euskal eta erdal esapide- eta esaera-baseak ordenatu, irizpide praktikoz eta aktualez selekzionatu, erdarekiko diferentziak seinatu, eta hutsuneei, euskaldunen erabilera praktikoa agertzen den multzo handiegi horri, soluzio konbintzente bat eman. Lan horrek, sinesgarri eta efektibo gerta dadin, Euskal Herri osoko euskaldunen sentiera ordezkatzeko lukeen aditu-sareen emaitza izan behar du. Hitz potolo batera jotzeko, euskararen arlo garrantzitsuetan, nazio mailako proiektioz burutzen diren ekarpenak metodoan ere "nazionala" izan behar du; euskaldungo osoa ordezkatzeko duen egile-sare orekatu baten eskutik eta onarpenetik pasatua behar du. Eta ondoren, zabaldundeko efektibo bat. Soluzio ondo emanak gutxi balio du gaizki hedatzen bada.

Norbaitetik esan lezake: "Heu ari haiz, ba, kontu potoloak jaurtitzen, inolako saretik pasatu gabe!". Ba, bai. Zergatik ez? Ideia batzuk jaurtitzen ari naiz. Ebidentzia batzuk. Ez naiz hiztegi bat egiten ari. Ez aditz taula berriak. Ez sintaxi berriak. Proposamen batzuk aurkezten bakarrik ari naiz. Eta testu literario gehigarrietan, neure aplikazio jakin batzuk, guztiz partikularrak eta pretentsio arauemailerik gabeak, nahiz eta norabide bat proposatzeko asmo oso argiz. Aldarritzen ari naizen ebidentzien soluzio "nazionala" bat lantzeko mandatua jasoko banu, ez daukat dudarik abiapuntu nahitaezkoetat metodo eta partaidetza nazional bat zehaztea litzatekeela. Argi esanda, euskararen eremu osoaren ordezkartza orekatu bat. Eta operatiboa, ez sinbolikoa edo sentimentala bakarrik. Azken batez, euskara "batua" dioguna zer da euskara "nazionala" besterik?

IRAGURGIAK

Zoratuta ni? Berrikus dezadan auzia. Arteagaz tratua egin nuen. *Sinatuko neuke bizitzea, zu bizi zareno* –esan nion, eta berak: *Eginda!* Palmondoari ere tratu berdina proposatu nion, eta berak: *Eginda!* Nola egin nezakeen bi zuhaitzekin bizi bakarraren tratua? Galdere bestea da. Nola lot nezakeen neure bizi zuhaitz batzuen iraupenari? Jolas bat izan zen, naturagaz flirt bat. Baina gero kilima bihurtu zen, gero urduritasun, gero kezka, gero obsesio, gero larrimin, orain zoramen. Zer koño dagit gauaren erdian, bi zuhaitz inozentari hirugarren bisitan, egunak lau ostera egiteko beste ordu ez zuelako? Zer alde dago zuhaitzak noiz jausiko diren ez jakitetik lehengo noiz hilko nintzen ez jakitera? Ba, ez! Burmuinean sartu zaidan birusen bat setatua da ezen etengabe konprobatu behar dudala zuhaitzak zutik eta onez daudela, batarena konprobatu baiko, bestearenaz dudatzeko. Tratuaren arabera, bizirik naizeno, zuhaitzek zutik behar dute, baina ez. Ikusi behar ditut, bizi naizela ziurtzeko, hots, suizidio lento batean sartu naizela berresteko. Bizi bermatzeko bulkadak heriotzaren menpetasunera amildu nau. Turbina fatidiko baten barruan nago, zeinak eraginago eta hortz gehiago duen, geroz estuago, geroz brutalago. Kontzentrazio esparrutik iheslana, alanbre-matazan jausirik, mugituago eta tratuago den bezala. Egunez ez darabilt zuhaitzen pentsaketa besterik, eta gauez berdin, ez lo, ez la. La gurago lo baino, deskuidaturik dagidan apurra atsedean baino areago baita amesgaitz: bi zuhaitzak elkarren kontra amiltzen, eta ni beti azpian, bakarrik gelditua naizen munduan beste tokirik ez bailitzan. Zergatik eman diot heriotza furtibo eta sarritan hain txatxuari honen irudikapen ageria, ikusgarria, zanpatzailea? Zergatik egin dut zentzuez hau guztia? Alegia, zergatik ez naiz gauza neuk neure lepoa beragaz katigatu dudana soka zentzugabea moztzeko?

Azaroak 4: apaiz talde bat seminarioan itxi. Azaroak 12: gotzaina gaixotu. Azaroak 16: gotzaina hilzortitu. Azaroak 18: gotzaina hil. Azaroak 19 (bihar): Bilbo hiria kanpai eta organo guztien tuttian mobilizatuko da, gotzain frankista bati dagokion arrandiaz eta matxinada klerikalagatik

desirainez; desiraina gotzainaren alde hainbat suharrago, zenbat sutsuago apaizen aurka. Kasik infinituki, beraz, infinitua kasitasunean sartzerik bada. Ez dakigu gure ekintzak heriotza bat benetan aurreratu duen, baina bai duela nabarmenki hotsanditu, eta hori probidentziak eskertu beharko digu, inoiz beragaz begiz begi aurki bagintez, orain berriro aurre eginarazi nahi digun dilema deabruzkoaren ordainez. Itxialdian jarraituz gero, ez da profeta izan behar nolako erretolika entzun edo irakurri beharko den asmatzeko. "Apaiz matxinoek euren kontumazia harrizkoan darraite, gotzaina hil ez bailitzan". "Apaiz separatisten bihotz soraioa ez da biguntzen eurek eragindako heriotza apostoliko baten aurrean ere". Literatura inperantea (diktaduratik demokraziara askorik aldatzen ez dena, Aljeriako kasuan proba berri dugun Frantzia "ederraren" diskurtsoa adibide) zaila da fideltasun sinesgarriz imitatzea, zaila baita makina baten kontzientziatik hitz egitea, kontzientziarik baduen ere ziur egon gabe, baina hortik doazke 'tiroak', oraingoan metafora hutsetik harago, seguruenik. Gure artean, itxialdiaren berezko tentsio guztiaz gainera, zalantzazko larritasun bat zabaldu da, propaganda feroz guztiak gotzainaren heriotza geuri leporatzen baitigu. Ekintza garrantzitsu baten hasiera hainbeste kostatu eta gero, ez genuen pentsatuko erabakia egunero berri beharko zenik, geroz zailtasun handiagoan, partaideen euspina berez ere arrailkor ez bailitzan. Bat dardara daiteke (eta dardaratzen da!), ekintza gogor eta jakin bati eraso behar dionean, baina ez da gutxiago dardaratzen, beldur denean ez ote den ari gogortasun guztia aplikatzen disparate baten gainean.

Vivaldiren Gloria, Händelen Aleluia, Bachen Pasioa, Mozarten Laudate, Schuberten Ave Maria, Berliozen Requiem, Stravinskiren Salmoak, Madinaren Aita Gurea... Haiek denak kantatzen genizkien "mundutik" etorritako entzule onberei, non neskei ere lasai begiratu ahal genien, asmo garbiz beti ere, eta zirraratzen ziren eta txalotzen gintuzten. Geu ere zirraratzen ginen urteraino, eta harrotzen ginen lorioski, artearekin aldarriz: *Ikusten gure mundu-ukoa nolako ederrez betetzen den? Ikusten fedeak nolako gozamina sortzeko ahala duen? Honelaxe bizi gara gu, dohatsu, zuen mundu tristetik aparte.* Gero, oihala ixten zenean, mundu "triste" hura

joan egiten zen. Nire gozamen eta sentipen triumfala apur bat luzatzen zen inertziatz, baina gauean, bakarrean, neure bekaitz gaindiezinean oheratzen nintzen, atsegin osoaren benetako etorrera erregutuz. Ez zetorren, eta hutsunea zen Jainkoari eskaini nezakeon bakarra, musikaren emozioak apur bat bete. Betetasun horrek bazuen, ordea, langidotasun etsi bat, aroltasun triste bat, musikari berari banaezinki loturik gelditu zitzaidana, artearen osagai beharrezkoa bailitzan. Nire sentimenaren objektu desiatu guztiak joanik (joaten utzirik, geure borondatea zela pentsatu behar baitzen), ez nintzen gelditzen gabezia negarguran flotatzen bakarrik, baizik hutsunea atsegin bihurtzeko ezintasun esentzialean. Sinesteetik jaregin eta gero ere, sentipen kate hori guztia ahoratzen zidan musika erligiosoak. Madinaren Aita Gurea abiatzen zen, eta bularrean bat-bateko desadore bat nabari nuen, desolazio bat, mortu lunar batean abandonatu banindute bezala. Tristura "esentziala" esatean, hutsaren gaineko emozioa diot. Emozioa egiazkoa zen, baina edukiaz gabetua; zorion kontzeptual bat, ukoaren beste aldean sentitu behar nuena, baina ezin nuena, baina sentitzera beharturik nengoena. Azkenean, hutsunearen eduki bakarra neure inpotentzia zen, neure porrota. Eta edozein emozio gozoren beldurra, zeren, atsegin zerbait sentitzen zeneko, uko automatikoa ezarri behar zitzaion, kezka larriz ezen denbora bat ohartu gabe konsentitzen igaro ote zenuen (ohartu gabe konsentitu!), Jainkoari eskatzeraino ezaba zeizula, arren, atsegin ororen gaitasuna, tristura konnatural baten segurantzant pausatzeko. Irtenbiderik ezaren fatalismoa. Sinesten jarraitu banu, tristura fatal hori emozio koherentea izango zen. Sinesteari utzirik, itxarotekoa zen bizipen hark ez zuela izan behar iraganeko anekdota bat baizik. Ba, ez! Badirudi gogoia ez dela adimena bezain adaptagarri. Konbikzioak aldatu ziren, baina sentsazioek bertan zirauten, sortutako ordena eta intentsitate berean. Nire adimenaren defentsa bakarra izan zen tristurari lasai hedatzen uztea sentsazio iraungigaitz horien gainera, ekarpen txiki berri bategaz: musika erligiosoan ederra are ederrago bihurtzen zen, nire baitan abiatzen zen tornado masokistari esker.

Zer zerikusi dauka esperientzia musikal hark oraingo egoeragaz? Txorien isiltzeak, bat-batean, ezaren eta ezerezaren mortura jaurti nau. Ingurua hilik, fosildurik ageri zait. Berdetasuna hezur-kolore bihurturik. Isiltzeak, gainera, hegazti oro atzeman duela dirudi, ahate aldra mardul

bat agertu baita ibaiadar barean, denak isil-isil, helduak mendi-botak eta umeak oholtxoak direla pentsatzeko moduan, urez kontra ez baletoz. Nire gogoak lotura sensiblea aurkitu du fedeagatiko ukoen eta fenomeno honen artean, baina txorien isiltzeari ez nago masokismoaren kinada aplikatzeko trenpuan, ezin baitut susmo kezkarria uxatu ezen euren isiltzea presagio gaizto bat besterik ez dela nire isiltze hurbilarena.

Adimen prekozegi bat jaiotzera zihoan, nindoan. Aurrerapenak ez zuen balio izan zahartzarora luzatzeko bakarrik. Hezkuntza aurreratzeko lehiak lortu zuen, azkenik, oinarrizko pentsamendua umontzira injektatzea, eta ederto etorri zitzaidan, eskutzar batek heldu zidanean, oihu egin nezan: *Ni ez naa hortik! – Orduan, zesareatik – Hortik gitxiago! – Nondik, ba? – Neuk aurkitu behar dot urtenbidea – Ez dago beste biderik – Ahotik! – Ezin da – Zergaitik ez? Sugeak badau ahoa – Zure ama ez da sugea.* Azkenean, beste injekzio bat, eta erdi lo munduratu nintzen. Erretilu batean garrasika itzartu nintzenez, maskara eta mozorroen ikuspenak baretu ninduen. Denek neure alde ziruditen. Maitagarri iritzi nien. Gero beldurtu nintzen, maskara eta mozorro erantzi zutenean. Nire lehenengo munstro-esperientzia izan zen. *Zelan etxean?* – galdetu zidaten handik zazpi urtera, eta deklaratu behar izan nuen: *Medikua umea ekartzera etorri da, eta hain zuzen, gure ama gaixorik!* Adin hartan, ibaiekin itsuturik nenbilen, beti uretan, beti arriskuan, amaren desesperaziorako. Aitak ez-ikusit egiten zuen; hots, ez zen jabetzen. Gero poetak entzun nituen, ibai jaio izana desiatuz, luze-luzea, mundu zahar eta berrien zehartzaile. Handituz nindoala, aztertu nituen ibaiak hobeto, neu ere poeta izan ote nintekeen; eta ikusi nuen ibaiari ez zitzaizela interesatzen alboetako ezer. Aurrera eta aurrera besterik ez zuen pentsatzen, bere finalitate bakarra ezabapena bailitzan. Kausalitate etengabea gozatzen duenak bakarrik egin dezake hori. Ibaiak zergatik jakin behar du itsaso bat zain duela, sorburuari iheska doalako? Gehiago kostata bazen ere, mundua oinez korritzea hautatu nuen, baina hain bide luzeak hartzen nituen, non bueltarako denak itxita zeuden. Giza neurriko ibilerak maitatzera zentzatu nintzenez, ohartu nintzen, nik nahi nuen lekuetarantz, bideak amaitu egiten zirela. Hala doakit bizitza,

ahuntzak haitzean dabilta. Denbora ez dela existitzen, baina pasatzen da. Pasatzen da sufrimendu estremoan gainerik ere. Nire barruan ez dago ezer, sentsazioak eta gomutak besterik. Hortik harago, fidatzen naiz, asko saiaturik, ezer aurkitu ez zuten guztiekin. Mozkor hura bezala, antzeketa guztiak egin ondoren, mozkor papera heltzean, zioena: *Hau zelan egiten da?* Ustez ondo egiterik ezin lortzean, deskonjonoan lokartu zen.

Kanpandorreko lau kanpaitako hirugarrenak igande goizeko lehen zortziak jo dituenean, sakristiatik aldarera irteteko prest dagoen apaizak meza-sarrera diragarten hiru dandak entzun behar lituzke, bigarren kanpian joak, hirugarrena baino grabeago baina gozoago berau, baina sakristauak ez dio tiratu, antza, elizpean dingiliz dagoen sokari. Apaizak, mezako jantzita, zain darrai, eta minutu batera, bigarren zortziak entzun dira erloju-kanpian. Sakristauaren ausentzia serorak bete behar luke, baina baliteke biak falta izatea, batera gaixotzeko daukaten maniagatik. Apaizak, mezarik solemneetan bezala, sakristiako ate ostean dagoen argi-koadroko giltza guztiei emanik, irtetea erabaki du. Aldarera iritsi denean, gorantz begiratzen du, begiak sakristiako erdi-ilun hezetik elizako argiztapen biziegira egoki daitezen. Jainkoari ilunpearen boterearen aurkako kemena eskatzeko ere izan daiteke. Begirada jaistean, argiaren miraria aurkitzen du. Eliza hutsik dago! Ez dago inor! (...) Badoa eliza hutsean zehar ate nagusirantz, ireki eta kristauak sar daitezen. Barne-atea ez dago giltzaturik ez trabaturik. Normal ireki da. Lau urratsera, kanpo-atea ere, harrigarria!, zabalik dago. *Non jagok orduan koska?* Atalasea elizperantz zehartuz batera, lehengo argi-mirariaren alderantzia jo du, eta ikustea gehiago kostatu zaio sinestea baino. Elizpearen espaloiak mugatzen duen kalea, errepide ere baden herriko kale nagusi luzea, guardia zibiletz beterik dago, tanketa bat erdian-da, kanoi-gora. Sermoi ikasia tarteka lausotzen zion beldur orokorraren inkarnazio horixe ez zuen itxaroten. Agente guztiek beraganantz biratu dute burua. Zentrotasun kanibaldar baten sentipenak damaio.

Apaizak elizpeko kanpai sokari heldu zion eta, meza hasierako hiru danden orde, erritmorik hautsieneko joaldian murgildu zen, kanpaia zoratu bailitzan. Txakur aldra amorratu bat kanpai-soka disputatzen ari bailitzan, idizil freskoa zelakoan. Entzuten zuenak urgentzia larriren bat ulertu behar zuen (vanpiro hilurrenak herriko haurtxoen odola behar zuela), edo hondamen hurbilen bat (haizeak sua zekarrela itsasotik). Kalearen mutur bietako guardia zibilengan efektua eragin bide zuen alarmak, unitate berriak agertu baitziren, erdian zer matxinada sortu ote zen. Solemnitate guztiakin jantzitako apaiz bat kanpai-sokaren delirioan hauteman zutenean, fenomenotik babesteko erarik onena deskajojonoari ematea zela pentsatu zuten. *Bistan duk apaiz hau "kanpai jotzen" gartsuago dela antzetsu baino.* Horrek ere eragina izan bide zuen, zeren apaiza, soka harrigarriro geldi utzirik estalaktita bat bezala, kalearen goi alderantz abiatu zen, astiro eta buru-gora, irribarre estoikoak eginez leiho osteetan suposatzen zituen begiei, harategi gainean bizi zen errementari begibakarra barne. Kapitainak ez zuen izan apaizaren ibilera mozteko erreflexurik, meza-jantzi maiestosen erreparoz, duda gabe. Kale buru urrunera iristean, jende multzo handia aurkitu zuen bertan, guardia zibilaren beste tanketa batek eta lerro bikoitzak iragaitza mozten zuela, zeintzuen buruak oihuz eraso zion:

- Nora zoaz zu?
- Neure kristau herriari jakinarazi beharko diot meza suspenditzen dela, ezta?
- Egizu zauden lekutik. Hemen ezin da hesirik pasatu, ez barrurantz ez kanporantz.
- Entzuna izateko beste hurbiltzen uzten badidazu, hesi barrutik ere berdin zait.
- Lau urrats bakarrik!
- Eskerrik asko. Herritar eta eliztar maiteok! Badakusue hauek ez direla meza baten biltasunak behar dituen baldintzak. Beraz, zortzietarako iragarrita zegoen meza bederatzietara atzeratzen da. Giro lasaiagoa izango dugulakoan, eta izan dezagun, har ezazue nire bedeinkapenik bihozkorrena.

Hamabietako meza-sarrera entzun behar zenerako, herria kaosgune totala zen. Trafiko nabarmenki trinkotua eta jendearen etorrera ez gutxiago ugaldua elkarren gainera pilatzen ziren, kale luze eta aluki estu haren bi muturretan. Erants horri kalerik gehiena guardia zibilak berak okupatzen zuela, eta bakarrik falta zen agerpen mirakulos bat gertatzea, zerua asmatu behar izateko, lurrian tokirik ez zegoelako. Azak ontzeko, Don Fenix hamabietako kanpaien jotzea atzeratzen ari zen (beharbada apropos, aluak?), eta hain artegatu ziren denak, guardia zibila barne, estrategia-alda maltzurren bat ote zetorren, non denek laztandu baitzuten hiru danden dei goi-hegalaria, sedizioa salbamen bihurtu bailitzan. Egunaren martxa ordena subertituaren arabera zihoan, baina ordena bat, funtsean. Denen pozerako, hamabi eta erdietan, apaiza kaleko jantzirik irten zenean, kaosa, bat-batean, gardentasun bilakatu zen, kasik elkar-zapaltze ere bazen pilakuntza askapen bat izan bailitzan patu inexorabletik. (...)

Apaiza kalegunetik goranzko bigarren bihurtunean ezkutatu deneko, guardia zibilen artean atzera-aurrera nabaria sortu da, ezinegona bainoago amorrua dirudiena. *Hau potro-igurtzia! Orain zer egin behar dugu? Ekardak otarteko bat San Felonioren mihiagaz! Tanketak zertarako ekarri ditugu? Trafikoa oztopatzeke? Txakurrei txizalarrria pizteke? Canela Kapitainak gobernadoreagandik jaregin ezinik ziharduen, ez hau gogaikarri jarria zelako, berak nahi zuenerako eskumenik lortu ezin zuelako baizik. Zergatik ezin dugu apaiza atxilotu, eta akabo zirkua? (...)* Apaizaren azalpen-orria hartu zuen emakumea, tenislarien antzeko bekoki-zapi horiak adatsa mahats-mordo inbertitua bezala airatzen ziona, hirigune alboko iturri baten gainera igota, "panfletoa" irakurtzen hasi zen, inguruan bildutako jende multzo geroz ugariagoaren aurrean. Sarrerako hitzak ("*Elexabeitiko kristau eta herritarrok! Badakizue gaurko goiz guztian...*") eta esker adierazpen laburrak amaiturik, estilo berdinean zerraien:

"Parrokia honi meza bat eskatu zaio Txabi Etxebarrietaren arimaren alde, ustezko lehen ETAKide hila berau. Eliza ez da nor gizaki baten arima kondentatzeko. Areago oraindik, zenbat eta pekatariagotzat

joa izan, kristauen aldetik hainbat beharrago da haren arimaren alde otoitz egitea. Elizak ez ditu ukatzen kriminalen alde (gerrakoak barne) eskatzen zaizkion mezak ere, ondo dakizuen moduan gure azken gerran galtzaile gertatzeko zoria izan zenutenok. Ez ditu ukatzen, eta ezin du ukatu, ez hauen, ez haien, ez Etxebarrietaren, ez arimadun inoren aldekori. Gaur zuen fede-eskubideei aurrez aurreko eraso guztiz bidegabea egin zaie, noren eta katolizismoa bere lege organikotzat aldarritzen duen erregimen konfesional baten aldetik. (...) Oinarrizko elkartasun fedezko eta herrizko horretantxe saiatu gara, kristauok egintzarik sakratuentzat daukagun meza santuaren bitartez. Goizean ezin izan denak merezi du ahaleginaren jarraipena. Beraz, arratsaldeko lauretan, ohiko bezpera eta arrosario santuaren orde, meza izango duzue, eskaintza eta intentzio berdinez. Lauretan ezin balitz, bostetan, bestela seiretan, bestela zazpitan, eta azken ahalegina, zortzietan. Itxaron dezagun eragozleek eta eragozleen goi agintariak birpentsatuko dutela, eta lauretako elizkizunagaz amaituko dela gure fedeak eta herritasunak merezi ez zuen amesgaitz hau".

Don Fenixek ezin izan zuen hirugarren iganderako jarraipenik iragarri, bera haren ordeko egiten ari zen titularra, Don Arkadio, iluntze hartantxe itzuli baitzen kargura. Don Fenixek bere azken hitzak entzun gabe sakabanatu nahi ez zuen jendetzari eskerrak eta zorionak eman ondoren, hizketa labur bat izan zuen parroko zaharragaz, zeina ere ekintzan konplizetzat joko zuen gero poliziak, zer zetorren jakinean utzi ei baitzuen eliza apaiz gaztearen esku. Kasu hartan, poliziaren susmo sistematikoki gaiztoa ez zebilen egiatik guztiz at. Biharamun goizeko zortzietan (orduaren konkordantzia garrantzitsua zen), gizon bat agertu zen Bilboko Autobus Geltokian, motxila eran egokituriko maleta bat soinean eta bisera bat aurrekoz atzera buruan. Autobusak banan-banan behatzen, kasik usnatzen zituela ikusiz, esan zitekeen oso ibilgailu jakin bat edo norako zail bat bilatzen zuela, baina badirudi, azkenean, autobusik hutsena nahi zuela. Dozena bat lagun jada barruan ziren batera sartu ondoren, dozena erdi hauteman zituen beste batera aldatu zen. Kobratzailea harritu zen, bere *nora?* galderari bidaiariak *autobusa doan lekura* erantzun zionean.

Gau on eta ondo lo egin esatera nindoala, entzerraturik utzi behar dutela igarri duen animaliaren begirada errukarriz galdetu du:

- Zure logela ikus nezake?
- Jakina! Zergatik ez? -onartu dut, beharbada eskaerarik naturalena zela sentiarazi nahiaren intonazio gehiegizkoan.
- Oh! Logela ala bulegoa da berau? -hots egin du bertan sartzean.
- Biak, alboko gela aretoa osatzeko jan zenetik.
- Orduan, lan eta lo eta dena egiten duzu bertan.
- Dena, lan-itxura eta lo-itxura barne.
- Lan-itxura?
- Apaizok ez dugu langile famarik, eta nik probexten dut fama. Jendeari arrazoia kentzen hastea ez da prudentea.
- Lo-itxura ere esan duzu.
- Aurrekoaren ondorio da hori. Apaizok astia sobra izateko fama dugu, baina dena ezin da benetako loan erabili. Nahiz eta jendeak nahiago lukeen apaiza lo egon dadin, ikusmiran baino.
- Lo-itxurak ezin du izan esanahi jasoagorik?
- Adibidez?
- Amets politik edo.
- Adibidez?
- Ba, ez dakit. Ni bezalako bat agertu zaizula edo.
- Batzuetan, ametsa egia izan ohi da, oraintxe bezala, baina ikasita nago egia amets bezala tratatzen. Zure ofizioak ere beharko du hori, jasagarri izan dadin.
- Zugana ez naiz ofizioan etorri.
- Horregatik prestatu dizut logela bat.
- Nik ezin dut gaua logela horretan igaro. Ikara damait.
- Talita! Ez dakit entzuteak urtuko nindukeena esateko beldur zaren, baina hau ez da ordua eta tokia, kuika ibiltzeko. Zer nahi duzu benetan nigandik?
- Gure amak dio, behin edo behin, "padresito" bategaz egon behar dela,

Jainkoak zortea eman deigun. Gu kolonbiarrak gara. ¡Deme suerte, padresito!

– ¡Tiene cojones esto!

– Ez dizut okerrik egingo, eta bai zuk niri mesede itzela. Sinesten dut Jainkoagan.

– Nik ez dut, ba, hainbeste sinesten.

– Ez duzu ezer egin beharrik. Ondoan egoten utzi bakarrik.

Alde batetik, nahiz nuen zerbait gerta zedin, eta bestetik, beldur nintzen zerbait gerta zedin, eta "zerbait" hura, nire buruan, inoiz ez zen izan logela hartan gertatzera zihoana. Baina batetik eta bestetik, ez nekusen era duinik, ezer gertatzea saihestekorik, eta ez dakit adimenak, grinak ala kamustasunak, laster moldatu zuen arrazoibidea ezen "derrigorriari" ahalik ondoen burutzen utzi behar zitzaiola.

7. EBIDENTZIA. ARGOTA

HIZKUNTZA BATEN BIZI-ARDATZ IA GORENA ARGOTA DA. EUSKARA EZ DA LIBRATZEN PREMIA SAIHESTEZIN HORRETATIK. KONPONBIDEA BEREZ GERTATZEA ZAILA BAITA, INTERBENTZIO ANTOLATUA BEHAR DA, METODO ON BATEN BITARTEZ

Euskara batuaren bigarren jaiotza-n, argota aipatu besterik ez zen egin, ez bainekusen, ez hainbeste gaiari nola heldu, baizik nola konpondu. Konponketa gaur ere ez dakust argiegi (esan nahi baita, baikorregi), baina bere premia ebidentzia biribiletako bat bezala dudanez, ausartuko naiz ideia ustez "ebidente" batzuk jaulkitzera.

I) Lehen-lehenik, diogun argota, euskaraz ere, etengabea izan dela eta gaur ere etengabe sortzen ari dela euskara bizirik den bazter guztietan, batez ere, gehiengo euskalduneko herrietan. Hona bokabulario amaibako baten lagintxo bat, airera etorri zaidana:

Popatik eman, zorri biztu, asto bedeinkatu, etxekalte, kanpo-eder, hiruzaku egin, kakalan, kakuntzi, aitzur-anpor-kakote-legatz-katu-albokarga..., txakur zuria-biharamuna (ajea), txahala bota, txapeloker-sandinzar (guardia zibila), beleak/bele beltzak (apaizak), txakurrak (poliziak), jan-txakur, belarrimotz, eztigozo, sartanbaso, artopil, artobero,

babalasto, segapoto, panpox, motzurdin, katu epel, katamierle, piperpoto, litxarrero, sasiko, txoropito, astapito, azukre-koskor, eztionzi, hitzontzi, mainontzi, berbalapiko, tontolapiko, larrua jo, larrutari-larrujole, zirikin-zakien, zokormazo, txurruplin, txintxin, txorrotxin, sapotxin, txilibrin...

Argot-hitzak batzuk sortu ahala joaten dira, perretxikoak bezala, nahiz eta hauek orain areago diren eramanak. Beste batzuek luze diraute, garai oso bat bete, baina, denborarekin, arkaiko bihurtzen dira. Mozkorrak edo mozkortzeak hartu dituen izendapen amaibakoetan, esaterako, *katua* (*katua harrapatu, katua eroan*) luzaro bizi izan zen, Bizkai aldean behintzat, koplak zaharretan eta hainbat idazletan ageri denez. Mozkor kontzeptua hain argot-iturri oparoa izanik, gaurkoak ere (*aitzur, legatz, albokarga...*) pasako dira, berriak sortu ahala. Edo ez dira hain erraz pasako. Hitz bazuek belaualdi luzeetan diraute, baita mendeetan ere. Esaterako, *txintxin* terminoak ("diruaren hotsa") bizi luzea zeukan ni jaiotzerako, eta gaur ere edonoren belarran dago, Hegoaldean behintzat. Bere arrakastaren arrazoi bat kanta ospetsu baten hitz klabea izatean egon daiteke. Hala ere, klabe nagusia kontzeptu oso garrantzitsu eta eterno baten onomatopeia argia izatea dela esango nuke.

II) Euskaraz ere argota hain ugaria eta etengabe sortuna izanik, non dago ahultasunaren gakoa? Arazoa, klabe ebidenteetara laburturik, bikoitza da.

1) Alde batetik, euskaraz sortzen den argota oso lokala da, gehiengan. Oso eremu mugatura zabaltzen da. Fenomeno hori hizkuntza guztietan gertatzen da, noski, baina euskararen lurraldea ez da hain handia. Inguruko hizkuntza garatuen aldean, Euskal Herri osoa ere nahiko txikia da. Hala ere, herri edo inguru jakin batean sortutako argot-hitzek nekez lortzen dute euskara osora zabaltzea. Hizkuntza garatu eta hedatsu batek denerik du gehiago, bai zabor, bai jenero on. Askoz gehiago sortzen ditu hitz efimeroak, sortu ahala joatekoak. Askoz gehiago hitz lokalak ere, nahiz eta lokalismo horiek, sarritan, hiri handi oso bat hartu. Eta, batez ere, guri axola zaigunerako, hitz lokalak askoz gehiago bihurtzen ditu hitz komun, bere lurraldearen eremu oso zabal batean, behintzat.

2) Erdaren indarra. Horixe da euskararen ahultasun erlatiboaren gako nagusia. Erdarak etengabe ari zaizkigu euren argota dispartzen, eta euskal hitzunei gertatzen zaie, edo ez daukatela ordain konbintzenterik, edo erdarazkoek gehiago tiratzen dietela. Saiatzen gara ordainak ematen, baina edo ez dira konbintzenteak, edo anarkiaz jokaten da, eremu jakin bateko ordain interesgarriak euskara osora ezin zabalduz.

Karlos Cid Abasolok dio: "Erdara bakar bat balitz sikiera. Baina bi izanik, kontua da, Hegoaldeko euskaldunek gaztelaniazko argota mailegatzeko dutenean, Iparraldekoek ez dutela ulertzen, eta Iparraldekoek frantsesetik mailegatzeko dutenean, Hegoaldekoek ez dutela ulertzen".

Arazoi hori argudio larri bat gehiago da, ebidentziaren formulazioan aipatzen zen "interbentzio antolatu" eta "metodo on" baterako.

III) HIZTEGIAK

Dakusgun hiztegien jokoera, adibide batzuetan.

CACHONDO

Zehazki:

1. *Martinbero, maribero, sexu-bero.*
2. *Alai, barre-egingarri, zirtolari.*

Elhuyar:

1. *Bero.*
2. *Xelebre, umoretsu; barregarri, irrigarri, txistagarri; burlati, trufari, isekari.*

Labayru:

1. *Bero, lizun(koi), za(n)tar, likin, gordin, haragizale, haragikoi, gazi, lohi, zikin.*
2. *Zelebrequexelebre, grazioso, barregarri, zapart-egingarri, adarjotzaile, burlati, burlari, isekari, trufari, irrizko, komiko.*

3000 H:

Ez dakar.

CAMELLO

Zehazki:

Mando, (droga) saltzaile.

Elhuyar:

Droga-saltzaile, gamelu.

Labayru:

Gamelu, droga-saltzaile.

3000 H:

Droga-birsaltzaile.

CANTAR

Zehazki:

Aitortu, esan.

Elhuyar:

Aitortu / jario.

Labayru:

Aitortu, konfesau, esan.

3000 H:

Aitortu, agertu, lakatu.

CAPULLO

Zehazki:

Tentel, astopito.

Elhuyar:

Txepel, tentel, lelo.

Labayru:

1. *Txarri/txerri, alu, urde.*2. *Adigogor, sor, motz, tonto, tentel, lelo, kokolo, inozo, memelo.*

3000 H:

Ez dakar.

CHORIZO

Zehazki:

Lapur, litxar.

Elhuyar:

Lapur.

Labayru:

Lapur, txori, ohoin, ebasle, eskuluze.

3000 H:

Ez dakar.

LIGAR

Zehazki:

1. *Mutiletan-neskatan egin.* 2. *Inguratu.*

Elhuyar:

1. *Mutiletan-neskatan egin,* 2. *Inguratu, ligatu.*

Labayru:

Ligatu, neskatan-mutiletan egin, neska laguntzen egin.

3000 H:

Ez dakar.

LIGUE

Zehazki:

Mutileta-nesketa / Tener un ligue: adixkide bat izan.

Elhuyar:

Amodio kontu, maite kontu / flirt, adiskide, lagun.

Labayru:

1. *Amodio-, maite-kontu, maitasun harreman,*
2. *Adiskide, bikotekide, mutil-lagun, neska-lagun.*

3000 H:

Amorio.

MADERO

Zehazki:

Zomorroi.

Elhuyar:

Polizia.

Labayru:

Txakur, madero, polizia.

3000 H:

Ez dakar.

Cachondo terminoaren 1. adieran, ez dakust argot-hitz konbintzenterik bat ere. *Martinbero* eta *maribero* oso argot espezifikoak dira, kalifiku orokor baterako markatuegiak. *Sexu-bero* irain baterako egokia litzateke, *alu-gori* edo *zakil-bero* izan litezkeen antzera. Beste guztiak adjektibo sinpleak dira, batzuk oso esanahi ezberdinekoak. *Bero*, *lizun(koi)*, *za(n)tar*, *zikin...* sinonimian ere urrun samar daude. Terminoaren bigarren adieran, *zelebre-xelebre* bakarrik dakust "katxondo"-ren argot

airera hurbiltzen denik. Besteak gutxi gorabeherako sinonimo urrunak dira.

Camello terminoan, *mando* eta *gamelu* bera ikusten ditut balio izateko modukoak. *Saltzaile*, *droga-saltzaile* eta *droga-birsaltzaile* ezin dira inondik ere argotzat hartu.

Cantar terminoan ez dago ordain konbintzenterik bat ere. Hoberik ez deno, hobe da *kantatu* bera.

Capullo terminoaren lehen adieran, *alu* eta *txerri* beste zerbait adierazten dutenak direla uste dut. Bigarren adieran, *astopito* dakust ondo hurbiltzen den bakarra. Antzekoak badira: *babazorro*, *babalasto...* Besteak sinonimo markagabetzat jo daitezke, eta euren artean ere (*motz*, *tentel*, *kokolo*, *inozo...*), nahiko ezberdinak dira.

Chorizo terminoan, *litxar* eta *eskuluze* dira esanahira hurbiltzeko modukoak, nahiz eta bigunegiak. *Lapur*, *ohoin*, *ebasle...* ez daitezke izan euren buruen argot-hitzak.

Ligar terminoaren lehen adieran, *mutiletan-neskatan* egin egokia izan daiteke kontestu oso jakinetan eta neska edo mutil hutsen artean, baina talde mistoetan edo mistoei buruz, esapidea bikoiztu beharko litzateke. Soluzio konbintzenteagorik ez deno, *ligatu* esango da, erdarak beste terminoren bat sortzen ez badu, zera, bestalde, laster gertatuko baita. Bigarren adieran, *inguratu* oso geza iruditzen zait.

Ligue terminoaren lehen adieran, *mutileta-nesketa* terminoei buruz ere, antzeko iruzkina egin daiteke. Besteak ez dira konbintzenteak, eta sinonimoak gehitzeak ez du auzia konpontzen.

Madero terminoari buruz, *txakur* ordaina argot errotua da, eta *zomorroi* hurbil daiteke. *Polizia* ezin da bere buruaren argot izan.

Hiztegien jokaera kritikatu ondoren, aitortzea dagokit neuk ere ez dudala (nola izango dut, ba?) soluzio konbintzenterik. Nahi dudana

ez da besterik irizpide batzuk eta metodo bat formulatu baino. Eta dena, ebidentziatzat ditudan terminoen barruan, gaiak ertz eta ikuspegi amaigabeak baititu. Baita dibagatzeko eremu zabalak ere. Gai honetan, edukia eta metodoa banaezinak dira.

Interbentzioa eta metodoa

Zerk erabakitzen du ordain bat "konbintzentea" izatea? Hizkuntza sendoen kasuan, erabakitzaile nagusia erabilera izan ohi da. Euskararen kasuan, irizpide horrek ez du guztiz balio, erabilera bera baita, hain zuzen, eragin nahi duguna. Efektua interbentzio gabe gertatzen denean –eta sarritan gertatzen da–, ez dago arazorik. Argot-hitz baten arrakasta ideala gertatu da. Arazoa sortzen da hori gertatzen ez denean, edo nahi dugun proportzioan gertatzen ez denean, edo gerta dadila nahi dugunean.

Argot-hitz bat konbintzentea da, euskaldun multzo baten erabileran finkatu denean. Multzo horretatik euskara osora (edo zati handi batera) zabaltzea nekez gertatuko da berez. Lokalismo mugatuan gelditzetik zabalkunde-metodo on batek bakarrik libra dezake. Eta metodoa, lan honetako beste ebidentzia batzuetan ere agertu denez, ezin da besterik izan sare ondo antolatu bat baino, euskara osoa ordezkatzeko duena, euskalki eta azpieuskalki. Proposamenak indibidualak edo talde txiki batenak izan daitezke, baina hurrengo filtro erabakitzailea sare osoak izan behar du. Ordain "konbintzente" baten gutxieneko baldintza da sare horretako partaideentzat konbintzentea izatea.

Partaide guztiak ez dute egile aktiboak izan beharrik. Kontseilu kontsultibo bat izan daiteke, baina kontseilu erantzulea, ez konpromisozko errutina soil bat. Dena da antolapen kontua. Lan gordina lagun bakarrak egin dezake, baina filtro erantzulea dozenaka lagunaren sarean antola liteke, era efikazean, eta alferreko batzarretan zorabiatu gabe. Arlo politiko eta sozialean lelo aurrerakoitzat jo ohi dena aipatuz, "dena da antolatzea". Antolatze onak lekarkeen ordezkariak zabal hori hiztun guztientzat garantzia fidagarri eta sentigarri bat izan daiteke, bakoitzak bere eremuko pertsonen izenak eta ekarpenak ikusiko baititu bertan.

Abiapuntu on baten ondoren, zabalkunderako metodo bat beharko da. Helarazte efektibo bat euskararen sare guztira: hiztegi orokorrak, hiztegi lokalak, hedabideak (egunkari, aldizkari, telebista), ikastegiak, idazleak.... Hiztegi orokorretan soluzio ezberdinegi eta ugariak emanez hasten bagara (ordain konbintzenterik ezaren seinale), zabalkunde herba abiatu da. Lan ondo antolatu eta ondo burutu batek ere ez luke garantizatuko argot-hitz ustez konbintzenteen zabalkunde, baina interbentzio hori gabe zaila da arrakasta, eta zailago erdaren oldarrari eustea.

Argotaren iturriak

1) Erabilera

Esana dago argota, euskararen ere, etengabe ari dela sortzen, batez ere, euskara oso bizirik eta indartsu dagoen herrietan. Jasotzea eta zabaltzea da kontua.

2) Ondare jaso

Zorionez, sortuta dagoena (hiztegietan, bokabularioetan, literaturan eta bestelako liburu eta aldizkari espezifikoen) eta etengabe sortzen ari dena jasotzeko lanak ugari izan dira, eta izaten ari. *Euskara batuaren bigarren jaiotza*-n (193. or.) esaten zen:

"Azken urteetan, honelako lanak, herri-hizkera jasotzen dutenak, han-hemen, edonon egin izan dira. Esango nuke ia Euskal Herriko zoko guztietako euskarak jasota daudela. Gehienbat, nik ezagutzen dudanetik, behintzat, udalek ordaindutako ekimenetan. Orain bizi naizen Durangaldean, badira neuk dakizkidan herri batzuk, bertan honelako azterketa potoloak egin direnak. Denetan ez bada ere, herri batzuetan egindako azterketok eskualde osoa nahiko ondo ordezkatzeko dutela esan liteke, ia azpieuskalki berbera edo oso hurbila izaten delako. (...). Orain, galdera bat. Zertarako dira hainbeste lan eta diru kostatuko jasotze guztiak, gero euren zokoetatik ez inoratzekotan? Euskararen bitxitasun etnografikoaren ganbaran gelditzekotan? Material horrek guztiak, denon hizkuntza den euskara batua aberasteko balio ez badu, ez nau askorik xarmatzen".

Saiakera hartan hiztegi gintza orokorraz esaten zena berdin-berdin errepika daiteke argotaz ere. Sortua eta jaso dagoena zabaltzeko metodoa antolatu ezin bada, asmatzeko eta asmatua ibilarazteko metodoa ez da errazago izango.

3) Sinonimoak eta lokalismoak

Euskara batuak ezin ditu hitz guztiak bere baitan hartu zuzenean, asko kontzeptu beraren sinonimoak edo hitz beraren aldaerak baitira. Bai, ordea, har ditzake, asko behintzat, beste erregistro batean. Euskalkian edo azpieuskalkian gelditu beharra duten milaka hitz horiek argot iturri oparoa izan daitezke. Hona pare bat adibide, espainolezko "tío" eta "capullo" argot-hitzen ordain egoki izan daitezkeenak.

Tío terminoaren esanahi bat *tipo*, *morroi*, *ale* da. *Morro* *aldrebesagorik!* *Ale zelebrea agertu zaigu.* ("Un tío gracioso"). Bigarren esanahia bokatiboan erabiltzen da. "¿Qué pasa, tío!". Esanahi horretarako entzun dudak hurbilena, ia berbera, *txo* eta *txotxo* dira. *Zer dok, txo? Zer dinok, txo? Geldi, txotxo!* ("¿Para, tío!"). Euskararen eremu handi batera iristen denak etengabe entzungo ditu gaur ere *txo* eta *txotxo* hauek. Nola pasa daitezke euskara osora? Horiek bezala, euskararen eremu guztietako beste ekarpen interesgarri guztiak bloke batean eta metodo on batekin helaraziz.

Badira gaztelaniaz "tío" horrekiko beste argot-esapide batzuk, hala nola, *tía buena* edo *tío bueno*. Euskarak baditu ordain ia exaktoak: *Bai mutil puska!* *A zer neska puska!* Edo: *Bai mutiko alea!* *A zer neskato alea!* "Ale"-ren sinonimo osoa den "garau" hitzez, Bizkaiko inguru batzuetan dabilenak noiznahi entzungo du: *A zer mutil garaua!* *Hori dok neska garaua!* Esapide hauek guztiek, kontestuaren arabera, "oso handia" edo "oso ederra" esan nahi dezakete. Hiztegietan badatoz *neska katxarro* eta *mutil katxarro* ere. Neskei aplikaturik, badira baita: *Gure neska motza.* *A zer neska motza!* Mutilekin gutxiago aplikatzen dela dirudi. Esapide honen arriskua da "motz" terminoak, euskaldun askoren belarrarian, oso konnotazio txarra daukala. Euskal Herri zabalean izango dira beste batzuk. Eta betiko arazoa berriz ere: honelako guztiak nola erantsi euskara batura? Hots, euskaldun

guztien ezagutzara? Baliabiderik efektiboena hiztegi arrunta da, eta hiztegi arruntak eraman ditzakeen gehigarriak, gaur egungo baliabideekin, etengabe berrituz joan daitezkeenak.

Espainolezko *capullo* terminoak ere bi esanahi oso ezberdin dauzka.

1. *Ergela, tentela.* Kontzeptu horren argot-hitzen ez da falta: *astopito-astapito, astazakil, babazorro, babalasto...* Neure gusturako egokienak, *astopito* edo *astazakil*, kutsu iraingarri eta guzti, espainolezko terminoan bezala. *Babazorro* edo *babalasto* ez dira epiteto laudagarriak, baina hain iraingarriak ere ez.

2. *Gaiztoa, makurkerien egilea.* Benetan esana bada, *capullo* oso epiteto gogortzat hartzen da. Ba, Bizkaiko eremu nahiko zabalean, bada hitz bat, kontzeptu horretara guztiz hurbiltzen dena: *kulemino-kulebio*. Zer da berau? *Liztor*-en sinonimo ugarietako bat. Hona Plácido Múgicaren hiztegiak "avispa" sarrerari nolako zerrenda damaion: *liztor, liztor, listur, erlakiztan, erlakizten, erlekizten, erlastin, abadota, abadote, asterle, baserle, boulu, buuli, edubio, elzar, erlabio, erlaiztan, erlakiztain, erlamiño, erlapio, kulemiño, kuribio, kurlabio, leizafin, lezafin, listafina, listame, liztame, lixtafina, lozabi, lozebiña, udubio, ulabio, usterle, baserle, kurubio, eltxar, urubio, udubio, kurlabio, kurumiño, lozer, lezor, kulomiño, inpernuko burrunzti.*

Hitz beraren aldaerak bakarrera ekarrira ere, mordoak geratzen da: *liztor, erlakizten, erlastin, abadote, asterle, baserle, boulu, edubio, erlabio, kulemino, kurlabio, listafin, listame, lozabi, asterle, baserle, eltxar, lezor, inpernuko burrunzti.* Zer egin behar dugu hitz hauekin guztiekin? Tokian tokiko hitz bezala gelditzetik harago, argot-hitzen bihurtzeko iturri oparo bat izan daitezke. "Bihurtzeko" esan dut, baina asko bihurtuta daude. Ari naizen *kulemino-kulebio* sinonimoen kasuan, hitz hau espainolezko "capullo" terminoaren esanahira guztiz hurbiltzen da. "Hi haz kulemino!" edo "a zer kulebioa!" esapidea pertsona batengatik jaulki daitekeen kalifikurik gogorrenetakoa da.

Plácido Múgicaren hiztegiak "garduña" sarrerari honako zerrenda damaio: *uru, katamielga, katamierle, kutuxa, le pazuri, katagure, putux, mierle, zuri, le pazuri, le patxuri, ipurtats, pitox, pututxe, potox*. Zamorako apaiz-kartzelan, oraindik frankismoaren gordinean, instituzioko medikuari (ez zegoen besterik!) "katamierlea" esaten genion. *Zer esan deua katamierleak? – Aspirina bat hartu eta ibiltzeko! – Ibili non? – Galdeiak katamierleari!* Medikua, gorputzez eta hizkeraz, ziztrin samarra zen, bere bizar mehatz eta lorrinekin. Hitzaren erabiltzaile gehienok ez ginen konturatzen zein animaliaen metafora aplikatzen ari ginen. Nik neuk ez daukat gogoan mustelido hori egiaz inoiz ikusi dudan ere, argazkiez beste. Terminoaren argot adiera bakarrik ezagutzen genuen.

Ziur nago, aipatu *kulemino* eta *katamierle* hitzen beste sinonimoen artean ere, bat baino gehiago izango direla antzeko adiera zorrotzen bat garatu dutenak. Euskaldunek han-hemengo euskarari eragin dioten garapen interesgarri guztia maila nazionalera jasotzeko gauza ez bagara, zerbaitek huts egiten du, kontzientziak edo metodoak. Kontzientziaren aldetik, ezin dut inorengan pentsatu hain on ebidentearen aurkatasunik. Beraz, metodo kontua izan behar du.

4) Asmamena

Jaso dena edo daitekeena norbaitek asmatua izan zen bezala, ez dago dudarik aurrerantz ere jarraituko duela asmamena izaten argotaren iturri nagusi. Asmamena izan daiteke espontanoa eta informala, hizkuntza sendoetan gertatzen den moduan, baina baita izan daiteke interbentzio antolatuzkoa ere, euskararentzat proposatzen ari naizen moduan. Antolapen horren zereginetako bat soluzio bat eskaintzea izango da, batez ere erdaretatik datozen nobedadeentzat. Eta ez maileguen aurka ezer dudalako (ondare komuneko hitzetan alderantzizkoa defendatu dut 5. ebidentzian), baizik euskarak bere baitatik dituen soluzio on eta naturalen alde nagoelako.

Adibide bat jartzeagatik, hor dugu espainolezko *subidón* terminoa: *Subida* bada *igoera*, *subidón* izan daiteke: *gorakada, goraldi, gorako*. Baina *gorakada* izan daiteke, eta da, *subida* soila ere. "Prezioek *gorakada* bat izan dute". Nola eman argotaren kutsu erantsi hori? Era bat euskarak hain bere

duen hitz errepika izan daiteke: *gora-gora, gora-goran*. Horrela, esaterako: *Zer? Gora-goran ala? (¿Qué? ¿Estamos de subidón?)*. Edo: *Zer? Gorakoan ala?* Horrela, *gora-goran egon, ibili, jarraitu...* esapideak liriateke. *Gorako-k*, berriz, izen baten abantailak lituzke. *Gorakoak eman dio. Produktu horrek izugarritzko gorakoa ematen du. Gorakada* izan daiteke *subidón*, baina *subida* soilerako ere erabiltzen denez gero, ez da komeni, ahal bada, hitz berdina batean soila eta bestean markatua izatea. Termino batek izan ditzake, noski, adiera ezberdinak, baina terminoak eurak ezberdintzeko modua edukiz gero, ez dago dudarik zer den hobe. Eta terminoak, beti ere, hautatua eta mugatua izan behar du, ez sinonimoen ilara bat.

Demagun, azkenean, *gorako* izena eta *gora-goran* esapidea hautatu dituela batek eta aipatu antolapeneko partaideei ordain ona iruditu zaiela. Eta hori bezala, beste hainbat ordain erdal hitzenak, hala nola: *tío, capullo, tronco, madero, botellón, ligue, coñazo, chorizo, matón, camello, chiflado, vacilar...* Lehenik, zerrenda ahalik osoena burutu beharko litzateke, eta gero soluzio global eta unitario bat ematen saiatu, euskararen zabalera guztiko partaideen ekarpenez eta onarpenez. Hori guztia eginik, euskararen baitatik ordain "konbintzenterik" sortu ez bada, edo ustez sortuak arrakastarik lortu ez badu, ez daukat inolako eskrupulurik *txorizo, matoj, bazilatu* eta behar den guztia onartzeko, azken batez, hizkuntza baita giza esparruetako bat, non demokrazia positiboa beti ezin bada ere, demokrazia negatiboa absolutua den. Hitzunek nahi dutena ez da beti gertatuko, baina hitzunek nahi ez dutenik ez da aurrera joango, hilobirantz ez bada.

Laburturik, eta amaitzeko, 7. ebidentzia, era egokiago edo ezegokiagoan aurkeztua, honako puntuetara biltzen da:

- 1) Argota hizkuntza bizi baten arlo funtsezkoa da, eta euskararen kasuan, urgentea.
- 2) Euskaldunek euskararen aurkitzen ez, edo euskaratik sortzen ez dutena erdaratik hornituko dute. Fenomenoa parrastan gertatzen ari da.
- 3) Konponbide egokia berez gertatzea ia ezinezko denez gero, interbentzio eratu behar da.
- 4) Metodo on batek bakarrik ekar dezake arrakasta.

IRAKURGAIK

Ez da Inkarnazio Plazako elizan sartzen naizen lehena. Batzuetan, Txit Santuari bisita labur bat egitera, inoiz freskura bila, eta behin, duela hilabete hain zuzen, bizitzako atsekaberik handienetako baten negarra ezkutatzera, Bilboko etxe batean gertatu zitzaidan errakuntza angustios baten ondoren. Oraingoan, elizan sartze triumfala iruditzen zait, Jainkoari gerra-trofeorik bikainena benekarkio bezala, inkarnazio satanikotzat gaitzetsia den emakume honen gorputzean. Inolako elizkizunik abian ez izanik, eliza ia iluntasun totalean dago, aldare nagusiko Txit Santuaren argitxoaz eta aldare lateral bateko kandela piztuen multzo debotoaz beste. Bada absidearen gorenari inkrustaturiko bonbila bat ere, zeinak, argi egin baino gehiago, argitasuna handik gorantz bilatu behar dela esan guran dirudien. Atze aldetik eskuin ilarako bosgarren bankura sartu naiz, iluntasunik handieneko gunean. Kanpotik barrurako ilun-kolpea pitin bat argitu denean, beste aldeko ilarako aurrenengo bankuan, emakumeak diruditen bi bulto beltz ageri dira beste kandela multzo baten argiaren kontrara, eurek ere, seguruenik, piztu berri dituzketen kandlei errezuaz. Elizan ez dago beste inor, edo ez da ikusten, sakristiatik aldare ingurura lantzean inkurtsio bat dagien mamu bat baizik, apaiza ala sakristaua den bereizi ezin dena. Belaunikatu naiz, ukondoak banku bizkarrean-da, eta Talita nire ondoan belaunikatu da. Ondo-ondoan esango nuke, nire besoak bere ukitu arina nabari baitu. Burua esku bilduen kontra bermaturik, otoitz jarreran kontzentratu naizenean, seminarioko egoera berdina gainetorri zait, non, mutil "maitagarri" bat ondoan gertatzen zaizunean, zuk, otoitz plantarik adienean, arnasaren edo eztularen dilatazioak baliatzen dituzun, ukondoa pixka bat lerratu eta estukiago marruskatzeko ondoko besoa, zeinak, bien sotana eta azpiko soinekoen oztopo eta guzti ere, haragi baten kontaktua sentiarazten dizun, gorputz osora dardara edeniko bat zabalduz. Orain, oster, delako mutil "maitagarria" haren ordezipen bat baizik ez zen emakumea bera duzu ondoan. Ez ordezipen orotan kontzibitzen zenuen emakume generikoa, batzuetan atrebentzia sakrilegoz, Ama Birginagan konkretatzen zenuena, baizik emakume guztiz erreal bat, guztiz emankor bat, zeina zuk bera konkistatzea kimeratzat zenukeelarik, bera baita zu bere emetasunean irentsi nahi zaituena, haluzinazio totala benetan!

Ekardak beste eskua. Ekartzeko esan, baina hartu egin dit, eta esku biak izter artean estutzen dizkit. Igurtzi lento eta sakatuak gonak bilduz dakartzala ohartzen naiz, izter artea biluz gelditu arte. Kulerook oso doiak izan behar dute, bilo-kiribilak sumatzen baitira. Eskuak beroan urtzen nabari ditut. Hatzak beldur gabe askatzeko diost, dena neurea balitz bezala, baina ez nago erabaki instintiborik ere hartzeko moduan. Esku bat hartu eta zabal-zabal eginik (ez dago erresistentziarako ahalmenik), bularren kontrara atxikitzen dit. Eskotea gerriraino askaturik dagoela ohartzen naiz. Astiro-astiro, bere eskua laxotzen du, mugimenduaren ekimena neuk hartzera gonbidatuz. Saiatzen naiz aginduak eskura bidaltzen, baina eskuak ez du obeditzen. *Ausar hadi*, diost, *ezin dut*, darantzut, eta orduan berak dagi dena, nire eskuagaz orban bat ezabatu nahi bailuen. Inoiz ez dut bularrik izan eskuan (amarenik ere ez, ezaguera dudanetik), eta neuk uste baino handiago dira. Ez zaizkit ahurrean kabitzen, beti imaginatu izan dudana moduan. Denborari joaten uzten dio, ikaratik atseginerantz lerra nadin-edo, baina kontua da ikarak handitu egiten duela nire zirrara, emozio ala kommozio den ez dakidana. Bat-batean, nire zangoak bankura luze altxatu eta buelta laurden emanarazirik, altzoan hartu nau, burua beso batean, bularra emateko bezala. Eta horixe egin dit, aurpegia bular bien kontra ezkutatu, estutu, eta esku libreagaz jake-alkandorak askatu eta paparra eta sabela igurtzi, gerrikoaren toperaino. Eta ezpain mardulekin musukatu, eta mihiagaz belarria kilikatu. Indarka nabari nau, nonbait, jaregin nahian bezala, eta diost: *Ez hadi beldurtu, aharitxo! Hau amodioa duk. Amodio gardena. Zeruaen aurrerapen bat.* Eta nik: *Baina hemen! Elizan! (...)* Exzitazio orokor baten barrutik zirrara-kolpe bortitzak sentitzen nituen, baina ezin nuen esan plazera zenik, nire oroimenean ez baitzegoen konparaziorako terminorik. Bakarrik nekien larritzen ari nintzela, gelditu nahi ez duen eta bere balkoixora ere irten ezin zaren trena bezala, eta deklaratu behar izan nuen: *Talita! Uste dot txizak urten behar deustala.* Harritu nintzen berak hartara bultzatu ninduenean, aginduz: *Jarein lasai, aharitxo! Ez duk ezer bustiko.* Emakume honek urteetan injektaturiko mistika guztia atera behar al dit? Bera ere konbultsioka hasi zen, eta esku biekin nire gerria besarkaturik, histeriazko atake batean bezala, gorputz osoz estutu ninduenean, beldurtu nintzen estrangulatuko ote ninduen.

Irteeran, elizako sarreran gelditu naiz, laster hartu beharreko autobus gorriari begira, eta disimulan, ateko iragarkiak eta propaganda erligiosoak irakur plantan, Talitaren zain. Ez dator. Autobusaren motorra berotzen ari da, burrun-burrin, eta azken bidaiariak sartzera doaz. Une batetik bestera abiatuko da. Ezin dut itxaron. Gaur ez dago beste autobusik. Autobusaren bigarren solairura igo naiz, beti gustatzen zaidan moduan. Goiera hauxe da nire aukera zilegi bakanetako bat, mundu ezberdin bat ikusi ahal izateko. Leiho baten kontra eseri naiz, elizako atera begira. Plaza koxkor honetan dena dago hur. Agertu da Talita elizako sarreran. Alboetara begiratzen du, bila bezala. Leihoa jaitsi eta burua darakust. Hauteman nau eta agurka ari zait, eskukada musuak bidaliz. Nik ez darantzut, dagokiona ez banintz bezala. Talitak ez duela ulertzen dirudi nire jaramonik eza. Ez dut nahi bidaiariak (batzuk ezagunak) emakume deigarri horregaz lot nazaten. Kexuz bezala adierazi nahian dabil ez zuela merezi honela banatzerik. Egia izan dela zorte onarena, nik emango niona. Autobuserantz hurbildu da, ia neure leihoperaino. Bidaiariak buru biraka dihardute, emakumea nori zuzentzen ote zaion. Ziur nago neugan pentsatzen dutela gutxien, eta halaxe hobe, beldur bainaiz autobuskada guztiak dakiela edo igarri duela zer emakume mota den. Ni, bidaiari begiluze bat gehiago bezala, irritsu nago Talitari begira, arreta osoz, finkotasun kartsuz, bere airea eta gorpuzkera gogoan atxiki nahirik. Aurpegi karratu xuabeki luzangan, bi masailzur sendo eta arean zabal, bitarteko edertasunaren zain-garitak bailiran. Kolore berdintsuko ilajeak enkoadraturiko azal ilun-beilexkan, begi eta bekain beltzaranak indarrez nabarmentzen dira, sudur zorrotz, ez luze, pixka bat goraginean. Ezpain arinki mamitsu eta gorrixkek ahoari lore jangarri baten itxura damaiote, kokots sentsualki erdibituak osotasunari oinarri seduktiboa eskaintzen diola. Sorbalda tente eta zabalak kono perfektuan estutzen dira gerrirantz, zeina berriz mokorretara zabaltzen den, kurbadura obalatuan. Apaiz egin nadinean, silueta horixe aginduko dut neure kalizarentzat, urre, zilar nahiz brontzezko izan. Deliratzten nago neure inkomunikazioan, pentsatuz eta sinesteari eustea kostatuz nola horrelako edertasun batek nigandik atera nahi izan zezakeen bere "zorte ona". Etsi du, nonbait, edo agian susmatu nire ez-jaramonaren arrazoia, eta

bere espresioa ere begiratze soil bihurtu da. Aurpegi hori betiko gorde nahi dut, eta lortuko dudala uste dut, oroimenean harrak egiten ez bazaizkit. Esku bategaz agur-keinu nagi, erorkor, pendular bat egin du, hutsean orban bat ezabatzen bezala, eta badoa. Autobusa abiatu da eta berari darraiola uste dut.

Kanpandorreko erlojuak gauerdia jo duenean (hamabi danda bider bi berdin hogeita lau baiezen, ez dago argi zeren), Talitari berea izango den logela erakusten diot, eta leihoa zabaldurik, ibaia entzunarazten. *Hots horrek loari uraren ziklo guztia daragio, itsaso, hodei, euri, itzulera*. Talitak dio berak ez duela, lo egiteko, hainbeste poesia behar. Nik pentsatu dut zergatik jartzen dudana poesia beti iraganean, sentimendu alferreko bat bailitzan. (...) *Gau on eta ondo lo egin esatera nindoala, entzerraturik utzi behar dutela igarri duen animaliaaren begirada errukarriz galdetu du:*

– Zure logela ikus nezake?

– Jakina! Zergatik ez? –onartu dut, beharbada eskaerarik naturalena zela sentiarazi nahiaren intonazio gehiegizkoan.

Alde batetik, nahi nuen zerbait gerta zedin, eta bestetik, beldur nintzen zerbait gerta zedin, eta "zerbait" hura, nire buruan, inoiz ez zen izan logela hartan gertatzera zihoana. Baina batetik eta bestetik, ez nekusen era duinik, ezer gertatzea saihestekorik, eta ez dakit adimenak, grinak ala kamustasunak, laster moldatu zuen arrazoibidea ezen "derrigorriari" ahalik ondoen burutzen utzi behar zitzaioa. Ohazal gorria atzeraturik, zain-jarrera totalean etzan nintzen, Talita amarena ezin burutik kenduz, hamasei urte nituela, Atxuriko elizan. Ez behingoan, baina logela ikusmiratu eta haztatu ondoren, arista guztiak ongarrri bihurtu guran bezala, Talita alaba nire ondoan luze etzan zenean, hasperendu nintzen: "*Aita, ahal balitz, aparta kaliza hau nigandik, baina ez bedi egin nire nahia, zurea baizik*". Astiro-astiro, haur lo bat maneiatzen bezain kurioso, Talitak biluztu ninduen, belaunak tolestu eta zabalarazi, eta begiak ixteko agindu, berak esan arte. *Ireki begiak* agindu zidanean, neure belaun artean belauniko zegoen, ukondoak nire aldaken

kontra eta aurpegia nire sabelaren gainean. Atxuriko elizakoaz geroztik, lehen aldia nuen antzeko egoeran aurkitzen nintzena. Orduan ez nintzen ohartu zer gertatu zen, eta oraintxe ere antzeko sentipena dut. Orduan txizalarrria neukala esan nion Talita amari. Orain teoria zerbait ikasia nago, aierutua gehiago, gure moral ikasgai erdi kabalistikoetan, baina praktikan eta benetan, ez dakit zer gertatu behar duen. Handik urteetara ohartu naiz Talita alabaren metodo jakintsuaz. Pentsaturik larri, lotsaz, prekozegi desegingo nintzela, xurgada biolento batez (neure gorputzaren biolentzia, ez berea), hustu ninduen, eta tabloi bat bezala gelditu nintzen. *Zorteak neurea izan behar duela dirudi*, esan nion, arnasa hitz egiteko erritmora etorri zenean. *Zu lasai! Etorriko da nire zortearen txanda ere*. Luzaro egon ginen, hitz bakanak tartetuz, iradokizun urrunak eta deslaiak eginez, harik eta berriro ukitu xumeak, abstrahituak bezalakoak egiten hasi zen arte, esanik:

- Zuk zirkinik ere ez! Objektu totala izan behar duzu.
- Irribarrerik ezin dut egin?
- Ezingo duzu. Gorroto aurpegia jarriko zaizu, baina hori geroago.

Nire gorputza amilduratik goratzen hasi zenean (txoria bere buruari eusteko lain suspertu zenean), Talitak lore amorosoak eta esklamazio poetikoak debekatu zituen, eta berriro *zirkinik ere ez esan dut!!* mehatxu mortala eginik, bere arte guztia garatzen hasi zen, neurea ala alienazio batena ote zen bereiztea kostatzen zitzaidan nortasun baten gainean. Nahiz esperientzia pertsonalaren gidarik neuk ez izan, abstrakzioak haragitzeko nekarren trebetasunetik eta analogiarik zailenak fusioatzeko irudimenetik, garapenari, atzeragotik bazen ere, jabetasun nahiko oso eta erogarriro gozoan nerraion, harik eta, artea ferozitate bihurturik, Talitaren aurpegian otseme frenetiko bat hauteman nuen arte. Ikaratu nintzela sumatu bide zuen, oihi egin baitzuen jardun guztiko hitz bakarrokin: *Bihur hadi otso! Txanogorritxo jan behar diagu!* Niri areago iruditu zitzaidan oihan-jana, borda salbu, logela aurreko formarantz baitzetorren, era miragarriro piktorikoan.

Talitak harri bezain hunki entzun zuen bere amaren eta apaizgai nerabearen elizako pasartea. *Gure ama izaki infinitua da!* izan ziren bere lehen hitzak, pasarte hark amaren bizitza osoa argiztatu bailuen. Hurrengo hitzak berrespen guztizko bat bezala izan ziren ezen ez zitzaiola arrazoirik falta izan, bere zorte ona nirekiko harreman batetik itxaron zuenean. Nire gogoan, mirariaren kontzientzia guztizkoa bazen, haren fedean ez zen txikiago konbikzioa ezen inspirazio zerutar batek bultzatu zuela nigana. Pentsakortasun eta gorputzen barekortasun luze baten ondoren (badirudi oraindik ez zettorrela egunsentirik), bira erdi bere gainerantz eragin zidan eta hots egin zuen:

- ¡Blindemos la buena suerte, padresito!
- Talita! -erantzun nion-. Lortu duzu nire lehenengoa izan zedin. Azkena izatea ere lortu nahi al duzu?
- Indartuko zara, saiatu ahala, gozo-gozo. Egizu nigaz neuk zugaz egin dudana. Nire ofizioan hain zail dena. Pasibotasun dohatsua, atsedeen erotua gozatu nahi dut.

Saiatzeak merezi izan zuen. Talita zorte onaren fede osoz aldendu zen, eta niri engainu bat gelditu zitzaidan, laster pairatuko nuen espetxea, une batzuetan, zulo urdin bat bezala sentituko nuela.

Biharamuneko arratsalde erdian, izenik ere ageri ez zuen bide-klub zoztorreko lautada hauts-zuri hartan, Talita autoan hartu nuenean, bahitzaille sentipen osoa neukan. *Arratsalde on! nora goazela esan zenuen?* galdetu zuen, *ibai hori nondik dator?* galdetu balu bezala, ibairik ez nekusen baina. Galdera ondo etorri zitzaidan, *Belate aldera* erantzun ondoren, bidean zehar Nafarroako mendialdeaz hitz egiteko. Ipar Nafarroako paisaiatz, horrelaxe orokorrean, ez baitago paisaiarik, berezia ez denik, negar egiteko bada ere. Edo norbere goi-sentimenduak exhibitzeko, hala ezarian, errealtateak beharturik bezala, jakinik solaskideak ados behar

duela, inpersonalean mintzatuz gero. *Bai ostertz bihurria! Bai harizti monumental!* *Bai errekazulo deabruzkoa!* Nork kontraditu behar zaitu? Beste kontu bat da *hemen biziko zinateke?* galdetzen baduzu. Edo baita: *hemen ez nintzateke sekula biziko*, non solaskideak ihardets dezakeen: *ah, ba, ni bai!*, eta izorratu zaitu. Paisaiaren gainera sentimendu orokorrak jaurtitzen dituzuno, ez dago gatazkarik; zeure konkrezioak, haietarako elkartu zaretela suposatzen den gaiak, poetikoki estal ditzakezu, atzeratu bederen, gero esan dezaten poesia sentimendu intimoei forma-emate bat dela. Ez nuke pentsatu nahi pintore paisaiariaren helburua hori denik, suposatzen baita gizaki batek ezin duela hainbesteko lanik hartu, denek dakustena bistaratzeko, nahiz eta bi begik inoiz ez dakusten berdin. Ezta norbereek ere. Solasean beste kontu bat da. *Ikusten hori?* galde dezakezu, solaskidea zure adeiagatik esker-zor utzirik, bere exhibizioa antolatzeo aukera eman diozulako. Halaxe nindoan, behin neure esklamazioak jaulkiz *—edertasunaren aurrean, alde paretik!*—, behin bereak probokatuz; Lantzetik pasaeran, hango inauteriak azalduz, tarteka galdera interesatuak ere eginez, halako ezaxol airean dena, non batzuetan ez baitzen galdeturik ere sentitzen. Aldi batera, berriro galdetzen nuen, eta orduan bazirudien erantzuna oparoago zetorrela. *Ah, bai, baina ez. Amama Kolonbian bizi da.* Mendatea gailurtzerako, banekien amama Talita Amazoniara itzulia zela, ama Talitak Bilbon zerraiela, eta alaba Talita kopilotu nekarrela. Beheragoko Talitarik ba ote zen galdetzeari indiskretu iritzi nion. Bere zango luzangetan, belaun elkarrengana tolestuak niganantz xarmanki inklinaturik (jarlekua atzeratzen lagundu nion), alboan zetorren andereño elegantea, Proustek gurpen exhaustiboz deskribatuko zukeena, Henry Millerrek harraskapean bentilatuko eta Mirandek erreformatoria bidaliko zukeena, ezin nuen sinetsi ofizioa izan zitekeenik. Ultzamako Bentan, ni kafea eta bera tea hartzen ari ginela, uztailleko eguzkiak argia eta beroa berdintsu banatzen zituen, baina pagadien ikuspegiak bazirudien gogo freskatzen zuela, eta gogoari ezin zaio arrazoirik tematu. Talitak, inguru haietan eta antzekoetan gutxi ibilia zirudienak, nobedade handizat begiratzen zion denari, edo hala zirudidan neuri, mirarirako aurrejarreran netorrelako edo.

— Hitz batzuk esan nitzake? — galdetu zuen batek. (...) — Eskerririk asko! Nire botoa itxialdia jarraitzearen alde izan da. Bigarren bozketa balego, amaitzearen alde litzateke. Saiatuko naiz itxurazko kontradikzio hori zentzuzko bihurtzen. Egin berri dugun bozketaren emaitza berdinketatzat jo daiteke, baina alde handiagoa agertu balitz, berdin pentsatuko nuke. Ekintza honen indar nagusietako bat, batasun operatiboaz gainera, kideasun sentimentala izan da. Zorrozk hartuta, jarraipenak aldeko boto gehiago jaso du, baina ez zait gustatzen, honelako ekintza puntako eta bolondres batean, gehiengo bat nahitaez nagusitzea, gutxiengo handi bat behartuz. Zenbakien diferentziak ez bailuke izan behar arrazoi bakar. Ezta, agian, nagusi ere. Orain arte osatu dugun sentiera batua eta librea itxialdi honen ondasunik handienetakotzat jo behar da. Ezingo nuke gogoz jarraitu, artean denean kide izandako hainbat lagun gogoz kontra ikusiz. Ezin dugu permititu orain arteko blokea, afektiboki ere konpaktua, pitzatzen has dadin. Ekintza honek denon garaipen bezala amaitzea merezi du, ez alde jarkien norgehiago baten ondorio bezala. Elkartasun duinez eta harroz amaitu behar da. Inork ezingo du dudan jarri hilabete osatzearen itxialdi hau, bere hainbeste alde ikusgarritz eta astintzailez, benetan ekintza biribila izan dela, eta halaxe geldituko dela oroitu nahi dutenen gogoan. Era garailean amaiturik, ahulago edo bigunagoak ere kemendurik irtengo dira, "gogorkeriaren aurka gogortasuna" erakusten jarraitzeko. Ekintzak ere, zur-zuhaitzak bezala, bizian moztu behar dira, ez ihartzen hasten direnean. Gure historia ez baita hemen amaitzen! Ekintza bakarrak ez baitu historia aldatzen! Indartsuago sentitzen direnek bizitza osoa dute, nahi beste eta nahi bezalako ekintzei heltzeko. Itxialdi hau amaitzeko penaz zaudetenok noiznahi abia zaitezketek, nahi baduzue, beste ekimen gogorrago batean. Eta halaxe gertatuko da, nahi dutenek nahi dutenekin. Ez dut gogortasunaren amaia aldarritzen, gogortasun baten amai garailea baizik. Horrela, bide batez, elkarlanari hain emankor zaion eta praktikatzea hain zail den jokaeran ere, etsenplu on bat utziko dugu. Ikas dezagun gogoak batzen, jarraitzeko gertu dauden punturaino bakarrik. Sinets dezagun ehun lagun hamarnak baino gehiago balio duela mila lagun banak. Hitz hauek esanik, badakit itsusi litzatekeela bozketa errepikatzeo eskatzea, baina ez naiz erratzeko beldur iragartzean ezen, itxialdia egun batez alferrik luzatu

enuen seinale, biharko bozketak argi erabakiko duela amaia.
 - Zer egingo dogu orduan? -hots egin zuen Kuarterok, ikustean inor ez
 inhoala eta inork ez zioela ezer.
 - Ez gozak umeak legez hasiko oraintxe egina oraintxe desegiten, eztok?
 -jaurti zuen batek lehor tonuan.
 - Ez joat ikusten zergaitik ezin dauen gizonena izan gauza on bat bi bider
 egitea -beste batek, xalotasun zinikoan.
 - Nik uste joat... -hasi zen hurrengo, baina moderatzaileak berehala
 moztu zuen, esanez:
 - Ezin gara barriro eztabaidan katigatu! Jaso eskua bigarren bozketari
 ondo deritzoenek, taldearen aldartea probatzeko. -Esku mordoia jaso zen,
 mugitu ez zirenak baino gehiago-. Ez dago dudarik! -hots egin zuen, bi
 besoak goraka-. Gehiengoak bozketa errepikatu gura dau.
 - Hemen gehiengoak komenentzien arabera erabiltzen dira! -haserretu
 zen ume kontuaren aipatzailea, tu egitea bakarrik faltatu zitzaion tonuan.
 - Et, et, et! -ihardetsi zion Kuarterok espantu dilubianoz-. Zilegi dok
 aldeakide baten azalpena ez ulertzea edo desadostea, baina ez hainbeste
 esku jaso iraintzea!
 - Ondo jagok! Agindu zer egin behar den.
 - Agindua argi dago. Eta une historikoa izan daiteke. Ausartuko al gara
 agirian bozkatzera? -galdetu zuen Kuarterok.
 - Zergaitik ez? -erantzun zitzaion-. Umeak ez gara!
 - Gora orduan itxialdia amaiztearen aldeko eskuak! Bat, bi, hiru... hogeij,
 hogeita bat... hogeita hamaika... hogeita hamalau! Lagunok! Amaitu da
 historia eder bat. Eta amai ederra izan da.

Heriotza zerbaitekin erlazonatu baduzu, zerbait horixe duzu
 heriotza. Horixe da modua, parasito ikustezin horrek forma hartzen duena.
 Ez zaio ardura inork bera zuzenki ezin espermentatzea. Horretarako,
 inilak bere egoeraren oharmena beharko luke, eta hori ezinezko da
 definizioz, heriotza kontzientziaren desegitea bada. Parasito ikustezin hori,
 berarekiko erlazio zuzenagatik izatera, inexistentetzat jo zitekeen hori,
 edozein bitartekotan inkarnatzen da. Bera ez da ezertan ahalegintzen. Ez

dauka bere alferkeria esentzialetik jaiki beharrik, bai baitaki subjektuek
 eurek egingo dutela lan zikin guztia, parasitoari itxurarik ezberdinenak
 emanez. Itxura bat izango da lubizi irenslea, beste bat errepide bazterreko
 lore-sorta, norbere begiak, norbere eskeletoa, naufrago itozori bat...
 Eta nirea, palmondoa! Putian gorian dorian! Arteondoa jausi zenean, bi
 zuhaitzekin egina nuen ituna (*sinatuko neuke bizitzea, zuek bizi zarieno -
 eginda!*), itunkide bakarrean zentratu, garantia bizigarria izango zela
 pentsatu nuen, neure zorion ingenuorako. Lehen egunetan, txurruplinak
 lagundurik, lo galdua berreskuratu nuen. Lasaitu nintzen, gozotu nintzen,
 neure Palmira laztana noiztenka bisitatu asetzen nintzen, egunero
 bisitatu hasi nintzen, gero goiz eta arratsalde, azkenean, gauez ere bai,
 eta azken-azkenean, biekiko esperientzian baino transtornatuago aurkitu
 nintzen. Palmondoa ez banekusen, bera agertzen zitzaidan, formarik
 kezkarrienekin. *Palmira laztan!* -erregutzen nion-. *Maite zaitut. Joango
 natxatzu. Zergaitik jazartzen nozu?*

Gizaburuagako herribarru txikian, errepideak bihurtu leun bat
 dagiela, elizak eta herriko tabernak triangulua osatzen dute etxe-bloke
 berri bategaz, non nik beti, urteak urte, abadetxe zaharra transluziturik
 dakusdan, Kristoren aurpegia Izara Santuan bezalatsu, eraikinari kanpotik
 begiratu gero; edo Vitrubioaren Gizasemea, abadetxe barruan neure burua
 ikusiz gero. Trianguluaren zentroa palmondo panpox batek okupatu du,
 zeina asko luzatu den nik ezagutu eta hartaz maitemindu nintzenetik, baina
 ez duen xarma izpirik galdu nire sentimen jipoituan. *Palmira txit laztan!*
Alkarregaz hiltzera berbatu ginen, baina ez deusagu naturari itxarongo.
Gure destinoak merezi dau tragedia baten edertasuna. Zeu hiltzera nator!
*Halan be, bardin maite banozu, zeuk erabagi nire biziak zureagaz loturik
 behar dauenetz.*

Santa Luziako haritzaren eraiste eguneko iluntzean bertan, bi
 aizkora izergale, bihozgabe, Palmiraren gerriaren alde banatan sarturik
 daude, eguzkia Nabarniz mendian ezkutatzeko zain, gure astro tiranoak
 gauez amesgaitzik izan ez dezan, baldin, hainbeste krimenen argi egile

izateaz biziaturik, ibilbidea eten gura ez badu, gaurko krimena ere ikustearren, agian bere bizitzako azkena. Fenomeno hori gerta badadi, ez dakit alde ala aurka ulertu beharko dudan. Onena izango da gorantz ez begiratzea, krimenaren arrapaladak agindu ohi duenez, Jainkoari baimena eskatzeko federik ere ez dudanez gero. Hasi naiz, ari naiz, aizkoratik aizkorara txandatur. Trabatzen saiatzen diren azal-ekzatak badoaz uztai libratzen. Aizkorak haritzaren adabegietan baino samurrago barnatzen dira Palmiraren gerri urtsuan. Mozketa errepiderantz zuzendu dut, luze eta duda gabe eror dadin. Agertu da alde batetik muinaren marrazki minbera. Beste aldeko aizkora une batez geratu da, azken kolpea zelakoan. Beste bi aizkorakada maitekor, eta Palmira hasi da negarrez. Karraskada auhenkor, agurkor bat, eta badoa. Abadetxeko atea izan zen atalondoaren kontra baztertu naiz, eta begiak itxi ditut. *Zeuk erabagi, Palmira txit laztan!* Hutsune absolutu baten ondoren, zaplada beldurgarria dantzut, zuhaitzaren luzera osokoa. Zorua eta nire gorputza batera dardartu dira. Begiak irekitzean, eguzkia Okamika mendian sartzeke dakust, eta ikaratu nau bere lekukotzak. Zorura begiratzera ausartu naiz, eta Palmira lurrean datza, tentean bezain panpox, baina mugimendu oroz gabetua. *Bizirik nago?* Urrats bat ematen saiatu naiz, eta oinak badabiltzala dirudi. Gernikako bonba-saio bat amaitu zenean, lurpean babestuen arteko haurtxo batek, inork ezer ez zioela ikusirik, galdetu zuen ilunetan: *Hil gara?* Galdera berdina dagit argitan: *Bizi naiz?* Baietz dirudi. Dagoeneko berdin dit egia ala irudipena izan. Eguzkiari diotsat: *Zoaz amagana! Ez da ezer gertatu.* Palmondoaren enbor etzana gainetik astiro-astiro zehartuz noa, ezkatak oin alboekin ferekatuz, bere ilaje latza burmuineratuz. Azkenean, koroa errendituari diotsat: *Eskerrik asko, Palmira laztan! Ask, asko, asko!! Buff!!!*

– Amama Talitagaz hasiko naiz. Hamasei urteko apaizgaia nintzela, Bilboko San Frantzisko kalean nindoan, seminariotik etxerantz, gure erreinu moralaren alderantzia usnatu guran. Beno, handi-handika kontatuko dizut, xehetasunekin ez zorabiatzeko.

– Xehetasunak maiteago ditut funtsa baino, gure amamaren kasuan, batez ere.

– Ondo. Neu ere xehetasunen kontaketak plazertzen nau. Zure amama, orduan hogeita hamabost bat urte izango zituena... –eta halaxe joan nintzen dena jaulkiz, bere isiltasun osoa lagun, honela amaitu arte, begietara lehen aldiz begiratzen niola: –Horra eskandalu suntsigarri bat izan zitekeena, mutiko aingeruzko baten argiztopen bihurtua.

– Gure amama pertsonaia totala da. Eta maitagarria!

– Tonu konbintzentean esan duzu. Ba, zure amarena ez zen gutxiagorako izan. Apaiz talde baten itxialdi entzutetsu baten ordezkari eta informatzaile, Bilboko San Frantzisko auzora iritsi nintzen batean... –eta halaxe kondaira guztia.

– Amamaren alaba! –hots egin zuen kontaketa amaitzean, aire melankolikoan.

– Eta zu bien jarraipena. –Artean, berdegune zabal eta aberez betearen hegaleko haitz leun batean eserita geunden, geure itzalak luzatzen ikusiz, bizkarra epeltzen zigun eguzki jada nekatuari esker. –Nork esan behar zidan hau gertatu behar zitzaidanik!

– Gertatu da, ba.

– Eta begira nolako ofizioen artean!

– Gure ofizioa ez da dena merkatu. Maitasuna ere badago.

– Nire ofizioagatik ez dakit zer esan, utzi bainuen, baina merkatua ere ez zait gaitzi.

– Honaino ekarri banauzu, eta ekarria izatea onartu badut, ez naiz hasiko zure sentimenduez dudatzen. Ala bai? Pentsakor dirudizu.

– Zoririk ez zegoela erabaki genuen, eta kasualitateak ugaldtu.

– Batzuetan, onezkoak izan daitezke.

– Hiru Talitok zerbaitegatik zatozte bat "emaidazu zorte ona" delakoan. Nire kasuan esan dezaket zortetsu izan naizela.

– Pospolo ziztrin batzuenagatik.

– Errakuntza ridikulu bat! Abiatuko al gara beherantz?

– Nik ez daukat presarik.

– Baina zure denbora ere... aurrera baitoa...

– Ez zara beldur izango denbora hau ordaindu beharko ote duzun, ezta?

– Tratua horixe izan zen.

– Alferrik esan al dut gure ofizioan badela maitasuna ere?

– Mesedez, Talita! Nik ez dut horrela nahi. Zerbitzu arrunt bat baino mila bider pozago ordainduko dut bizitzako esperientziarik miragarrienetako nau.

– Ahaztu! Talita naiz, entzun? Talita Márquez!

– Barka. Ez dut zure adeiaz abusatu nahi. Goazen astiro-astiro.

– Beste gabe?

– Kontakizuna amaitu da.

– Ezin da apur bat luzatu? Inguru zoragarri honetatik alde egin behar al dugu, maitasunari beste formarik eman gabe?

– Oh, Talita! Nik zorteari ez diot hainbeste ontasun eskatzen. Eman dizut kontakizun intimo bat. Eman didazu denbora oparo bat. Utz dezagun horretan.

– Zergatik utzi behar dugu horretan hobeto uzteko modua duena?

– Ez dut nahi gerta dadin funtsean betikoa nahi dugula beti. Honen elkartzeko singularrak gehiago merezi du, amai topikoa baino.

– Zergatik izan behar du betikoa, are gutxiago, topikoa? Ofizioak zergatik eragotzi behar dit neuk ere gozatzea maitasun doako eta nahitakoa?

– Talita! Ez pentsa inondik ere arbuiatzen zaitudanik. Neska ikusgarria eta exzitantea zara. Zugana ekarri nauten aurrekariekin, desioaren xede idealtzat geldituko zara nire gogoan. Badakit tren oren azken grina geltoki terminala dela, baina handik ez dago aurrerarik. Itzulera bakarrik. Onenean, errepika.

– Zergatik ezin da ibili, itzuli gabe aurreratzeko moduan?

– Geometrikoki errazena litzateke, luzean zein biribilean, baina pertsonen limitazioak ez du uzten trazadurarik, berriz pasatzea saihesteko modukorik.

– Beti dago askatasuna, pasatzeko edo ez pasatzeko.

– Oh, askatasuna! Jendeak maitasun librea dioena grina bulgar bat da. Benetako askatasuna da maitasuna –biolentzia salbu, jakina!– zernahi egiteko objektu bihurtzea, poesia eta aszetika barne. Utz nazazu posibilitate erreala baten sentipen gozoan.

– Nire sentimendua ez da konda?

– Kasu honetan suposatzen da ni bezero eta zu zerbitzari garena. Egunen batez, zeuk ni bilaturik elkar bagintez, zin dagizut zeure erara izango dela, nahiz eta susmatzen dudana historia hunkigarri honek ez dukeela

jarraipenik.

– Horrek gaurkoa osatzeko arrazoï bat izan behar luke.

– Garai dezagun, behingoz, maitasun konpletoaren mitoa! Utzidazu gorde zaitzadan desioz kargaturiko ilusio iraungiezin bat bezala.

– Poeta, apaiz ala gnomo bezala mintzo zara?

– Zure amamaren iniziatu eta zure amaren kontsumatu bezala mintzo nauzu.

Burua makurtu zuen, eta zelai samurrean, autorantz abiatu ginen, isilik. Bidean, hatz mamiekin takadatxoak eman zizkidan eskugain esekian, galdetuz bezala: *Hau ere ez?* Eskutik heldu eta estutu nion. Uneka, begiak itxi eta ninfa baten materia irudikatzen nuen, nire gaztaro antsioseko mitologiak bazuela alderantzizko bidea sentitzeko. Bere klub txiki anonimoaren aurrean, *agur eta zorte on benetan!* opatu nionean, hauexek izan ziren azken hitzak, bereak eta nireak:

– Musu bat eman daikezut?

– Trena joanean uzteko era dotorea litzateke.

Gehiago ez dut ikusi, baina musua ez da amaitzen.

BIBLIOGRAFIA

Hitzaurrean aipatu dudan "adiskide on eta zientzialari jakintsuak" gomendatu dit bibliografia zerbait ere jartzeko. Ni ez naiz gramatiken bibliografian aditua, eta azken aldion, asko ibilia ere ez eurretan. Liburu honen aurrekari izan zen *Euskara batuaren bigarren jaiotza* izeneko saiakeran, orduan bai pasatu nituen ustez garrantzitsuak ziren gramatikak. Aspaldi samar izan zen hori, lan hura urteetan egon baitzen ordenagailuan. Gramatika handiez gainera, euskaltegietan-eta agertzen ziren eta agertzen darraiten material asko pasatu nituen esku artean. Hauek aipatzerik ez du merezi, euron azalpenak, gehienez, gramatika handietatik hartuak izaten baitira.

Horiek horrela, neuk gehien erabili ditudan iturriak bakarrik aipatuko ditut, honakoak eurok:

- *Morfologia Vasca*. R. M. Azkue.
- *Erderismos*. Sebero Altube.
- *Genio y Lengua*. Ibar (Justo Mokoroa).
- *Grammaire basque, Navarre-labourdin littéraire*. Piarres Lafitte.
- *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak (EGLU, Euskaltzaindia)*. Pello Salaburu.
- *Gramatika bideetan*. Patxi Goenaga.
- *Euskal gramatika*. Txillardegui.
- Karlos Cid Abasoloren honako esteka: <http://www.ehu.es/seg/morf/5/20/4>

Baliteke nire "ebidentzian" saiakeran planteatzen diren auziak eta ustez ematen diren soluzioak jada emanak edo hobeto emanak izatea beste iturri batzuetan. Hala dela agertuko balitz, poztu besterik ez naiz egingo, adostasun bat gehiago ekartzearren.

ELKAR

Ari naizela bilduma

1. Mende baten aldarriak XX.ean jarriak
2. Olatu bat kuartelen gainetik
3. Euskara batuaren bigarren jaiotza
4. Zazpi ebidentzia birjaiotzarako